

KLASIKOAK, S.A. lukro-asmorik gabeko elkarateak argitaratu du obra hau, elkaratearen sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik:

Fundación BBVA

•

Bilbao Bizkaia Kutxa — BBK

•

Gipuzkoa Donostia Kutxa — KUTXA

•

Caja VITAL Kutxa

•

Euskal Herriko Unibertsitatea — UPV/EHU

•

Deustuko Unibertsitatea

MORALA ETA
ERLIJIOAREN
BI ITURRIAK

HENRI BERGSON

Morala eta erlijioaren bi iturriak



Euskaratzailea: Xabier Mendiguren Bereziartu
Berrikuslea: Joxe Azurmendi
Hitzaurregilea: Jaime de Salas eta José Atencia

Lehen argitalpena: 2002ko apirilean

© Itzulpenarena: Xabier Mendiguren Bereziartu
© Itzaurrearena: Jaime de Salas y José Atencia
© Klasikoak, 2002
Begoñako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo
Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren
pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta
trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren
bidez banatzea ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia

2002-II-7

ISBN: 84-88303-25-4
Lege gordailua: BI.-855-02

Fotokonposaketa: L&A Diseinua
Begoñako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.
Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.
Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

HITZAURREA

Morala eta erlijioaren bi iturriak gaur egungo pentsamendua-ren klasiko baten azken obra da. Europar kulturari izan zuen toki gailena mende honetako bi lehen hamarkadetan zehar artean berria zena, gaur neurri handi batean ahazturik dago¹, Bergsonen obrak oroituia izatea merezi du filosofiak lor dezakeen adierazpen gorenetakoa bat den heinean.

Hasteko, tesi-sail bat proposatzen digu, oro har, errealitatearen ikuspen baterako bat eta gizakiak hartan nola portatu behar duen. Horrela irakurleari proposaturik, hark epaitu egin behar ditu, balioz-kotzat eman eta hala badagokio zuzendu begi-bistakotzat onartu baino lehen. Hartara, filosofiaren egiteko karakteristikoetako bat beteko du: non gauden argitu eta egin behar dugunera orientatu. Bestalde, *Morala eta erlijioaren bi iturriak* obrarekin Bergsonen arte-obra bat eskaintzen digu, eta dimentsio hori ez litzaiguke axolagabe gertatu beharko. Jakina, egiaren esperientzia esperientzia estetiko ere bada: egiazkotzat onartzen duguna ongi argudiatua egon ez ezik ekarpen positibo gisara ere asumitu behar da gauzen gure errepresentaziora. Adierazpenean asmatzeak ahalbidetzen du aurkezten zaigunaren aurrean agontzea, eta geure egitea artistaren eskutik bere errealitate propioa zabaldurik eta areagoturik ikusi duenaren irrikarekin geure egitea. Forma ona atsegina baino zerbait gehiago da: bizitzaren beraren adierazpen da, lehenik artistarena eta, gero, bereganatzen duen irakurlearena. Haren

obra onartua izan dadin ez da aski gure gustua eragitea. Baina, izatez, sentimendu hori gertatzen ez den bitartean ez dago gure izan daitekeen zentzurik eta gure bizitzako bilbea integratuko duenik.

Bat nator Ferraterrekin Bergsonen idatzien aurrean hartzen den lehen inpresioa lilurazkoa delakoan². Baieztapen hori pentsatzaile espainiarrak haren lehen bertsioari hitzaurrea ezarri zionean bezain egokia gertatzen da euskarazko bertsio hau aurkeztean. Oso gutxitan berdindu izan da pentsamenduaren eskakizunen mendean hizkuntza jartzeko gaitasun hori. Horregatik, une honetako planteamendu teoriko askotatik urrunduriko obra bada ere, klasiko baten tamainarekin iristen zaigu gure ordura. Hura irakurtzean giza talentuaren adierazpen goren, irakurlea instalatzen deneko errealitatearen ikuspen gisa eskaintzen duenera itzultzen da.

Liburu honetan, Bergsonen sistema bakar batean bere garaiko jakitearen parte handi bat txertatzen asmatzen du, pentsamendu filosofikoari dagokionez, hau da, era kritikoan eta eta esparru teoriko zabala-go batean kokatuz. Hala, *Morala eta erlijioaren bi iturriak* erlijioaren jatorri sozialari buruzko tesiaren ezeztapen bat izateaz gainera, gizartearen ikuspen positibistaren gainditzea, etika kantiarrari erantzuna eta kristautasunaren bertsio berria aurkezteko ahalegina ere bada³.

Guztiarekin ere, nekez errepresenta daiteke Bergsonen obra nolako arretarekin hartua izan zen obra polemiko soil gisa ulertzen bada. Aitzitik, haren hedatze handia izan zen, batez ere, berrikuntzarako bide bat bezala positiboki eskaintzen zelako, ez bakarrik filosofiarena, baizik aro bateko sentiberatasunarena ere bai⁴. Haren irradiazioak esperientzia zentral baten inguruan antolatutako pentsamendu baten izaera baieztatzaile nabarmenera igortzen du: iraupenaren⁵.

Izan ere, esperientziaren azken izaera onartzea da erantzunik zuzenena, ez pentsamendu positibista batentzat bakarrik, halako punturaino, non Bergsonen bere burua egiazko positibistatzat kontsideratzen duen, baizik eta Kantena⁶ bezalako obra batentzat ere bai, zeinak, azken finean, trazedentea denaren –baina haren existentzia ukatzeko bakarrik– prezedentzia sistematikoa berrezagutuko bailuke. Bergsonen ez gaitu argudiatze batera igortzen, baizik eta ebidentzia saihestezin batera. Horregatik, haren obra, elkarrizketazko truke baino areago, lehenik, errealitateari buruzko ikuspen propio baten arazketa baita, zeinak indarrean daudenak gainditzen baititu. Ikuspen hori,

lehenik, introspekzioaren bidez lortzen da: «Gutxienez bada errealitate bat barrutik denok atzematen duguna, intuizioz eta ez analisi soilez. Gure pertsona propioa da denboran zeharreko bere destolestean. Gure nia da iraunkor gisa aurkezten zaiguna⁷. Baliteke intelektualki, edo hobeto, espiritualki begikotasunik ez izatea beste ezerekiko, baina geure buruarekiko badugu noski begikotasuna»⁸. Hasteko, esperientziaren kontzientzia bergsondarra posizio enpiristen berrikusketa bat da. Horren arabera, gizakiak barne-esperientzia baterako irispidea izango luke, zeinak, bere tamainarengatik, positibismoak onarturiko guztia gainezkatzen baitu: «Bere horietan kontsideraturik, kontzientziaren egoera sakonek ez dute zerikusirik kantitatearekin. Kalitate huts dira. Halako eran elkarnahasten dira non ezinezkoa izango litza-tekeen esatea bat ala batzuk diren, ez eta ikuspuntu horretatik aztertzea ere berehalaxe andeatu gabe. Sortzen duten iraupena, bada, iraupen bat da, zeinaren uneek ez baitute anizkoitzasun zenbakizkoa eratzten [...]»⁹.

Esperientziaren onarpenez ez da haren erreibindikazioa bakarrik ulertu behar ezagutzaren helmena eztabaidatzeko orduan, baizik eta hura filosofiako metodo gisa etengabe erabiltzea. Tesi jakin bat, gizakiak era inturitiboz ezagutzen duelakoa, hau da, zuzenean, bizia den azken errealitate hori, hartarako gure hurbiltzean erabilitako tresna bihurtzen da. «Geure pertsona propioaz dugun kontzientziak bere etengabeko destolestean, errealitate baten barruan sartzen gaitu, zeina eredu bihurtzen baita, hartatik abiatu gainerako errealitateak errepresentatzeko»¹⁰. «Iraupen errealeraz itzuli den espiritua bizitza intuitibotik biziko da eta gauzen haren ezagutza filosofia izango da jadanik»¹¹. Bergsonen obraren lorpen metodologikoa datza errealitatearen dimentsio desberdinak hasieratik ikustean: ametsak, bilakaera, askatasuna, arima eta gorputzaren arteko erlazioak eta, gure kasuan, moralak eta erlijioa.

Kontzientziako datu bitartegabeei buruzko saiakeratik Morala eta erlijioaren bi iturrietaraino, Bergsonen obrak fenomeno bakar horri kontu eginez aurkitzen du bere batasuna. Lehena aztertzen duen barne-esperientzia biziari buruzkoa da. *Bilakaera sortzaileak* postu bereziki garrantzitsua du prozesu horretan, naturaren bilakaerako prozesuan zehar destolestu den printzipio handi bat bezala hura tratatua den heinean. Hartara, iraupena ez da introspekzio-gai gisa bakarrik

kontzebitzen, baizik Biziraino jasotzen du, hau da, bilakaeraz gertatzen den printzipio objektiboraino. Beraz, *Morala eta erlijioaren bi iturriak* ulertzeko, lehen obrak ezartzen duen oinarri kritikoa bakarrik ez da kontuan hartu behar, bai eta *Bilakaera sortzaileak* aurkezten digun bilakaera-markoa ere¹².

Morala eta erlijioaren bi iturriak obrari dagokionez bi dira bilakaeraren haren teoria abalatzten duten ondorioak. Lehenik, «Adimena eta soziagarritasuna berriro birkokatu behar dira biziaren bilakaera orokorrean»¹³, eta, ondorioz, giza sozietatearen ulerkuntza bilakaeraren prozesu orokorraren barruan kokatu beharko du hori¹⁴. Etapa bakoitza berrikuntza bat da aurrekoekiko, baina aldeaz aurretik existitzen zenari eustea ere suposatzen du. «Denak laguntzen du, [...], ordena soziala gauzetan nabari den ordenaren imitazio bihurtzen»¹⁵. Bestalde, eboluzionismo bergsondarra ez da, Darwinen kasuan beazala, hautespen naturalaren emaitza, baizik eta prozesu emergente gisa agertzen da, zeinean agertzen baitira bizi-forma berri eta garaiaagoak, zeinak hurrenez hurren agertzen baitira harik eta biziaren forma garaiaago hura lortu arte, Bergsonen arabera, mistiko handien bizitza errepresentatzen duena.

Alabaina, pentsamendu bergsondarreko lorpen horrek –bakarra ez denak– hain zuzen ere, derrigor eztabaidatuenak izango diren puntuetako bat sartzen du. Zentzu horretan *Morala eta erlijioaren bi iturriak* hiru auzi zentral planteatzen ditu:

1. Zer neurritan aurki daiteke erlijioaren zentzua, Bergsonek egiten duenez, bizira joz?, eta, zehatzago, zer neurritan eskatzen du koherentzia sozialak norbanakoak erlijioari esker bere egoismoa gainditzea?

2. Nola liteke moral ireki bat moral garaia gotzat onartzea?

3. Zer puntutaraino izan liteke iraupenaren intuizio absolutua partikularra denaren murrizpenak gaindituko dituen?

Termino orokorretan, posizio bergsondarrarekiko gure erretikentziek pentsatzaile frantsesak kontuan hartzen ez duen tesi batera igortzen dute: esperientziak erakusten digu gizakiaren existentzia nirean eta inguruabarraren arteko elkarriketa bat dela, zeinean inguruabarraz beste gizakiak, natura eta kultura ulertzen baita, maila berean. Puntu horretan, Bergsonen gure analisirako zentrala den horretan, Ortegari jarraitzen diogu.

Jakina, Bergsonen errealtatearen ikuspen ororen oinarrian beste kontrajartze bat dago, hau da, materia eta biziarena¹⁶, baina erlazio hori, nahiz eta oinarrizkoa eta iraunkorra izan, ez da berez elkarriketa, errealtatea bera eratzen duen elkarriketa, gizakiaren kasuan gertatzen denez. Zentzu horretan, ezin daiteke suposa norbanakoak bestearen posizioa asumitzea eta berea haren funtziotan definitzea, partzialki bederen. Materia eta biziaren arteko elkarrekintzak bata besteari kontrajartzen zaizkion aldeez aurretik eraturiko bi errealtateren elkarrekintza mekaniko bat¹⁷ sortzen du. Horien topaketatik ondoriozta daiteke erreala denaren taxuera, taxuera-multzo bat bera ere bai, baina ezein kasutan ezin da baieztatu materiak ez eta espirituak ere kontzienteki beren taxuera hartzen dutenik kontrajartze horri esker¹⁸. Aldiz, gizakia eta inguruabarraren arteko erlazioa ulertzen dugu erlazio dialektiko gisa, zeina ez baita gailurtzen honek harekiko egiten duen erabateko hurrupatze batean dialektika hegeldarraren¹⁹ kasuan bezala, baizik lehenaren bizia ahalbidetzen duen munduaren interpretazio batean. Izan ere, gutako bakoitzak ikuspegi bat du unibertsoaz, hau da, errealtatearen errepresentazio bat bere orokortasunean, zeina gabe gure bizitzak ez bailuke zentzurik izango.

Printzipio hori posizio bergsondarraz ondoren egingo ditugun iruzkin kritikoen azpian egongo da, zeinek ez baitute ahazten pentsalari frantsesaren talentu bikaina ez eta haren tesi zentralen asmatze sarri, nahiz eta partziala ere. Hitz batean, guk ez dugu biziaren intuitzio bat sinesten errealtate absoluturako irispide gisa, areago biziaren esperientzia norbanakoa eta munduaren arteko etengabeko elkarrekintza gisa²⁰.

Ondorio metodologikoak argiak dira: azken indar baten erre-presentazio batera jo gabe, geure aurrean daukaguna hartu behar dugu kontuan, errealtatearen errepresentazio bat edo, berdin dena, gauzen arteko gure egoera. Bergsonen pentsamendua intuitziotik kanpotik ezagutzen diren fenomeno-multzo baten azalpena pasatzen da. Lehen printzipioaren izaera infinitutik partikularrerako bidea urratzen du²¹. Aldiz, Ortegak filosofiaz duen kontzepzioak gogoetabidez bizi-tzaren propietateak finkatzea eskatzen du: ez da esperientzia bukatugabearen onuraz baliatzen, ez eta ez dio aurre egiten absolututik erlatiborako igarobide zailari ere.

Bada, printzipio horren argitan gorago formulatu ditrugun hiru galdera haiei erantzun beharko diegu.

1. Bergsonek erlijio estatikoa, gizartearen biziraupena eta giza-kiaren azken beldurren artean ezartzen duen erlazioak, neurri handi batean, Spinozak *Tratatu teologiko-politikoan* eta freudianok *Lilura baten etorkizuna* eta *Kulturaren ondoeza* obretan egindako analisiak gogoratzen ditu. Izan ere, lehena frantses filosofoaren posizioaren aurrekari argia baita. Erlijio batek errealitateaz egiten duen erre-presentazioak ez luke izango propioki egia literalaren baliorik funtzio bat beteko ez balu: norbanakoa gizarte jakin batean afektiboki integratzea lortzearena²². Spinozarentzat, autoritateari zor zaion obedientzia da; Bergsonentzat, egoismo bati uko egitea, zeinak kulturak berak eskatutakoa bada ere, gizartearen batasuna arriskuan jar baitezake. Beraz, bientzat ezarritako erlijioa ulertzen da, lehenik, ez errealitatearen egiazko erre-presentazio gisa, baizik eta bizitzak gizartean duen dimentsio gisa²³. Bestalde, Bergsonentzat, Freud eta Spinozarentzat²⁴ bezala, erlijioa aseguru bat da gizakiarentzat existentziako gaitzen aurrean.

Jakina, erlijioak funtzio horiek betetzeak bizitza kolektibo eta indibidualean eztabaida ezina da. Baina horietara erreduzigarria izatea beste auzi bat da. Gainerakoan, sinestunak bere erlijioa literalki egia dela ulertzen du. Hala ere, gure ikuspuntutik, Bergsonena bezalako interpretazio batek ezer baino lehen norbanakoak bere gizarte propioarekin duen loturaren izaera planteatzen du. Jakina denez, bi azalpen-familia handi daude erlazio horrenak: gizaki oro izaeraz soziala delako baieztapen aristotelikoan paradigmatikoki haragitua, eta gizartea hiritarren arteko akordio baten emaitza dela ulertzen duena, Lockeri jarraituz. Bergsonen posizioa bi posizio horietako lehenean sartuko litzateke. Biziak printzipio esplikatzaile gisa aukera ematen dio gure autoreari, hemen aurkeztzen ari garen obra honetan zehar, soziagarritasuna gizakiak gainerako animala izakiekin ezinbestean komunean duen zerbait bezala ulertzea, nahiz eta gertakari desberdintzaile batekin, hau da, bere egoismoaren eta bakartzeko joeraren indarrez, erlijioarekin kontatu behar izatearekin printzipio konpentsatzaile gisa bere instintu soziala ahultzeko. Erabakiaren aurrean edo, gutxienez, erlazio kontratuzko batek inplikatzeko duen bizikidetzat onartzeko, gizakia bere kideengana hurbiltzen duen natura baten ekintza berrezagutu beharko litzateke azken azalpentzat. Printzipioz, konbentzitu egi-

ten gaitu naturalismoak gizakiaren lotze soziala besterik gabe askatasun-ekintza batez hasten dela pentsatzea zaila gertatzen den heinean, zeren bizitza sozialeko baldintza batzuen erreferentzia, logikoki hartaz aurrekoak direnena beharrezkoa baita. Guztiarekin ere, ulertzen dugu zenbait ohar kritiko egin dakizkiokeela Bergsonen jokamoldeari.

Partez, posizio bergsondarraren balioaren eztabaidak igortzen du Bergsonek biziaz eta haren bilakaeraz dituen doktrinak, espezifikoki *Bilakaera sortzailean* finkatzen dituenaz onartzera edo ez. Baina izango dugu aukera, iruzkin honen hirugarren epigrafean, printzipio horrek planteatzen dituen zailtasun epistemologiko eta metafisikoei kontu egiteko.

Bigarrenik, galde liteke ea erlijioa den norbanakoa gizartean txertatzeko bitarteko bakarra edo, garrantzitsuena bera ere. Badirudi, aitzitik, lanaren pisuak, eta horrek ezartzen dituen maila guztietako erlazioenak, egundoko helmena dutela gure mendeko gizarte aurreratueta. Lanaren bidez indarra hartzen dute balioek, zeinek, aldi berean, beren baitan baitaramate norbanakoaren baieztapena eta haren mugapena, hau da, testuinguru sozial batean integratzearen prozesu normala. Gaur eguneko gizartearen irudi bat, Marcusek *Gizaki dimentsiobakarrekoan* eskaintzen duenak mendez mende erlijioa izan den bezaina hertsapen-mekanismo garrantzitsua berrezagutzen du. Bergson oso kontziente da iraultza industrialaren garrantziaz, baina ez ordea kontsumo-gizarteak dakartzan erlazio sozialez, zeina irizpide hedonistez erlijiosoez baino areago gidatzen baita.

Azkenik, pentsalari frantsesak eskaintzen duen gizarte-bizitzaren errepresentazioa askieza gertatzen da hura errealki gertatzen den formari dagokionez. Bat etorriko ginateke Ortegarekin gizarte-bizitza zer den kontuan hartzen ez duelakoan²⁵. Presio sozialaren garrantzia alde batera utzi gabe, zeina arrazoiz azpimarratzen baitu Bergsonek, haren bilbea ezin daiteke gehiengoaren mimetismora murriz. Aitzitik, gizakien pertsonarteko erlazioek errealitate berri baterako bidea urratzen dute. Hortik dator erlazio horiei buruzko erreferentziarik ez izatea mugatze garrantzitsua bakarrik ez, baizik eta, batez ere, metodo baten mugak agerian jartzen dituen izatea, zeinak bizitza sozialean izatez gertatzen dena kontuan hartu gabe fenomeno-multzo baten oinarri metafisikoa aurkitzen kontzentratzen baita.

Puntu horretan, gizarteko bizitzan ez da oinarrizkoa hertsapena ez eta berrikuntza ere besterik gabe, sozializazio-prozesua baizik, norbanako-identitatea lortzea eta gizarteko kideen aldetik balioak asumitzea; asumitze horrek ahalbidetzen ditu nola berrikuntza hala hoberenen gobernu soila. Edozein kasutan, gizarte baten orekarako ez da hain esentziala natura gaingitu eta historikoki berrikuntzak egiteko gaitasuna –Bergsonen iradokitzen duenez–, baizik ingurune sozialean balioek indar efektiboa izatea areago. Bizitasunak eta berritzeko gaitasunak berak ez diete egoerako eskakizunei erantzuten bakarrik, zeren izatez une historiko jakin batean erantzun asko baitira ahalgarri. Hoberenak, sortzaileenak, krisi baten sakonera gorabehera, substratu kredentzialean errotze-gradu jakin bati etekina ateratzen diotenak dira. Norbere kulturaren jabetza horren indarrez baliteke hori kultura sortzaile bihurtzea.

2. Bigarrenik, autore bakoitzarengan agertzen zaigun esperientzia moralari kontu egin behar diogu. Hori bai, moralaren esparruan eztaba daezina da Bergsonen obrak oro har duen balioa²⁶. Oso era agerikoan jotzen du norbanakoaren askatasuna eta espontaneotasuna baieztatzen, baina horrek ez du esan nahi hura bere osotasunean onar daitekeenik.

Ez dugu mugatu behar haren teorien justifikazio kritikora –nahiz eta gai horrek presente egon behar duen–, baizik eta haiek aurkeztu duten bizi-eredu hobeari ere jaramon egin behar diogu. Filosofo handiek bizitza ahalgarri bat erditzen dute, hurbilekoa gerta dakigukeena edo ez, bideragarria edo bideraezina ere bai. Ikuspegi hori oinarrizkoa da hari harrera egiterakoan.

Bergsonen pentsamendutik erator daitekeen irakaspen zentrala datza bizitzak daukan ahalmena berrezagutzean gizakia hartara egoki entregatzen denean eta gizarteak ezartzen dituen azturen mendean jartzeagatik zabartzen ez duenean. Konbentzionalki ezarririk dagoenaren gainetik, adimenaren irakaspenez haraindi, bada norbanakoarengan funts bital bat haren portaeran baieztatu behar dena. Bizitzak gidatu behar gaitu, beraz, eta ez adimenak.

Horregatik, posizio hori zentrala da haren obran orokorrean harturik eta hartan garapen ugari aurkitzen ditu. Iruzkintzen ari garen obrako pasarterik lortuenetako batean²⁷, Bergsonen emozio sakona aurrezartzen dio sorkuntza suposatzen duten ekintzen errepresenta-

zioari, hau da, subjektuaren baieztapen beteari eta forma berrien asmakuntzari. Tesi hori gerora esperientzia mistikoaz, bere izaera sortzaileak ezaugarritzen duenaz garatzen duen interpretazioaren osagarri da. Hona hemen bizitza eredugarria, zeinera bizitza moralak hurbildu behar duen! Izan ere, mistikoa errealtate goragoko baten esperientzia ez-ezagutzazkoak jabeturik dauka. «Gure begietarako, mistizismoaren helduera kontaktu-hartzea da, eta ondorioz, bat-etortze partziala, biziak agertzen duen ahalegin sortzailearekiko. Ahalegin hori Jainkoarena da, Jainkoa bera ez bada. Mistiko handia materialtasunak espeziari ezarritako mugak gaindituko lituzkeen norbanakoa izango litzateke, horrela jainko-egintza jarraitu eta luzatuko lukeena»²⁸. Bat etortze hori kontzientea da nahiz eta ezinezkoa izan Jainkoa erabat atzematea. Esperientzia mistikoa izaten denean «poz neurgabea, bere burua hurrupatzen duen estasia edo pairatzen duen jasoaldia: Jainkoa han dago eta bera Harengan dago»²⁹. Erabakigarria da bizitzaren esperientzia areagotua, batez ere, mistiko kristau handiengan nabarmentzen dena, zeinak Bergsonen honela ezaugarritzen baititu «dike bat hautsirik bizi-korronte neurgabe bat jabetu da horietaz eta horien bizitasun areagotutik energia, ausardia eta kontzebitze- eta burutze-ahalmen apartekoa jalki dira.»³⁰ bezala. Azken errealtate baten esperientzia agertu eta baieztatu egiten da gertakari batean, zeinean sentimendua eta adimena absolutuak oraturik aurkitzen badira, nahimenak, alderantziz, ekoizteko eta Jainkoa haren bitartez lan egiten duela sentituz jokatzeko premai du. Artistari «bultzada erresistiezina, egiteko handienetara jaurtitikizten duena. Bere ahalmen guztien goratze bare batek handitasunez ikustea egiten du, eta, nahiz eta ahula izan, ahaltsu jardutea»³¹.

Azken finean, mistikoa da materialtasunaren mugakizuna argiroen gainditzten duena eta bizitza printzipio sortzaile gisa baieztaten duena. Horregatik, moral ireki baten ideala haragitzen du, hau da, norbanakoak bere askatasun propioa baieztatzearen eta forma berriak sortzearen jaidura saihestezinari erantzuten diona. Gurariaren moral hori betebeharraren moralari kontrajartzen zaio, Bergsonen arabera, gizarte itxiak ezaugarritzen dituenari, ezer baino lehen beren bizirik iraute propioaz kezkatutik dauden eta aztura eta solidaritate ezarriak gidatzen dituenak. Hala ere, mistikoa ez da errepikatze mekanikoan erortzen, baizik eta, bere barne-esperientziaren indarrak eraginik,

benetako berrikuntzak burutzen ditu existitzen denarekiko. Beraz, kontrajartze argi eta garbia gertatzen da moralaren bi formen artean bigarrenaren kaltetan, zeinak jotzen baitu historikoa denaren esparruaren barruan naturaren multzo osoa ezaugarritzen duen batasuna birsortzera. Mistikoaren moral irekiak, aitzitik, bilakaeraren amaiera dakar eta horregatik da bizitzaren beraren adierazpen handiena³².

Hori guztia oso zaila gertatzen zaigu onartzeko. Lehenik, mistikoaren bizitzaren eredugarritasunak arazo oso espezifikoak planteatzen ditu. Zehatz esateko, ideal bat da moralarentzat baina bera ez da propioki morala. Subjektu moralarentzat, mistikoa da, bizitzak posediturik aurkitzean erreferentziako objektu bihurtzen dena. Jadanik ez da hori morala denaren esparruan inskribaturik aurkitzen, zeren ez baitu propioki hautatzen, baizik eta printzipio garaio baten mendean jarri baita; zailtasun hori subjektu moralari berari hedatzen zaio. Bi kasuetan, bai intuizio kontenplatiboan eta bai portaera moralean, ezagutza ez da berez aski gizakia bere benetako konbertsiora gidatzeko. Gehien egin dezakeena alde aurretik dagoen barne-disposizioa iratzartzea da. Ez da bizitza moralera igotzen, baizik eta hori barrutik kanpora gertatzen da pertsonalitate singular jakin batzuen kasuan. Hala, bergsondar pentsamenduak pentsamendu innatista orok propioa duen zailtasun hori ageri du. Bere aurrepostuen legitimazioa barrutik bakarrik egin daiteke. Kanpotik, kasurik hoberenean, egiantzeko eraikuntza bat da³³, proposamen iradokior bat, baina indar frogatzailerik ez duena.

Alabaina, arazoa testuinguru zabalago batean planteatu daiteke. Konbentzi gaitzake benetakotasun halako baten erreibindikazioak esperientzia moralaren helmuga gisa. Bere portaeran, norbanakoa ez da lege bati men egitera mugatzen, baizik eta bere buruarekin identifikatzen da. Bergsonen pentsamenduak badu –Ferraterrek seinatu duenez³⁴– dimentsio bat, existentzialista ez bada, gutxienez aurre-existentzialista dena, bizitza hautematen den heinean eta, ondorioz, –gehituko genuke guk– hari darion portaera morala, naturatik gorantz irtenez bezala. Ez dago propioki aurreratua alde aurretik existitzen zen horretan, baizik eta gizakiak gainezkatu egiten ditu bere ahaltasun-baldintzak eta gune berriak sortzen ditu bere portaera etikoarekin eta bere portaera etikoarentzat. Baina onar daiteke hori ametitu beharrik gabe errealtate erradikala bizitza dela Bergsonen obran terminoak hartzen duen zentzu biologikoan. Aldiz, bada, gure ikuspuntutik,

arrazoi oso indartsu bat errealitatearen haren kontzepzio biologistatik urruntzeko: adimenari esleitzen dion tokia esperientzia moralean. Izan ere, Bergsonen arabera, hori bigarren mailakoa da esperientzia edo bizitzaren intuizioarekiko.

Bestalde, adimenari mailegatzen dion izaera sekundario edo instrumentala onartezina da. Ez dugu arrazoi hutsaren balioa baieztatzeko asmorik esperientziaren aurrean, baizik eta bizitza garatzen deneko egoeraren aipamena egin nahi dugu, zeinean, izatez, baliarazten baita adimena niaren eta inguruabarraren arteko topaleku gisa ezaugarrituz. Testuinguru horretan, arrazoiaren erabilpena ez da gero-ko zerbait, baizik giza kondizioak bere baitako zerbait du. Ez dago gizakirik hura eratzen duen errealitaterik gabe, eta hori adimenak begien aurrean ezartzen diona da³⁵.

Noski, bizitza morala existentziaren baieztapena da, baina hori baino zerbait gehiago ere bada. Adimenaren erabilpena eskatzen duen bizitze baten baieztapena da –Bergsonek hala sinatuko lukeenez– baina, hori bai, kontzientzia argi eta aktualera jasoz existitzen denaren edo munduaren tamaina. Zentzu horretan, gauzen eta gizakien errepresentazioa baldintza hutsa baino zerbait gehiago da bizitza morale-rako, arazo bati buruzko datu-multzoa da, zeinaren ebazpenak agerian jartzen baitu gaitasun etikoa bera. Gure bizitza propioaren irazkia eratzen dute eta, horregatik, ez dira ulertu behar joko-arau batzuetan aurrean erabiltzeko instantzia gisara, baizik gure errealitate propioaren dimentsio ordeztzein bat bezala³⁶. Portaera moralean gerta daiteke, izan ere, berrikuntza jadanik existitzen zenarekiko eta, horregatik, gerta liteke gizakia inguratzen duenaren gainditze bihurtzea, baina nagusitasun horrek ez du norbere buruarekiko soilik errespetua eskatzen, bai eta integraturik dagoeneko errealitatearekiko ere.

Egia da ikuspegi indibidual bakoitzaren baitan osatzen duten elementuen artean hierarkia eta sakonera halako bat aurkitzen ditugula. Zehatzago esateko, bokazio terminoaren azpian biltzen diren jaiduren multzoak oinarritzko funtzioa betetzen du bizitzaren orientazioan. Axiologikoa denaren gailentasun halako bati euts dakioke horrela eta, beraz, ikuspegi indibidualean barruan emozioa pizten duenari. Ikuspuntu horretatik, bokazioaren garrantzia aitortu beharra dago, norbanako baten bizitza gobernatzen duten jaiduren multzo gisa, eta

zeinek suposatzen baitute balio jakin batzuk berrezagutzea. Hala ere, bokazio propioa, haren izaera inkontziente eta dinamikoa gorabehera, ez da jaiotzatiko zerbait soilik, baizik eta bizitzaren itxarotearen emaitza, zeina ikuspegi indibidual bat taxutuz baitoa, bai eta haren nahirik sakonenak ere. Horregatik, besterik gabe pertsonaren hondoko bitalitate aipatzea, beti azalpen osatugabe bat da. Jakina, bitalitate hori gertatu egiten da eta giza bizitzaren kondizio da, baina horren bilbea ezin daiteke haren baldintzetako batekin nahas, nahiz eta ezinbestekoa izan harentzat. Bizi bat ez da hobe animatzen duen bitalitatearen indarrarengatik, baizik norbanakoak bere buruarekin identifikatzea lortzen duelako, maila handia batean, bere inguruabarra berrurrupatzea, zeren zain egon jakitea eta benetako izatea, hau da, bere bokazio propioarekiko leial izatea. Bizi bete baten kualitate propio horiek haren barnetasunean lortzen dira eta ez haren kanpotik. Gainera, elkarritzeta bat dira gizakiak bere buruarekin eta munduarekin egiten duena, bai eta, uneoro, adimena erabiltzea³⁷.

Horrek guztiak eragina du, berriz ere, giza esperientzia ulertzeko eran. Ez da hainbeste barne-indar bat agertzea, zeinak bultza egiten baitio norbanakoari modu jakin batean portatzera bere kideen aurrean, baizik eta nia eta bere inguruabarraren arteko elkarritzeta bat areago, zeinean mutur bakoitza, aldi berean, erreduziezina eta saihestezina baita bestearentzat.

3. Hirugarren desberdintasun oinarritzkoa absolutuaren kontzepzioaren bideragarritasunari buruzkoa da, Bergsonek aurkeztzen duenez. Puntu horretan, gure arazoa ez dago era adierazgarrian gradazio bat eta kontrajartze bat aldi berean gertatzean, adimenak aurkeztzen duen errealtatearen eta intuzioaren bidez lortzen denaren artean. Baldin eta norbera –Bergsonek egiten duenez– absolutuaren ikuspuntuan kokatzen bada, egingarria litzateke noski, berez erlatiboa dena hartan integratzea horregatik haren erreduziezintasuna arriskuan jartze gabe. Areago iruditzen zaigu –dagoeneko aditzera eman dugunez– betebeharra eta gurariaren arteko polarizazio bergsondarrak ez duela kontuan hartzen gure bizi-esperientzia propioa³⁸. Gure iritziz, erabat onargarria da ulertzea esperientzia morala ez dela azken errealtate bat baizik azken oinarri jakin batera igortzen duela³⁹.

Halaber, konbentzigarria da azkentasun hori arrazoi hutsa besterik gabe ez delako tesia, kantiar inperatibo kategorikoaren kasuan

bezala. Hala ere, ulertzen dugu ez dagoela desberdintasun kualitatiborik Bergsonek une batzuetan ezartzen duena adimenaren eta intuizioaren, betebeharra eta gurariaren, ni sozialaren eta ni benetakoaren, edo fabulazioaren eta maitasunaren artean.

Lehenik, hautematen dena ezin daiteke hitzek begiztatzen duten bilbe adierazleaz aparte hauteman, nahiz eta inoiz ez den horietara mugatzen. Jakina, gertakari horrek suposatzen du intuizioak –guri dagokigunez– errealitatearen esperientzia bezala besterik gabe ulertzen duguna, ez da erortzen hurrengo printzipio baten gainera, Bergsonek nahi duenez. Aitzitik, errealitatearen gure esperientzia uste dugu gertatzen dela azken horren oinarria agerian jarri gabe⁴⁰. Gizakiak interpretatzen duen heinean, hartan barne-arrazionaltasun bat berrezagutzea lortzen du eta, aldi berean, bere existentziaren zentzua atzematea. Baina ataza amaiezinak dira, zentzu-horizonte bat dagoen heinean, zeinera ezin baita inoiz iritsi. Edozein kasutan, azkentasuna ezin daiteke alteritate batean aurkitu, zeina intuitiboki azken gisa aurkezten baita, baizik gizakiari bere esperientzia fenomenikoan agertzen zaionaren taxueran areago. Bergsonek egiten dituen oharra adimenak giza kontzientziaren erabilpen eta bitartekaritza buruz, zalantzarik gabe, zuzenak dira, baina ezin daiteke ondoriozta haietatik gauzen gure errepresentazio intelektualaren erlatibitatea, zeinaren inguruan eratzen baita errealitatearen gure kontzepzioa. Filosofo frantsesak ez dauka kontuan, gizakiaren kasuan, adimenak inguruabarraren ikuspen bat ahalbidetzen duela, zeinarekin positiboki identifikatzen baita subjektua. Irudimena, adimena eta erreala denaren intuizioaren erabilpenari dagokionez elkarren lagunkide gertatzen dira. Une oro gertatzen da irudimenaren erabilpena bizitzan, eta hori gizakia bere burua proiektatzen duen izakia den heinean. Baina horrek ez du esan nahi irudimena hautazkotasunez erabiltzen denik, zeren haren erabilpena gertakariei doi dakieke eta hala egitea beharrezkoa ere badu.

Analogikoki, betebeharraren eta gurariaren arteko kontrajartzea ez da asegarria gertatzen. Onartzeko modukoa da gizarte-bizitzan kasu asko gertatzena, zeinetan gizakia beharturik aurkitzen baita egintzak burutuzera, zeinekin ez baita positiboki identifikatzen. Gizarte-presioaren izaera automatikoa eztaba daezina da, adibidez, *Gizakia eta jendea* edo *Izatea eta Denbora* obrek deskribatzen dutenez. Halaber, egia da

Bergsonek berrezagutzen dituela tarteko egoerak, adibidez esaten duenean, izatez, erlijio kristaua, alde batetik, mistiko desberdinengandik hartu duen bultzadaren eta, bestetik, gizarte itxi baten eskakizunen artean kokaturik aurkitzen dela⁴¹. Hala ere, ez du onartzen –egitea esentziala denez– lankidetzaren posiblea dagoenik betebeharraren eta gurariaren artean, halako moldez, non norbanakoak bere bokazio propioa gizarte-bizitzaren testuinguruan ikasten baitu. Kasu horietan betebeharraren sentimendu hertsatzaileak espontaneotasun sortzailearen pozari bide emateak ez du eragozten sozializazio-prozesuak berak egoera hori erreserbatzea egoki asumitzea lortzen dutenentzat. Horrek eskatzen dituen sakrifizioengatik sariak gainezka gainditzeko dituen pentsatzaile frantsesak berrezagutzen dituen plazerra edo segurtasuna; portaera propioak daukan balioaren kontzientzia datza.

Horregatik, hain zuzen ere, ni benetako, ahaltsu eta amorfo baten eta ni sozial, azaleko eta taxuera definitu batez hornituaren arteko kontrajartze bergsondarra askieza gertatzen da. Ni benetakoa ez da kontzientziaren azpian dagoen lehen indarra, baizik gizakiaren eta bere ingumenaren arteko elkarrekintza, zeinak ahalbidetu baitu hura era konkretuan definitzea. Gainera, ni horrek lodiera jakin bat du, zeinak behin eta berriz ihes egiten baitio subjektuaren begiradari, eta izan ere horrek kontzienteki ezagutzen duena bezain garrantzitsua da, hark sinesten duena, eta haren sinesteen artean aurkitzen da bizimodu legitimo baterako prestatasuna ikuspuntu pertsonal eta transferiezin batetik.

Azkenik, fabulazioa eta maitasuna ez dira aurkitzen errealki kontrajarririk, gizakiak bere ezagutza eta desira bakarrik ez baizik eta bere irudimena ere maite duenera orientatzen dituen heinean. Hori erabakigarria da objektu maitatua subjektuaren bizitzan txertatzeko orduan, Bergsonek berak mistikoengan berrezagutzen duen sormen hartarako aukera emanez. Hori bai, ez da gertatzen behar bezain txalogarria deberdintasun kualitatiboa lehen gizaki baten mitoen eta XX. mendeko eraberritzaile baten egitasmoen artean sostengatzea, baina nabarmen dezakegu garrantzi handiko desberdintasun kuantitatiboa gaur eguneko gizaki batek domeinu-kopuru handi batean bere gaitasun teknikoaren efikazian fedea duen neurrian, gainera, bere egitasmoak kontzienteki egia bihurtzeko bitartekoak dituelarik.

Jaime Salas eta Jose Atencia

OHARRAK

*Aipuak egitean orrialdeen zenbakiak honen arabera emango ditugu: *Oeuvres de Bergson*. Edition du centenaire, Paris, 1963 (aurrerantzean, *OB*); eta *Mélanges*, Paris, 1972 (aurrerantzean, *M*). Adierazten ez denean, aitzitik, *Morala eta erlijioaren bi iturriak* obrako pasarteak aipatuko dira.

¹ Salbuespen ohargarri gisa Deleuzek (1966) une ez oso urrundu batean jaso zuen arreta eta oraindik berriagoa den Gómez Caffarenaren erreibindikazioa (1985 eta, batez ere, 1991).

² Ferrater, 1942, 7 or.

³ Kolakowskik (1985, 73 or.) Bergsonen obra ezaugarritzen du bilakaera espiritualizatzeko ahalegin gisa. Bertsio horrek polemika zabal bat eragiten du, zeinak jarraitzen baitu frantses pentsamendu katolikoak haren obra jarraitu zuen arreta. Hori dela-eta interes berezikoak dira Gilson (1960), Gouhier (1961) eta Maritainen (1930) lanak. Azken hori, *Morala eta erlijioaren bi iturriak* baino lehango agertua kritikarik landuenetako bat da filosofia eskolastikoaren alorretik Bergsonen obra berantiarrenek sostengatzen dituzten aurrepostuei buruz. Kritika horrekin bat datoz Jolivet (1931), Penido (1934) eta Tonquedec (1936). Gouhier-

ek, aitzitik, *Morala eta erlijioaren bi iturriak* positiboki kokatzen du haren pentsamenduaren bilakaeraren barruan, eta Gilsonen kontakizun autobiografikoak Bergsonen obraren harrera lehenaren ibilbide intelektuala-ren barruan deskribatzen asmatzen du, argi eta garbi bereiziz 1907az aurrereko Bergson eta bilakaera sortzaila, zeina baita positiboki epaitua, eta geroko Bergson, zeina, aldiz, negatiboki ebaluatzen baita. Azken finean, Gilsonentzat, «credo ut intelligam» esamoldea aplikagarri izan beharrean, areago dagokio «intelligo ut credam». Gouhierrek (1993) Bergson eta Gilsonen arteko erlazioak analizatzen ditu. Aldiz, Bergsonen obraren ikuspen positiborako gogoeta kristauaren barrutik esperientzia erlijiosoak suposa dezakeen berrikuntza-eskakizunarako egiten duen balioespenarengatik une hartako kultura erlijiosoari zegokionez, cfr. dagoeneko aipatu diren Gómez Caffarenaren obrak (1985 eta 1991). Bergsoni buruzko eztabaidaren ugaritasunak, pentsamendu katolikoaren testuinguruan, kontrastatu egiten du soziologiaren alorretik izandako erantzun-urritasunarekin.

⁴ Cfr, Antliff-en (1993) monografia arestiko eta interesgarria filosofo

frantsesaren obrak Parisko abangoardian izan duen eraginaz. Bestalde, Bergsonen obraren eragina Benda edo Sorelengan ongi ezaguna da (cfr. Pilkington, 1976). Ez da hain sarri gogoratzen gaur haren hedapena goi-estatu nagusiko gararren kontzeptioaren esparruetara iritsi zela, zeinaren arabera gerra bokazio ofentsibo sakon batetik egin behar baitzen (cfr. Tuchman, 1963, 48 or.).

⁵ Bergsonek filosofiaren historian hartzen duen tokiaz, hain zuzen ere sostengatzen duen printzipio zentralaren indarrez, cfr. «L'intuition philosophique», in *La pensée et le mouvant*, OB, 1345 or. eta hh.

⁶ Aldi berean, Bergsonek lortzen du pentsamendu kantiarrak tradizioari egin bide zizkion kritika baliozkoak integratzea goragoko sistema batean.

⁷ Hitzez hitz honela dio testuak: «Irauten duen gure nia da».

⁸ «Introduction à la Métaphysique», in *La pensée et le mouvant*, OB, 1396 or. Barne-esperientzia hori atributu ontologikoekin gertatzen da. Ez da iraupena esperimentatzea bakarrik gertatzen, baizik azkena bezala esperimentatzea gertatzen da: «iraupenean kokatzen banaiz intuizioaren ahal-egin batez, berehala ohartzen naiz nola horrek batasuna, aniztasuna eta gainera beste gauza batzuk eratzen dituen» (ibid., 1402 or.).

⁹ *Essai sur les données immédiates de la conscience*, OB, 91 or. Halaber, «Abiatu naizen puntua, eta zeinera atergabe itzultzen bainaiz barnetik elkarbarrenduriko elementuzko aniztasun baten errepresentaziora, zeina erabat bestelakoa baita pluraltasun zenbakizkoaren aldean; iraupen hete-

rogeneo, kualitatibo, sortzaile [...] baten errepresentazioa». (H. Höffding-i egindako gutuna, 1915eko martxoaren 15ean, *M*, 1148 or.).

¹⁰ «Introduction à la Métaphysique», in *La pensée et le mouvant*, OB, 1420 or.

¹¹ «Introduction à la Métaphysique», in *La pensée et le mouvant*, OB, 1364 or.

¹² Horregatik baieztatu dezake Gouhierrek (1961), 9 or.) «bilakaera sortzailearen filosofia bera dela filosofia baten bilakaera sortzailea».

¹³ OB, 1073-1121.

¹⁴ *Ibid*, 985-986 or.

¹⁵ Hala gizakiaren fabulazio-ahalme-nak intsektuen instintu sozialaren tokia hartzen du. *Ibid*, 1068-1114 or.

¹⁶ Gure testuan argi eta garbi preztzen da erlijio eta moral itxiaren eta erlijio eta moral irekiaren arteko bereizketaren analisisa (OB, 1023-1056 eta 1175-1249 hh.). Bi kasuetan preztatzen da bizitzaren oldarrak erresistentzia jakin bat aurkitzen duela erlijioari taxuera zehaztu bat ematearen beharrezanean. Mistikoaren figuran gainditu egiten da erresistentzia hori eta, hari eskerrak, errealtatearen ikuspen garaiago batera iristen da. Aldiz, ez da horrela gertatzen erlijio itxiaren kasuan, zeinean jadanik fin-katuriko doktrina bat baita nagusi. Guztiarekin ere, bi kasuen artean jarraikitasun bat preza daiteke printzipio dinamiko beraren presentziarengatik, hau da biziarengatik. Dualismo hori esplizitukiago garatzen den tokia *Bilakaera sortzailea* da, non argi eta garbi finkatzen baita testuinguru eboluzionista, zeinean gara-

tzen baita aurkezten dugun obra.

¹⁷ «Mekaniko» terminoa inkontzien-tearen eta inolako bitartekotza gogoe-tazkorik gabe gertatzen denaren zen-tzuan darabilgu,

¹⁸ Ez legoke, adibidez, *berrurrupa-tze*, Ortegarengan, edo *totalizatz*e, Sartrearengan, bezalako kontzeptuak erabiltzerik.

¹⁹ Nia eta inguruabarraren arteko koerlazioak ez du esan nahi elemen-tuetako ezeinek bestea hurrupatzen duenik, baizik elkar erradikalki inpli-katzen dutela soilik.

²⁰ Ezin dugu ezaugarritu printzipio hori xehekiro. *¿Qué es filosofía?* (Ortega, 1961, 7, 388 or eta hh.) obra-ren azken hiru kapituluek ongi jaso-tzen dute guk kontuan hartzen dugun ikuspen ortegatarra. Esan dezagun laburbildurik errealtate erradikalaren esperientzia ez dela berez esperientzia berriz eta bestelakoa, baizik egunero-ko esperientzia bera dela, gogetak hartatik ezaugarri jakin batzuk nabar-mendu dituen heinean; *kategoriak*, terminologia ortegatarraren arabera. Adibidez, bizitzan egotearen kon-tzientzia (presentzia), gure egitasmoportaeraren gaineko grabitazioa (egi-tasmoa), ondasun jakin batzuetarako gure nortasunaren orientazio sakon definitzaile baten arabera (bokazioa), mundu baten presentzia, zeinak aldi berean erraztu eta zaildu egiten baitu egitasmu horiek burutzea, eta abar. Ohargarria da bizitzaren esperientzia hori bera Ortegaren obran bertan txer-taturik dagoeneko gradua, haren posi-zio metafisikoak legitimatzen dituen dimentsio esperientzial bat hari ema-nez. Haren aurrean, Bergsonek egiten duen barne-iraupenaren esperientzia-

rako deia, nahiz eta frantses filosofo-ak interesarekin eta azertuarekin gara-tu, nire intziz, ez da hain konbentzi-garria gertatzen.

²¹ Batez ere, prozesu hori *Bilakaera sortzailean* ageri den bilakaeraren berreraikuntzan preza daiteke, baina Bergsonen beste lan batzuetan ere ageri da, esaterako, «Kontzientzia eta bizia», *Energia espiritual*a, *OB*, 815 or. eta hh.

²² Izan ere, Bergsonentzat adimena-ren erabilpenak subjektuaren bere ingurunearekiko urruntze bat suposa-tzen du. «Erljioari, gogoetarako gai-tasuna duten izakiengan, biziarekiko haien identifikazioan defizit posible bat betetzea dagokio» (*OB*, 1154-1222 or).

²³ Egia da Bergsonek ulertzen duela biziak berak bizirik iraute, arrazoi hegeldarraren maltzurtasun baten antzeko zuhurtzia-era batez, fabula-zio horiek gertatzea, aldiz Spinoza-rengan gizakiaren mugakizunak be-rak gidatzen du superstiziora eta ho-rrek gaitz handiagoak ekiditea ere determinatzen du. Bergsonek positi-bokiago balioesten du erlijio itxia Spinozak superstizioa baino, nahiz eta biak bat etorri gizakiak bere argi-penerako duen bidean oraindik esta-dio askiez bat bezala hura ikusten. Cfr. *Tratado teológico-político*, Atila-no Domínguez-en itzul. eta ed., Ma-dril, 1986, 157 or. Edición Gebhardt, 73 or eta hh.

²⁴ Etikaren egileari dagokionez, haren lehen atalaren eranskina era-tzen duen helburuaren kritika ospe-tsua kontsulta daiteke, gizakiek, bel-durrak eraginik, errealtatea dibinita-tea kontuan izanez errepresentatzen

duten modua agerian jartzen duen neurrian. Freudengan, gai hori hemen dago garatua: «El porvenir de una ilusión», in *OC*, 3, 2967 or.

²⁵ Obra honetan bertan azaldutakoaz gainera, oso kontuan izan behar da askatasunaren analisiari eskainiriko *Kontzientziako datu bitartegabeei buruzko Saiakeretako* 3 kapitulua.

²⁶ *OB*, 1013-1042 or eta hh.

²⁸ *OB*, 1162-1233.

²⁹ *OB*, 1170-1243.

³⁰ *OB*, 1168-1241.

³¹ *OB*, 1172-1246. Puntu honetan, mistikaren kontzepzio bergsondarrak kontraste egiten du Heidegger eta Wittgensteinen obretako kontenplati-boagorekin, pasibo izatera iristen ez denean.

³² Gizakien batasun batera ere apuntatzen du baina Bergsonen hori desberdintasun kulturalen gaineko komunitate batean oinarritutzat eta maitasunak azturak edo beldurrak baino arago eragindakotzat ulertzen du.

³³ Halaber baieztatu daiteke partzialki egia dela *Kontzientziako datu bitartegabeei buruzko Saiakeretako* analisi introspektiboak onartzen diren neurrian.

³⁴ Ferrater, 1942, 54 or eta passim.

³⁵ Hortik Ortegaren formularen azertua: ni neu eta neure inguruabarra naiz, eta hura salbatzen ez badut ez dut neure burua salbatzen».

³⁶ Jainkoa dela-eta, Bergsonen berak egiten du ohar bat hemen aplikatzeko dena: «Zaila gertatzen da ezertara

zuzenduko ez litzatekeen maitasun aktibo bat kontzebitzea» (*OB*, 1192 or.). Hau da, bizitza afektiboak –eta bizitzak orokorrean– beti eskatzen du objektu bat zeinerantz zuzentzen baita edo zeinari begira gertatzen baita. Beste kasu bat gehiago da, zeinean agertzen baita «ni neu naiz eta neure inguruabarra» printzipioaren balioa.

³⁷ Zentzu horretan ulertzen da bizitza bera uneoro presente dagoela zentzugraduren batekin.

³⁸ Halaber, iruditzen zaigu Ortegaren oharrek *Defensa del teólogo frente al místico* obran ageri direnek, balioa dutela, azken finean, definizioz esanezina den esperientzia bat oso txalogarria gertatzen ez den neurrian.

³⁹ Nahiz eta guk filosofo frantsesak ez bezala ulertzen dugun.

⁴⁰ Azken oinarritzat uler daiteke lehen kausa kanpoko bat edo guztia-
ren hautematea bere horretan.

⁴¹ *OB*, 1175-1249 hh. Erlijioaren alor mehararen barruan, ez da oso kontentzagarria gertatzen berrikuntzak mistiko handiei esleitzea teologoen (San Augustin), eraberritzaileak (Lutero) eta gobernu-gizakien ekarpenak (Gregorio VII) garrantzi handienekoak direnean. Mistikoez Bergsonen egiten duen balioespenak duen egiantzik eza europar historiaren testuinguruan kokatzen da, zeinean esku hartu baitute era oso desberdin eta esanguratsuetan, inolako mistizismorik nekez egotz lekiekeen gizakiak: Napoleon, Bismarck, Newton, Mozart, Henry Ford edo Kolon ez dira higitu hain zuzen ere irizpide horietatik.

Bibliografia

- ADOLPHE, LYDIE: *La philosophie religieuse de Bergson*, Paris, 1946.
- ANTLIFF, MARK: *Inventing Bergson: Cultural Politics and the Parisian Avant-Garde*, Princeton, 1993.
- BARRUZI, JEAN: «Le point de rencontre de Bergson et de la mystique», *L'intelligence mystique*, Paris, 1985.
- CARIOU, MARIE: *Bergson et le fait mystique*, Paris, 1976.
- CHACON, PEDRO: *Bergson*, Madril, 1988.
- CHEVALIER, JACQUES: *Entretiens avec Bergson*, Paris, 1959.
- DELEUZE, G.: *El bergsonismo*, Madril, 1987 (1966ko frantses edizioaren gainekoa)
- FERRATER MORA, JOSÉ: «Introducción a Bergson», in H. Bergson, *Las dos fuentes de la moral y de la religión*, J. Ferrater Moraren itzul., Caracas, 1942.
- GILSON, ETIENNE: *Le philosophe et la théologie*, Paris, 1960.
- GÓMEZ CAFFARENA, JOSÉ: *Razón y Dios*, Cátedra de Teología Contemporánea, Colegio Mayor Chaminade, Madril, 1985.
- Qué aporta el cristianismo a la ética*, Cátedra de Teología Contemporánea, Colegio Mayor Chaminade, Madril, 1991.
- GOUHIER, HENRI: *Bergson et le Christ des évangiles*, Paris, 1961, —*Trois essais*, Paris, 1993.
- JAMES, WILLIAM: *Varieties of religious experience*, Londres, 1982.
- JOLIVET, R.: *Essai sur le bergsonisme*, 2. ed., Paris, 1931.
- KERN, STEPHEN: *The culture of Time and Space: 1880-1918*, Cambridge, 1983.
- KOLAKOWSKI, LESZEK: *Bergson*, Oxford, 1985.
- KRAKOWSKI, EDOUARD: *La philosophie gardienne de la cité*, Paris, 1946.
- LAVELLE, LOUIS: *La pensée religieuse d'Henri Bergson*, Paris, 1913.
- LE ROY, EDOUARD: *Une philosophie nouvelle. Henri Bergson*, Paris, 1913.
- LE SENNE, R.: «L'intuition morale d'après Bergson», in *Etudes bergsonniennes*, 1940, 98 or. eta hh.
- LOWE, DONALD M.: *Historia de la percepción burguesa*, Mexiko, 1986.
- MARITAIN, JACQUES: *La philosophie bergsonienne. Etudes critiques*, 2. ed., Paris, 1930.

MOSSE-BASTIDE, ROSE MARIE: *Bergson éducateur*, Paris, 1955.

NAVARTE, CÉSAR: «Razón y vida en el pensamiento de Bergson», in *Hacia la integración ontológica de la filosofía*, Irun, 1994.

ORTEGA Y GASSET, JOSÉ.: «Defensa del teólogo frente al místico», in *¿Qué es filosofía?*, in *Obras Completas*, vol. 7, Madril, 1961.

PENIDO, M.T.L.: *Dieu dans le bergsonisme*, Paris, 1934.

PILKINGTON, A.E.: *Bergson and his Influence. A Reassessment*, Cambridge, 1976.

ROLLAND, E.: *La finalité morale dans le bergsonisme*, Paris, 1947.

RUSSEL, BERTRAND: *The philosophy of Bergson*, Cambridge, 1914.

SERTILLANGES, A. D.: *Lumière et périls du bergsonisme*, Paris, 1943.

SOULEZ, PHILIPPE: *Bergson politique*, paris, 1989.

SUNDEN, HJALMAR: *La théorie bergsonienne de la religion*, Paris, 1947.

TONQUEDEC, J. DE: *Sur la philosophie bergsonienne*, Paris, 1936.

TUCHMAN, BARBARA: *The Guns of August*, New York, 1963.

UNDERHILL, EVELYN: *Mysticism. A Study on the Nature and Development of Man's spiritual consciousness*, New York, 1974.

ZUBIRI, XAVIER: *Cinco lecciones de filosofía*, Madril, 1963.

I KAPITULUA

BETEBEHAR MORALA

Fruitu debekatuarena da gutako bakoitzarengan, baita gizadiarengan ere, dagoen oroitzapen antzinakoena. Ohartuko ginateke horretaz, baldin eta oroitzapen hori bere ordeztu gogora ekarri nahiago ditugun beste batzuek estalita ez baleukate. Zer ez ote zatekeen izango gure haurtzaroa egiten utzi izan baligute! Plazerez plazer hegaz ibiliko ginatekeen. Baina hara eragozpen bat sortzen zen, ikusteko eta ukitzeko modukoa ez zena: debeku bat. Zergatik obeditzen genuen? Auzia planteatu ere ez zen egiten; geure guraso eta maisuei entzuteko ohitura hartuta geneukan. Hala ere, sentitzen genuen gure gurasoak izateagatik zela hori, gure maisuak izateagatik. Beraz, gure begietarako, haien autoritatea gutxiago zetorkien berengandik, gurekiko zuten beren egoeratik baino. Postu jakin bat betetzen zuten: eta handik zetorren, beste edozein tokitatik jaurti izan balute izango ez zukeen barneratze-indarrarekin, agindua. Beste hitz batzuetan, bazirudien gurasoak eta maisuak ordezkari gisa aritzen zirela. Orduan ez ginen oso argi konturatzen, baina geure gurasoen eta geure maisuen atzean zerbait eskerga susmatzen genuen, edo zehaztugabea areago, gure gain pisua zuena masa guztiarekin beren bitartekariaren bidez. Geroago gizartearen dela esango genuen. Hartaz filosofatuz, organismo batekin erkatuko genuen, zeinaren zelulak, lokarri ikusezinez batuak, bata bestearen mende jartzen baitira hierarkia jakintsu batean, eta modu natural batean makurtzen baitzaizkio, osoaren mesedetan, atalaren

sakrifizioa exigituko duen dizi-plina bati. Erkaketa bat besterik ez da izango, zeren gauza bat baita lege beharrezkoen mende an dagoen organismoa, eta beste bat nahimen libreez osaturiko gizartea. Baina nahimen horiek, antolatuak dauden unetik, organismoa imitatzen dute, eta organismo gutxi-asko artifizial horretan, behartasunak naturako obretan jokatz en duen eginkizun bera du azturak. Lehen ikuspuntu horretatik, gizarte-bizitza indar gehiago edo gutxiagoz erroturiko aztura-sistema bat bezala agertzen zaigu, zeinek komunitatearen premiei erantzuten baitie. Horietako batzuk agintze-azturak dira; gehienak obeditzezkoak dira, nahiz gizarte-ordezkaritzaren indarrez agintzen duen pertsona bati obeditzen diogula, nahiz lausoki hauteman edo sentituriko gizarteari berari agindu inpertsonal bat dariola. Obeditzeko aztura horietako bakoitzak presioa eragiten du gure nahimenaren gain. Itzur gakizkioke presio horri, baina orduan herrestan hartara eramanak gara, hartara itzuliak, bertikaletik aldenduriko pendulua bezala. Ordena halako bat al teratu egin da, berrezarri egin *beharko* litzateke. Hitz batean, beste edozein azturaren kasuan bezala, behartuak sentitzen gara.

Baina betebeh ar paregabeki indartsuagoa da. Magnitude bat beste batekiko hain handia denean, non hori gutiesgarria baita harekiko, matematikariek beste ordena batekoa dela diote. Horrela gertatzen da betebeh ar sozialarekin ere. Bere presioa, beste aztura batzuenarekin erkatuta, hainbestekoa da, non gradu-desberdintasuna izaera-desberdintasunaren baliokide baita.

Errepara dezagun, izan ere, mota honetako aztura guztiek elkarri laguntza ematen diotela. Nahiz eta asko ez espekulatu haien esentzia eta jatorriaz, beraien artean harremana dagoela sentitzen dugu, gure ingurune bitartegabeak exigitzen digulako, edota ingurune horren inguruneak, eta horrela hurrenez hurren azken muturreraino, gizarteraino. Bakoitzak, zuzenean edo zeharka, gizarte-eskakizun bati erantzuten dio; eta neurri horretan denek elkar irozotzen dute, bloke bat eratzen dute. Asko betebeh ar txikiak izango lirateke banaka aurkeztuko balira. Baina betebeh arraren atal osagarri dira, oro har; eta den hori izatea eratzen duten atalen baturari zor dion oso horrek, bere aldetik horietako bakoitzari multzoaren autoritate globala ematen dio. Kolektiboa den hori horrela bakarra dena errebertxatzera dator, eta «betebeh arra da» formula garaile gertatzen da, betebeh ar bakartu baten

aurrean sor lekizkigukeen zalantzen gainetik. Egia esateko, ez dugu era esplizituan betebeharrak zatikako, metatu batzuen multzoa pentsatzen, zeinek betebeharrak guztizkoa eratuko bailukete. Behar bada, hemen, atalen osaera egiazkorik ere ez dago. Betebeharrak batek gainerako guztietatik hartzen duen indarra areago da erkagarri zelula bakoitzak, banaezin eta osatu, elementu gisa dagokion organismoaren barrenetik arnasten duen bizi-hatsarekin. Gizarteak, bere osakide bakoitzarekiko inmanente izaki, baditu eskakizunak, handiak zein txikiak, bakoitzak bere bitartekaren osotasuna horregatik gutxiago adierazten ez dutenak. Baina berriz esan dezagun eraketa bat besterik ez dela: gizartea izaki askeko multzo bat da. Ezartzen dituen eta irautea ahalbidetzen dioten betebeharrak erregularitasun bat sartzen dute hartan, bizitzako fenomenoaren ordena malguezinarekin bakarrik analogia duena.

Hala ere, denak laguntzen digu erregularitasun hori naturakoa-rekin asimilagarria dela sinetsarazten. Ez naiz soilik ari gizakiek zenbait egintza gorestean eta beste batzuk gaitzestean adierazten duten ahobatekotasunaz. Esan nahi dut balore-judizioetan inplikaturiko agindu moralak betetzen ez diren tokian, itxuraz hala egiten den guztia konpondu egiten dela. Era berean ez dugu gaixotasuna ikusten kalean paseatzen ari garenean, ez dugu prezatzen zer egon daitekeen inmoralki gizadiak erakusten digun fatxadaren atzean. Luze joko ligu-ke misantropo bihurtzeak bestearen behaketa hutsera mugatuko bagina. Geure ahulezia propioak hautemanez iristen gara gizakiaz gupit-zeraz edo hura mespretxatzeraz. Orduan urruntzen gatzatzen gizadia geure barrenean aurkitu duguna da. Gaizkia hain ongi ezkutatzen da, sekretua hain unibertsaltiki gordetzen da, non bakoitza beste guztien engainu baita hemen: besteak oso zorrozki epaitzen ditugun itxurak egin arren ere, barrenean geure burua baino hobetaz dauzkagu. Zorioneko lilura horren gainean oinarritzen da gizarte-bizitzaren parte handi bat.

Normala da gizarteak ahalik eta gehien egitea hori bultzatzeko. Ematen dituen eta ordenari eusten dioten legeak, bestalde, ikuspegi batzuetatik, badute naturako legeen antza. Onartzen dut desberdintasuna errotikoa izatea filosofoaren begietarako. Gauza bat da —esango du— konstatatzen duen legea, eta beste bat agintzen duena. Azken horri itzur dakioke; behartzen gaitu, baina ez da beharrezkoa. Hura, aitzitik, erabat derrigorrezkoa da: egitateren bat hartatik aldenduko balitz,

horrek esan nahiko luke legetzat hartu izana okerra litzatekeela; balegoke beste bat, egiazkoa izango litzatekeena, zeinaren enuntziatuak behatzen den guztia adieraziko bailuke eta zeinari egitate errefraktarioa konformatuko bailitzaioke besteak bezala. – Zalantzarik ez dago; baina bereizkuntza hain nabaria izatea falta zaio gizaki gehienen begietarako. Lege fisikoa, lege soziala edo morala dela, lege oro agindu da haien begietarako. Badago ordena halako bat naturan, legeetan agertzen dena: egitateek lege horiei «obedituko» liekete ordena horretara konformatzeko. Jakitunari berari ere zaila gertatzen zaio baztertzea legea egitateen «lehendakari» delako sinestea, eta, ondorioz, aurretikoa dela-koari ere bai, Ideia platonikoaren antzera, zeinaren gainean gauzak arautu behar baitziren. Zenbat eta gorago joan jakituna orokorkuntzen eskalan, hainbat indar gehiagorekin makurtzen da, nahi izan ala ez, legeak izaera agintzaile horretaz hornitzera: benetan borroka egin behar du bere buruarekin mekanikaren printzipioak ez irudikatzeko betiera osotik taula transzendentalean inskribatu gisa, zeinak bilatzera zientzia modernoa joango baitzatekeen beste Sinai batera. Baina lege fisikoak gure irudimenerako agindu baten forma hartzeko joera baldin badu, orokortasun halako bat lortzen duen bezain laster, elkarrekikotasunean, mundu osoari zuzentzen zaion inperatibo bat ia naturako lege bat bezala aurkezten da gure aurrean. Bi ideiek, gure espirituan topo egitean, beren ezaugarrietako batzuk trukatu egiten dituzte elkarren artean. Legeak horrek daukan inperiozkoa hartzen du agindutik. Aginduak ezinbestezkotik daukana hartzen du legetik. Eta ordena sozialaren hausketa batek izaera antinaturala hartzen du horrela: nahiz eta sarritan errepikatu, salbuespen baten efektua sortzen digu, zeina naturan munstroa den hori izango bailitzateke gizartean.

Eta zer ez ote da gertatuko inperatibo sozialaren atzean agindu erlijiosoa hautematen badugu! Gutxi axola dio bi termino horien arteko harremanak. Erlijioa era batera edo bestera interpretatzen dugula ere, esentziaz edo akzidentez sozializat jotzen dugula ere, kontua da beti eginkizun sozial bat bete izan duela. Gainerakoan, eginkizun hori konplexua da; aldatu egiten da denbora eta tokien arabera; baina gurea bezalako gizarteetan, erlijioak duen lehen efektua gizarte-eskakizunak sostengatu eta errebortxatzea da. Askozaz urrunago irits daiteke, baina gutxienez horraino iristen da. Gizarteak ezartzen dituen zigorrek errugabea jo, errudunak zigor gabe utzi; ozta-ozta saritzen du

inor, deigarria denari bakarrik erreparatzen dio eta gutxirekin nahikotzen da. Non da zigorrak eta sariak zuzen haztatzekeo gai den giza balantza hori? Ideia platonikoeke erreallitatea, zeinaren imitazio zakarrak bakarrik hauteman baititzakegu, bikain eta osoki agertzen diguten bezala, erlijioak hiri batean sarrarazten gaitu, zeinetan gure instituzioek, gure legeek eta gure ohiturek, gehienera, berandutik berandura, alderdirik nabarmenenak errepresentatzen baitituzte. Hemen behean ordena gutxi gorabeherakoa baizik ez da eta gizakiek gutxiasko era azalekoan lortua; han goian perfektua da, eta berez egikaritzen da. Erlijioak, horrela, gaingitu egiten du, gure begietarako, eta jadanik zentzu komuneko azturek murriztua, gizartearen agindu baten eta naturako lege baten artean dagoen tartea.

Horretara, beti erkaketa berean topo egiten dugu, eta alde batzuetatik akastuna bada ere, onargarria da interesatzen zaigun alderdiarekiko. Hiriko kideak organismo bateko zelulak bezala portatzen dira. Ohiturak, adimenak eta irudimenak lagundurik, diziplina bat sarrarazten du haietan, zeinak imitatzen baitu urrunetik, norbanako desberdinen artean ezartzen duen solidaritatez, zelula anastomosatuz osaturiko organismoaren batasuna.

Denak laguntzen du, beste behin ere, ordena soziala gauzetan nabari den ordenaren imitazio bihurtzen. Gutako bakoitza, bere burura bihurtzen denean, libre sentitzen da noski bere isuri, desira edo apletari jarraitzekeo, eta beste gizakiengan ez pentsatzekeo. Baina nahikunde hori oraindik zehaztu gabe dagoela kontrako joera antagonikoa sortzen da, indar sozial guztien metatzetik eratorria: higigarri indibidualak ez bezala, zeinek bultzatzen baitute bakoitza bere aldetik, indar horrek ordena halako bat izango luke ondorio, zeina ez bailitzateke analogiarik gabea izango fenomeno naturalekin. Organismo baten osagai den zelulak, une batez kontzientea bihurturik, emanzipatzeke asmoa azalduko lukeen bezain laster, jadanik behartasunak atzemanik geratuko litzateke. Gizartearen osakide den norbanakoa hura imitatzen duen behartasuna subertitzekeo eta are hausteko gai da, zeina sortzen berak neurri batean lagundu egin baitu, baina, batez ere, jasan egiten baitu: behartasun horren sentimendua, berorri itzurtzekeo kontzientzia lagun duela, hori da betebehar deitzen dena. Horrela ikusirik, eta bere adiera ohikoenean harturik, betebeharra behartasunarekiko aztura naturarekiko den horixe bera da.

Beraz, betebeharra ez dator kanpotik, hain zuzen ere. Gutako bakoitza gizarteari adina dagokio bere buruari. Baldin eta kontzientziak barrenenetik agertzen badigu, sakontzen duen heinean, nortasun gero eta originalagoa, besteekiko neurtezina, eta bestalde, adierazezina, geure buruaren azalean jarraikitasun-harremanean aurkitzen gara besteekin, horien antza dugu, eta haien eta gure artean elkarrekiko dependentzia bat sortzen duen diziiplina batek batzen gaitu geure buruarekin. Atal sozializatu horretan instalatzea, hori ote da agian gure niarentzat zerbait trinkoari atxikitzeko era bakarra? Hala izango litzateke, noski, bulkada-, apeta- eta atsekabe-bizitza bati itzurtzeko beste modurik ez bagenu. Baina geure buruaren sakonenean aurkituko dugu, agian, bilatzen baldin badakigu behintzat, beste mota bateko oreka, azaleko oreka baino askozaz desiragarriagoa dena. Gainaldera irteten diren uretako belarrak, etengabe astintzen ditu ur-lasterrak; hostoek, uretatik kanpo elkartzean, egonkortasuna ematen diete, goian, bata besteekin bigiztatzean. Baina oraindik egonkorragoak dituzte beren sustraiak, lurlean tinko hondoratuak, behetik sostengatzen baitituzte. Ez dugu hitz egingo, oraingoz, geure buruaren barreraino iristeko beharko genukeen ahaleginaz. Nahiz eta ahalegin hori egingarria izan, salbuespenezkoa da; eta gainaldean, beste nortasun kanporatuen ehun sarrian sartzen den gunean, aurkitzen du gure niak eskuarki bermatzeko gune bat. Bere trinkotasuna solidaritate horretan datza. Baina atxikitzen den gunean, bera ere sozializaturik gelditzen da. Betebeharrak, gizakien arteko lokarri gisa irudikatzen dugunak, gutako bakoitza geure buruarekin lotzen du lehenik.

Beraz, okerra da moral sozial hutsari egoztea betebeharrak indibidualak alde batera uztea. Are gehiago, teorikoki, besteen aurrean baidarik betebeharrak izango ez bagenu, izatez geure buruaren aurrean ere izango genituzke, zeren ez baitago solidaritate sozialik ni sozial bat gutako bakoitzarengan ni indibidualari gainezartzen zaion unetik izan ezik. «Ni sozial» hori lantzea da gure betebeharrak gizartearekiko duen esentziala. Gutako bakoitzarengan ez balego hartatik zerbait, ez genuke haren eragimena sentituko; eta ia ez daukagu hartara jo beharrik; aski dugu geure buruarekin geure barruan presente aurkitzen badugu. Haren presentzia gutxiago edo gehiago nabarmendua da gizakien arabera; baina inork ezingo du hartatik bere burua erabat bakar-tu. Inork ez luke horrelakorik egin nahiko, zeren bere indarraren parte

handiena hartatik datorrela sentitzen baitu; eta gizarte-bizitzako eskakizun etengabe berrituei zor diela bere energiaren tentsio atergabe hori, ahaleginaren norabide-konstantzia hori, zeinak ziurtatzen baitio bere jarduerari errendimendurik hoberena. Baina, gainera, ezingo luke egin, nahi izango balu ere, zeren bere oroimena eta irudimena gizarteak haietan ezarri duenetik bizi baitira, izan ere gizartearen arima hitz egiten dugun hizkuntzarekiko inmanentea baita, eta bere aurrean inor ez dagoenean ere, pentsatzen bestetan ari ez denean ere, bere buruari hitz egiten dio. Alferrik da gizarte-bizitza orotatik erabat aldenduriko norbanakoa pentsatzea. Materialki bada ere, Robinsonek bere uhartean beste gizaki batzuekin kontaktuan dirau, zeren naufragiotik salbatu dituen objektu artifizialek, eta zeinen laguntzarik gabe ezingo baitzuen aurrera irten, zibilizazioan eusten diote eta, ondorioz, gizartean. Baina oraindik beharrezkoago zaio kontaktu morala, zeren oso bizkor galduko bailuke adorea, etengabe sortzen zaizkion zailtasunei indar indibiduala besterik kontrajartzerik ez balu, zeinaren mugak sentitzen baititu. Robinsonek gizartetik hartzen ditu bere indarrak, zeinarekin idealki loturik baitago eta, zeina nahiz eta berak ezin duen ikusi, hor baitago bera begiesten: baldin eta ni indibidualak bizirik eta presente gordetzen badu ni soziala, bakaturik egonik ere, gizarte osoaren laguntza eta adoreaekin jardungo lukeen era berean jardungo du. Inguruabarrek denboraldi baterako bakardadera kondenatu dituztenek eta beren baitan barne-bizitza sakonaren baliabideak aurkitzen ez dituztenek badakite zenbat kostatzen den nork bere burua «bertan behera uztea», hau da, ni indibidualari ni sozialak agindutako mailan ez eustea. Ahaleginak egingo dituzte, beraz, ni sozial horri eusten, bestearenganako bere zorrotasuna ezertan ere erlaxa ez dadin zainduz. Hala behar izanez gero, bermagune material eta artifizial bat bilatuko diote. Kiplingek aipatzen duen basozain hura datorkigu burura, Indiako oihan baten barrenean bere etxetxoan bakarrik dagoena. Arratsero etiketaz janzten da afaltzeko, «bakardadean, bere buruari errespetua ez galtzeko»¹.

Ez ginатеke iritsiko baieztatzera ni sozial hori Adam Smithek dioen «behatzaile inpartziala» denik, eta kontzientzia moralarekin identifikatu behar denik, bere buruarekiko sentimendua pozezkoa edo atsekabezkoa dela bere inpresioa ona edo txarra izatearen arabera. Iturburu sakonagoak aurkituko ditugu geure sentimendu moralentzat.

Hizkuntzak hemen, izen beraren azpian, oso gauza desberdinak bil-tzen ditu: zer izan dezakete komunean asasinatzaile baten barne-zimi-koak nork bere buruestimuari kalte egin edo haur batekin bidegabeki jokatu delako, jasan litekeen, torturatzaile eta setatiarekin? Bizitzara irekitzen ari den arima errugabe baten konfiantzari traizio egin izana da egin dezakegun egintzarik makurrenetako bat, proportzioen zen-tzurik ez duela dirudien kontzientzia jakin baten ikuspuntutik, hain zuzen ere gizartetik hartzen ez dituelako bere ereduak, bere instrumen-tuak eta bere neurketa-metodoak. Baina kontzientzia hori ez da sarrien praktikatzen dena; eta gainera delikadezia handiago edo txi-kiagokoa da pertsonen arabera. Oro har, kontzientziaren epaia ni sozialak emango lukeena da.

Halaber, oro har, larridura morala ni sozialaren eta ni indibi-dualaren arteko harremanen nahastea da. Azter dezagun barne-zimi-koaren sentimendua kriminal handi baten ariman. Lehen une batean, nahastu egin liteke zigor-beldurrarekin, zeren krimena estaltzeko edo erruduna ez aurkitzeko etengabe berritu eta gehitzen diren arreta xehekatuak baitira; halaber, une oro bada justiziak aztarna agerraraz-letzat aurkituko duen xehetasunen bat zabartu izanaren sentsazio larridurazkoa. Baina hurbilagotik begira dezagun: gure gizonarentzat kontua ez da hainbeste zigorra ekiditea nola iragana ezabatzea eta kri-mena inoiz gertatu izan ez balitz bezala egitea. Izan ere, inork ez dakienean gauza bat badenik, hura izango ez balitz bezalako zerbait da. Beraz, krimena bera da kriminalak deuseztu nahiko lukeena, har-taz giza kontzientzia batek izan lezakeen ezagutza oro ezeztatuz. Baina bere ezagutza propioak badirau bere baitan, eta horra ezagutza horrek bultza egiten dio, gero eta gehiago, gizartetik kanpora, zeina-ren baitan irauteko asmoa baitzuen bere krimenaren arrastoak ezaba-tuz. Izan ere, gizarteak estimu bera dio lehen zen gizonari eta jadanik ez den gizonari: ez zaio berari zuzentzen, bada, gizartea; beste bati hitz egiten dio. Eta bera, zer den badakien hori, bakartuago sentitzen da gizakien artean uharte mortu batean egon litekeena baino, zeren bakardadean, gizarte baten irudia eramango bailuke, inguratuz eta sostengatuz; baina orain ebakirik aurkitzen da iruditik eta gauzatik. Bere krimena aitortuz sartuko litzateke berriro gizartean: merezi duen bezala tratatuko lukete orduan, baina berarengana zuzenduko lirateke. Berriro ekingo lioke beste gizakiekiko lankidetzari. Haiek zigortu

egingo lukete, baina, orduan haien ondoan kokaturik, bere kondena propioaren egilearen antzeko zerbait izango litzateke; eta bere pertsonaren parte batek, hoberenak, ihes egingo lioke horrela zigorrari. Hainbestekoa baita kriminala bere burua entregatzera bultzatzen duen indarra. Batzuetan, hain urrunera iritsi gabe, adiskide bati edo pertsona zintzoren bati egingo dio aitortza. Egian horrela berriro sartuz, guztien begietarako ez bada, norbaiten aurrean behintzat, berriro gizartera itzultzen da puntu batean, hari batetik; berriro hartan sartzen ez bada, gutxienez haren alde dago, hartatik hurbil, eta harekiko arrotz izateari uzten dio; nolanahi ere, gutxienez ez ditu harekikoak hainbestearaino etenak izango, ezta hartatik bere barrenean daramanarekikoak ere.

Beharrezko da haustura zakar hori norbanakoak gizartearekiko duen atxikimendua argiro ager dadin. Eskuarki, geure betebeharretan pentsatzea baino areago egiten dugu haietara konformatzea. Aldioro beharrezko izango balitz, betebeharraren ideia oroitaraztea, bere formula enuntziaztea, askozaz neketsuagoa izango litzateke gure betebeharra egitea. Baina aski da ohiturarekin, eta, ia beti, geure buruari joaten uztea aski dugu gizarteari gugandik espero duena emateko. Gainerakoan, gizarteak asko erraztu ditu gauzak, gure eta haren artean bitartekari batzuk tartekatuz: familia bat dugu, lanbide batean aritzen gara, komunitate batekoak gara, gure barrutikoak, gure departamentukoak, eta taldea gizartean egoki sarturik dagoen guztietan, aski dugu, agian, taldearen aurrean geure betebeharrak egitea gizartearekin bakean egoteko. Gizarteak periferia hartzen du; norbanakoa erdian dago. Erditik periferiara daude ezarrita, zirkulu zentrokide gero eta zabalago gisa, norbanakoa tarteko duten taldekatze desberdinak. Periferiatik erdira, zirkulua estutuz doan heinean, betebeharrak betebeharren gain metatzen dira, eta norbanakoa, azkenik, bere multzoaren aurrean aurkitzen da. Betebeharra gero eta gehiago hazten da, baina zenbat eta konplikatuagoa den, abstraktutasun gutxiagokoa eta, hortaz, hobeki onartua izaten da. Erabat konkretua denean, gure egoerari dagokion eginkizuna betetzeko joerarekin bat etortzen da; joera hori hain da ohikoa gudan, non naturalizat jotzen baitugu. Joera horren baitan murgiltzen garen bitartean, ia ez dugu sentitzen. Aztura sakon ororekin gertatzen denez, hartatik urruntzen garenean bakarrik agertzen da ezinbesteko.

Gizarteak bere eguneroko existentziaren egitaraua ezartzen dio norbanako bakoitzari. Ez dago familian bizitzerik, ez lanbide batean aritzerik, eguneroko bizitzako mila zereginetan jarduterik, erosketak egin, kalean paseatu, ezta etxean gelditzerik ere, preskripzioei jarraitu edo betebeharrei men egin gabe. Aukera bat egitea eskatzen zaigu uneoro; arauarekin bat datorrena hautatzen dugu naturalki. Nekez izan ohi dugu horren kontzientzia; ez dugu inolako ahaleginik egiten. Bide bat urratu du gizarteak; geure aurrean irekita aurkitzen dugu eta jarraitu egiten diogu; askozaz ekimen handiagoa beharko genuke landan zehar ibiltzeko. Horrela ulerturik, betebeharra ia beti era automatikoa egiten da, eta betebeharrarekiko obediencia, sarrienik gertatzen denari bagengozkio, inork eramaten uzte, abandonu gisa definituko litzateke. Nondik dator, orduan, obediencia hori aitzitik tirandura-egoera bat bezala agertzea, eta betebeharra bera, zerbait zurrun eta gogor bezala? Begi-bistakoa da zenbait kasutan obeditzeak nori bere buruaren kontrako ahalegina eskatzen diola. Salbuespen-kasuak dira; baina nabarmentzen badira kontzientziaren areagotze bat berekin dutelako da, ezbai ororekin gertatzen denez; egia esateko, kontzientzia ezbai hori da, aldiz, bakarrik hasten den eta ia hauteman gabe pasatzen den egintza. Orduan, gure betebeharraren guztien artean dagoen solidaritatearen indarrez, eta betebeharraren osozkoa bere atal bakoitzarekiko inmanente denez gero, betebeharraren guztiak halako edo honelako betebeharrak jakinek salbuespenez hartu duten tinduaz koloreztatzen dira. Ikuspegi praktikotik ez dago horretan inolako eragozpenik, eta abantaila batzuk ere sortzen dira gauzak horrela hartzetik. Izan ere, oso naturalki geure betebeharra egiten dugularik ere, litekeena da beti geure baitan erresistentzia halako bat aurkitzea; badu onurarik horri erreparatzeak eta suposatutzat ez emateak erraza dela senar ona, hiritar ona, langile arduratsua izatea eta, azkenaren buruan, gizaki jatorra. Gainera, egia parte handi bat dago iritzi horretan, zeren erraz samarra bada ere gizarte-testuinguruan mantentzea, beharrezko izan baita horretan sartzea, eta sartze horrek ahalegina eskatu baitu. Haurraren berezko diziplina-eza, hezkuntza-beharra, horren proba dira. Beraz, bidezkoa da norbanakoari kontuan hartzea bere betebeharraren guztiez egin duen onarpena, baita bere buruari haietako bakoitzaz kontsultarik egin beharrik ez duenean ere. Zaldizkoak aski du zaldiak eramanean uztea; baina aldeztu aurretik zelara igo behar izan du. Gauza bera gertatzen zaio norbanakoari gizartearekiko. Zentzu batean

faltsua izango litzateke, eta zentzu guztietan arriskutsua, betebeharra era automatikoan egitea ahalgarria dela esatea. Beraz, arau praktiko bihur dezagun betebeharrarekiko obedientzia nork bere buruari egiten dion erresistentzia bat dela.

Baina gauza bat da gomendioa eta besterik azalpena. Betebharraz, bere esentziaz eta bere jatorriaz kontu emateko, baieztatzen denean betebeharrarekiko obedientzia ezer baino lehen nork bere buruari egindako ahalegina dela, tirandura- edo uzkurdura-egoe-
ra bat dela, teoria moral asko kutsatu dituen hutsegite psikologiko bat egiten dugu. Horrela zailtasun artifizialak, filosofoak banatzen dituzten arazoak sortu dira, eta horien terminoak aztertzean ilauntzen ikusiko ditugunak. Betebeharra ez da inondik ere gertakari bakarra, besteekiko neurtezina, haien gainetik agerpen misteriotsu gisa ezartzen dena. Filosofo-kopuru handi batek, batez ere Kanten jarraitzaileek, horrela ikusi izanaren arrazoiak betebeharraren sentimendua, egoera lasai eta inklinazioaren antzekoa, horri kontrajarriko litzaiokeena haustek batzuetan sortzen digun emozioarekin nahastea izan da.

Erreuma-krisialdi batetik irtetea, baliteke eragozpena eta oinazea bera ere sentitzea gihar eta junturei lan eragiten diegunean. Organoek kontrajartzen duten erresistentzia baten sentsazio globala da. Pixkanaka gutxituz joan eta azkenerako galdu egiten da osasunez gaudenean geure mugimenduez daukagun kontzientzia. Onar liteke, noski, oraindik hor dagoela, sortze-egoeran edo, areago, egoera ezkutukoan, eta areagotzeko abagunearen zain dagoela besterik gabe; izan ere, derrigor kontuan hartzekoak ditu krisialdi horiek erreuma duenak. Hala eta guztiz ere, zer esango genuke beso-zangoak gure mugitze-sentsazio ohikoa oinaze baten arintze gisa baizik ikusiko ez lukeenaz, eta ondorioz, gure gaitasun lokomotorra eragozpen erreumatikoarekiko erresistentzia-ahalegin gisa definituko lukeenaz? Lehenik horrela uko egingo lioke aztura motorraren berri emateari; izan ere, horietako bakoitzak mugimenduen konbinazio partikular bat inplikatzeko du, eta horren bitartez baizik ez dago ulertzerik. Ibili, lasterka egin, mugitzearen ahalmena aztura elemental horien batura besterik ez da, zeinetariko bakoitzak aurkitzen baitu bere azalpen propioa inplikatzeko dituen mugimendu berezietan. Baina ahalmen hori era global hutsean kontsideratzen badugu eta, gainera, erresistentzia bati kontrajarritako indar bihurtzen badugu, ezinbestean sorraraziko dugu haren alboan erreu-

matismoa entitate burujabe gisa. Dirudienez, betebeharrak espekulatu izan duten askok mota horretako hutsegitea egin dute. Mila betebeharrak partikular ditugu, eta bakoitzak bere azalpen propioa eskatzen du. Naturala da, edo zehatzago, ohikoa da denei obeditzea. Salbuespenez itzuriko gatazka horietako bati, eta erresistentzia hori jarkitzen bagatzaizkio, tentsio edo uzkurdurazko egoera gertatuko da gudan. Zurruntasun hori kanporatzen dugu betebeharrari hain itxura zorrotza ematen diogunean.

Eta horretan pentsatzen dute filosofoek ere betebeharra elementu arrazionala murrizten dutela uste dutenean. Erresistentziari jarkitzeko, bide zuzenean irauteko desirak, grinak edo interesak hartatik desbideratzen gaituztenean, derrigor eman behar dizkiogu arrazoiak geure buruari. Desira zilegi-etzari beste desira bat kontrajarri diogunean ere, hori, nahimenak eraginik, ideia baten deia deiaz bakarrik sortu ahal izan da. Hitz gutxitan esateko, izaki adimendunak adimenaren bitartekariak dihardu bere buruaren baitan. Baina bide arrazionalen bitartez betebeharrera iritsi izanetik ez da ondorioztatzen hori maila arrazionala izan denik. Aurrerago berriz arituko gara puntu hori buruz; orain ez ditugu teoria moralak eztabaidatu nahi. Esan dezagun bakarrik gauza bat dela joera, naturala edo lortua, eta besterik erabiliko duen metodo derrigor arrazionala, zein erabiliko baitu izaki arrazionalak sendotzeko edo hari kontrajartzen zaion orori gudu egiteko. Azken kasu horretan, joera eklipsatua berriro ager daiteke; eta zalantzarik gabe dena gertatzen da metodo horren bitartez berreraikitzea lortu izan balitz bezala. Errealitatean, tratatzen edo geldiarazten zuena aldentzea besterik ez da egin. Onartzen dut praktikan biak gauza bera direla: gertakaria modu batean edo bestean azaltzen delarik ere, kontua da lortu egin dela. Eta agian hobe izango da, hori lortzeko, gauzak lehendabiziko eran gertatu direla irudikatzea. Baina izatez horrela dela baieztatzea betebeharraren teoria faltsutzea izango litzateke. Ez al zaie hori gertatu filosofo gehienek?

Inork ez dezala gure pentsamendua gaizki uler. Nahiz eta moralaren aspektu halako batera mugatzen garen, orain arte egin dugunez, betebeharrarekiko jarrera aski desberdinak daudela egiaztatuko dugu. Horiek bi jarreraren arteko gunea zuintzen dute edo, areago, bi aztura muturrekoren artekoa: bata zirkulazio hain naturala da gizarteak ezarritako bideetatik, non oharu ere ozta-ozta egiten den;

bestea, ezbaia eta gogoeta, aitzitik, hartuko dugun bidea zein izango ote den, zer puntutara iritsiko garen, korritu beharko diren joan-etorriko bideak horietako batzuk hartzean. Bigarren kasuan arazo berriak planteatzen dira, gutxi-asko sarriak direnak, eta betebeharra erabat marraturik dagoen tokian bertan ere, gutxi-asko ñabardurak gertatzen dira hura betetzean. Baina aurrena lehen jarrera da gizakien gehiengo handienarena; seguraski orokorra da gizarte beheretan. Eta gero, nahiz eta arrazoitzen den kasu partikular bakoitza, maxima formulatu, printzipioa enuntziatu, ondorioak atera: desirak eta grinak hartzen badute hitza, tentazioa indartsua bada, erortzeko zoria sortzen bada, bat-batean zuzentzen bada, non zegoen orduan bulkada? Indar batek berresten du bere burua: «betebeharraren osozkoa» deitu dugunak: gizarte bizi-tzako mila eskakizun partikularrei obeditzetik geureganatu ditugun mila aztura bereziren aterakin kontzentratua, kintesentzia. Betebeharra ez da ez hura eta ez hori; eta hitz egingo balu, nahiz eta jardutea nahiago duen, hau esango luke: «Behar delako egin behar da». Harrezkero adimena enplegatzen zuen lana arrazoiak haztatzen, maximak erkatzen, printzipioetara iristen, koherentzia logiko gehiago ezartzearena zen, gizarte-eskakizunetara, definizioz, makurtutako portaera esaneko batean; baina gizarte-eskakizun hori zatxekion betebeharra. Sekula ere ez, tentaldi-orduetan, ez genuke sakrifikatuko bere interesa, bere grina, bere banitatea koherentzia logikoaren premia hutsaren baitan. Arrazoiak, izan ere, arautzaile gisa esku hartzen duelako, izaki arrazoidun batengan, arau edo maxima betebeharrekoen artean koherentzia hori ziurtatzeko, filosofiak betebehar-printzipio bat ikusi ahal izan du hartan. Bolantea dela makina birarazten duena sinestea adinaxe litzateke hori.

Gizarte-eskakizunek, bestalde, batabestea osatzen dute. Jatortasuna gutxien arrazoitua, eta zilegi bazait, errutinazkoena duenak ere ordena arrazional bat ezartzen du bere portaeran elkarrekiko logikoki koherenteak diren eskakizunen baitan arautuz. Onartzen dut logika hori gizartearen lorpen berantiarra izatea. Koordinazio logikoa funtsean ekonomia da; multzo batetik lehenik, larriki, printzipio batzuk bakantzen ditu, gero multzotik haiekin bat ez datorren guztia baztertzen du. Natura, aitzitik, ezin ugariagoa da. Gizarte bat zenbat eta hurbilago egon naturatik, hainbat handiagoa da hartan akzidentea eta inkoherentziaren partea. Lehen gizakien artean debeku eta pres-

kripzio ugari aurkitzen dira ideien asoziazio lausoz, superstizioz, automatismoz azaltzen direnak. Ez dira alferrikakoak, zeren arau guztiei obeditzeak, nahiz eta absurdoak izan, kohesio handiago bat ziurtatzen baitio gizarteari. Baina orduan arauaren baliagarritasuna, errebo-
tez, haren mendea jartzearen ondorioz bakarrik dator. Berenez balio duten preskripzio edo debekuak dira positiboki gizartearen kontserbazioa edo ongizatea bilatzen dutenak. Denbora igaro ahala, zalantzarik gabe, besteetatik bakandu egin dira, bizirik iraun ahal izateko. Gizarte-eskakizunak beren artean koordinatu egin dira orduan, eta printzipioetara subordinatu. Baina ez dio axolarik. Logika ongi sartzen da gaurko gizarteetan, eta bere portaera arrazoitzen ez duena bera ere arrazionalki biziko da, printzipio horietara konformatzen bada.

Baina betebeharraren esentzia arrazoiaren eskakizunaz bestelako zer baita. Horixe da orain arte iradoki nahi izan duguna. Gure aurkezpena hainbat gehiago egokituko zaio errealitateari, hala uste dugu, zenbat eta gehiago ari den gutxiago bilakaturiko gizarteaz eta hasimasetako kontzientziez. Eskematiko geratzen da gaur eguneko gizaki jator batengan aurkitzen dugun kontzientzia normalari bagagozkio. Baina, hain zuzen ere, orduan batabestearekin elkargurutzatzen diren sentimendu, ideia, tentaldien korapilatze aparteko batekin topo egiten dugulako, funtsa bere baitan izango duen eskema baten jabe baldin bagara saihestuko ditugu analisi artifizialak eta sintesi hautazkoak. Horixe da marrazten ahalegindu garena. Irudika ezazue betebeharra aztura baten gisara nahimenaren gainean pisua ezarritz, eta betebeharrak bakoitza besteetatik metaturiko masa bere atzetik herrestan duela eta horrela, egiten duen presiorako, multzoaren pisua erabiliz: hor duzue betebeharraren osozkoa kontzientzia moral sinple, elemental baterako. Hori da esentziala; eta hertsiki horretara murriz daiteke betebeharra, konplexutasunik handiena lortzen duenean ere.

Orain ikusten da zer unetan eta zer zentzutan, batere kantiarra ez den horretan, betebeharrak «inperatibo kategoriko» baten forma hartzen duen. Kosta egingo litzateke horrelako inperatibo baten adibideak eguneroko bizitzan aurkitzea. Kontsigna militarrek, zeina baita agindu ez motibatua eta erreplika gabea, «behar delako egin behar dela» dio. Baina nahiz eta soldaduari arrazoirik ez eman, berak imajinatuko du bakarren bat. Inperatibo kategorikoaren kasu garbi bat nahi badugu, *a priori* eraiki beharko dugu edo gutxienez esperientzia esti-

lizatu egin beharko dugu. Demagun inurri batek gogoeta-argiune bat duela eta atsedetik gabe besteen alde lan egiten oker dabilela pentsatzen duela. Bere nagitasun-nahikundeek une batzuk bakarrik iraungo lukete, adimenaren bristadak distiratzten dion denbora. Une horien azkenean, instintuak, berriro gaina hartuz, derrigorrean bere atazara itzularaztean instintua berriro zurgatuko duen adimenak adio gisara esango luke: behar delako egin behar da. «Behar delako egin behar da» hori jasandako trakzio baten une bateko kontzientzia hartzea besterik ez litzateke –une batez laxatutako hariak berriz teinkatzean egingo lukeen trakzioarena–. Agindu berbera entzungo litzateke egiten ari den ametsetik irteteko prestatzen, hartatik irteten hasita dagoen sonanbuluaren belarran ere: berehalaxe sonanbulismoan eroriko balitz berriro, inperatibo kategoriko batek adieraziko luke hitzetan sortu berria zen eta hain bizkor desagertu den gogoetarako, itzuleraren ezinbestekotasuna. Labur esateko, erabat kategorikoa den inperatiboa izatera instintuzko edo sonanbulikokoa da: egoera normalean egiten da horrelakoa, edo formulatu ahal izateko behar adinako denboraz gogoeta iratzartzen bada errepresentatzen da horrelakoa, nahiz eta ez izan behar adinako denborarik arrazoiak bilatzeko. Baina orduan, ez al da begi-bistakoa, izaki arrazoidun batengan, inperatiboak hainbat joera handiagoa izango duela forma kategorikoa hartzekoa zenbat eta garranturiko jarduerak, nahiz eta adimenduna izan, forma instintuzkoa hartzera gehiago jotzen duen? Baina jarduera bat, lehenik adimenduna izaki, instintuaren imitaziora bideratzen dena, horixe da gizakiarengan aztura deitzen dena. Eta azturarik ahaltsuena, zeinaren indarra meta-turiko indar guztiez, aztura sozial elemental guztiez egina baitago, horixe da derrigor instintua hobekien imitatzen duena. Txunditzekoa al da orduan, garbiki bizi izandako betebeharra eta era guztietako arrazoiz osoki errerepresentaturiko eta justifikaturiko betebeharra bereizten dituen une laburrean, betebeharrak «behar delako egin behar da» inperatibo kategorikoaren forma hartzea?

Kontsidera ditzagun bi bilakaera-lerro dibergente, eta gizarteak bataren eta bestearen muturretan. Naturalena agertuko den gizartemota bistan dago instintuzkoaren motakoa izango dela: erlauntz bateko erleak batzen dituen lerroak antz handiagoa du organismo bateko zelulak bata bestearen artean koordinaturik eta subordinaturik batera edukitzen dituenarena. Demagun une batez naturak nahi izan duela

beste lerroaren muturrean gizarte batzuk lortzea, zeinetan aukera indibidualari tarte halako bat uzten baitzaio: horrek egingo luke adimenak hemen, haien erregularitasunari dagokionez, instintuak bestean lortu dituen antzeko emaitzak lortzea; azturara joko luke. Aztura horietako bakoitza, zeina «moral» dei baitateke, kontingentea izango da. Baina horien multzoa, aztura horiek hartzeko aztura esan nahi dut, gizarteen oinarrian bertan egonik eta haien existentzia baldintzatzen dutelarik, instintuarenarekin pareka daitekeen indarra izango du, bai intentsitatez eta bai erregularitasunez. Hor dago hain zuzen ere «betebeharraren osozkoa» deitu duguna. Naturaren eskuetatik irteteen ziren bezalako gizarteak baizik ez dira izango. Gizarte primitibo eta elementalak izango dira. Baina gizartea nahiz eta progresatu, konplikatu eta espiritualizatu: bere sortzapeneko estatutuak, edo hobeki esanda, naturaren intentzioak iraun egingo du.

Alabaina, horrelaxe gertatu dira gauzak. Beste leku batean tratatu dugun puntu bat sakondu gabe, esan dezagun besterik gabe adimena eta instintua kontzientzia-formak direla, zeinak hasi-masizko egoeran elkarbarrendu behar izan baitira eta disoziatu handitzean. Garapen hori burutu da animala bizitzaren bi bilakaera-lerro handitan, artropodoekin eta ornodunekin. Lehenaren bukaeran intsektuen instintua dago, eta zehatzago esateko, himenopteroena; bigarrenaren bukaeran giza adimena dago. Instintuak eta adimenak tresnak baliaraztearen helburu esentziala dute: hemen lanabes asmatuak, ondorioz aldakor eta aurreikusigabeak; han naturak hornituriko organoak, eta ondorioz higiezinak. Bestalde, tresna lan baterako da, eta lan hori hainbat eraginkorragoa da zenbat eta espezializatuagoa den, eta ondorioz elkar osatzen duten desberdin kualifikaturiko langileen artean banatuagoa. Bizitza soziala inmanentea da horrela, ideal lauso baten gisara, bai instintuan eta bai adimenean; ideal horrek bere burutze osoena erlauntzean edo inurritegian aurkitzen du alde batetik, giza sozietateetan bestetik. Gizakiarena edo animaliaarena, sozietatea antolamendu bat da; horrek koordinazioa inplikutzen du, eta elementuen bata bestearekiko subordinazio bat ere bai eskuarki; beraz, bizirik soilik, eta gainera, errepresentaturik, arau- edo lege-multzo bat eskaintzen du. Baina erlauntz batean edo inurritegi batean banakoa enpleguari josirik dago bere egiturarengatik, eta antolamendua erlatiboki aldaezina da; aldiz, giza hiria forma aldakorrekkoa, aurrerakuntza guz-

tietara irekia da. Hortik dator, lehenetan, arau bakoitza naturak ezarria izatea; beharrezkoa da; aldiz, besteetan gauza bakarra da naturala, arau baten beharrezkoa. Zenbat eta giza sozietate batean gehiago sakondu betebeharrak desberdinen erroraino oro harreko betebeharrera iristeko, hainbat gehiago joko du betebeharrak behartasun bihurtzera, hainbat gehiago hurbilduko da instintura derrigorrezko duen horretan. Eta hala eta guztiz ere, hutsegite handia egingo genuke instintua betebeharrak partikular batekin lotuko bagenu, edozein delarik ere. Beti esan beharko da ezein betebeharrak izaera instintuzkoa ez delarik, betebeharraren osozkoa instintuarena *izango zatekeela* giza sozietateak aldakortasunez eta adimenez nolabait lastratuak izan ez balira. Instintu birtual bat da, hitz egiteko azturaren atzean dagoena bezalakoa. Giza sozietate baten moralak bere hizkuntzarekin erkagarria da izatez. Nabarmenezkoa da inurriek zeinuak trukutzen badituzte, gertakorra dirudenez, elkarrekin komunikarazten dituen instintuak berak hornitzen diela zeinua. Aitzitik, hizkuntza erabilpenaren produktua da. Ez hiztegiaren eta ez sintaxiaren, ezer ez dator naturatik. Baina naturala da hitz egitea, eta zeinu aldazkinak, jatorri naturalekoak, zeinek seguraski intsektu-sozietate batean balio baitute, horiek errepresentatzen dute zer izango zatekeen gure hizkuntza, baldin eta naturak, hitz egiteko ahalmena ematean, tresnaren funtzio fabrikatzailea eta erabiltzailearekin batera, beraz, asmatzailea den adimena gehitu izan ez balio. Etengabe esan dezagun zer izango zatekeen betebeharrak giza sozietate instintuzkoa izan balitz adimenduna izan ordez: horrela ez dugu azalduko ezein betebeharrak berezian, eta betebeharrak ere oro har faltua izango litzatekeen ideia bat emango genuke, hari atxikiz gero; eta hala ere, sozietate instintuzko horretan pentsatu beharko da sozietate adimendunaren pareko batean bezala, moralaren oinarrien bilaketan hari gidaririk gabe abiatu nahi ez bada.

Ikuspuntu horretatik betebeharrak galdu egiten du bere izaera espezifikoa. Bizitzako fenomeno orokorrenekin erlazionatzen da. Organismoa osatzen duten elementuak diziplina zorrotz batera makurtzen direnean, esan ote daiteke behartuak sentitzen direla eta instintu sozial bati obeditzen diotela? Inondik ere ez; nahiz eta organismo hori ozta-ozta izan sozietate, erlauntza eta inurritegia egiazko organismoak dira, zeinen elementuak elkarren artean baturik baitaude lokarri ikusezinez; eta inurriaren instintu soziala –esan nahi dut indarra, zei-

naren eraginez langileak, adibidez, burutzen baitu lana, zeinetara bere egiturak aurredestinatu baitu— ezin daiteke errotik desberdina izan kausarekiko, zeinahi dela ere, zeinaren indarrez gorputz bizi bateko ehun bakoitzak, zelula bakoitzak funtzionatzen baitu multzoaren ongi handienerako. Bestalde, ez kasu batean eta ez bestean ez dago propioki betebeharririk; areago legoke behartasuna. Baina behartasun hori, gardentasunez hautematen dugu hain zuzen, ez erreal, birtual baizik, betebeharraren sakonean. Izakia behartua sentitzen bada, aske delako da, eta betebeharraren bakoitzak, banaka hartuta, askatasuna inplikatzeko du. Baina beharrezko da betebeharrak izatea; eta zenbat eta gehiago jaisten garen gailurrean dauden betebeharraren partikular horietatik oinarrian dagoen betebeharraren osozkoa, hainbat gehiago agertzen zaigu betebeharraren bizitzaren domeinuan behartasunak hartzen duen forma bera bezala, horrek helburu batzuk burutzeko, adimena, aukera, eta ondorioz, askatasuna eskatzen dituen.

Berriz ere esango da giza sozietate oso sinpleak, primitiboak edo gutxienez elementalak direla. Ez dago zalantzarik; baina aurrerago esateko aukera izango dugunez, zibilizatuak desberdintzen da primitiboarengandik, bere kontzientziaren lehen itzartzetik lortu dituen ezagutza eta azturen masa handiarengatik, haiek kontserbatzen ziren ingurumen sozialean. Naturala dena parte handi batean lortuak estalirik dago; baina ia higigaitz dirau mendeetan zehar; azturek eta ezagutzek ez dute inola ere organismoa blai egiten eta ez dira herentziaz transmititzen, imajinatu izan denez. Egia da naturala den hori ezin preztatzeko eduki dezakegula betebeharraren geure analisisan, horren gainean zibilizazioko mendeetan zehar metatu diren lortutako azturek zantzurik egongo balitz. Baina oso egoera onean, oso bizirik irautea dute sozietaterik zibilizatuenean. Horrekin erlazioan jarri beharra dago, ez honelako edo halako betebeharraren sozialen berri emateko, baizik eta betebeharraren osozkoa deitu duguna azaltzeko. Gure sozietate zibilizatuak, naturak bitartegabe destinatu gintuen sozietatearen aldean oso desberdinak badira ere, harekiko oinarritzako antza ageri dute.

Izatez, horiek ere sozietate itxiak dira. Nahiz eta oso hedatuak izan instintuz eramanak gineneko talde txoen aldean, eta nahiz eta instintu berak joko lukeen seguraski berrezartzera gaur egun gordailuak aurkitzen ditugun ingurumen sozialetik desagertuko balira zibili-

zazioaren lorpen material eta espiritual guztiak: sozietate horiek ez dute gutxiago esentziatatzat une bakoitzean norbanako-kopuru jakin bat barnean hartzea eta gainerakoak baztertzea. Lehenago esan dugu bete-behar moralaren barrenean eskakizun soziala dagoela. Zer sozietatez ari ginen? Gizadi osoa litzatekeen sozietate ireki horretaz ari al ginen? Ez dugu ebatzi auzia, eskuarki gizakiak bere kideekiko duen betebeharrak hitz egitean egiten baita hori. Lausotasun zuhurrean geratzen da. Uko egiten zaio baieztatzeari, baina sinetsarazi nahiko litzateke «giza sozietatea» oraintxetik buruturik dagoela. Eta ongi dago hori sinetsaraztea, zeren ukaezina da betebeharrak ditugula gizakiarekiko gizaki den heinean (nahiz eta beste jatorri batekoak izan, aurreraxeago ikusiko denez), eta horiek ahultzeko arriskuan jarriko genituzke geure hiritarkideekiko betebeharretatik erabat bereiziz. Egintzak irabazten du horrekin. Baina bereizkuntza hori azpimarratzen ez duen filosofia morala egiaz kanpo dago; bere analisiak ezinbestez izango dira faltsuak. Izan ere, inoren bizitza eta jabetza errespetatzearen betebeharra bizitza sozialaren oinarritzko eskakizuna dela baieztatzen dugunean, zein sozietatez ari gara hitz egiten? Erantzuteko, aski da gerra-garaian zer gertatzen den kontsideratzea. Hilketa eta harrapaketak, baita traizioa, iruzurra eta gezurra, ez dira zilegi bakarrik bihurtzen, merituzko dira. Beligeranteek *Macbeth*-eko sorginek bezala esango dute:

Fair is foul, and foul is fair.

Ahalgarria izango al litzateke, hain erraz gertatuko al litzateke eraldakuntza, orokorra eta bat-batekoa, baldin balego gizakiaren jarrera halako bat gizakiarekiko ordura arte sozietateak gomendatu diguna? O, badakit sozietateak zer dioen (baditu, berriz diot, hori esateko bere arrazoiak); baina zer pentsatzen duen eta zer nahi duen jakiteko, ez dago gehiegi entzun beharrik zer esaten duen, zer egiten duen begiratu behar da. Esaten du berak definituriko betebeharrak, printzipioz, gizadiarekiko betebeharrak direla baina, salbuespeneko zirkuntantzietan, zorigaitzez saihetsezinak direnetan, horien ariketa esekirik geratzen dela. Adierazpen hori egingo ez balu, beste moral baterako aurrerakuntza trabatuko luke, zeina ez baitator zuzenean hartatik, eta zeina kudeatzen interes handia baitauka. Bestalde, gure espiritu-azturrekin bat dator anormaltzat jotzea bakan eta salbuespeneko samarra dena, gaixotasuna adibidez. Baina gaixotasuna osasuna bezain nor-

mala da, zeina, ikuspuntu jakin batetik begiraturik, gaixotasuna prebenitzeko edo saihesteko ahalegin iraunkor gisa agertzen baita. Era berean, bakea beti izan da orain arte defentsarako edo baita erasorako, edozein kasutan gerrarako prestakuntza. Gure eginbehar sozialek kohesio soziala dute helburu; nahita nahigabe jarrera bat osatzen digute, etsaiaren aurreko diziplinarena dena. Hau da, gizakiak, zeinari sozietateak dei egiten baitio diziplinatzera, nahiz eta berak aberasten duen zibilizazioko mendeetan lortutako guztiaz, hala ere badu instintu primitibo horren premia, hain berniz lodiaz estaltzen duenarena. Labur esateko, betebehar sozialaren barrenean hauteman dugun instintu sozialak beti du helburu –instintua higigaitz samarra izaki–sozietate itxi bat, denik eta hedatuena delarik ere. Zalantzarik gabe beste moral batez gainestalarik dago, zeina horregatik beragatik sostengatzen baitu, eta zeinari ematen baitio bere indarretik zerbait, bere izaera ezinbestekotik esan nahi dut. Baina berak ez du helburu gizadia. Hau da, nazioaren, denik eta handiena delarik ere, eta gizakiaren artean mugatutik mugagaberrainoko, itxitik irekirainokoa distantzia guztia dago. Gogara esan ohi da bertute zibikoen ikaskuntza familian egiten dela, baita aberria maitatzean, gizadia maitatzeko prestatzen dela ere. Gure sinpatia handitu egingo litzateke horrela etengabeko aurrerakuntzaz, hazi egingo litzateke lehengoa bera geratuz, eta azkenean gizadi osoa besarkatuko luke. Horra *a priori* arrazoiketa bat, ari-maren kontzepzio intelektualista hutsetik irtena. Konstatatzen da hiru taldeek, zeinei atxiki baikakizkieke, gero eta pertsona-kopuru handiagoa hartzen dutela, eta hortik ondorioztatzen da objektu maitatuaren hurrenez hurreneko handitze horiek sentimenduaren pixkanakako dilatazio bati dagozkiola soilik. Eta horrek indar ematen dio ilusioari, zeina baita, topaketa zorioneko batengatik, arrazoiketaren lehen parte bat datorrela egitateekin: familia-bertuteak oso lotuak daude bertute zibikoekin, eta arrazoi oso simple bat dago horretarako, familiak eta sozietate hasieran nahastuek elkarrekiko lotura estuan iraun izana. Baina bizi garen sozietatea eta, oro har, gizadiaren artean, berriz diogu, itxia eta irekiaren arteko kontraste bera dago; bi objektuen arteko desberdintasuna izaerakoa da, eta ez gradu soilekoa. Zer geratuko ote da arima-egoeretara pasatuz gero, beren artean bi sentimendu horiek erkatzen badira, aberriarekiko atxikimendua eta gizadiarenganako maitasuna? Nork ez du ikusten kohesio soziala, neurri handi batean, sozietate batek besteen aurka bere burua defendatzeko duen

premiari zor zaiola, eta lehenik beste gizaki guztien aurka maitatzen direla nor berak bizikide dituen gizakiak? Horrelakoa da instintu primitiboa. Oraindik hor dago, zorionez disimulaturik zibilizazioaren ekarpenen azpian; baina gaur egun naturalki eta zuzenean maite ditugu geure gurasoak eta geure hirikideak, aldiz, gizadiarenganako maitasuna zeharkakoa eta lortua da. Haiengana zuzen-zuzen goaz, horrengana itzulinguru batez iristen gara; zeren Jainkoaren bitartez, Jainkoarengan bakarrik gonbidatzen du erlijioak gizakia gizadia maitatzera; era berean Arrazoiaren bidez, guztiok komunikatzen dugun Arrazoiari bakarrik begirarazten digute filosofoak gizadiari giza pertsonak duen duintasun gailena erakusteko, guztiek errespeturako duten eskubidea. Ez kasu batean eta ez bestean ez gara gizadira etapaka iristen, familia eta nazioa zeharkatuz. Beharrezko da, jauzi batez, bera baino urrunagora garraiatuak izan gaitezen eta xedetzat hartu izan dezagun, bera gaingiduz. Bestalde erlijioaren hizkuntzaz edo filosofiarenaz hitz egitea, maitasunaz edo errespetuaz aritzea, beste moral bat da, beste betebeharrak mota bat da, presio sozialari gainezartzera datozkionak. Orain artekoan horretaz bakarrik ari izan gara. Iritsi da unea bestera igarotzekoa.

Betebeharrak garbia bilatu dugu. Hori aurkitzeko, moralak bere adierazpen soilenera murriztu behar izan dugu. Betebeharrak zertan datzan ikustea izan da horren abantaila. Moralak izugarri estutzea izan da horren eragozpena. Kontua ez da, noski, kanpoan utzi duguna betebeharrekoa ez izatea: imajina al liteke behartzen ez duen betebeharririk? Baina kontzebitzen da primitiboki eta garbiki betebeharrekoa dena esan berri duguna izaki, betebeharrak irradiatzea, hedatzea, eta antzaldatzen duen beste zerbaitetan hurrupaturik gelditzea ere. Ikus dezagun orain zer izango litzatekeen moral osoa. Metodo beraz baliatuko gara, eta muga ez dugu behetik baizik goitik pasatuko dugu.

Garai guztietan sortu dira aparteko gizakiak, zeinengan haragiztatzen baitzen moral hori. Kristautasuneko santuen aurretik, gizakiak Greziako jakintsuak ezagutu zituen, Israelgo profetak, budismoa Arahantak eta beste batzuk ere bai. Horien aipamena egin da beti moralitate oso hori edukitzeko, zeinari absolutu deitzea hobe bailitzateke. Eta hori bera jadanik karakteristiko eta irakasgarria da. Eta horrek berak izaera-desberdintasun bat aurre-sentiarazten digu, eta ez gradukoa soilik, orain arte auzitan izan dugun moralaren eta orain

aztertzen ari garenaren artean, minimoa eta maximoaren artean, bi mugen artean. Lehena hainbat garbiago eta beteginagoa da, zenbat eta formula inbertsonaletan hobeki murrizten den; bigarrenak, osoki bera izateko, etsenplu bihurtzen den pertsonalitate pribilegiatu batengan haragiztatu behar du. Bataren orokortasunak lege baten onarpen unibertsalera jotzen du, besteak ere du baten imitazio komunera.

Zergatik dituzte horrela santuek imitatzailak, eta zergatik gizaki handiek eraman dituzte jendetzak beren atzetik herrestan? Ez dute ezer eskatzen, eta hala ere, lortu egiten dute. Ez dute exhortatu beharrik; aski dute existitzearekin; beren existentzia dei bat da. Izan ere, hori baita beste moralaren ezaugarria. Betebehar naturala presio edo bultzada den bitartean, moral oso eta beteginean dei bat dago.

Dei horren izaera, pertsonalitate moral handi baten aurrean aurkitu izan direnek bakarrik ezagutu izan dute osoki. Baina gutako bakoitzak, ohiko portaera-maximak askiekak iruditzen zitzaizkion orduetan, galdetu dio bere buruari halakok edo bestelakok zer espero izango zukeen abagune hartan. Pentsamenduz burura ekartzen genuen guraso bat, adiskide bat izan zitekeen. Baina inoiz topatu gabeko gizaki bat ere izan zitekeen, zeinaren bizitza kontatzea besterik ez baitzигuten egin, eta zeinaren epaipean jarriko baikenuen geure portaera irudimenean, haren ahakarrarengatik beldurrez, haren onarpenarengatik harro. Izan zitekeen, halaber, arimaren sakonetik kontzientziaren argira aterea, gudan jaiotzen zen nortasun bat, gerora osoki gu inbaditzeko gai zena, eta zeinari atxiki nahi gintzaizkion une horretan dizipuluak maisuari bezala. Egia esateko, nortasun hori marraturik gertzen da ere du bat, norbaiten antzeko izan nahia hartzen den egunetik, zeinak idealki hartzeko forma bat sartzen baitu, jadanik antza da; geure egingo dugun hitza jadanik geure baitan oihartzuna entzun diogun hura da. Baina gutxi axola dio pertsonak. Esan dezagun soilik lehen moralak hainbat indar gehiago bazuen zenbat eta garbiago deskonposatzen zen, betebehar inbertsonaletan; beste hori, aldiz, hasieran gure adimenak onartzen zituen baina gure nahimena hunkitzera iristen ez ziren agindu orokorretan barreiatua, ahaltsuago bihurtzen da maximen aniztasuna eta orokortasuna gizaki baten batasun eta banakotasunarekin zenbat eta gehiago bat egiten diren.

Nondik datorra indarra? Zein da, orduan, betebehar naturalaren ondotik datorren egintza-printzipioa edo areago hura azkenerako

hurrupatzen duena? Hori jakiteko, ikus dezagun lehenik zer eskatzen zaigun tazituki. Orain arte tratatu ditugun betebeharrak bizitza sozialak ezartzen dizkigunak dira; hiriaren aurrean gehiago behartzen gaituzte gizadiaren aurrean baino. Orduan esan liteke, bigarren moralala—deliberatuki bata eta bestea bereizten baditugu— lehenetik gizatiarra izatean bereizten dela soziala bakarrik izan ordez. Eta ez geundeki erabat erraturik. Ikusi dugu, izan ere, hiria hedatuz ez garela gizadira iristen: moral sozialaren eta gizatiarraren artean desberdintasuna ez da graduzkoa, izaerazkoa baizik. Lehena da naturalki behartuak sentitzen garenean eskuarki pentsatzen dugun moralala. Betebehar zehatz horiez haratago, beste batzuk irudikatzea gustatzen zaigu, agian lausoagoak, aurrekoei gainezarriko litzaizkiekeenak. Abnegazioa, entrega, sakrifizio-espiritua, karitatea, horietan pentsatzean esaten ditugun hitzak dira. Baina kasu horietan, oro har, pentsatzen al dugu sarrienik hitzak ez diren beste zerbaitetan? Ez, noski, eta ohartu egiten gara horretaz. Baina esaten dugu ez dela aski formula existitzea, horrek bere zentzu guztia hartuko duela eta hura betetzera datorren ideia aktibo bihurtuko dela abagunea aurkeztu orduko. Egia da askorentzat abagunea ez dela aurkeztuko edo egintza gerorako utziko dela. Batzuegan, nahimenak dar-dar egingo du zertxobait, baina hain ahulki, non jasotako astinaldia zinez egotzi ahal izango baitzaio betebehar sozialaren dilatazio hutsari, betebehar gizatiar baten forma hartzean hedatu eta ahulduari. Baina formulak materiaz bete daitezela eta materia anima dadila: orduan bizitza berri bat iragartzen da; bestelako moral bat sortzen dela ulertzen dugu, sentitzen dugu. Beraz, hemen gizadiarenganako maitasunaz hitz egitean, zalantzarik gabe ezaugarritzen da moral hori. Hala ere, ez litzateke horren esentzia adieraziko, zeren gizadiarenganako maitasuna ez baita bere buruarekin aski duen eta zuzenean aritzen den higigarria. Gazteriaren hezitzaileek ongi dakite ezinezkoa dela egoismoa menderatzea «altruismoa» gomendatuz. Gertatu ere egiten da batzuetan arima emankor bat, bere burua sakrifikatzeko artega dagoena, «giza generoaren» alde lan egin behar duelako ideiarenean aurrean bat-batean hoztea. Objektua zabalegia gertatzen da eta efektua barreiatuegia. Beraz, ondoriozta dezakegu gizadiarekiko maitasuna moral horren osagai baldin bada, puntu batera iristeko asmoan, bitarteko espazioa gainditzearen beharra inplikaturik egotearen antzerara dela. Zentzu batean gauza bera da; beste batean zeharo desberdina da. Tarte eta puntuak bakarrik pentsatzen badira, kopuru amaigabe-

an, zeinak banan-banan korritu beharko baitira, ez gara abiatzera animatuko, Zenonen gezia bezala, eta edozein kasutan ez da horretan inolako interesik, inolako erakarmenik ikusiko. Baina tarte gaindizten bada muturra bakarrik kontuan hartuz, edo urrunago ere begiratzuz, aise egin ahal izango da egintza simple bat, eta aldi berean aniztasun amaigabe horren bukaerara iritsiko gara, zeinaren baliokide baita sinpletasun hori. Zein da hemen bukaera, zein da ahaleginaren norabidea? Hitz batean, zer da zinez eskatzen zaiguna?

Defini dezagun, lehenik, orain arte kontsideratu dugun gizakia-
ren jarrera moralak. Gizon horrek gorputz bat eratzen du sozietatearekin; bata eta bestea kontserbazio indibidual eta sozialeko ataza berean murgildurik daude. Beren baitara bihurturik daude. Noski, zalantzazkoa da interes partikularra beti bat etortzea interes orokorrek: eza-
gunak dira moral utilitarioak topo egin izan dueneko zailtasun ebatze-
zinak, norbanakoak bere ongi propioa bakarrik bila dezakeelako prin-
tzipioa ezarri duenean, eta baieztatu duenean horrela hain zuzen ere
izango litzatekeela eramana bere kideen ongia bilatzera. Izaki adimen-
dun batek, bere interes pertsonalaren bila dabilenean, interes oroko-
rrak eskatuko lukeenaz zeharo bestelakorik egingo du sarritan. Eta,
hala ere, moral utilitariora tematzen bada era batean edo bestean ager-
tzen, egitez sostengaezina ez delako da, eta mantentzerik badago hain
zuzen ere jarduera adimendunaren azpian, zeinak zinez aukera egin
beharko bailuke interes pertsonalaren eta hurkoaren artean, bada
naturak primitiboki ezarritako jarduera-substratum bat, zeinean bana-
koa dena eta soziala dena bat egitetik oso hurbil baitaude. Zelula bere-
tztat eta organismoarentzat bizi da, hari bitalitatea emanez eta hartatik
hartuz. Beharrezko bada, osoarengatik sakrifikatu egingo da, eta
orduan, zalantzarik gabe, kontzientea balitz, beretzat egiten duela
esango litzateke. Eta seguraski, bere portaeraz gogoeta egiten duen
inurri baten arima-egoera ere hori izango litzateke. Inurriaren eta inu-
rritegiaren ongiaren erdigunean edo mantentzen dela bere jarduera
sentituko luke. Alabaina, oinarritzko instintu horri batu diogu betebe-
har propioki esana: bere jatorrian gauzen egoera bat inplikutzen du,
zeinean banakoa dena eta soziala dena bata bestetik ez baitira bereiz-
ten. Eta arrazoi horrengatik esan dezakegu dagokion jarrera beren bai-
tan tolesturiko norbanako batena eta sozietate batena dela. Banako eta
sozial aldi berean, arima zirkuluan ari da hemen biraka. Itxita dago.

Beste jarrera arima irekiarena da. Zer uzten du, beraz, sartzen? Gizaki osoa besarkatzen duela esango bagenu, ez ginateke urrunegi joango, behar adina ere ez genuke egingo aurrera, zeren haren maitasuna animaliegana, landareetara, natura osora hedatuko baita. Eta, hala ere, era honetara hura okupatzera etorriko litzatekeen gauzetako bat ere ez litzateke aski izango hartu duen jarrera definitzeko, zeren gai izango bailitzateke, hala behar izanez gero, guztiez gabetzeko. Bere forma ez dago bere edukiaren baitan. Bete berria dugu; era berean hustu ahal izango genuke orain: karitateak iraun egingo luke haren jabe denarengan, nahiz eta lurrean beste bizidunik izango ez balitz ere.

Beste behin ez da norberaren dilatazioz pasatuko lehen egoeratik bigarrenera. Psikologia intelektualistegiak, hizkuntzaren indikazioak jarraitzen dituenak, arima-egoerak zalantzarik gabe atxikitzen zaizkien objektuen arabera definituko ditu: familiarekiko maitasuna, aberriarekiko maitasuna, gizadiarekiko maitasuna, hiru isuri horietan gero eta gehiago dilatatzeko den sentimendu bera ikusiko du, gero eta pertsona-kopuru handiagoa bere baitan hartzeraino. Hiru arima-egoera horiek kanpora jarrera beraz edo mugimendu beraz azaltzeak, hiru-ek gu *makurrarazteak*, maitasun kontzeptupean taldekatzeko eta hitz beraz adierazteko aukera ematen digu: hiru objektu, gero eta handiago izendatuz bereiziko ditugu orduan, zeini atxikiko bailitzaizkieke. Izatez, hori aski da izendatzeko. Baina hori deskribatzea al da? Analizatzea al da? Lehen begi-kolpean, kontzientziak lehen bi sentimenduen eta hirugarrenaren artean izaera-desberdintasun bat hautematen du. Haiek aukera bat inplikatzeko dute, eta, ondorioz, baztertze bat: borrokara bultzatu ahal izango dute; ez dute gorrotoa baztertzen. Hori ez da maitasuna besterik. Haiek erakartzen dituen objektu baten gainean kokatzera doaz zuzen-zuzen. Horrek ez du amore ematen bere objektuaren erakarpenaren aurrean; berak ez du helmugatzat hartu; horrek urrunago jo du, eta zeharkatuz bakarrik iristen da gizadiarengana. Benetan hitz eginez, ba al du objekturik? Geroago egingo dugu galdera hori. Oraingoz muga gaitezen arimaren jarrera hori, mugimendu bat areago den hori berarentzat aski dela konstatatzera.

Hala eta guztiz ere, batari besteak erabat ebatzia daukan arazo bat planteatzen zaio. Hori izatez naturak nahi izandakoa da; ikusi berria dugu nola eta zergatik sentitzen garen hori hartzera eramanean. Baina hura lortua da; ahalegin bat eskatu du eta eskatzen du beti.

Nondik dator etsenplua eman duten gizakiek beste gizaki batzuk aurkitu izana jarraitzaile izateko? Eta zein da presio sozialari dagokion indarra hemen? Ez dugu aukerarik. Instintuaz eta azturaz kanpo, ez dago zuzeneko egintzarik nahi izatearen gain sentsibilitatearena izan ezik. Sentimenduak eragindako bultzadak, bestalde, betebeharraren oso antz handia izan dezake. Azter ezazue maitasunaren grina, batez ere bere hasieran: atseгина al du helmuga?; ez al litzateke era berean atsekabea ere izango? Agian orduan tragedia bat ari da prestatzen, bizitza oso bat frustratua, alferrikaldua, jakina da, sentitu egiten da, bost axola!, behar delako da beharrezko. Jaiotzen ari den grinaren trazitioa hain zuzen ere betebeharrari kontra egitean datza. Baina ez dago grinara iritsi beharrik. Emoziorik lasaienean ager daiteke egintza-eskakizun halako bat, zeinatik oraindik orain definitu dugun betebeharra desberdintzen baita erresistentziarik ez aurkitzean, kontsentitua baizik ez inposatzean, baina betebeharraren antza zerbait inposatzean bakarrik daukana. Inon ez dugu hura hobeto hautematen eskakizun horrek bere efektu praktikoa esekitzen duen tokian baino, horrela hartaz gogoeta egiteko eta esperimentatzen duguna analizatzeko aukera emanaz. Hori gertatzen da, esaterako, emozio musikalean. Entzuten ari garen bitartean iruditzen zaigu musikak iradokitzen digunaz besterik ezingo genukeela nahi izan eta horrela jokatu genukeela naturalki, derrigor, hori entzunez horrela jokatzeetik atsedena hartu ez bagenu. Musikak poza, tristura, errukia, sinpatia adierazten duela, uneoro hark adierazten duen hori gara. Ez gu bakarrik, beste asko ere bai, baina beste guztiak ere bai. Musikak negar egiten duenean, gizadia, natura osoa ari da harekin negar egiten. Egia esateko, berak ez ditu sentimendu horiek sartzen gudan; areago sartzen gaitu gu haietan, dantza batera bultzatzen egiten zaien pasatzaileak bezala. Horrela jokatzen dute moralaren hasiera-emaleek. Sentimendu susmatugabeen erresonantziak ditu bizitzak haientzat, sinfonia berri batek eman litza-keenak bezalakoak; berekin musika horretan sarrarazten gaituzte, hori mugimendu bihur dezagun.

Intelektualismo gehiegiz esekitzen da objektu batekiko sentimendua, eta emozio oro errepresentazio intelektual baten erreperkusiorako kontsideratzen da, sentsibilitatean. Berririo musikaren adibide-
ra jotzeko, bakoitzak badaki hark gudan emozio jakin batzuk eragiten dituela, poza, tristura, errukia, sinpatia, eta emozio horiek biziak izan

daitezkeela, eta osoak direla guretzat, nahiz eta ezeri atxikirik ez egon. Esango al da artearen erresuman gaudela hemen, eta ez errealtatearenean, eta orduan jolasez bakarrik emozionatzen garela, gure arima-egoera imajinario hutsezkoa dela, eta bestalde musikak ezingo lukeela sorrarazi emozio hori gugan, iradoki eragin gabe, jadanik bizitza errealean probatu izan ez bagenu, objektu batek determinatzen zuenean, zeinatik arteak bereizi besterik ez baitu egin behar izan? Hori poza, tristura, errukia, sinpatia orokortasunak adierazten dituzten hitzak direla ahaztea izango litzateke, zeinen aipamena egin beharra baitago musikak sentiarazten duena adierazteko, baina musika berri bakoitzari sentimendu berriak itsasten zaizkiola, musika horrek eta musika horretan sortuak, melodiaren edo sinfoniaren diseinuak berak definituak eta zedarrituak, bere generoan bakarra denak beraz ez ditu arteak atera bizitzatik; gu geu gara, hitz bihurtzeko, behartuak sentitzen garenak artistak sortutako sentimendua bizitzan horren antzik handiena duenera hurbiltzera. Baina har ditzagun arima-egoerak berak ere gauzek efektiboki eragindakotzat eta haietan aurreiruditutzat. Kopuru jakin batean, hau da, mugatuan, naturak nahi izandakoak direnak. Beharrian dagozkien egintzak bultzatzeko eginak izan direlako eza gutzen dira. Besteak, aitzitik, egiazko asmakuntzak dira, musikariarenekin erka daitezkeenak, eta zeinen jatorrian gizakia baitago. Horrela mendiak, betidanik, komunikatu ahal izan dizkie bera begiesten zutenei sentsazioen pareko diren sentimendu halako batzuk, eta zeinari izatez itsaskorrak baitzitzaizkion. Baina Rousseauk, hori dela-eta, emozio berri eta original bat sortu du. Emozio hori arrunt bihurtu da, Rousseauk zirkulaziora jaurti duelarik. Eta gaur egun ere Rousseauk probarazten digu, mendiak adina eta gehiago. Jakina, bazeuden arrazoiak emozio hori, Jean-Jacquesen arimatik irtena, mendiari atxikitze-ko beste edozein objekturi baino gehiago: sentimendu elementalek, sentsazioaren hurbilekoek, zuzenean mendiak eraginek ados jarri behar zuten emozio berriarekin. Baina Rousseauk pilatu ditu, akorde soil gisara sarraraziz tinbre batean, zeinaren oinarritzko nota, egiazko sorkuntza batez, berak eman baitu. Gauza bera gertatzen da, oro har, naturarekiko maitasunarekin ere. Horrek betidanik sorrarazi ditu ia sentsazioak diren sentimenduak; beti gozatu izan da itzalen eztitasunaz, uren freskuraz eta abarrez; hori da «amoenus» hitzak iradokitzen duena, zeinaren bidez erromatarrek ezaugarritzen baitzuten landaren xarma. Baina hona hemen emozio berri bat, seguraski norbaitek edo

norbaitzuek sortua, iritsi da aurrez baziren nota horiek akorde baten gisara erabiltzera eta musika-tresna berri baten jatorrizko tinbrearen pareko zerbait sortzera, guk geure herrialdean naturaren sentimendua deitzen duguna. Horrela sarrarazitako oinarritzko nota beste bat izan zitekeen, Ekialdean gertatu denez, Japonian berezikiago: beste bat izango zatekeen orduan tinbrea. Sentsazioetik hurbileko sentimenduek, determinatzen dituzten objektuei hertsiki lotuek, bestalde, berengana dezakete alde zurretik sortutako emozio bat, eta erabat berria ez dena. Garai guztietan emakumeak inspiratu behar izan dio gizonari desiraren bestelako isuri bat, hala ere albokide eta soldeatua bezala geratzen zena, aldi berean sentimenduaren eta sentsazioaren partaide izanez. Baina maitasun erromantikoak data du: Erdi Aroan sortua da maitasun naturala, nolabaiteko naturazgandiko forma batean, kristautasunak sortu eta mundura jaurti zuen bezalako emozio erlijiosoan hurrupatzea otu zitzaigunean. Mistizismoari ahakar egiten zaionean maitasun-grina bezala bere burua adieraztea, ahaztu egiten da maitasuna mistika plagiatzen hasi zela, hari mailegatu zizkiola bere sugarrak, bere bulkadak, bere estasiak; berak antzaldaturiko grina baten hizkuntza erabiliz, mistikak bere ondasuna berreskuratzea besterik ez du egin. Bestalde, zenbat eta maitasuna gehiago hurbildu adoraziora, hainbat handiagoa da emozioaren eta objektuaren arteko desproporztioa, hainbat sakonagoa, beraz, maiteminduak etsimendurako duen arriskua, –non eta ez duen derrigortzen bere burua amaigabeki emozioaren bitartez objektua ikustera, hura ez ukitzera, erlijiosoki tratatzera–. Gogora dezagun antzinakoek jadanik hitz egin zutela maitasunaren ilusioez, baina zentzumenen moduko erroreak ziren, eta maitatzen den emakumearen irudia, tailua, ibilera, izaerarekin zerikusia zutenak. Gogora ekar bedi Lukrezioaren deskribapena: ilusioak hemen objektu maitatuaren kalitateetara bakarrik eramaten du, eta ez, ilusio modernoak bezala, maitasunetik espero litekeenera. Antzinako ilusioaren eta guk hemen horri gehitu dioguna objektuari berari darion sentimendua primitiboaren eta kanpotik deitutako emozio erlijiosoaren artean dagoen desberdintasun bera da, zeina hura estaltzera eta gainezkatzera etorri baita. Etsimenduari utzitako marjina orain esker ga da, zeren jainkozkoaren eta gizakizkoaren arteko tarte ba da.

Emozio berri bat aurkitzea artea, zientzia eta, oro har, zibilizazioaren sorkari handien jatorrian, ez da zalantzazko deritzogun zerbait.

Ez emozioa estimulagarri bat delako bakarrik, adimena ekitera eta nahimena irautera bultzatzen duelako ere bai. Askozaz haratago joan beharra daukagu. Badira emozioak pentsamendu-sortzaileak direnak; eta asmamenak, nahiz eta maila intelektualekoa izan, sentsibiltatea izan dezake substantziazat. Hori ulertu behar da «emozio», «sentimendu», «sentsibiltate» terminoen esanahiaz. Emozioa arimaren dardara afektiboa da; baina gauza bat da azaleko asaldura bat, eta besterik, sakoneko astinaldia. Lehen kasuan efektua barreiatu egiten da eta, bigarrean, banatu gabe gelditzen da. Batean, atalen oszilazio bat da osoaren desplazamendurik gabe; bestean, osoa aurrerantz bultzatua da. Baina utz ditzagun metaforak. Bi emozio mota bereizi behar dira, sentimenduaren bi barietate, sentsibiltatearen bi agerpen, zeinek ez baitute komunean elkarren artean sentsazioaren egoera afektibo desberdinak izatea baino, eta hori bezala kitzikadura fisiko baten transposizio psikologiko soilera ez murriztea. Lehenean, emozioa ideia edo imajina errepresentatu baten ondoriozkoa da; egoera sentsiblea ezer zor ez dion egoera intelektual baten emaitza da, noski, bere buruarekin aski duenarena eta haren errebote-efektua jasaten badu, orduan irabazten duen baino gehiago galtzen duenarena. Gertatzen dena errepresentazio batengatik sentsibiltatearen asaldura da. Baina beste emozioa ez da errepresentazio batek determinatua, zeinaren jarraipena izango bailitzateke, eta zeinaz bestelakoa izaten jarraituko bailuke. Areago, agertzen diren egoera intelektualekiko kausa bat izango litzateke, eta ez efektu bat; errepresentazioz beterik aurkitzen da, zeinetarik bat ere ez baitago propioki formatua, baina garapen organiko baten bidez bere substantziazatik ateratzen duena edo atera dezakeena. Lehena infraintelektuala da; hartaz eskuarki psikologoak arduratzen dira eta hartan pentsatzen da sentsibiltatea adimenari kontrajartzen zaionean edota emozioa errepresentazioaren isla lauso bihurtzen denean. Baina besteaz gogara esango genuke supraintelektuala dela, baldin eta hitzak ez balu berehala eta eskusiboki balore-nagusitasun baten ideia; denborango aurretiazkotasun bat ere bada eta sortzen duenaren eta sortuaren arteko erlazio bat ere bai. Izan ere, bigarren mota honetako emozioa bakarrik irits daiteke ideia-sortzaile izatera.

Ez da prezatzen horrelakorik, halako arbuio-aire batez, «femenotzat» jotzen denean psikologia bat, zeinek ematen baitio hain leku zabal eta ederra sentsibiltateari. Horrela mintzo direnek emakumeari

buruz eskuarki zirkulatzen duten hutsalkeriei kontu egitea dute beren lehen erroretzat, hain erraza izango litzatekeenean behatzea. Ez gara hasiko bi sexuen azterketa konparatibo bat egiten, zehatza ez den adierazpen bat zuzentzeko xede bakarrarekin. Muga gaitezen esatera emakumea gizona bezain adimentsua dela, baina emozio-gaitasun gutxiagokoa, eta, harengan gutxiago garaturiko arimako ahalmenen bat baldin badago, ez dela adimena sentsibilitatea baizik. Jakina, ongi ulerturik, sentsibilitate sakona da eta ez azaleko asaldura². Baina hori da gutxienekoa. Espirituaren ahalmenik garaienak sentsibilitateari egoztean gizakia beheratzen ari direla uste dutenen errore handiena, datza hain zuzen ere, ulertzen, eztabaidatzen, onartzen edo arbuizatzen, hitz batean, kritikari lotzen zaionaren eta asmatzen duen adimenaren arteko desberdintasuna ez ikustean.

Sortzeak, ezer baino lehen, hunkitzea esan nahi du. Ez da literatura- eta arte-kontua bakarrik. Jakina da aurkikuntza zientifikoak zenbat kontzentrazio eta ahalegin eskatzen duen. Genioa pazientzia luze definitu izan da. Egia da adimena bereiz errepresentatzen dela, baita aditasun-ahalmen orokor batetik ere aparte, zeinek, gehiago edo gutxiago garaturik, adimena kontzentratuko bailuke indar gehiago edo gutxiagorekin. Alabaina, aditasun zehaztugabe horrek, adimenaz kanpokoak eta materiaz hustuak, adimenari batze hutsez, nola sorraraz lezake hartatik bere baitan ez zegoen zerbait? Nabari da hemen psikologia hizkuntzaren biktima dela, zeren kasu posible guztietan presaturiko aditasunak hitz beraz izendatzean, ez baitu ikusten haien artean, tamainazko baizik ez den desberdintasunik, nolakotasun bereko jotzen dituelarik. Egia da kasu bakoitzean aditasuna ñabardura berezi batez markaturik dagoela, eta banakoturik bezala, aplikatzen zaion objektuaren aldetik: horregatik du psikologiak «interesaz» hitz egiteko joera aditasunaz adina, eta horrela sentsibilitateari inplizituki esku harraraztekoa, dibertsifikatzeko erraztasun handiagoa baitu kasu partikularren arabera. Baina orduan ez da nahikoa oinarritzen dibertsitatearen gainean; interesatzeko ahalmen orokor bat planteatzen da, zeina beti bera bere objektuarekiko aplikazio handiago edo txikiagoaren arabera baizik ez bailitzateke desberdinduko. Beraz, ez dezagun hitz egin interesaz oro har. Esan dezagun interesa inspiratu duen emozio baten errepresentazio bikoiztua dela, eta emozioa, aldi berean jakin-min izanik, problema jakin bat ebazteko desira eta poz aurrera-

tua, bakarra dela errepresentazioa bezala. Berak bultzatzen du adimen aurrera, eragozpenak gorabehera. Bera da batez ere biziarazten dituen, edo hobeki bitalizatzen dituen, elementu intelektualak, zeinekin berak gorputz egingo baitu, metatu egiten baitu uneoro haiekin antola daitekeena, eta azkenik problemaren enuntziatutik ebazpen bihurtzea lortzen baitu. Zer ez ote da gertatuko literaturan eta artean! Obra geniala maizenik bere generoan bakarra den emoziotik sortua da, zeina adierazezintzat jo baitzitekeen eta zeinak adierazi egin nahi izan baitu bere burua. Baina ez al da berdin gertatzen obra ororekin, denik eta imperfektuena delarik ere, zeinean sartzen baita sorkuntza-parte bat? Konposizio literarioan aritzen den orok konstatatu ahal izan du bere baitara utzitako adimenaren eta bere sutik jatorrizko emozio bakarra kontsumitzen duenaren, autorearen eta bere gaiaren arteko kointzidentziatik, hau da, intuiziotik sortuaren arteko desberdintasuna. Lehen kasuan, espirituak hotzean lan egiten du, gizarteak egoera solidoan entregatzen dizkion ideiak, aspaldidanik hitzetan fundituak, beren artean konbinatuz. Bigarren, badirudi adimenak hornituriko materialak aldeztu aurretik fusioan sartzen direla eta berriro ondoren solidotu egiten direla ideia bihurtuz, oraingoan espirituak berak informatuak: ideia horiek aurrez existitzen diren hitzak aurkitzen badituzte adierazteko, horrek bakoitzarentzat fortuna on itxarongabearen efektua egiten du; eta egia esan, sarritan lagundu behar izan zaio suerteari, eta behartu behar izan da hitzaren zentzua pentsamenduaren gainean modela zedin. Oraingoan ahalegina mingarria da eta emaitza zorizkoa. Baina orduan bakarrik sentitzen da espiritua sortzaile edo sinesten du bere burua halako. Ez da inondik ere abiatzen unitate konposatu batean biltzeko egindako elementuen aniztasun batetik, zeinean zaharraren antolamendu berri bat gertatuko baita. Kolpe batez garraiatua izan da aldi berean bat eta bakarra zirudien gauza batera, zeina ahaleginduko baita bere burua erakusten ahal bezain ongi, aldeztu aurretik hitzetan emandako kontzeptu anizkoitz eta komunetan.

Laburbilduz, emozioaren ondoan, zeina errepresentazioaren efektua baita, eta zeina hari gehitzen baitzaio, bada errepresentazioaren aurretik doana ere, zeina birtualki bere baitan hartzen baitu, eta zeina haren kausa baita halako puntu bateraino. Doi-doi literatur obra den drama batek astindu egin ahal izango ditu gure kirioak eta lehen mailako emozio bat eragin, bizia zalantzarik gabe, baina hutsala,

arrunki bizitzan sentitzen ditugunen artetik hartuak, eta edozein kasutan errepresentazioz hustua. Baina obra dramatiko handi batek gugan eragiten duen emozioa beste izaera batekoa da: bakarra bere generoan, poetaren ariman sortua da eta hantxe bakarrik, gurea inarrosi aurretik; hartatik sortu da obra, zeren autoreak haren erreferentzia egingo baitu obraren osaerak aurrera egin ahala. Bera sorkuntza-eskakizun bat besterik ez da izan, baina eskakizun determinatu bat, obrak ase duena burutu ondoren eta beste batek aseko ez zukeena baldin eta hark lehenarekin analogia barneko eta sakon bat eduki izan balu, era berean onargarriak diren bi itzulpenen artean dagoenarekin erkagarria, musika bat berarena ideiatan edo imajinatan.

Esan nahi baita, parte handi bat emanez emozioari moralaren genesian, hala ere ez dugu aurkezten «sentimendu-moral» bat. Zeren errepresentazioetan kristaltzeko gai den emozio bat baita, eta doktrinan ere bai. Doktrina horretatik, eta ez beste ezeinetatik ere, ezingo zatekeen moral hori deduzitu; ezein espekulaziok ez du betebeharrak bat edo antzeko ezer sortuko; gutxi axola zait teoriaren edertasuna, beti esan ahal izango nuke ez dudala onartzen: eta onartzen badut ere, libre gelditu nahiko nuke neure gisara portatzeko. Baina emozioaren atmosfera hori badago, arnastu badut, emozioak barrentzen banau, haren arabera jokatu dut, berak bultzaturik. Ez derrigorturik edo beharturik, erresistituko ez natzaion joera baten indarrez baizik. Eta neure egintza, emozioaz beraz azaldu beharrean, orduan emozioa ideiatan transposatzetik eraikitako teoritik deduzitu ahal izango nuke. Guk hemen erdi-ikusi egiten dugu auzi larri baten erantzun posiblea, aurrerago aurkituko duguna, baina orain bidenabar ukitu duguna. Esan izan da erlijio batek moral berri baten ekarpena egiten badu onarrarazten duen metafisikaz egiten duela hori, Jainkoari, unitbertsoari eta bien arteko harremanari buruzko bere ideiez. Horri erantzun izan zaio, aitzitik, bere moralaren nagusitasunaz irabazten dituela erlijioak bere arimak, eta gauzen kontzepzio halako batera irekitzen dituela. Baina adimenak, agian aitortuko al luke proposatzen zaion moralaren nagusitasuna, izan ere balore-desberdintasunak arau edo ideal batekiko erkaketen bidez bakarrik preztatzen ditu-eta, zeinak derrigorrean hornitzen baitizkio indarreango moralak? Beste alde batetik, munduaren ordenari buruzko kontzepzio berri bat, nola izan liteke beste filosofia bat baino zerbait gehiago, dagoeneko ezagutzen

ditugun beste batzuen artean jartzekoa? Nahiz eta gure adimenak berari atxiki, inoiz ez genuke hartan ikusiko besteen aldean hobesgarriagoa den azalpen teoriko bat baino ezer gehiago. Eta irudituko bali-tzaigu ere portaera-arau berri batzuk gomendatzen dituela berarekin hobeki harmonizatzen dutenak, hala ere, tarte handia egongo litzateke oraindik adimenaren atxikimenduaren eta nahimenaren konbertsioa-ren artean. Baina egia da doktrinak, errepresentazio intelektualeko egoera garbian, ez duela onarraraziko eta, batez ere, praktikaraziko moralak, ezta moralak ere, adimenak portaera-arauen sistema bat beza-la kontsideratuak, ez du bihurtuko doktrina intelektuali hobesgarri. Moral berriaren aurretik, metafisika berriaren aurretik emozioa dago, zeina luzatzen baita bulkadan nahimenaren aldetik eta errepresentazio azalgarri gisa adimenean. Demagun, esaterako, kristautasunak karita-tearen izenpean egin duen emozioaren ekarpena: horrek arimak ira-bazten baditu, portaera jakin bat dator ondoren, eta doktrina jakin bat hedatzen da. Metafisika honek ez du ezarri moral hori, ezta moral horrek ere ez du egin hobesgarri metafisika. Metafisikak eta moralak gauza bera adierazten dute, batak adimen-terminotan eta besteak nahimen-terminotan, eta bi adierazpenak batera onartzen dira adiera-zi beharreko gauza sortzen den une beretik.

Zailtasun handiegirik gabe onartuko da gure moralaren parte handi batek betebeharrak hartzen dituela bere baitan, zeinaren izaera derrigorrezkoa azken finean gizarteak norbanakoari ezartzen dion presioz azaltzen baita, zeren betebeharrak horiek ohituraz praktikatzen baitira, formula argi eta zehatza izatean, eta horrenbestez erraza ger-tatzen zaigu, erabat ikuskorra den aldetik hartuz eta bere erroraino jai-tsiz, sortu direneko eskakizun soziala aurkitzea. Aldiz, askozaz zalan-tza gehiago izango da moralaren gainerakoa egoera emozional jakin baten adierazgarria dela, kasu horretan presioari ez baizik erakarpen bati amore ematen zaiola onartzeko. Horren arrazoia da ia inoiz ezin aurkitu ahal izatea norberaren barrenean jatorrizko emozioa. Badira formula batzuk horren hondar direnak, eta kontzientzia soziala dei litekeenaren baitan metatu direnak sendotuz joan ahala, emozio horre-kiko inmanente, bizitzarekiko kontzepzio berri bat edo hobeki berare-kiko jarrera jakin bat. Iraungitako emozio baten errautesaren aurrean aurkitzen garelako, hain zuzen ere, eta hark bere baitan zeukan suga-rretik emozio horren ahalmen bultzatzailea zetoerrelako, geratu diren

formulak ez lirateke gai izango gure nahimena astintzeko, baldin eta formula antzinagokoek, bizitza sozialaren oinarritzko eskakizunak adieraziz, kutsaketaz komunikatuko ez baliete zerbait beren izaera derrigorrezkotik. Elkarren ondoan ezarritako bi horiek badirudi orain moral bakarra eratzen dutela, lehenak bigarrenari ezinbestekotik duen zerbait eman diolarik eta, aldiz, hartatik, trukean, esanahi ez hain hertsiki soziala, zabalkiago gizatiarra hartu duelarik. Baina eragin diezaiegun errautsei; oraindik atal beroak aurkituko ditugu, eta azkenik txingarra sortuko da; sua suspertu egingo da, eta suspertzen bada haziz joango da. Esan nahi dut bigarren moral honen maximek ez dihardutela isolatuki, lehendabizikoaren bezala: haietako batek, abstraktu izateari uko eginik, esanahiz bere burua bete eta egintzarako indarra lortzen duenean, besteek gauza bera egitera jotzen dute; azkenean denak batzen dira jadanik atzean utzi dituen emozio beroan eta bizidun bihurturik probatu zuten gizakiengan. Erljioen sortzaile eta eraberritzaileak, mistikoak eta santuak, geure bidean aurkitu ahal izan ditugun eta gure begietarako handienen pareko diren bizitza moralaren heroi ilunak, denak hor daude. Beren etsenpluak arrastaturik, konkistatzaile-armada bati bezala gatxezkie beraiei. Izan ere, konkistatzaileak dira; naturaren erresistentzia hautsi eta gizakia destino berrietara altxarazi dute. Horrela, errealitateak ukitzeko itxurak ezabatzean, abstrakzio egiten dugunean, bi moralek, elkarrekiko trukeei esker pentsamendu kontzeptualean eta hizkuntzan hartu duten forma komunaz moral bakar horren bi muturretan presioa eta aspirazioa aurkitzen ditugu: hura hainbat eta perfektuagoa, zenbat eta inpersonalagoa den, aztura eta instintu ere deitzen den indar natural horietatik hurbilago, hori hainbat ahaltsuago zenbat eta agirikiago bultzatua den gudan beste pertsona batzuek, eta zenbat eta hobeki dirudien natura garaitzen duela. Egia da naturaren beraren erroraino jaitsiko bagina, agian konturatuko ginatekeela indar bera dela zuzenean agertzen dena, bere baitan bihurturik, giza espeziean eratu ondoren, eta gero zeharka diharduela, norbanako pribilegiatuen bitartekaritaz, gizadiari aurrera bultza egiteko.

Baina ez dago metafisikara jo beharrik presio hark aspirazio horrekiko duen harremana determinatzeko. Beste behin, zailtasun halako bat dago bi moralak elkarren artean erkatzeko, zeren ez baitira egoera garbian aurkezten jadanik. Lehenak besteari bere hertsatze-

indarretik zerbait pasatu dio; bigarrenak hedatu egin dio bigarrenari bere perfumetik zerbait. Gradazio batzuen edo degradazio batzuen aurrez aurre gaude, mutur batetik edo bestetik hasita moralaren preskripzioak korritzearen arabera: muturreko bi mugei dagokienez, interes teorikoa areago dute; eta erabat lortzea ere ez da inoiz gertatzen. Kontsidera ditzagun, hala ere, beren baitan, isolatuki, presioa eta aspirazioa. Lehenarekiko inmanentea da bere burua kontserbatzea beste helbururik ez duen sozietate baten errepresentazioa: mugimendu zirkularra, zeinean arrastatzen baititu berekin norbanakoak, tokian bertan gertatzen denak urrunetik imitatzen du, azturaren bitartekaritaz, instintuaren higieztasuna. Betebehar garbien multzo honen kontzientzia ezaugarrituko lukeen sentimendua, denak bete direla suposatuz, bizitzako funtzionamendu normalarekin erkatzeko modukoa den ongizate indibidual eta sozialeko egoera bat izango litzateke. Plazeraren antz handiagoa luke pozarena baino. Aspirazioaren moralean, aitzitik, aurrerakuntza baten sentimendua inplizituki sarturik dago. Hitz egiten dugun emozioa aurreranzko martxa baten suhertasuna da, –suhertasun horregatik norbaitzuek onartu egin dute moral hori, eta ondoren, haien bitartez, munduan barrena hedatu da–. «Aurrerakuntza» eta «aurreranzko martxa» nahastu egiten dira hemen suhertasunarekin berarekin. Horren kontzientzia hartzeko, ez da beharrezko jarraitzen dugun terminorik ezta hurbiltzen zaioneko perfektiorik errepresentatzea. Askari da suhertasunaren pozean gehiago egoitea ongizatearen plazerean baino, plazer horrek poz hori inplikatzeko ez duelarik, poz horrek bilduz eta berrurrupatzeko ere bai bere baitan plazer hori. Hori, sentitu egiten dugu guk; eta horrela lortutako ziurtasunak, metafisika batetik inola ere esekirik egon gabe, berak eman go dio metafisika horri bere euste-puntu sendoena.

Baina metafisika horren aurretik, eta bitartegabe esperimentatutik askozaz hurbilago, daude hemen emoziotik sortzen diren errepresentazio sinpleak haren gainean astuntzen diren heinean. Erligioen sortzaile eta eraberritzaileez, mistikoez eta santuez hitz egin dugu. Entzun dezagun horien hizkuntza; irekitzen den arima baten emozio partikularra errepresentazioetan islatzea besterik ez du egiten, bere baitan eta hirian itxirik zeukan naturarekikoak hautsiz.

Lehenik askapen-sentimendu bat sentitzen dutela diote. Ongizateak, plazerak, aberastasunak, gizaki gehienak eradukitzen

dituen horrek axolagabe uzten ditu. Horretatik libratzean lasaitua hartzen dute, eta gero poztu egiten dira. Horrek ez du esan nahi naturak oker egin duenik gu lokarri sendoz guretzat nahi izan duen bizitzari lotzean. Baina kontua da urrunago joatea, eta etxean gaudenean ongi sentiarazten gaituzten erosotasunak ekipajea trabagarri eraldatuko lirateke bidaia batean eraman beharko bagenu. Horrela mobilizaturiko arima bat gainerako arimekin sinpatizatzeraz makurtuago sentitzea, baita natura osoarekin ere, oso estrainio gerta litekeen zerbait da ari-maren higigaiztasun erlatiboa, gizarte itxi batean zirkuluan higitzen dena, ez balitz izango hain zuzen ere naturak gizadia banatu duelako norbanako desberdinetan giza espezie eratu zueneko egintzaren beraren indarrez: izan ere, espezie baten egintza eratzaile oro bezala, hori gelditze bat izan zen. Aurreranzko martxari berriz ekitean, eteteko erabakia eten egiten da.

Efektu oso bat lortzeko, egia da gainerako gizaki guztiak herrestan eramateak falta egingo zuela. Baina banaka batzuek jarraitzen badute eta besteak konbentzitzen badira abagunea gertatzean egingo dutela, asko lortuko da: une horretatik, egikaritzearen hasieran, badago zirkulua azkenerako hautsiko den itxaropena. Edozein kasutan, sekula ez dugu behar adina errepikatuko lagunurkoarenganako maitasuna ez dela predikua bidez lortzen. Sentimendu estuenak zabalduz ez da gizadia besarkatuko. Nahiz eta gure adimenak bere burua konbentzitu hori dela adierazitako martxa, gauzak beste era batera gertatzen dira. Gure adimenarentzat sinplea gertatzen dena ez da derrigor gure nahimenarentzat halakoa. Logikak bide jakin bat laburragoa izango litzatekeela esaten duen tokian, heltzen da esperientzia eta aurkitzen du ez dagoela inolako biderik norabide horretan. Egia esan hemen heroismotik igaro beharra dago maitasunera iristeko. Heroismoa, bestalde, ez da predikatzen; bere burua aurkeztea aski du, eta bere presentzia hutsak beste gizaki batzuk mugimenduan jarriko ditu. Bera mugimendurako itzulera baita eta sortze-egintzaren ahaide den emozio bati –emozio oro bezala komunikatiboa den bati– baitario. Erljioak bere erara adierazten du egia hori esanez Jainkoarengan maite ditugula beste gizakiak. Eta mistiko handiek aitortzen dute beren arimatik Jainkoarengana joango litzatekeen eta Jainkoarengandik giza generora jaitsiko litzatekeen sentimendu baten jabe direla.

Ez dakiola hitz egin eragozpen materialez horrela askaturiko arimari! Ez du erantzungo eragozpena gainditu behar denik, ezta behartua izan behar duenik ere: ez dela existitzen aitortuko du. Bere konbikzio moralaz ez dago mendiak mugitzen dituela esaterik, ez baitu mugitzeko mendirik ikusten. Eragozpenaz arrazoitzen den bitartean, horrek dagoen tokian dirau, eta behatzean banan-banan gainditu beharreko ataletan deskonposatzen da; horren xehekatzea mugagabea izan liteke; eta ezerk ez du esaten agortuko duzunik. Baina multzoa, blokean, bazter dezakezu, ukatzen baduzu. Horrela jokatzan zuen ibiliz mugimendua frogatzen zuen filosofoak; haren egintza ahaleginaren ukapen garbi eta sinplea zen, beti hasi beharrekoa eta ondorioz ezinezkoarena, zeina Zenonek beharrezkotzat baitzeukan banan-banan tartearen puntuak gainditzeko. Moralaren aspektu berri hori sakontzean, biziaren ahalegin sortzailearekiko kointzidentzia erreal edo ilusiozko baten sentimendua aurkituko genuke. Kanpotik ikusita, bizitzaren lanak aukera ematen du, bere obretako bakoitzean, etengabe jarraituko duen analisisia baterako: inoiz ez da bukatuko gurea bezalako begi baten egitura deskribatzea. Erabilitako bitartekoen multzo deitzen duguna izatez eroritako eragozpen-multzoa besterik ez da. Naturako egintza sinplea da, eta ikuspena lortzeko atalez atal itxuraz eraiki duen mekanismoaren konplexutasun amaigabea elkar neutralizatu duten antagonismoen elkargurutzat amaigabea besterik ez da funtzioaren ariketa, banatugabe, pasatzen uzteko. Esku ikusezin bat burdin karrakaduratan hondoratuko balitz bezala da: bere egintza, ikusten denari bagengozkio, elkar orekatzeko karrakaduren zatikiek bata bestearen gain eragiten dituzten egintza eta erreakzioen sail agortezin bat bezala agertuko litzateke. Horrelakoa bada bizitzako eragiketaren errealaren eta berak zentzumenentzat eta aztertzen duen adimenarentzat duen itxuraren arteko kontrastea, zer du harrigarritzorik jadanik eragozpen material oro ezagutzen ez duen arimak, arrazoiarekin edo gabe, bizitzaren beraren printzipioarekin kointzidentzia betean sentitzeak?

Nahiz eta ahalgarri izan heterogeneotasunen bat printzipioz aurkitzea efektua eta kausaren artean eta alde handi samarra dagoen portaera-arau baten eta gauzen hondoari buruzko baieztapenaren artean, edozein kasutan, giza espeziearen printzipio sortzailearekiko ukipenean sentitu izan da beti ateratzen dela gizadia maitatzeko indarra.

Jakina, arima osoa hurrupatzen eta berotzen duen maitasunaz ari naiz. Baina maitasun epelago, gutxiagotu eta aldizkakoa, haren irradiazioa besterik ezin liteke izan, haren irudi zurbilago eta hotzagoa oraindik ez denean, zeina hartatik geratu baita adimenean edo hizkuntzan metatu baita. Moralak horrela bi parte desberdin ditu, zeinetarik bata bere izateko arrazoia giza sozietatearen jatorrizko egitura baitauka, eta besteak bere azalpena egitura horren printzipio azalgarrian aurkitzen baitu. Lehenean, betebeharrak errepresentatzen du gizarteko elementuek bata bestearen gain eragiten duten presioa osozkoaren formari eusteko; presio horren efektua aurreiruditurik dago gutako bakoitzarengan aztura-sistema baten bidez, zeinak nolabait esateko haren aurretik baitoaz: mekanismo hori, zeinaren pieza bakoitza aztura bat baita baina zeinaren multzoa instintu batekin erkagarria baita, naturak prestatu du. Bigarrenean, oraindik badago betebeharra, nahi bada, baina betebeharra aspirazio baten indarra da; giza espeziea, gizarte-bizitza, instintuarekin gutxi-asko erkagarria den aztura-sistema bat sorrarazi duen bulkada batena: propultsio-printzipioak zuzenean esku hartzen du, eta ez berak muntaturiko mekanismoen bitartekaritza, zeinetan behin-behinekoz gelditurik baitzegoen. Labur esanez, aurreko guztia biltzeko, esango dugu naturak giza espeziea xedatzean, bilakaeraren joairan zehar, soziagarri nahi izan duela, inurri eta erleen sozietateak nahi izan dituen bezala; baina adimena hor zegoez gero, bizitza sozialaren mantenimendua mekanismo kuasi-adimendun baten eskuetan jarri beharra zegoen: adimenduna, pieza bakoitza giza adimenak birmoldatua izan zitekeen heinean, instintuzko hala ere gizakiak gizaki izateari utzi gabe piezen multzoa baztertu ezin duen eta mekanismo kontserbatzaile bat onartu ezin duen heinean. Instintuak behin-behinekoz aztura-sistema bati uzten zion bere lekua, zeinetarik bakoitza kontingente bihurtzen baitzen, horien konbergentzia bakarrik beharrezko zelarik sozietatearen kontserbaziorako, eta behartasun horrek berekin zeraman instintua. Osozkoaren behartasuna, atalen kontingentziaren bidez sentitua, hori da betebeharrak moral oro har deitzen duguna; atalak, bestalde, sozietatearen aurrean bakarrik dira kontingenteak; norbanakoarentzat, zeinari sozietateak azturak ezartzen baitizkio, atala osoa bezain beharrezkoa da. Orain, naturak nahi izandako mekanismoa sinplea zen, hark jatorriz eratutako sozietateak bezalakoa. Naturak aurreikusia al zeukan gureak bezalakoko gizartearen garapen eskerga eta konplexutasun mugagabea? Bat

etor gaitezen lehenik auziaren zentzuan. Ez dugu baieztatzen naturak propioki nahi edo aurreikusi izan duenik, zernahi dela ere. Baina biologiok bezala jokatzeko eskubidea dugu, zeina mintzatzen baita naturaren intentzioaz organo bati funtzio bat esleitzen dion bakoitzean: horrela organoa eta funtzioaren arteko moldaera adieraztea besterik ez du egiten. Nahiz eta gizadia zibilizatu, nahiz eta gizartea eraldatu, nolabait bizitza sozialean organikoak diren joerak jatorriz ziren bezala geratu direla esan nahi dugu. Berriz aurki ditzakegu, beha ditzakegu. Behaketa horren emaitza garbia da: sozietate sinple eta itxietarako dago egina gizakiaren egitura moral, jatorrizko eta oinarritzkoa. Joera organiko horiek ez dira argi eta garbi agertzen gure kontzientzian, ongi dakit hori. Ez diote, hala ere, betebeharraren osagairik trinkoena izateari uzten. Denik eta konplexuena bihurtu delarik ere gure moralak, nahiz eta joera naturalen modifikazio sinpleak ez diren eta naturaren norabide berean ez doazen joerekin konplikatu den, joera natural horietara iristen gara bete behar garbiko masa jariakor horrek guztiak bere baitan daukan prezipitatu lortu nahi dugunean. Horrelakoa da, beraz, moralaren lehen erdia. Bestea ez zen naturaren planean sartzen. Guk horrenbestez ulertzen dugu naturak aurreikusia zeukala bizitza sozialaren halako hedapen bat, baina hedapen mugatu bat. Ezin zezakeen nahi izan hedapen hori jatorrizko egitura arriskuan jartzearaino iristerik. Ugariak dira, bestalde, gizakiak horrela naturari, hain jakintsua eta hala ere hain inozoa den horri, iruzur egin dioten kasuak. Naturak nahi zuen seguraski gizakia amairik gabe ugaltzea, beste bizidun guztiek bezala; arretarik xehenak hartu ditu espeziearen kontserbazioa segurtatzeko norbanakoen ugalketaren bidez; berak ez zeukan aurreikusia, adimena ematean, horrek aurkituko zuela egintza sexuala bere ondorioetatik ebakitzeko bitartekoa, eta gizakiak uko egin ziezaiokeela uzta biltzeari hazia ereitearen atsegina baztertu gabe. Zeharo beste zentzu batean egiten dio gizakiak iruzur naturari solidaritate soziala giza senidetasunean luzarazten duenean; baina berriro egiten dio iruzur, zeren sozietateek, zeinen diseinua aurreformaturik baitzegoen giza arimaren jatorrizko egiturari, eta zeinen plana gaur eguneko gizakiaren jaiotzatiko eta oinarritzko joeretan oraindik hauteman baitaiteke, taldea hertsiki batua egotea eskatzen baitzuten, baina baita taldetik taldera etsaikortasun birtuala egotea ere: beti prest egon behar zen erasorako edo defentsarako. Ez, noski, naturak gerra gerrarengatik nahi izan duenik. Gizadiaren gidari handiek, hiriaren

langak bortxatu dituztenek, badirudi berriz ere bizi-bulkadaren norabidean kokatu dutela beren burua. Baina biziak propioa duen bulkada hori mugatua da bera bezala. Bere ibilbidean zehar eragozpenekin topo egiten du berriro, eta hurrenez hurren agerturiko espezieak indar horren eta indar antagonisten emaitzak dira: lehenak aurrera bultzatzen du, bigarrenek toki berean birak eragiten dizkigute. Gizakia, naturaren eskuetatik irtetean, izaki adimendun eta soziagarria zen; bere soziagarritasuna sozietate txikiak sorrarazteko kalkulatu zegoen, bere adimenak norbanakoaren bizitza eta taldearen bizitza faboratzeko xedea zuen. Baina adimenak, bere ahalegin propioz dilataturik, ustegabeko garapena lortu du. Askatu egin ditu gizakiak beren naturaren mugetara kondentatzen zituzten morrontzetatik. Baldintza horietan, ez zen ezinezkoa horien arteko zenbaitentzat, bereziki dotatuentzat, itxia izan zena berriz irekitzea eta gutxienez berenez egitea naturarentzat ezinezkoa izango zatekeena gizadiaren alde egitea. Haien etsenpluak arrastatu egin ditu azkenerako besteak, irudimenean gutxienez. Nahimenak badu bere genioa, pentsamenduak bezala, eta genioak desafio egiten dio aurreikuspen orori. Nahimen genial horien bitartekaritaz, materia zeharkatzen duen bulkadak promesak lortzen ditu horretatik, espeziearen etorkizunerako, zeinak ezin pentsatuzkoa baitziren espeziea eratzen ari zenean. Solidaritate sozialetik giza sendetasunera pasatzean, hautsi egiten ditugu natura jakin batekikoak, baina ez natura osoarekikoak. Esan liteke, adierazpen spinozistak beren zentzutik desbideratuz, Natura naturatzailera itzultzeko aldentzen gabela Natura naturatutik.

Lehen moralaren eta bigarrenaren artean atsedenetik higidurarako tarte guztia dago. Lehena higiezintzat jotzen da. Aldatzen bada, laster ahazten du aldatu dela edo ez du aldaketa aitortzen. Edozein unetan ageri duen formak behin betiko forma izan nahi du. Baina beste bultzada da, mugimendu-eskakizun bat; higikortasuna da, printzipioz. Horrekin frogatuko luke –eta horrekin bakarrik definituko luke halaber– bere nagusitasuna. Emazu lehena, ez duzu irtenaraziko horretatik bigarrena, higikor baten posizio batekin edo gehiagorekin higidura aterako ez duzun bezala. Aitzitik, higidurak higiezintasuna inplikatzeko du, eta higikorrek zeharkatzen duen posizio bakoitza gelditze birtual bat bezala kontzebitzen eta hautematen da. Baina ez dago behar bezalako froga baten beharrik: nagusitasuna errepresentatua

izan aurretik bizi da, eta gero ezingo litzateke frogatu aurretik sentitua izango ez balitz. Tonu bitaleko desberdintasun bat da. Hiriko morala erregulariki praktikatzen duenak ongizatezko sentimendu hori sentitzen du, norbanakoak eta gizarteak biek batera dutena, zeinak agertzen baitu erresistentzia materialek elkarrekiko duten interferentzia. Baina irekitzen den arima, eta zeinaren begitara eragozpen materialak erortzen baitira, pozak blai eginik dago. Plazera eta ongizatea zerbait dira, poza gehiago da. Azken hori ez dago haietan, aldiz, haiek bihurtzeko aurkitzen dira pozaren baitan. Haiek gelditzea eta toki berean egotea dira, aldiz, poza aurrera joatea da.

Hortik dator lehen morala formulatzen erraz samarra izatea, ez ordea bigarrena. Gure adimenak eta gure hizkuntzak gauzei buruzkoak dira; ez zaie hain erosoak gertatzen igarobideak edo progresuak errepresentatzea. Ebanjelioko morala funtsean arima irekiarena da: ez al da azpimarratu arrazoiz paradoxaren mugetan dabilela, baita kontraesanarenean ere, bere agindurik zehatzenetan? Aberastasuna gaitz bat bada, ez al diegu kalte egingo behartsuei geure jabetzak haien eskutik abandonatuz? Betondoko bat hartu duenak beste masaila ezartzen badu, zer izango da justiziaz, zeina gabe ez baitago karitaterik, hala ere? Baina paradoxa erori egiten da, kontraesana ezabatu egiten da, maxima horien asmoa kontuan hartzen bada, arima-egoera bat induzitzea dela. Ez da behartsuengatik, bere buruarengatik abandonatu behar ditu aberatsak bere aberastasunak: zoriotsua «espirituz» behartsua! Ederra ez da gabeturik egotea, ezta zerbaitez gabetzea ere, gabeziarik ez sentitzea da. Arima irekitzen duen ekintzak formulatan preso hartutako eta materializatutako moral bat espiritualitate garbi batera zabaldu eta jasotzea du ondorio. Arima irekitzen duen egintzak formulatan preso hartu eta materializaturiko moral baten espiritualitate hutsera hura zabaldu eta jasotzea du efektutzat: moral honek bestearekiko erlazioan badu zerbait higidura batean hartutako aldiune batetik. Hori da mendiko Hitzaldian bata bestearen ondoren gertatzen diren oposizioen zentzu sakona: «Esan zaizue... Eta nik esaten dizuet...». Alde batetik itxia, bestetik irekia. Moral arrunta ez da ezabatzen: baina aurrerakuntza batean zeharreko aldiune bat bezala aurkezten da. Ez zaio antzinako metodoari uko egiten; baizik eta metodo orokorrago batean sartzen da, dinamikak bere baitan estatika hurrupatzen duenean gertatzen den bezala, kasu partikular bihurturik. Zorrotz jokatzuz,

higiduraren eta joeraren zuzeneko adierazpen bat beharko litzateke orduan: baina nahi bada –eta beharrezko da– estatikoaren eta higigaitzaren hizkuntzara aldatu, ia kontraesanaren mugakide izango diren formulak sortuko dira. Era berean erkatuko genuke zer dagoen praktika ezina zenbait agindu ebanjelikotan diferentzialaren lehen azalpenek aurkezten duten ilogikotasunarekin. Izan ere, antzinako moralaren eta kristautasunaren artean antzinako matematikaren eta gurearen artean dagoen motako erlazio bera aurkituko litzateke.

Antzinakoen geometriak soluzio partikularrak, gure metodo orokorren aplikazio aurreratuak zirenak eman ahal izan ditu., Baina berak ez ditu sarrarazi metodo horiek: han ez zegoen estatikotik dinamikora jauzaraziko zuen bulkada. Gutxienez ahal bezain urruneraino bultza egin zion dinamika estatikoa imitatzeari. Gisa horretako inpresioa daukagu estoikoen doktrina erkatzen dugunean, adibidez, moral kristauarekin. Munduko hiritar aldarrikatzen zuten beren burua, eta gizaki guztiak senideak direla gehitzen zuten, Jainko berarengandik sortuak. Ia hitz berak ziren, baina ez zuten oihartzun bera aurkitu, zeren haiek ez baitziren azentu beraz esanak izan. Estoikoek oso jarraibide bikainak eman zizkiguten. Gizadia beren atzetik arrastatzea lortu ez bazuten, estoizismoa esentzian filosofia delako da. Hain doktrina garaiak suhartzten den filosofoa, eta hartan murgiltzen dena, zalantzarik gabe animatu egiten du praktikatzean, Pygmalionen maitasunak estatuari bizia hatsematen dion bezala landu ondoren. Baina tarte handia dago horretatik arimaz arima hedatzen den suhertasunaren artean, sute bat bezala. Horrelako emozio bat begi-bistan dago esplizita daitekeela doktrina baten eratzaile diren ideietan, baita doktrina desberdin bat baino gehiagotan ere, zeinek ez baitute inolako elkarren antzik izango espiritu-komunitate batenaz kanpo; baina hori ideiaurrekoa da eta ez ondokoa. Antzinate klasikoan horrelako zerbait aurkitzeko, ez litzateke estoikoengana jo behar, baizik eta Greziako filosofia handi guztien hatsemaile izan zenarengana, doktrina-ekarpenik egin gabe, ezer idatzi gabe, Sokratesengana. Noski, Sokratesek guztiaren gainetik jarduera arrazonatzailea ezartzen du, eta espirituaren funtzio logikoa berezikiago. Berekin paseatzen duen ironia gogoetaren proba egin ez dutenen iritziak baztertzeraz eta lotsarazteraz zuzendurik dago, nolabait esateko, beren buruarekin kontraesaneari jarritik. Elkarriketak, berak ulertzen duenez, dialektika plato-

nikoa sorrarazi du eta, ondorioz, oraindik praktikatzen dugun metodo filosofiko, esentzialki arrazionala. Elkarrizketa horren helburua da definiziotan ixten diren kontzeptuetara iristea; kontzeptu horiek Ideia platoniko bihurtuko dira; eta ideien teoriak, bere aldetik, tipo gisa balioko die metafisika tradizionalako eraikuntzei, halaber esentziaz arrazionalak diren horiei. Sokrates oraindik urrunago doa; bertuteaz beraz zientzia egiten du; ongiaren praktika hartaz norbaitek daukan ezagutzarekin identifikatzen du; horrela prestatzen du pentsamendua-ren ariketa arrazionalan hurrupatzen duen bizitza moralaren doktrina. Inoiz ez da arrazoia hain goi jarri izan. Hara gutxienez zerk harritzen gaituen aurrena. Baina hurbilagotik begira dezagun. Sokratesek Delfosko orakuluak hitz egin duelako irakasten du. Eginkizun bat hartu du. Behartsua da, eta behartsu iraun behar du. Herriarekin nahastu behar du, herri bihurtu behar du, bere hizkuntza herri-hizkerarekin bat egin dadin behar du. Ez du ezer idatziko, bere pentsamendua bizirik komunika dadin, beste espiritu batzuei eramango dien espirituei. Hotza eta gosearekiko sentigaitz da, inola ere ez aszeta, baina ez du beharrianik eta bere gorputzetik jareginik dago. «Demon» batek laguntzen du, zeinak bere ahotsa entzunarazten baitio oharren bat beharrezko denean. Hainbesteraino sinesten du «zeinu demoniko» horretan, non hil egiten baita hari jarraitzeari utzi baino lehen: herri-auzitegiaren aurrean bere burua defenditzeari uko egiten badio, haren kondena onartzen badu, demonak ezer esan ez duelako da hartatik aldentzeko. Labur esateko, haren eginkizuna maila erlijioso eta mistikokoa da, gaur egun hitz horiek hartzen ditugun zentzuan: bere irakaspena, hain perfektuki arrazionala, arrazoi hutsa gainditzen duela dirudien zerbaiteetatik esekita dago. Baina, ez al da hautematen hori bere irakaspenean bertan? Baldin eta hitz inspiratuak, edo edozein kasutan, lirikoak, Platonen elkarrizketetan maiz esaten dituenak, Sokratesenak izango ez balira, Platonenak berarenak baizik, eta maisuaren hizkuntza Xenofontek egozten diona beti izan balitz, agian ulertuko al litzateke ikasleak berotzen dituen eta mendeak zeharkatu dituen suhartasuna? Estoikoak, epikureoak, zinikoak, greziar moralista guztiak, Sokratesengandik datoz, ez bakarrik –beti esan izan denez– maisuaren doktrina norabide desberdinetan garatzen dutelako, baizik eta, batez ere, beragandik hartu zutelako sortu duen jarrera, Jakintsuaren jarrera, zeina bestalde hain gutxi egokitzen baitzitzaion genio grekoari. Filosofoa, bere jakiturian bere burua itxirik, gizaki

arruntarengandik aldentzen denean, bai irakasteko, bai eredu izateko, bai besterik gabe barne-perfekzionamenduko lanean aritzeko, Sokrates bizia da hor dagoena, Sokrates bere pertsonaren prestigio paregabez diharduena. Goazen urrunago. Esan izan da berak ekarri zuela filosofia zerutik lurrera. Baina ulertuko al litzateke bere bizitza, eta batez ere bere heriotza, Platonek Fedonen egozten dion arimaren kontzepzioa bere izan ez balu? Orokorrean hitz egingez, Platonen elkarriketetan aurkitzen ditugun mitoak eta arimari dagozkionak, haren jatorriaz, hura gorputzean sartzeaz besterik egiten al dute pentsamendu platonikoaren terminotan emozio sortzaile bat, Sokratesen irakas-kuntza moralak bere baitan zuen emozioa nabarmentzea baizik? Mitoak, eta arima-egoera sokratikoa, zeinarekiko haiek programa azalgarria sinfoniarekiko dena hori bera baitira, dialektika platonikoaren ondoan kontserbatu dira; lurpean zeharkatzen dute metafisika grekoa eta alexandriar neoplatonismoarekin agertzen dira azalera, Ammoniorekin agian, eta Plotinorekin edozein kasutan, Sokratesen jarraitzailetzat aitortzen baitu bere burua. Arima sokratikoari doktrina-corpus bat eman diote, espiritu ebanjelikoa biziarazten duenaren parekoa. Bi metafisikek, beren antzekotasuna gorabehera edo agian hori dela medio, borroka egin zuten, bata bestean zegoen hoberena hurrupatu aurretik: denbora batean munduak galdetu ahal izan zion bere buruari kristau ala neoplatoniko bihurtuko zen. Sokratesek aurre egiten zion Jesusi. Baina Sokratesekin jarraitzeko, auzia datza jakitean genio hain praktiko hark zer egingo zukeen beste gizarte batean eta beste inguruabar batzuetan, hain zirrara-peturik eduki izan ez balu, beste ezerk baino gehiago, bere garaiko enpirismoan zegoen arriskuak eta atenastar demokraziaren inkoherentziek, hainbesteko presa sentitu izan ez balute arrazoiaren eskubideak ezartzeko, eta horrela bigarren mailara baztertu behar izan ez balu bere intuizioa eta inspirazioa, eta bera zen grekoak menderatu izan ez balu berarengan izan nahi zuen orientala. Arima itxia eta arima irekia bereizi ditugu: zeinek sailkatu nahiko luke Sokrates arima itxien artean? Ironia nabarmen zebilen bere ikaskuntzan eta lirismoa oso bakan agertzen zen hartan, baina leherketa horiek espiritu berri bati bidea urratu dioten heinean, erabakigarriak izan dira gizadiaren etorkizunerako.

Arima itxiaren eta arima irekiaren artean irekitzen ari den arima dago. Eserita dagoen gizakiaren higigaitzasunaren eta gizaki

horrek berak lasterka egitean duen higikortasunaren artean, bere tentetzea dago, zutitzen denean hartzen duen postura. Hitz gutxitan, estatikoa eta dinamikoaren artean moralean igarobide bat nabarmentzen da. Tarteko egoera hauteman gabe geratuko litzateke atsedenean, dagoenean beharrezko bulkada hartuko balitz tanpez higidurara jauzi egiteko. Baina gelditzean nabarmentzen da –bulkada-askiezaren zeinu arrunta den horretan–. Esan dezagun gauza bera beste era batera: ikusi dugu moralean estatiko hutsa infraintelektuala izango litzatekeela, eta dinamiko hutsa, supraintelektuala. Bata naturak nahi izandakoa da, eta bestea giza genioaren ekarpena da. Lehenak aztura-multzo bat ezau-garritzen du, zeinak simetrikoki, gizakiarengan, animaliaaren instintu batzuei baitagozkie; adimena baino gutxiago da. Azken hori aspirazioa, intuizioa eta emozioa da; hori ideiatan analizatuko da, zeinaren notazio intelektualak izango baitira, eta zeinaren xehekatzea amaigabeki jarraituko baita; bere baitan dauka, beraz, haren baliokide izateko gai ez den aniztasun bat bildu eta gaindituko lukeen batasun baten gisa, nahi den intelektualitate guztia dauka; adimena baino gehiago da. Bien artean adimena bera dago. Hortxe geratuko zatekeen giza arima, batetik abiatu izan balitz bestera iristea lortu gabe. Arima itxia-
ren morala izango zukeen nagusi; ez zukeen lortuko edo hobeki esan sortuko arima irekiaren morala. Bere jarrerak, altxatze baten ondorioz, intelektualitatearen planoan ukiaraztea eragingo zion. Utzi berria zuenarekiko erlazioan, arima horrek axolagabetasuna edo intsentsibilitatea praktikatuko zukeen; epikureo edo estoikoen «ataraxian» edo «apatian» egongo litzateke. Hartan positibotik aurkitzen duenarekiko erlazioan, antzinakotik aldentzeak berriarekiko atxikitze bat izan nahi badu, bere bizitza kontenplazioa izango litzateke; Platon eta Aristotelesen ideia-
ren araberrakoa izango litzateke. Edozein alderditatik kontsideratzen dela ere, jarrera zuzena, jaso, zinez miresmena merezi duena, eta bestalde, elite bati erreserbatua izango litzateke. Oso printzipio desberdinetatik abiatutako filosofiak bat etorri ahal izango dira hartan. Horren arrazoa da bide bakar batek eramaten duela zirkulu batean mugaturiko egintzatik gune aske batean garatzen den egintzara, errepikapenetik sorkuntzara, infraintelektuala denetik supraintelektualera. Bien artean geratzen dena kontenplazio hutsaren gunean egongo da derrigor eta era naturalean edozein kasutan praktikatuko du, batean geratu gabe eta besteraino iritsi gabe, desatxikimenduaren erdi-bertute hori.

Adimen garbiaz ari gara, bere baitan ixten denaz eta epaitzen duenaz antzinakoek «zientzia» edo kontenplazioa deitzen zutena dela bizitzaren objektua. Hitz batean, filosofo grekoen morala nagusiki ezaugarritzen zuenaz hitz egiten ari gara. Baina ez litzateke jadanik filosofia grekoa edo orientala izango, mundu guztiaren moralarekin izango genuke zerikusia, baldin eta adimena batzuk infrainteletualak eta besteak suprainteletualak izango liratekeen materialen, kapitulu honetan tratatu ditugunen sortzaile edo koordinatzaile huts kontsideratuko bagenu. Betebeharraren esentzia bera determinatzeko, gure baitan aritzen diren bi indarrak bereizi egin ditugu, bulkada batetik eta erakarpena bestetik. Hori beharrezkoa zen, eta ez egin izanagatik, gaur egun dena estaltzen duen aspektu intelektualean geratu izanagatik, filosofia ez da gai izan, dirudienez, moral bat nola jabetu ahal izan den arimez azaltzeko. Baina gure aurkezpenak, jadanik susmarazi dugunez, eskematiko izatera kondentatzen zuen bere burua. Aspirazio denak bere burua sendotzeko joera du betebeharraren hertsia forma hartuz eta betebeharraren hertsia denak hazi eta hedatzeko joera du aspirazioa bere baitan bilduz. Presioa eta aspirazioa bateratu egiten dira horregatik kontzeptuak lantzen diren pentsamenduaren gunean. Horretatik errepresentazioak sortzen dira, zeinetarik asko mistoak baitira, presio-kausa eta aspirazio-objektu dena aldi berean batzean. Baina era berean sortzen da gure nahimenaren gain diharduten presioa eta aspirazio garbia begietatik galtzea; kontzeptua bakarrik ikusten dugu, zeinean bi objektu desberdinak bat egin baitira, zeinei horiek atxikirik baitzeuden hurrenez hurren. Kontzeptu horrek izango luke eragina guregan. Errore horrek moral propioari intelektualisten porrota argitzen du, hau da, labur esanik, betebeharrari buruzko teoria filosofiko gehiengoa. Noski, ideia garbi bat ez da erabat eragin gabea gure nahimenarekiko, baina eragin hori ez litzateke burutuko, eraginkortasunez bakarrik egoterik izango ez balu. Nekez jarki ahal izango litzateke eragin antagonistei, edo, haien gainetik garaile gertatzen bada, berragertu egiten dira beren banakotasunean eta beren independentzian, beren indarraren osotasuna erakutsiz, presioa eta aspirazioa, zeinek uko egin baitzioten beren egintza propioari, biek batera ideia bati errepresentarazteko aukera emanez.

Luzea izango litzateke ireki beharreko parentesia, bata soziala eta bestea suprasoziala, bata bulkada eta bestea erakarpena diren bi

indar horien berri eman nahiko balitz, zeinek ematen baitiote eragin-kortasuna higigarri moralei. Gizaki jator batek esango du, adibidez, bere buruarekiko errespetuz diharduela, giza duintasunaren sentimenduz. Bistan dago ez lukeela horrelako adierazpenik egingo bi nortasunetan bere burua bereiztetik hasiko ez balitz; inori eramaten utziko balio izango litzatekeenean eta hartan, zeinera bere nahimenak altxatzen baitu: errespetatzen den nia ez da ni errespetatua bera. Zein da, beraz, azken ni hori? Zertan datza bere duintasuna? Nondik dator sorrarazten duen errespetua? Utz dezagun alde batera errespetuaren analisia, zeinean aurkituko baikenuke batik bat nork bere burua ezeztatzeko beharrizana, ikasleak maisuaren aurrean duen jarrera edo areago, aristoteliarren hizkuntzaz baliatuz, akzidenteak esentziaren aurrean duena. Orduan geratuko litzaiguke ni nagusi hori definitzea, zeinaren aurrean makurtzen baita nortasun ertaina. Ez dago inolako zalan-tzarik hori lehenik «ni soziala» dela, bakoitzak barnean daukana, zeinaz jadanik zerbait esan baitugu. Onartzen bada, nahiz eta teorikoki bakarrik, «mentalitate primitibo» bat, hor ikusiko da nola bat datozen norbere buruarekiko errespetua, eta norbanakoa eta taldearen arteko halako solidaritate-sentimendu bat, non taldeak presente dirauen norbanako bakartuan, nola zaintzen duen, adorea ematen dion edo mehatxu egiten dion, eskatu egiten dion, hitz batean, kontsultatu eta obedi diezaiola. Sozietatearen beraren atzean botere supernaturalak daude, zeinen baitan baitago taldea, eta zeinek egiten baitute sozietatea norbanakoaren egitateen erantzule; ni sozialaren presioa energia metatu horiekin guztiekin eragiten da. Bestalde, norbanakoak ez du dizi-plinazturaz edo zigor-beldurrez soilik obeditzen: bera kide duen taldea besteen gaintik kokatzen da derrigor, guduan duen kemena goratzeko besterik ez bada ere, eta indar-nagusitasun horren kontzientziak berrari indar handiagoa segurtatzen dio, harrotasunaren gozamen guztiekin. Horretaz konbentzituko gara «bilakatuagoa» den mentalitate bat kontsideratzean. Pentsa dezagun zer harrotasuna zegoen, baita zer energia morala ere «*Civis sum romanus*» hartan: norbere buruarekiko errespetua, hiritar erromatar batengan bat etortzen bide zen guk gaur haren nazionalismoa deituko genukeenarekin. Baina ez dago historiara edo historiaurrera jo beharrik nork bere buruarekiko errespetua eta taldearen buruestimua bat etortzen ikusteko. Aski da begiratzea zer gertatzen den gure begien aurrean sozietate handiagoaren barruan eratzen diren sozietate txikiagoetan, gizakiak elkarrekin lokarriturik daudene-

an nagusitasun erreal edo itxurazkoa adierazten duen eta besteengan-
dik aparte kokatzen dituen seinale bereizgarriren batez. Gizaki orok
gizakia den heinean bere buruari dion errespetuari errespetu gehiga-
rrizko bat gaineratzen zaio orduan, gizaki besterik ez den niarena giza-
kien artean gailentzen den ni batentzat; taldeko kide guztiak «elkarri
dagozkio», eta horrela, «izaera» bat ezartzen diote elkarri; «ohore-sen-
timendu» bat ikusten da sortzen, gorputzaren espirituarekin bat egiten
dena. Horiek dira norbere buruarekiko errespetuaren lehen osagaiak.
Alderdi horretatik begiraturik, gaur egun abstrakzio-ahalegin batez
bakarrik isola dezakegunetik, presio sozialetik egiten duen ekarpena-
ren indarrez behartzen du. Alabaina, bulkada erakarpen nabari bihur-
tuko litzateke «norbere buruarekiko» errespetua nortasun miretsi eta
beneratu batekiko errespetu izango balitz, zeinaren irudia gogamene-
an eramango bailitzateke, eta zeinarekin bat egin nahi izango baikenu-
ke, kopiak ereduarekin bezala. Izatez, ez da horrela gertatzen, zeren
nahiz eta adierazpenak norbere baitan tolestearen ideiak oroitarazten
dituen, izatez norbere buruarekiko errespetuak ez dio horregatik uzten,
bai bere bilakaeraren bukaeran eta bai jatorrian, sentimendu sozial bat
izateari. Hala eta guztiz ere, historian aztarna utzi duten figura moral
handiek elkarri eskua ematen diote mendeen eta gure giza hirien gai-
netik: elkarrekin, jainko-hiria eratzen dute, zeinean sartzera gonbida-
tzen baikaituzte. Litekeena da horien ahotsa argi eta garbi ez entzutea;
hala ere, deia egina dago; zerbaitek erantzuten dio gure arimaren
barrenetik; gauden sozietate errealetik sozietate idealera aldatzen gara
pentsamenduz; hartara zuzentzen da gure omenaldia geure baitako
giza duintasunaren aurrean makurtzen garenean, geure buruarekiko
errespetuz ari garela baieztatzen dugunean. Egia da besteek gure gain
burutzen duten egintzak horrela inpertsonal bihurtzeko joera duela.
Eta izaera inpertsonal hori areagotu egiten da oraindik gure begietara-
ko moralistek azaltzen digutenean arrazoa dela, gutako bakoitzaren-
gan presente dagoena, giza duintasuna eratzen duena. Hala ere, ados
jarri beharko genuke puntu horri buruz. Arrazoa gizakiaren marka
bereizgarria delakoa ez du inork ukatuko. Balio gailena duela, arte-
obra eder baten zentzuan, hori ere onartuko zaigu. Baina azaldu egin
beharko da zergatik agintzen duen absolutuki eta, orduan, nola obe-
diarazten duen. Arrazoiak arrazoiak bakarrik alega ditzake, eta horiei
beti kontrajar dakizkieke beste arrazoi batzuk. Ez dezagun esan, beraz,
besterik gabe gutako bakoitzarengan presente dagoena gure errespe-

tuari gainezartzen zaionik eta gure obedientzia bere balio gailenaren indarrez lortzen duenik. Gehi dezagun horren atzean gizadia jainkozko bihurtu duten gizakiak daudela, eta horrela, izaera jainkozkoa ezarri diotela arrazoari, gizadiaren atributu esentziala den horri. Horiek erakartzen gaituzte sozietate ideal batera, sozietate errearen presioari amore ematen diogun aldi berean.

Nozio moral guztiak elkarbarrendurik daude, baina justiziarena baino irakasgarriagorik ez dago bat ere, lehenik haietarik gehienak bere baitan hartzen dituelako, eta gero, bere aberastasun handiagoa gorabehera, formula sinpleagotan adierazten delako, azkenik eta batez ere hartan ikus dezakegulako nola ahokatzen diren elkarrekin betebeharraren bi formulak. Justiziak beti iradoki ditu berdintasun-, proportzio-, konpentsazio-ideiak. *Pensare*-k, zeinatik eratorriak baitira «konpentsazio», «errekonpentsa», haztatu zentzua du; justizia balantza baten bidez errepresentatzen da. Ekitateak berdintasuna esan nahi du. Erregela eta erregelamendua, zuzentasun eta erregularitasuna, lerro zuzena izendatzen duten terminoak dira. Aritmetika eta geometriari buruzko erreferentzia hauek justiziaren ezaugarriak izan dira bere historian zehar. Nozioa doitasunez zehaztu behar izan da jadanik trukeetan. Nahiz eta hasi-masietakoa izan sozietate bat, hartan trukeak egiten dira, eta horiek ez dago egiterik trukaturiko bi objektuak balio berekoak izatea planteatu gabe, hau da, hirugarren objektu batez trukatu ahal izatea, bi kasuetan bat bera dena. Balio-berdintasun hori erregela bihurtzen bada, erregela taldearen usarioetan sartzen bada, baldin eta «betebeharraren osozkoa», jadanik esan dugunez, hartan oinarri hartzera badator, justizia bere forma doia hartzen ikusiko dugu, bere derrigorrezkotasun-izaerarekin eta hari datzekzkie berdintasun- eta elkarrekikotasun-ideiekin. – Baina ez zaio gauzen trukeari soilik aplikatuko. Pixkanaka, pertsonen arteko harremanetara hedatuko da, hala ere, luzaroan, gauzen eta trukearen kontsiderazio orotatik bereizi ahal izan gabe. Orduan, batez ere bulkada naturalen erregularitze bat izango da, naturaltasun gutxiagokoa ez den elkarrekikotasun baten ideia haien artean sartuz, adibidez eragin ahal izan denaren baliokidea den kalte bat itxarotea. Sozietate primitiboetan, pertsonen aurkako erasoak salbuespeneko eran bakarrik interesatzen zaizkie komunitateari, buruturiko egintzak hari berari kalte egin diezaiokkeen, horrela jainkoen sumina erakarriz. Pertsona lesiodunak, edo

haren familiak, bere instintuari jarraitzea beste biderik ez du, natura-
ren arabera erreakzionatzea, mendekua hartzea; kasu horretan, erre-
presaliak proportziogabeak izan litezke irainarekiko, egintza txar
burutuen truke hori haien begietara trukeen erregela orokorrera lauso-
ki makurturik agertuko ez balitz. Egia da liskarra betikotzeko arriskua
legokeela, «vendetta» amairik gabe jarraituko litzateke bi familien
artean, baldin eta horietako batek azkenean erabakiko ez balu diruzko
kalte-ordain bat onartzea: orduan agerian jarriko da, argi eta garbi,
konpentsazioaren ideia, truke- eta elkarrekikotasun-ideietan jadanik
inplikaturik. Gizartea zigortzeaz eta bortxazko edozein egintza errepi-
mitzeaz bere kabuz arduratzen bada, bera dela justizia egikaritzen
duena esango dugu, jadanik izen hori nola norbanakoak hala familiek
beren arteko diferentziei bukaera ezartzeko kontuan hartzen duten
erregelari aplikatuko balitzaio. Bestalde, gizarteak irainaren larritasu-
naren arabera neurtuko du zigorra, zeren, horrela ez balitz, inork ez
bailuke gelditzeko interesik izango gaitza egiten hastean; ez legoke
inolako arriskurik azkeneraino joatean. Begia begi truk, hortza hortz
truk, jasandako kalteak eragindako kaltearen parekoa izan behar du
beti. – Baina begi batek beti begi bat balio al du eta hortz batek beti
hortz bat balio al du? Kalitatea eta kantitatea izan behar dira kontuan:
talioi-legea klase baten barruan bakarrik ezarriko da; jasandako kalte
berak, jasotako irain berak, konpentsazio indartsuago bat edo zigor
larriago bat erreklamaturik du biktima klase garaia gogokoa bada. Labur
esanda, berdintasuna erlazio bati buruzkoa izan daiteke eta proportzio
bihurtu. Beraz, justizia, nahiz eta gauza-ugaritasun handia hartu bere
baitan, hala ere modu berean definitzen da. – Ez da formulaz aldatu-
ko, zibilizazio-egoera aurreratuago batean, agintari eta agintepelen
eta, orokorragoan, gizarte-kategoria desberdinen arteko harremaneta-
ra hedatzean ere: izatezko egoera baten aurrean, berdintasun edo pro-
portziozko kontsiderazioak sartuko ditu, zeina matematikoki definitu-
riko zerbait bihurtuko baitute eta, horregatik, itxuraz behin betiko.
Izan ere, ez da zalantzazkoa indarra egon izana antzinako gizarteak
bata bestearekiko klase subordinatutan banatzearen jatorrian. Baina
ohiko subordinazioak azkenerako naturalaren itxura hartzen du eta
azalpen bat bilatzen dio bere buruari: beheko klaseak bere egoera
onartu izan badu denboraldi luze samar batean, onartzen jarraitu ahal
izango du birtualki indartsuena izatera iritsitakoan ere, bere gidariei
balio-nagusitasun bat egotziko dienez gero. Nagusitasun hori, gaine-

ra, erreala izango da aurkitzen zituzten erraztasunez baliatu badira intelektualki eta moralki beren buruak hobetzeko, baina era berean arretaz mantenduriko itxura hutsa ere izan liteke. Edozein kasutan, erreala zein itxurazkoa delarik ere, iraun bakarrik egin beharko du jaiotzatikoaren itxura izateko: beharrezkoa da jaiotzatiko nagusitasun bat izatea, esango da, herentziazko pribilegio bat dagoenez gero. Naturak, sozietate diziplinuak nahi izan dituenak, ilusio hori onartzeko prestatu du gizakia, eta Platonek partekatu egiten zuen, gutxienez bere errepublika idealerako. Klase-hierarkia horrela ulerturik, kargak eta abantailak gero norbanakoen artean beren balioaren arabera, eta, ondorioz, egiten dituzten zerbitzuen arabera banatuko litzatekeen masa komun gisako bat bezala tratatzen dira: justiziak bere balantza kontserbatzen du; neurtu eta proportzionatu egiten du. – Justizia horretatik, termino utilitariotan adierazgarria ez den horretatik, baina bere merkataritza-jatorriekiko fideltasun gutxiagokoa ez den horretatik, nola igaro trukeak eta zerbitzuak inplikatzeko ez dituen hartara, eskubide bortxaezinaren eta balio guztiekiko pertsonaren neurtezintasunaren baieztapen garbi eta sinplea den hartara? Auzi horri erantzun aurretik, mirets dezagun hizkuntzaren bertute magikoa, esan nahi dut, hitz batek ideia berri bati ematen dion ahalmena horri aplikatzen zaionean aldeztu aurretik izandako objektu bati aplikatu ondoren, iragana era atzera-begirakoan modifikatuz eta eraginperatuz. Edozein eratarik errepresentatzen dugularik ere justizia erlatibotik justizia absoluturako igarobidea, une batean baino gehiagotan edo kolpe batean gertatu delarik ere, horretan sorkuntza gertatu da. Izan ez zitekeen eta inguruabar jakin batzuk bete izan ez balira, gizaki batzuen existentzia gabe, agian gizaki jakin batena gabe, izango ez zatekeen zerbait sortu da. Baina berriak zaharraz jabetu behar izan duela pentsatu beharrean, hura osotasun aurreikusezin batean sartzeko, nahiago izaten dugu zaharra osotasun horren atal gisa kontsideratzea, zeina horrela birtualki aurre-existituko baitzatekeen: horretara, antzinako sozietateetan hurrenez hurren izan diren justiziaren kontzepzioak, justizia integral baten, hain zuzen, gurea izango litzatekeen horren ikuspen zatiko eta ezoso batzuk besterik ez ziratekeen izango. Alferrik da xeheki lilura oso orokortu baten, filosofoek oso kontuan hartu ez duten kasu partikular hori analizatzea, zeinak doktrina metafisikoen kopuru handi bat biziatu baitu, eta zeinak ezagutzaren teoriari problema ebatzezinak planteatzen baitizkio. Esan dezagun soilik ilusio hori

loturik dagoela aurreranzko higidura oro abiapuntuaren (efektiboki emana denaren) eta helmugaren, zeina geltoki gisa bakarrik existitzen baita higigarriak gelditzeko hautatzen duenean arteko distantziaren pixkanakako murritzte gisa kontsideratzeko gure ohiturari. Alabaina, bukaerara iristean, horrela kontsideratzea beti posible izatetik ez da segitzen higidura termino horretara pixkanaka hurbiltze bat izan denik: oraindik mutur bakarra daukan tarte bat ezin daiteke pixkanaka gutxitu, tarte izatera iritsi gabe baitago; pixkanaka *gutxitua izango* da mugigarria, bere gelditze erreal edo birtualean, beste muturra sortu duenean, eta guk atzera-begirako eran kontsidera dezagunean, edo bestela, soilik, higidura bere aurrerakuntzan jarrai dezagunean, era horretara berreraikiz, atzerantz ibiliz. Baina horretaz ez gara ia inoiz ohartzen: gauzetan beretan ezartzen dugu, posibleak errealean duen aurre-existentzia baten erapean, atzera-begirako aurreikuspen hori. Ilusio hori problema filosofiko askoren barrenean dago, zeinaren eredu Zenonen dikotomiak eman baitu. Eta hori da moralean berriz aurkitzen duguna, justizia erlatiboaren forma gero eta zabalagoak justizia absoluturako gero eta hurbiltze handiago gisa definituak direnean. Gehienara ere, esan beharko genuke, behin hau gertatu delarik, haiek bideko beste hainbeste geltoki gisa kontsidera daitezkeela, zeinak guk atzera-begira marraturik, hartara gidatzen baitu. Halaber gehitu beharko litzaioke ez dela pixkanakako aurreratzetik gertatu, baizik, une jakin batean, bat-bateko jauzi bat. – Interesgarria izango litzateke zein une zehatzetan *saltus* hori gertatu zen determinatzea, eta ez litzateke irakasgarritasun gutxiagokoa izango ikertzea zer erataria justizia absolutuak, kontzebitua izan ondoren, bestalde era lausoan iraun zuen hain luze ideal errespetatuaren egoeran, zeina ez baitzen burutu beharrekoa ere. Esan dezagun soilik, lehen puntuari dagokionez, antzinako klasedesberdintasunak, zalantzarik gabe primitiboki indarrez ezarriak eta gero balio-desberdintasun eta egindako zerbitzu gisa onartuak ostein, gero eta gehiago ezartzen dituela kritikaren pean beheko klaseak: gidariak, bestalde, gero eta gutxiago balio dute, zeren, beren buruaz seguruegi, gutxitu egiten baitute barne-tentsioa, zeinari eskatu baitzioten adimen eta nahimenezko indar handiagoa, eta zeinak sendotu egin baitzuen bere nagusitasuna. Mantendu egingo lirateke, hala ere, baturik iraungo balute; baina bere indibidualtasun propioa baieztatze-ko joerarengatik sortuko dira horien artean, egun batean edo bestean, nagusi izan nahi duten askonahiak eta beheko klasean laguntza bila-

tuko dutenak, batez ere horrek auzi publikoetan nolabait esku hartzen badu: jadanik ez jaiotzatiko nagusitasun gehiago, zeren goiko klasekoak direnen artean, xarma hautsi egin baita. Horrela jotzen dute aristokraziek demokrazian bere burua galtzera: desberdintasun politikoa zerbait ezegonkorra delako besterik gabe, berdintasun politikoa ere izango den bezalaxe burutu eta gero, gertakari bat besterik ez bada, beraz salbuespenak onartzen baditu eta, adibidez, hirian esklabotza toleratzen badu. – Baina badago aldea mekanikoki lortutako eta beti behin-behinekoak diren oreka horien artean, antzinako justiziaren eskuetan balantzarena bezala, eta gurea bezalako justizia bat, «giza eskubideena», erlazio- edo neurri-ideiak jadanik iradokitzen ez dituen, baizik, aitzitik, neurtezinaren eta absolutuarenak. Justizia horrek «infinituan» bakarrik izango luke errepresentazio osoa, matematikariek diotenez; zehatz eta kategorikoki une jakin batean bakarrik formulatzen da debekuen bidez, baina positibotik duen horretan hurrenez hurreneko sorkuntzen bidez dihardu, zeinetariko bakoitza nortasunaren burutzapen osoagoa baita, eta, ondorioz, gizadiarena. Burutzapen hori legeen bitartez bakarrik da ahalgarria; gizarte-kontsentsu bat inplikatzeko du. Hutsala izango litzateke, noski, berez eratzen dela pentsaraztea, pixkanaka, gizartearen arima-egoeraren indarrez bere historiako aldi jakin batean. Aitzitik, aurreranzko jauzi bat besterik ez da gizarteak esperientzia bat egitea erabaki duenean bakarrik gertatzen dena, eta horretarako beharrezko da konbentzitzen utzi izana edo, gutxienez, hunkitzea, eta hunkipena beti norbaitek sortzen du. Alferrik esango da aurreranzko jauzi horrek ez duela bere atzetik inolako ahalegin sortzailerik suposatzen, ez dagoela hartan artistarenarenkin erkagarria den asmakuntzarik. Eraberrikuntza handi burutu gehienek lehen burutuezinak ziruditela eta, izan ere, halaxe zirela ahaztea adinaxe izango litzateke. Bakarrik egin zitezkeen gizarte batean, zeinaren arima-egoerak izan behar baitzuen eraberrikuntza horiek burutzean sortu behar zuena; horrela zirkulu bat sortzen zen, zeinetatik ezingo baitzen irten baldin eta arima pribilegiatu batek edo gehiagok, beren baitan arima soziala dilatatzeko, ez bazuten hautsi berekin gizartea arrastatzeko. Alabaina, horixe da sorkuntza artistikoaren miraria bera. Obra genial batek, zurtzetik hasten denak, pixkanaka sortu ahal izango du, bere presentzia hutsez, artearen kontzeptzio bat eta arte-atmosfera bat, zeinek hura ulertzea ahalbidetuko duten, eta orduan atzera-begira geniala izatera iritsiko da; bestela, hasieran zen hura iza-

ten jarraituko du, zurtzaile hutsa. Espekulazio finantzario batean arrakastak eginarazten du ideia on izana. Genero horretatik zerbait bada sorkuntza artistikoan, baina aldea dago arrakastak, hasieran harrigarri zen obra gailurtzen badu, publikoaren gustuaren eraldakuntza bategatik izatea hori, obrak berak burutua hain zuzen ere; hori, beraz, indarra eta materia zen aldi berean: artistak komunikatu zion bulkada bat eman du edo, areago, artistaren bulkada bera dena, banaezina eta bertan presente dagoena. Beste horrenbeste esango genuke asmakuntza moralaz eta, berezikiago, justiziaren ideia gero eta gehiago aberasten duten hurrenez hurreneko sorkuntzez. Hortik hasteko, esan dezagun justizia beti betebeharreko bezala agertu izan dela, baina denbora luzean besteak bezalako betebeharrak bat izan zela; haiek bezala, beharrian sozial bati erantzuten zion, eta gizarteak norbanakoa-rengan eragiten zuen presioak bihurtzen duen betebeharreko. Baldintza horietan injustizia bat ez zen beste edozein arau-hauste baino txundigarriago. Ez zegoen esklaboentzat justiziarik, edo justizia erlatibo bat zen, ia hautazkoa. Herriaren salbamena ez zen bakarrik lege gorena, gerora izaten jarraitu duenez; gainera, halakotzat aldarrikatua zen; aldiz, gaur egun ez ginateke ausartuko printzipio bihurtzera salbamen horrek injustizia justifikatu ahal izatea, nahiz eta printzipio horren honelako edo halako ondorio onartu. Kontsulta diezaiogun geure buruari puntu horri buruz; egin dezagun galdera sonatua: «Zer egingo genuke jakingo bagenu herriaren salbamenerako, gizadiaren existentziarako bererako, badela nonbait gizaki bat, errugabe bat, betiko torturak nozitzera kondenatua?». Ontzat emango genuke, agian, jakingo bagenu edabe magiko batek ahantzazaziko ligukeela eta sekula ez genukeela hartaz ezer gehiago jakingo; baina jakin eta hartan pentsatu behar izango bagenu, ezinbestekoa izango balitz esatea gizaki hori ikaragarritzko oinazeen mendean dagoela guk existitu ahal izateko, eta hori existentzia orokorraren oinarritzko baldintza dela oro har: ah, ez!, lehenago onartu ezer ez existitzea! lehenago utzi planetak leher egin dezan! Zer da orduan gertatu dena? Nola altxatu da justizia bizitza sozialetik, zeinaren baitan zerbait lausoki barneko baitzen, haren gainetik altxatzeko, gainerako gauza guztiak baino garaia, kategoriko eta transzendente? Gogora dezagun Israelgo profeten tonua eta azentua. Horien ahotsa da injustizia handi bat egin eta onartzen denean entzuten duguna. Mendeen barrenetik beren protesta helarazten dute. Jakina, justizia era apartekoan hedatu da haien garai-

tik. Haiek predikatzen zuenak batez ere Israelekin zuen zerikusia; injustiziaren aurkako haien sumina Jahveh-k bere herri desobeditzailearen edo herri hautatu horren etsaien aurka zuen kolera bera zen. Profeta horietako batek, Isaiasek, justizia unibertsal bat pentsatu ahal izan bazuen, hori Israel, Jainkoak gainerako herrietatik bereizirik, Jainkoari kontratu batez loturik, gizadiaren gainerakotik altxatzen zelako izan zen, zeina lehenago edo geroago eredutzat hartua izango baitzen. Edozein kasutan ere, profetek ordutik eman diote justiziari izaera nabarmenki inperatiboa, zeina kontserbatu eta inprimatu baitio harrez gero amaigabeki gehituz joan den gai bati. – Baina handitze horiek ez dira bakarrik gertatu. Horietako bakoitzari behar beste informaturiko historialariak izen berezi bat egotzi ahal izango lioke. Horietako bakoitza sorkuntza bat izan zen. Eta atea beti zabalik egongo da sorkuntza berrietarako. Justiziaren gairako erabakigarria izan zen aurrerakuntza, profeten obra formarako izan zen bezala, errepublika unibertsal batez ordeztuan egon zen, zeinak gizaki guztiak bere baitan hartzen baitzituen, hirien mugetan gelditzen zen beste hura, eta zeina hiri beraren barruan gizaki askeetara bakarrik mugatzen baitzen. Gainerako guztia handik etorri zen, zeren ateak zabalik iraun badu sorkuntza berrietarako eta seguraski beti egongo da horrela, beharrezko izan zen egun batean ireki zedin. Ez deritzogu zalantzazko bigarren aurrerakuntza hori, itxitik irekirako urrats hori, kristautasunarengatikoa izateari, lehena profeta juduengatik izan zen bezala. Filosofia hutsez burutu ahal izango ote zen? Ezer ez da irakasgarriago: nola filosofoek ukitu duten, eta hala ere galdu duten, ikustea baino. Utz dezagun alde batera Platonen kasua, zeinak ideia suprasentigarrien artean gizakiarena sartzen baitu: agian, ez al zen hortik jarraitzen gizaki guztiak esentzia berekoak zirela? Hortik gizaki diren heinean denek balio bera dutelakora, eta esentzia-komunitateak oinarritzko eskubide berak ematen dizkielako ideiara urrats bakarra zegoen. Baina urrats hori ez zen egin. Esklabotza kondenatzea, atzeritarrek, barbaroak izatean, ezein eskubide erreibindikatzetik ez zutelako ideia grekoari uko egin beharko zitzaiokeen. Gainera, ideia propioki grekoa al zen? Implizitu aurkitzen dugu kristautasuna sartu ez den tokietan, nola modernoetan hala antzinakoetan. Txinan, adibidez, doktrina moral oso jasoak sortu dira, baina ez dira arduratu gizadiarentzat legeak egiteaz; era esplizituan esan gabe, egitatean komunitate txinatarraz bakarrik arduratzen dira. Hala ere, kristautasunaren aurretik estoizis-

moa izan zen: gizaki guztiak senideak direla eta jakintsua munduko hiritar dela aldarrikatu zuten filosofoek. Baina formula horiek ideal kontzebitu batenak ziren, eta agian burutuezintzat kontzebituarenak. Ez dugu ohartzen estoiko handietako batek ere, ezta enperadore izan zenak ere, ahalgarri ikusi zuenik gizaki askearen eta esklaboaren, hiritar erromatarraren eta barbaroaren arteko hesia ahultzea. Kristautasunari itxaron behar izan zitzaion senidetasun unibertsalaren ideia, zeinak eskubide-berdintasuna eta pertsonaren bortxaezintasuna inplikitzen baititu, eraginkor izan zedin. Bere egintza oso geldoa izan zela objektatuko da; izan ere, hemezortzi mende igaro ziren amerikar puritanoek gizakiaren eskubideak aldarrikatu arte, berehala Frantses Iraultzako gizakiek jarraituak. Guztiarekin ere, Ebanjelioaren irakaspenarekin hasita zegoen, et amaigabeki garatzen jarraitu zuen: gauza bat da miresmena merezi duten jakintsuek gizakiei aurkeztu besterik egin ez dieten ideala, eta besterik, munduan zehar maitasunez kargaturiko mezu batean jaurtiriko idela, maitasunerako deia egiten zuena. Egia esateko, kasu honetan ez zen jadanik jakituria zehaztu bat, maximatan erabat formulagarria. Areago zen norabide bat adieraztea, metodo bat seinalatzea; gehienez helmuga bat izendatzea egiten zen, behin-behinekoa baizik izango ez zena eta, ondorioz, etengabe berritu beharreko ahalegina eskatzen zuena. Bestalde, ahalegin horrek derrigor izan behar zuen, batzuegan gutxienez, sorkuntza-ahalegina. Metodoa berez ezinezkoa dena ahalgarritzat jotzean zetzan gizarte jakin batean, arima sozialarentzat hartatik gertatuko litzatekeena errepresentatzean, eta orduan propaganda eta etsenpluaren bidez arima-egoera horretatik zerbait sortzean: efektuak, lortu ondoren, kausa osatuko luke atzera-begiratuki; sentimendu berriek, bestalde lausoek, eragingo lukete legegintza berria, zeinek beharrezko bailirudikete haien agerpenenerako eta, zeinek haiek sendotzeko balioko bailukete. Justiziaren ideia modernoak aurrera egin du sorkuntza indibidual sail baten indarrez, zeinek arrakasta lortu baitute bulkada berak animaturiko ahalegin ugarien bidez. Antzinate klasikoak ez zuen propaganda ezagutu; haren justizia jainko olinpikoen inpasibilitate barearen jabe zen. Ireki-beharra, hedatzeko irrika, bulkada, higidura, hori guztia jatorri judukristaukoa da. Baina hitz bera erabiltzen jarraitu izanagatik, sarriegitan uste izan da gauza bera zela. Inoiz ez da gehiegi errepikatuko: sorkuntza ondozkatu, indibidual eta kontingenteak goiburu-ko beraren azpian sailkatuko dira, nozio berean sartuak eta izen beraz

deituak, baldin eta bakoitzak hurrengoa eragin badu eta gero jarraipenean agertzen badira elkarrekin. Baina goazen urrunago. Izena ez zaie horrela eraturiko sailean jadanik existitzen diren terminoei bakarrik aplikatuko, baizik etorkizuna aurreratuz, sail osoa izendatuko du, amaieran ezarriko da, zer diot amaieran?, infinituan; hitz hori aspal-didanik eraturik dagoenez gero, era berean aspalditik landutzat joko da, betiera guztitik ere bai, errepresentatzen duen nozioa, eta zeina, hala ere, zerbait irekia eta eduki zehaztugabekoa baita; lortutako aurrerakuntzak, orduan, entitate aurre-existente horren beste hainbeste konkista izango dira; erreala ideala hurrupatuz joango litzateke, betiko justiziaren osotasuna pixkanaka bereganatuz. Eta hori ez da egia justiziaren ideiarekiko bakarrik, baita harekin erlazionaturik daudenekiko ere: berdintasuna eta askatasunarekiko, adibidez. Definizioak ez du akatsik, baina zer ondorioztatzen da hartatik? Iraganerako balio du, baina nekez orientatu ahal izango du gure hautespena etorkizunerako. Har dezagun, esaterako, askatasuna. Eskuarki esaten da norbanakoak eskubidea duela beste baten askatasunari kalte egiten ez dion askatasun orotarako. Alabaina, askatasun berri bat emateak, askatasun guztiek aurrera egitea ondorioztat izango lukeenak, batzuek besteen gain, gaur eguneko gizartean, alderantzizko efektua eragin lezake gizarte batean, zeinean eraberritze horrek berorrek sentimenduak eta ohiturak modifikatuko bailituzke. Beraz, sarritan ezinezkoa izaten da zein den norbanakoari, bere kideen askatasunerako kalterik gabe, eman dakioken askatasun-dosia *a priori* esatea: kantitate aldutzen denean, nolakotasuna ere ez da lehengoa bera. Bestalde, berdintasuna ez da inoiz lortzen askatasunaren lepotik ez bada, beraz galdetzen hasi beharko litzateke bietatik zein den bestea baino hobegarriagoa. Baina galdera horrek ez du erantzun orokorrik ahalbidetzen, zeren honelako edo halako askatasunen sakrifizioak, hiritarren multzoak libreki onartua bada, askatasun izaten jarraitzen du eta, batez ere, geratuko den askatasuna nolakotasun garaiaagokoa izan daiteke, baldin eta berdintasunaren zentzuan egindako eraberrikuntzak gizarte bat eman badu, zeinean hobeki arnasa hartzen den, zeinean jardutean poz handiagoa sentitzen den. Zernahi egiten dela ere, beti itzuli beharko da sortzaile moralen kontzepziara, zeinek errepresentatzen baitute pentsamenduaz gizarte-atmosfera berri bat, hobeki bizi izateko ingurumen bat, esan nahi dut, halako gizarte bat, non bertan bizi izatearen esperientzia izango balute gizakiek, jadanik ez bailuke-

te aurreko egoerara itzuli nahiko. Horrela bakarrik definituko da aurrerakuntza morala, baina bete eta gero bakarrik defini daiteke, izaera moral pribilegiatu batek sentimendu berri bat, musika berri baten antzekoa sortu duenean, eta gizakiei, bere bulkada propioa ezarritz komunikatu dienean. Era horretara «askatasunaz», «berdintasunaz», «eskubidearekiko errespetuaz» gogoeta eginez ikusiko da ez dagoela gradu-desberdintasuna soilik, baizik izaera-deberdintasun errotikoa, bereizi ditugun bi justizia ideia horien, irekiaren eta itxiaren artean. Izan ere, justizia erlatiboki egonkorra, itxia, naturaren eskuetatik ateratzen den sozietate baten oreka automatikoa adierazten duena, usuario-sail batean adierazten da, zeini loturik baitago «betebeharraren osozkoa», eta horrela «betebeharraren osozkoak» besarkatu egiten ditu, iritziak onartzen dituen heinean, beste justiziaren preskripzioak, hurrenez hurreneko sorkuntzetara irekita dagoenarenak. Forma bera ezartzen zaie horrela bi gaiei, bata gizarteak emana, bestea giza geniotik sortua. Praktikoki, izan ere, bat egin beharko lukete. Baina filosofoak bereizi egin behar ditu gizarte-bilakaeraren izaera eta, aldi berean, betebeharraren jatorria larriki nahastu nahi ez baditu. Gizarte-bilakaera ez da aurrena metodo baten arabera garatu den gizarte batena, zeinak gero hura eraldatu behar baitu. Garapena eta eraldakuntzaren artean ez dago hemen ez analogiarik ez neurri komunik. Justizia itxia eta justizia irekia era berean inperatiboak diren legeetan txertatzen direlako, zeinak era berean formulatzen baitira, eta zeinek kanpotik itxura bera baitute, hortik ez da ondorioztatzen era berean azaldu behar direnik. Ez dago beste adibiderik moralaren jatorri bikoitza eta betebeharraren bi osagaiak hobeki erakutsiko dituenik.

Gaur eguneko gauzen egoeran, arrazoiak inperatibo soiltzat agertu behar duela, gizadiaren interesa kontzeptu moralei autoritate propio bat eta bere baitako indar bat egoztean datzala eta, azken finean, jarduera morala, gizarte zibilizatu batean, esentzialki arrazionala dela, ez dago zalantzan jartzerik. Bestela, nola jakingo litzateke zer egin behar den kasu partikular bakoitzean? Indar sakonak daude hor, bata bulkadakoa eta bestea erakarpenekoa, eta ezin dugu horien zuzeneko aipamena egin erabaki bat hartu behar dugun bakoitzean. Hori, gehienetan, lan bat alferrik berregitea izango litzateke, zeina gizarteak orokorrean, alde batetik, eta gizadiaren eliteak, bestetik, guretzat egin baitu. Lanak arauak formulatzea eta ideal bat finkatzea lortu du:

moralki bizitzea datza arau horiek jarraitzean eta ideal horrekin bat etortzean, eta horrela bakarrik egongo gara ziur geure buruarekin erabat ados gaudela, zeren ez baitago ezer arrazionala baino koherenteagorik. Horrela bakarrik erkatu ahal izango dira beren artean portaerallerro desberdinak; horrela bakarrik prezatu ahal izango da bere balio morala. Hori guztia hain da begi-bistakoa, non ia ez dugun seinالاتu eta ia beti gainulertutzat eman dugun. Baina horren ondorio gisa gure aurkezpenak eskematikoa izatearen akatsa zuen, eta askiezen itxura izan zezakeen. Maila intelektualean, izan ere, moralaren eskakizun guztiak kontzeptutan elkarbigizatzen dira, zeinetariko bakoitza, leibniziar monada bezala, gainerako guztien gutxi-asko errepresentatiboa baita; maila horren gainetik edo azpitik indarrak aurkitzen ditugu, zeinak bakarka harturik maila intelektualean proiektatu denaren atal bati bakarrik baitagozkio. Jarraitu dugun metodoaren eragozpen hori eztabaidaezina denez gero, gainera, bestalde, ekidinezina denez, ikusten dugunez metodoa nagusitu egiten zaigula eta ezin diola utzi eragozpenak sortzeari bere aplikazioan, bukatzeko, berriz ezaugarritu eta definitu beharko dugu, nahiz eta puntu batzuetan errepikatuko ditugun, ia termino beretan, lehen esateko aukera izan duguna.

Sekula ez da izan giza sozietaterik, organismo bateko zelulak bezala, elkarri loturiko kideak izan dituenik edo, ia gauza bera dena, inurriak inurritegi bati bezala; baina, zalantzarik gabe, giza talde primitiboak gehiago hurbiltzen ziren horretara gureak baino. Naturak, gizakia animalia sozial egitean, solidaritate estu hori nahi izan du, laxotuz, guztiarekin ere, beharrezkoa zen neurrian norbanakoak, gizartearen beraren interesetan, naturak hornitu dion adimena destolestuz. Egiaztapen hori egitera mugatu gara gure aurkezpenaren lehen atalean. Garrantzi erlatiboa bakarrik izango luke lortutakoaren izaera hereditarioan sinestea eztabaidarik gabe onartuko lukeen filosofia moral baterako, zeren kasu horretan gaur egun gizakiak izango bailuke jaiotzerik bere urruneko arbasoenez guztiz bestelako joerekin. Baina gu esperientziari gagozkio, zeinak erakusten baitigu lortutako azturaren herentziazko transmisioan salbuespen bat –noizbait gertatu dela suposatuz– eta ez gertakari aski erregular bat, behar besteko maiztasunekoa, taxuera naturalaren aldaketa sakon bat epe luzera determinatzeko. Nahiz eta oso errotikoa izan orduan gizaki zibilizatuaren eta primitiboaren arteko desberdintasuna, bere kontzientziaren

lehen iratzartzetik haurrak metatu duenari bakarrik zor zaio hori: mendeetako zibilizazioan zehar gizakiak egindako lorpen guztiak orduan bere ondoan dauzka, bere eskura, irakasten zaion zientzian metatuak, tradizioan, instituzioetan, usadioetan, hitz egiten ikasten duen sintaxian eta hiztegian eta inguratzen duten gizakien keinuetan beraietan ere bai. Lur begetalezko geruza lodi horrek estaltzen du gaur jatorrizko izaerako harkaitza. Gai da, nahi badugu, kausa amaigabeki bariatuen efektu astiro metatuak errepresentatzeko, baina horregatik ez dio utzi asentaturik zegoeneko lurzoruaen taxuera orokorrera moldatzeari. Hitz gutxitan, geure kontzientziaren barranean aurkitzen dugun betebeharra, zeinak, egitez, hitzak irakasten duenez, gizarteko beste kideekin lotzen baikaitu, inurriak inurritegian edo zelulak organismoan elkarren artean lotzen dituen izaera bereko lokarria da. Hori da lokarri horrek hartuko lukeen forma gizakia bezala adimendun bihurturiko inurri batentzat, edo zelula organiko batentzat, zeina izango bailitzateke inurri adimendun bat bezain independentea bere higiduretan. Jakina, betebeharrak hitz egiten ari naiz, forma soil gisa kontsideratuaz, materiagabeaz, gure izaera moralean erreduziezin eta beti presentetik bezala dagoenaz. Esan beharrik ez dago forma horretan sartzen den materia, izaki adimendun batengan, adimentsuago eta koherenteagoa dela zibilizazioak aurrera egiten duen neurrian, eta etengabe materia berri bat sortzen dela, ez derrigor forma horren zuzeneko deiarengatik, baizik jadanik bere baitan sartu den materia adimendunaren presio logikoaren pean. Eta jadanik ikusi dugu nola materia batek forma desberdin batean isurtzeko propioki egina dagoenak, kontserbazio sozialaren premiatik oso zeharka ere jaio ez denak, baizik kontzientzia indibidualaren aspirazio baten indarrez, nola onartzen duen forma hori, moralaren gainerakoak bezala, maila intelektualean antolatzean. Baina betebeharrak inperatibotik propioki daukan horretara itzultzen garen guztietan, eta adimenak aberasteko sartu duen guztia, justifikatzeko arrazoiak haren inguruan ezarri duen guztia bertan aurkitu bagenu ere, beti oinarritzko egitura horretan kokatzen dugu berriro geure burua. Hori betebeharrak hutsari buruz.

Alabaina, gizaki osoa besarkatuko lukeen eta gizaki osoago baten sorkuntza etengabe berriro baterantz nahimen komun batek animaturik joango litzatekeen sozietate mistiko bat, begi-bistan dago ez dela burutuko etorkizunean, iraganean, funtzionamendu organiko-

ko eta animala sozietateekin erkatzeko moduko giza sozietateak izan ez diren bezalaxe. Aspirazio garbia muga ideal bat da, betebeharrak sinplea bezala. Ez du egia gutxiago esateak arima mistikoei arrastatu dituztela eta oraindik ere arrastatzen dituztela gizarte zibilizatuak beren higiduran. Izan zirenaren eta egin zutenaren oroitzapena gordailatu egin da gizadiaren oroimenean. Gutako edozeinek birbizi dezake, batez ere bere baitan bizirik dirauen pertsona baten imajinari lotzen badio, zeinak mistika horretan esku hartu baitu eta bere inguruan irradiarazi. Nahiz eta halako edo bestelako figura handirik ez oroitarazi, badakigu ahalgarri izango litzazukeela oroitaraztea, eta horrela erakarpen birtual bat eragiten du gudan. Nahiz eta pertsonen desinteresatu, gaur egun gizadi zibilizatuak onarturiko moralitatearen formula orokorra hori geratzen da: formula horrek bi gauza hartzen ditu bere baitan, eskakizun sozial *inpersonelek* diktaturiko *agindu*-sistema bat, eta gizadian egon den hoberena ordezkatzeko duten *personek* gutako bakoitzaren kontzientziara jaurtitako *deimultzo* bat. Aginduarekin erlazionaturiko betebeharra, originala eta oinarritzkoa den heinean, infraintelektuala da. Deia eraginkortasuna, bestalde, egun batean eragindako emozioaren ahalmenaren baitan dago, oraindik ere eragina denaren edo izan daitekeenaren baitan: emozio hori, ideiatan amaigabeki ebazkarria delako besterik ez bada ere, ideia bat baino gehiago da; supraintelektuala da. Bi indarrak, ari-mako gune desberdinetan dihardutenak, tarteko planoan proiektatzen dira, zeina adimenarena baita. Gerora beren proiektzioek ordeztuko dituzte. Elkarrekin nahastu eta barrendu egiten dira. Horren ondorio gisa agindu eta deien transposizio bat gertatzen da arrazoi hutsaren terminotan. Justizia, horrela, katitateak etengabe handitua aurkitzen da; karitateak gero eta gehiago hartzen du justizia sinplearen forma; moralitatearen elementuak homogeneo, erkagarri eta ia neurgarri bihurtzen dira beren artean; problema moralak zehaztasunez enuntziatzen dira eta metodikoki ebazten dira. Gizadia maila jakin batean kokatzera gonbidatua da, –animala sozietatea baino garaia, zeinean betebeharra instintuaren indarra bakarrik izango bailitzateke–, baina jainko-biltzar batena baino beherago, zeinean dena bulkada sortzaile izango bailitzateke. Bizitza moralaren agerpenak, orduan, horretara antolaturik, elkarrekiko perfektuki koherente aurkituko dira eta, ondorioz, printzipioekin erlazionatzeko gai. Bizitza morala bizitza arrazionala izango da.

Mundu guztia bat etorriko da puntu honetan. Baina portaera moralaren izaera arrazionala konstatatu izatetik ez da ondorioztatu behar moralak bere jatorria edo oinarria arrazoi hutsean daukanik. Auzirik garrantzitsuena datza jakitean ea zergatik sentitzen garen behartuak kasu haietan, zeinetan ez baita inondik ere aski eramaten uzte hutsa betebeharra betetzeko.

Onartzen dut kasu horietan arrazoiak hitz egiten duela; baina bere izenean bakarrik hitz egingo balu, haren atzean eragiten diren indar batzuen egintza arrazionalki formulatu bakarrik egingo balu, nola borrokatuko luke grinaren edo interesaren aurka? Arrazoiak bere buruarekin aski duela pentsatzen duen filosofoak, eta hori frogatu nahi badu, ez du lortuko hori egitea, indar horiek berriro sartzen ez baditu esan gabe: bestalde, beren kabuz, ezkutuka sartu direla berriro. Azter dezagun, izan ere, horren frog. Horiek bi forma hartzen dituzte arrazoi hutsa hartzen duen edo materia bat uzten dionaren arabera, betebeharrak moralean norbere buruarekin bat etortzearen beharrian garbi eta sinplea edota xede jakin bat logikoki jazartzeko gonbita ikusten duenaren arabera. Kontsidera ditzagun bi forma horiek bata bestearen atzetik. Kantek esaten digunean gordailutan emandako kopuru bat itzuli egin behar dela, zeren gordailuzainak bere egingo balu gordailu izateari utziko liokeelako, begi-bistan dago hitzekin jolasean ari dela. Edo gordailuaz diru-kopuru bat adiskide baten eskuetan ezartzearen egitate materiala ulertzen du, adibidez, geroago erreklamatu egingo diotela oharraraziz –baina orduan egitate material horrek bakarrik, ohar soilarekin batera, ondorioztat izango du gordailuzainak kopurua itzultzea erabakiko duela behar ez badu, eta bakarrik eta sinpleki hartaz jabetzea diruz gaizki badago; jokatzeko bi erak era berean dira koherenteak, «gordailu» hitzak imajina material bat bakarrik iradokitzen duen unetik ideia moralen laguntasunik gabe—. Edo bestela hor daude kontsiderazio moralak: gordailua konfiatua izan dela eta konfiantza bati ez zaiola iruzur «egin behar»; gordailuzaina «konprometitu» delako ideia, bere «hitza eman» duelakoa; nahiz eta ezer ez esan, «kontratu» tazituz beharturik dagoelakoa; jabetza-«eskubide» bat delako ideia, eta abar. Kasu horretan, izan ere, geure buruarekin kontraesanean sartuko ginateke gordailu bat onartu eta itzultzeari uko egitean; gordailuak gordailu izateari utzi egingo lioke. Filosofoak esan lezake inmorala hemen irrazionala dela, baina «gordailu» hitza

giza talde batean duen adieran hartuko litzatekeelako, zeinean existitzen baitira ideia propioki moralak, konbentzioak eta betebeharrak: betebehar moralak ez da murriztuko ez-kontraesatearen beharrian hutsera, zeren kontraesana soilik izango bailitzateke, kasu horretan aurre-existentea izango litzatekeen betebehar moral bat onartu eta gero errefusatzean. – Baina utz ditzagun alde batera zorrozkeria horiek. Logikarekiko errespetuaren gainean moralak oinarritzearen uzia baliteke gai espekulatiboan logikaren aurrean makurtzera ohituriko filosofo eta jakintsuengan jaio izatea, eta horrenbestez gai orotan eta gizadi osoarentzat, logika nagusitu egiten dela autoritate soberano batekin sinestera jo dute. Baina zientziak gauzen logika, eta logika, oro har, errespetatu behar duelakotik emaitzak lortu nahi baditu bere ikerketetan, hori jakintsua den heinean jakintsuaren interesa izatetik ezin da ondorioztatu behartuak gaudenik geure portaera logikara beti doitzera, gizakiak oro har duen interesa hori balitz bezala edo jakintsuarena berarena gizakia den heinean. Handia izan daiteke espirituaren funtzio espekulatiboarekiko gure miresmena, baina filosofoek baieztatzen dutenean aski dela egoismoa eta grina isilarazteko, erakusten digute –eta zorionak eman behar dizkiegu horregatik– inoiz ez dutela entzun indarrez durundatzen beren baitan ez bataren eta ez bestearen ahotsa. Hori guztia esaten dugu forma garbi, materiagabe gisa kontsideratutako arrazoiari dei egiten dion moralarekiko erlazioan. –Forma horri materia gehitzen dion moralak kontsideratu baino lehen, kontuan izan dezagun oso sarritan lehena izaten dela bigarrenaren aurrean gaudela uste dugunean. Hori egiten dute, betebehar moralak Ongiaren ideia ezarriko lukeen indarraz argitzen dutenean. Gizarte antolatu batean ideia hori hartzen badute, zeinean jadanik giza egintzak sailkaturik baitaude gizarte-kohesioari eusteko eta gizadiari aurrera eragiteko duten gaitasun handiago edo txikiagoaren arabera eta zeinean, batez ere, indar definitu jakin batzuek sortzen baitute kohesio hori eta aurreratze hori segurtatzen baitute, orduan zalantzarik gabe esan ahal izango dute jarduera bat hainbat moralagoa dela zenbat eta gehiago bat etorri ongiarekin, eta gehitu ahal izango dute, halaber, ongia beharrezko bezala kontzebitzen dela. Baina orduan ongia goiburukoa besterik ez da izango, zeinen azpian konbenitzen den ezartzea halako edo bestelako gaitasun aurkezten duten egintzak, eta zeinetara norbera definitu ditugun bulkada- eta erakarpen-indarrek determinaturik sentitzen baita. Portaera desberdin horien hierarkia

baten errepresentazioa, ondorioz bakoitzaren balioena eta, bestalde, ezartzen direneko kuasi-behartasuna, Ongiaren ideiaaren aurretik existituko ziren, zeina gero bakarrik sortu baita, etiketa edo izen bat emateko: horrek, berenez, ezingo zukeen balio sailkatzeko, eta gutxiago oraindik haiek ezartzeko, baldin eta, aitzitik, Ongiaren ideia betebeharrak eta aspirazio ororen iturburu izatea nahi bada, eta giza egintzak kalifikatzeko balioko duena, beharrezko izango da esan diezaguten zertan ezagutzen den portaera bat haren araberrakoa dela; beharrezko izango da, beraz, Ongia definitzea, eta ez dugu ikusten nola izango litzatekeen posible hura definitzea izakien hierarkia baten existentzia, edo gutxienez egintzena postulatu gabe, eta batzuen besteeikiko jasoera handiago edo txikiagoa. Alabaina, hierarkia hori bere kabuz existitzen bada, alferrikakoa da, hori ezartzeko, Ongiaren ideia jotzea. Gainerakoan, ez dugu ikusten zergatik kontserbatu beharko litzatekeen hierarkia hori, ezta zergatik egon beharko genukeen hura errespetatzera beharturik. Bere alde arrazoi estetikoak bakarrik aipa daitezke eta portaera bat beste bat baino «ederragoa» dela alega, izakien eskalan garaiera handiago edo txikiagoan kokatzen gaituela: baina, zer erantzun lekiok guztiaren gainetik bere interes propioaren kontsiderazioa ezartzen duela aitortzen duen gizakiari? Hurbiletik begiratuz, moral hori inoiz ez dela bere buruarentzat aski izan ikusiko genuke. Osagarri artistiko baten gisara soilik etorri zaie gehitzera aurretik existitzen ziren eta ahalgarri egiten zuten betebeharrak. Filosofo grekoen Ongiaren ideia duintasun gorena egozten diotenean eta, orokorrean, bizitza kontenplataileari, elite hautatu batentzat hitz egiten dute, zeina eratuko baitzen gizartearen barruan eta gizarte-bizitza bat gertakari bat bezala onartzen hasiko baitzen. Esan izan da moral horrek ez zuela eginbeharraz hitz egiten eta ez zuela betebeharra ezagutzen guk ulertzen dugunez. Egia handia da ez zuela hartaz hitz egiten, baina begi-bistakotzat hartzen zuelako hain zuzen ere. Filosofoa bere eginbeharra burutu zuela suposatuz hasten zen, mundu guztiak bezala, hiriak ezartzen zionez. Orduan bakarrik sortzen zen moral bat bere bizitza edertzerantz zuzendua, arte-obra bat bezala tratatuz. Hitz gutxitan, eta aurreko guztia laburbiltzeko, ezinezkoa da moralaren arrazoiaren kultuaren gainean oinarritzea. Orain aztertu beharko litzateke, jadanik esan dugunez, arrazoiaren gainean atsedena hartuko lukeen, horrek gure jarduerari xede jakin bat aurkeztuko liokeen heinean, arrazoiarekin bat datorrena baina hari gainezarria, arrazoiak metodi-

koki jazartzen irakatsiko ligukeen xede bat. Baina erraz ohartzekoa da ezein xede –ez adierazi dugun xede bikoitza, ezta gizarte-kohesioari eutsi eta gizadia aurrerarazteko kezka bikoitza ere– ez dela derrigor ezarriko arrazoiak proposatzen duelako gertakari hutsez. Indar batzuk zinez aktiboak eta gure nahimenaren gainean pisua dutenak presente egiten badira, orduan arrazoiak eskua sartu ahal izango du eta beharko du efektuak koordinatzeko, baina ez da indar horiekin lehiatzeko gai izango, zeren beti baita ahalgarri horrekin arrazoitzea, bere arrazoiei beste arrazoi batzuk kontrajartzea edo, besterik gabe, eztabaida baztertu eta «sic volo, sic iubeo» batekin erantzutea bera ere. Egia esateko, kontsiderazio arrazional hutsetan betebeharra oinarritzen duela uste duen moralak jakin gabe sarrarazten ditu, jadanik esan dugunez eta berriro esaten dugunez, maila desberdin bateko indarrak, eta hain zuzen ere horrexegatik gertatzen da garaile hainbesteko erraztasunarekin. Egiazko betebeharra existitzen zen jadanik, eta arrazoiak era naturalean hari gehitzera datorrenak derrigorrezko izaera hartuko du. Gizartea ere, bera mantentzen eta aurrera bultzatzen duenarekin, jadanik han dago, eta horregatik arrazoiak hartu ahal izango du moralaren printzipiotzat gizakiak gizartean jazartzen dituen xedeetako edozein. Xede hori burutzeraz zuzenduriko bitarteko-sistema guztiz koherente bat eraikitzean, zentzu komunak kontzebitzen duen bezala aurkitzen du azkenerako moralak, eta gizadiak orokorrean praktikatzeko edo praktikatu nahi duen bezala. Gertatzen dena da xede horietako bakoitza, moralak gizartetik hartzen duena, sozializaturik dagoela, eta horrenbestez, proposa daitezkeen gainerako xede guztiekin bete dela. Horrela, nahiz eta interes pertsonala moralaren printzipio bihurtu, ez da zaila izango moral arrazional bat eraikitzea, zeinak behar besteko graduan izango baitu moral arruntaren antza, moral utilitarioaren arrakasta erlatiboak erakusten duenez. Izan ere, egoismoak, gizartean bizi den gizaki batentzat buruestimua, goretsia izatearen premia, eta abar, besarkatzen ditu, halako moldez, non interes pertsonal hutsa ia definen zitekeen iritsi baita: hainbeste da bere baitan interes orokorretik daukana eta hain zaila bata bestetik bakartzea! Pentsa bedi bestearekiko zenbaterainoko deferentzia dagoen buruestimua deitzen den horretan edota zeluetan eta inbidian bertan! Egoismo absolutua praktikatu nahiko lukeenak bere baitan itxi beharko luke bere burua eta ez arduratu gehiago lagunurkoaz, ez hartaz zeluak sentitzeko, ez haren inbidiarik izateko. Gorroto-era horietan sinpatia poxi bat sartzen da,

eta gizartean bizi den gizakiaren bizioek ere beti inplikatzten dute bertuteren bat: dena banitatez asebetterik daude, eta banitateak, batez ere, soziagarritasuna esan nahi du. Arrazoi gehiagorekin deduzitu ahal izango da morala, gutxi gorabeherako eran, ohorea, sinpatia edo pietatea sentimenduetatik. Gizartean bizi den gizaki ororengan, gizarte-moralak hartan jarri duenez, kargaturik dago joera horietako bakoitza, eta beharrezko izango litzateke edukiz hustu izana, oso gauza gutxira murriztearen arriskuarekin, ez baldin badugu printzipio-eskaera bat egin morala bertara joz azaltzean. Mota horretako teoriak eraikitzen direneko erraztasunak gure susmoak iratzartu beharko lituzke: baldin eta filosofoak gai badiira xederik desberdinenak xede moral bihurtzeko, badu egiantzik –oraindik harri filosofalaren jabe ez direnez gero– beren arragoaren barrenean urrea isurtzetik hasi izanak. Halaber, begi-bistakoa da doktrina horietako ezeinek ez digula azalduko zertan datzan betebeharra: bitarteko jakin batzuk erabiltzera beharturik aurki gaitzke halako edo bestelako xede burutu nahi badugu, baina xede horri uko egitea bururatzen bazeaigu, nola ezarriko zaizkigu bitartekoak? Hala ere, xede horietako bat moralaren printzipiotzat hartzean, horietatik maxima-sistemak atera dituzte filosofoek, zeinak inperatibo-erak hartzera iritsi gabe hartara gu pozik egoteko adina hurbiltzen baitira. Arrazoia oso sinplea da. Xede horiek lortzea kontsideratu dute, beste behin, gizarte baten testuinguruan, zeinean baitaude presio erabakigarriak eta luzatzen dituzten aspirazio osagarriak. Presioa eta erakarpena, elkar determinatzean, maxima-sistema horietako edozeinetan bukatuko lirateke, zeren horietako bakoitzak xede bat burutzea jazartzen baitu, zeina aldi berean indibiduala eta soziala baita. Horrela bada, sistema horietako bakoitza filosofoa agertu aurreko atmosferan aurre-existitzen da; bere baitan maximak dauzka, beren edukiz filosofoak formulatu behar dituenetara nahikoa hurbiltzen direnak eta betebeharrekoak direnak. Filosofoiak berraurkitzen dituenean, nahiz eta ez izan orain agindu baten erapean, zeren inteligentziak, bere aldetik, errefusa lezakeen xede baten lorpen inteligenterako gomendioak bakarrik baitira, bere antza duen maximak hurrupatu egiten du, zeina lausoagoa edo birtual soila ere bai baita, baina betebeharrez kargatua. Horrela betebeharreko bihurtzen dira, baina, pentsa litekeenaren aurka, betebeharra ez da goitik jaisten, hau da, maximak arrazionalki deduzituak izan direlako printzipiotik; aitzitik, behetik igotzen da, hau da, presioen hondotik, aspirazioetan luzatzeko gai den horretatik, zei-

naren gainean baitago erroturik gizartea. Labur esanda, moralaren teoriariek gizartea postulatzeko dute eta ondorioz, gizarteak egonkortasuna eta mugimendua ematen dioten bi indarrak. Xede sozial guztiak elkarrekin bigiztatzen direlako gertakarian oinarrituz, eta horietako bakoitza, oreka horren eta higidura horren gainean nolabait kokaturik, itxuraz bi indar horietan bikoizten delakotik, ez dute zailtasunik, xedeetako edozein printzipiotzat harturik, moralaren edukia berreraikitzeke, eta orduan moral hori betebeharrekoa dela baieztatzeke. Horren arrazoia datza alde aurretik hartu izanean, gizartearekin, nola moral horren gaia hala bere forma, bere baitan daukan guztia eta hartatik garatzen den betebeharrak guztia.

Ilusio hori, moral teoriko guztiek batera dutena, sakontzean, hara zer aurkituko litzatekeen: betebeharra beharizan bat da, zeinarekin eztabaidatzen den eta, horrenbestez, adimenaz eta askatasunaz lagundurik dagoen. Beharizana, gainera, efektu psikologiko edo baita fisiko bat sortzearekin lotzen denaren analogoa da hemen: naturak adimendun egingo ez zuen gizadi batean eta zeinean norbanakoak ez bailuke inolako aukera-askatasunik izango, taldearen kontserbazioa eta kohesioa mantentzera zuzenduriko egintza derrigor beteko litzateke; indar ongi determinatu baten eraginpean burutuko litzateke, inurri bakoitzari bere inurritegiaren alde eta ehun bateko zelula bakoitzari organismoarentzat lan eragiten dionaren beraren azpian. Baina adimenak hautatzeko gaitasunarekin esku hartzen du, eta une horretatik beste indar baten aurrean aurkitzen gara, zeina beti aktuala baita, aurrekoari egoera birtualean eusten baitio edo, areago, errealitate doi ikuskorrekoan bere egintzan, baina sentikor bere presioan. Era horretan bertan, erloju baten penduluaren joan-etorriek eragotzi egiten dute malgukiaren tentsioa ihesketa zakar batean agertzea, eta, hala ere, tentsio horren berorren emaitza dira, egintza inhibitzaile edo erregulatzailerik bat beren kausen gain eragiten duten efektuak bezala. Zer egingo du, bada, adimenak? Hori ahalmen bat da, norbanakoak era naturalean erabiltzen duena, bizitzako zailtasunetatik bere burua jaregiteko. Sekula ez du jarraituko indar baten norabidea, zeinak, aitzitik, espeziearentzat lan egiten baitu, eta zeinak banakoa soilik kontuan hartzen baitu espeziearen kontserbazioari begira: zuzen joango da soluzio egoisten bila. Baina hori bere lehen higidura besterik ez da izango, zeren ezin izango baitio indarra kontuan izateari utzi, zeinaren

presio ikusezina jasaten baitu. Horrela, bada, bere buruari sinetsaraziko dio egoismo inteligente batek lekua utzi behar diela beste egoismo guztiei. Eta filosofo baten inteligentzia bada, moral teoriko bat eraikiko du, zeinean frogaturik geratuko baita interes pertsonalaren eta interes orokorraren elkarbarrentzea, eta zeinean betebeharra beharritzane-ra, guztiek sentituta, besteengan pentsatzekora murrizturik geratuko baita; beharrian hori sentitu egingo dugu inteligenteki baliagarri bihurtu nahi badugu geure buruarentzat. Baina erantzun ahal izango dugu ez zaigula atsegin gure interesa horrela ulertzea eta, horrenbestez, ez dugula ikusten zergatik sentitu beharko gukeen behartuak. Hala ere, beharturik gaude, inteligentziak badaki, eta hain zuzen ere horrexegatik saiatu da demostrazioa egiten. Baina egia da bere demostrazioak itxuraz ez duela ondorio onik, zeren pasua libre uzten baitio hitz egiten ez duen eta esentziala den zerbaiti: beharrian jasan eta sentitu bati, zeina arrazoiketak errefusatu egin baitzuen eta arrazoiketa antagoniko batek berriro ekartzen baitu. Horrela, bada, betebeharrean propioki betebeharrekoetik dagoena ez dator inteligentziazatik. Horrek betebeharrean hartan ezbaitik aurkitzen duguna soilik argitzen du. Betebeharra oinarritzen duela dirudien hartan, izatez mantentzera mugatzen da, erresistentzia bati erresistituz, eragozpen bat izatea bere buruari eragotziz. Hurrengo kapituluan ikusiko dugu zer elementu laguntzailez inguratzen duen bere burua. Oraingoan, hel diezaigun berriro lehenago baliatu dugun konparazio bati. Bere buruan inoiz pentsatuko ez balu bezala, inurritegiarentzat bakarrik biziko balitz bezala bere lan gogorra burutzen duen inurria seguraski egoera sonanbuliko batean aurkitzen da; ezinbesteko beharrian bati obeditzen dio. Demagun bat-batean adimendun bihurtzen dela: egiten ari denaz arrazoituko du, zergatik egiten duen galdetuko dio bere buruari, tentela dela esango du atsedean bat bere buruari ez emateagatik. «Aski da sakrifizioez! Iritsi da nork bere buruan pentsatzeko unea!». Hona hemen ordena naturalaren alterazio bat. Baina natura zelatan dago. Instintu sozial batez hornitua zuen inurria; orain, agian instintuak horren premia zuelako une batez, adimen-leinuru bat gehitzen dio. Nahiz eta adimenak oso gutxi nahastu instintua, oso berehala izango da beharrezko gauzak bere lekuan ezartzeari eta egina zeukana desegiteari ekin diezaion. Arrazoiketa batek ezarriko du, beraz, inurriaren interes guztia inurritegiarentzat lan egitean datzala, eta horrela betebeharrak oinarria daukala emango du. Baina egia da oinarri hori

trinkotasun gutxikoa izango litzatekeela eta betebeharra ordurako existitzen zela bere indar guztiarekin: adimena besterik gabe eragozpen izan da hartatik zetorren eragozpen batentzat. Inurritegiaren filosofoak izango luke higuinen bat hori onartzeko; inolako zalantzarik gabe, adimenari zeregin positiboa egotziko lioke behin eta berriz, eta ez negatiboa; horrela jokatu dute behin baino gehiagotan moralaren teoriariek, bai adimenari behar adinako garrantzia emateari beldur zioten intelektualak zirelako, bai areago betebeharrari zerbait sinplea, deskonposaezina zeritzotelako. Aitzitik, erresistentzia batek kontra egiten dion beste premia-mota bat gehiago ebentualki ikusten bada hartan, ulertzekoa da erresistentzia adimenetik etortzea, eta gauza bera gertatzea erresistentziarekiko erresistentziarekin, eta beharrianak, zeina esentziala baita, beste jatorri bat izatea. Egia esateko, ezein filosofok ezin dio utzi beharrian hori lehen postuan ezartzeari, baina ia beti inplizituki egiten du, esan gabe. Geure aldetik, lehen leku horretan kokatu dugu, baina esanez. Bestalde, ez onartzea ezinezkoa den printzipio bati atxikitzen diogu. Izan ere, edozein filosofiari atxikitzen gatazkiola ere, derrigor aitortu beharra dago gizakia biziduna dela, bizitzaren bilakaera, bere bi lerro nagusietan, bizitza sozialaren norabidean bete dela, asoziazioa bizi-jardueraren erarik orokorrena dela, zeren bizia bera antolamendu baita, eta, azkenik, une horretatik igarobide sentiezin sail batetik pasatzen da, organismo bateko zelulen arteko erlazioetatik norbanakoek gizartean dituzten harremanetara. Eztabaidatua ez dena eztabaidaezina dela ohartzera mugatzen gara. Alabaina, hori onartu eta gero betebeharraren teoria oro alferrikako bihurtzen da eta ez eraginkor: alferrikako, zeren betebeharra bizitzako premia bat baita; ez eraginkor, zeren auzitan dagoen hipotesiak gehienez egin dezakeena adimenaren begietan justifikatzea da (eta ezosoki, noski) berreraikuntza intelektual horren aurretik existitzen zen betebeharrak bat.

Bizia, bestalde, gera zitekeen hor, eta sozietate itxiak eratzea besterik ez egin, zeinen osakideak bata bestearekin betebeharrak hertsiz loturik egongo baitziratekeen. Izaki adimendunez osatuak egotean, sozietate horiek instintuak eraenduriko animali sozietateetan aurkitzen ez den bariagarritasuna aurkeztuko zuketenean, baina bariarioa ez zatekeen iritsiko errotiko eraldakuntza baten ametsari hats ematera. Gizakia ez zatekeen eraldatuko halako punturaino, non posible eman-

go baitzuen gizaki guztiak bere baitan hartuko zituen sozietate bakar bat eratzea. Izatez, sozietate hori ez da oraindik existitzen eta agian ez da inoiz existituko: taldean bizi izatea ahalbidetuko liokeen konformazio morala gizakiari emanez, naturak seguraski egin zezakeen guttia egin du espeziearen alde. Baina adimenaren mugak hedatu dituzten gizaki genialak izan diren era berean, eta arrazoi beraz, norbanakoei noizean behin espezieari tanpez eman ahal izango zitzaiokeena baino askozaz gehiago eman zaien bezala, horrela sortu dira arima pribilegiatuak arima guztiei batuak sentitzen zirenak, eta, zeinak, naturak ezarritako solidaritateari atxikirik, taldearen mugen barruan geratu ordez, gizadira jo baitute maitasun-bulkada batez. Horieta bakoitzaren agerpena norbanako bakar batez osaturiko espezie berri baten sorkuntzaren antzeko zerbait izan zen, eta horrela bultzada bitalak gidatu egin du, noizean behin, gizaki jakin batengan, gizadiaren multzoarentzat tanpez lortuko ez zatekeen emaitza bat. Arima horietako bakoitzak bizi-bilakaeraren halako puntu bat markatu zuen, eta horietako bakoitzak forma original baten azpian ahalegin sortzailearen esentzia bera zirudien maitasun bat agertu zuen. Arima pribilegiatu horiek jasotzen zituen eta bitalitate-gainezkatzeko bat zen emozio sortzailea inguruan zabaldu zen: suharrak izaki, inoiz erabat iraungi ez den eta bere garra beti berri dezakeen suhartasun bat irradiatzen zuten. Gaur, ongile handi horiek pentsamenduan berpizten ditugunean, hizketan eta jardunean ikusten ditugunean, beren sugarra komunikatzen digutela eta beren higiduran arrastatzen gaituztela sentitzen dugu: ez da hertsapen gutxi-asko bigundua, baizik neurri batean erresistiezina den erakarpen bat. Baina bigarren indar horrek, lehenak bezala, ez du azalpen-premiarik. Ezinezkoa da intuituari simetrikoki dagozkion azturek eragindako erdi-hertsapena ez kontsideratzea, ezinezkoa da emozioa den arimaren jasotze hori ez kontuan hartzea: kasu batean, jatorrizko betebeharrak daukagu, eta bestean, haren luzapen gisako zerbait bilakatzen dena; baina bi kasuetan propioki eta eksklusiboki moralak ez diren indarren aurrean gaude, eta horien genesia ez du egin behar moralistak. Hori egin nahi izanagatik, filosofoek ez diote kontu egin betebeharraren izaera mistoari bere gaurko eran; gero honelako edo bestelako errepresentazio intelektual nahimena arrastatzeko ahalmena egotzi behar izan diote, ideia batek kategorikoki eskatzerik balu bezala bere burutzapen propioa!, hemen ideia aterakin intelektual komuna besterik izan balitz bezala, edo, hobeki, joera eta

aspirazioen multzo baten plano intelektualeko proiektzioa besterik, zeinetarik batzuk adimen hutsaren gainetik eta beste batzuk azpitik baitaude! Berrezar dezagun jatorri-dualitatea eta zailtasunak ezabatu egingo dira. Dualitatea bera berrurupatu egiten da unitatean, zeren «presio soziala» eta «maitasun-bulkada» bizitzaren bi agerpen osagarri baizik ez baitira, zeina eskuarki giza espeziearen forma sozial karakteristikoa era orokorrean kontserbatzen aritzen baita bere jatorritik, salbuespenez norbanako jakin batzuei esker itxuraldatzeko gai dena, zeinetariko bakoitzak errepresentatzen baitu, espezie berri baten agerpena bailitzen, bilakaera sortzailearen ahalegin bat.

Seguraski hezitzaile guztiek ez dute izan moralaren jatorri bikoitz honen ikuspen osoa, baina hauteman egiten dute nolabait beren ikasleei morala errealki harrarazi nahi dietenean, eta ez bakarrik hartaz hitz egin. Ez dugu ukatzen baliagarritasuna, edo arrazoi hutsera zuzenduriko irakaspen moral baten premia bera ere, zeinak definituko baititu eginbeharrak eta xeheki jarraituko duen printzipio batekin erlacionatuko baititu. Adimenaren planoan eta hartan bakarrik da ahalgarri eztabaida, eta ez dago moral osorik gogoeta, analisi eta eztabaidarik gabe, bai besteekin eta bai norbere buruarekin. Baina adimenari zuzenduriko irakaspen bat ezinbestekoa bada zentzu moralari segurtasuna eta delikadezia emateko, eta irakaspen horrek osoki gai egiten bagaitu geure asmoa burutzeko gure asmoa ona den horretan, beharrezko da lehenik asmoa izatea, eta asmoak nahimenaren norabide bat agertzen du adimenarena adina eta gehiago gainera. Nola eragin nahimenaren gain? Bi bide irekitzen dira hezitzailearen aurrean. Bata, trebatzearena da, terminoa bere zentzurik jasoenean harturik; bestea, mistizismoarena, hemen hitza bere adierarik apalenean hartuta. Lehen metodoaren bidez, aztura inpersonalez osaturiko moral bat harrarazten da; bigarrenaz, pertsona baten imitazioa lortzen da, eta batasun espirituala ere bai, harekiko bat etortze gutxi-asko osoa. Jatorrizko trebatzea, naturak nahi izan duena, taldearen azturak hartzean zetzan, automatikoa zen eta espontaneoki gertatzen zen norbanakoa erdizka kolektibitatearekin nahasturik sentitzen zen tokian. Kolektibitatea lanaren banaketaren ondorioz desberdinduz zihuan heinean, bere baitan eraturiko taldekatzeetan delegatzen zuen norbanakoa trebatzearen ataza, horiekin harmonian jartzearena eta ondorioz, harekin; baina gizartearen onetan bakarrik hartutako aztura-sistema

bat zen beti. Zalantzarik gabe, gisa horretako moral bat, osoa bada, aski da, eta horrela bere ofizioaren edo bere lanbidearen esparrura hertsiki doituko litzatekeen, bere eguneroko lanera erabat emana biziko litzatekeen gizakia, lanaren kantitate handiena eta nolakotasunik hoberena sortuko lukeen eran bere bizitza antolatuko lukeen gizakia, orokorrean libratu egingo litzateke, *ipso facto*, beste betebeharrak askotatik. Diziplinak gizaki jator bihurtuko luke. Horrelakoa da lehen metodoa, inpersonalean aritzen dena. Besteak osatu egingo du beharrezko bada, eta ordeztu ere egin dezake. Ez dugu zalantzarik erlijio-so eta are mistiko deitzen, baina beharrezko da ados jar gaitezen hitzei ematen diegun zentzuaz. Erlijioa moralaren laguntzailea dela esan ohi da, zeren beldurra eragiten baitu edo zigorrak edo sariak itxaronarazi. Agian egia izan liteke, baina gehitu beharko litzateke, zentzu horretan, erlijioak ia ez duela egiten giza justiziaren hedatze eta kitatze bat agintzea baizik, justizia jainkozkaren bidez: gizarteak ezarritako santzioei eta, zeinen funtzionamendua hain ez-perfektua baita, infinituki askozaz jasoagoak diren beste batzuk gainezartzen dizkie, zeinak Jainkoaren hirian aplikatu behar baitzaizkigu gizakienak abandonatu ditugunean. Hala ere, giza hiriaren esparruan mantentzen da; zalantzarik gabe erlijioari esku harrarazten zaio, baina ez espezifikoki erlijiosotik daukan horretan; oso gora igotzen garelarik ere hezkuntza morala oraindik trebatze bat bezala kontsideratzen da eta moralitatea diziplina gisa. Metodoetako lehenari loturik jarraitzen dugu, bigarrena igaro gabe. Bestalde, «erlijio» terminoa ahoskatzen dugunean, dogma erlijiosoetan pentsatzen dugu eta horiek inplikatzeko duten metafisikan, halako moldeez, non, erlijioa moralaren oinarritzat hartzen denean, Jainkoa eta munduari buruzko kontzepzio-multzo bat errepresentatzen baita, zeinaren onarpenak ondorioztat ongiaren praktika izango bailuke. Baina argi dago kontzepzio horiek, horrelakotzat harturik, eragina dutela gure nahimenaren eta gure portaeraren gain, teoriak, hau da, ideiek izan dezaketenez; hemen plano intelektualean gaude, eta, gorago ikusi dugunez, ez betebeharra eta ez luzatzen duena erator daitezke ideia hutsetik, zeren ez baitihardu nahimenaren gain onartu eta praktikan jarri nahi dugun heinean izan ezik. Metafisika hori gainerako guztietatik bereizten bada esanez, hain zuzen ere, gure atxikimenduari gainezartzen zaiola, baliteke artean arrazoa izatea baina orduan ez da bere edukian bakarrik pentsatzen, errepresentazio intelektual hutsean; baizik zerbait desberdina sartzen

dela, errepresentazioa sostengatzen duena, halako eraginkortasun bat komunikatzen diona eta espezifikoki elementu erlijiosoak eratzen duena; baina orain elementu hori da, eta ez loturik dagokion metafisika, moralaren oinarri erlijioso bihurtzen dena. Bigarren metodoak arduratu behar dugu, baina esperientzia mistikoa da hori. Esperientzia mistikoa hitz egin behar dugu bitartegabekotik daukan heinean, interpretazio orotatik landa. Egiazko mistikoek blai egiten dituen korrante batera beren burua irekitzea besterik ez dute egiten. Seguru daude beren buruaz, beren burua baino zerbait hobea sentitzen baitute beren barruan, egintza-gizaki handi agertzen dira, mistizismoa ikuspena, garraioa, estasia besterik ez den horien harridurarako. Gizaki horiek beren barrenera pasatzen utzi dutena beherantz jario bat da, zeinak haien bitartez gainerako gizakiak irabazi nahiko bailituzke. Maitasun-bulkada bat bezala sentitzen dute, beren inguruan jaso dutena hedatzeko premia, maitasun horri bakoitzak bere nortasun propioaren zigilua ezartzen diolarik, bakoitzarengan orduan emozio berri bat den maitasun bat, giza bizia tonu desberdin batera garraiatzeko gai dena; bakoitza berez maitatua izatea eragiten duen eta haren-gatik, harentzat, beste gizaki batzuek beren arimari gizadiaren maitasunera irekitzen utziko diote. Maitasun hori haiei edo haien oroitzapen biziari loturiko pertsona baten bitartez ere transmititu ahal izango da, eta horrek forma emango dio bizitzari ere horren antzera. Goazen urrunago. Mistiko handi baten edo bere imitatzaileretako baten hitzak gutako batengan oihartzuna aurkitzen badu, ez ote da lokarturik eta iratzartzeko aukera baten zain mistiko bat gudan egon litekeelako? Lehen kasuan pertsona inpersonalarik lotzen zaio eta inpersonalean egokitzen saiatzen da. Orain, aldiz, pertsonalitate baten deia erantzuten dio, zeina izan baitaiteke bizitza moralaren agertzailer batena edo haien imitatzaileretako batena edo, zirkunstantzia jakin batzuetan, bere propioa ere bai.

Gainerakoan, metodo bat zein bestea praktikatzeko delarik ere, bi kasuetan izango da kontuan giza izaeraren barrena, bere baitan estatistikoki hartua edo dinamikoki bere jatorrietan. Akatsa legoke presio eta aspirazio moralek beren behin betiko azalpena bizitza sozialean, gertakari soil gisa kontsideratuan aurkitzen dutela uste izatean. Esan ohi da gizartea existitu egiten dela, eta une horretatik hertsapen bat eragiten duela, derrigor, bere osakideen gain, eta hertsapen hori betebeh-

rra dela. Baina, ezer baino lehen, gizartea existi dadin beharrezko da norbanakoak jaiotzatiko disposizioen multzo oso baten ekarpena egin dezan; horrela bada, gizartea ez da berez esplikatzen, eta lorpen sozialak azpitik behar da bilatu, bizitzara heldu, zeinaren agerpenak besterik ez baitira, bestalde, gizakia bera bezalaxe, giza sozietateak. Baina horrekin ez du aski esan: oraindik sakonagora jo beharko da ulertu nahi bada ez bakarrik gizarteak nola behartzen dituen norbanakoak baizik eta norbanakoak ere nola epai dezakeen gizartea eta hartatik eraldakuntza morala lortu. Gizarteak aski badu bere buruarekin, autoritate gorena da; baina bizitzaren determinazioetako bat besterik ez bada, ulertzekoa da horrek, bere bilakaeraren honelako edo halako puntutan giza espeziea ezarri behar izan duenak, bulkada berri bat komunikatzea norbanako pribilegiatu batzuei, zeinak horrekin sendotuak gertatuko baitira, gizarteari urrunago iristen laguntzeko. Egia da horrek derrigor inplikatzeko duela atzera egitea bizitzaren printzipioraino bereraino. Dena iluna da agerpen sinpleei gagozkienean, multzo sozialak deitzen ditugula orokorrean, edo gizaki sozialean, partikularkiago, adimena kontsideratzen dela. Aitzitik, dena argitzen da bizitza bilatzen bada agerpen horien gainetik. Emaiogun, bada, biologia terminoari izan beharko lukeen zentzu besarkatzailea, agian egunen batean lortuko duena, eta esan dezagun bukatzeko, moral oro, presio edo aspirazio, esentzia biologikokoa dela.

II KAPITULUA

ERLIJIO ESTATIKOA

Erljioak zer izan diren eta batzuk oraindik zer diren ikustea oso umiliagarria da giza adimenarentzat! Zer aberrazio-sasitza! Nahiz eta esperientziak esan «faltsua da» eta arrazoiketak «absurdoa da», hala eta guztiz ere gizakiak absurdoari eta erroreari oratuta jarraitzen du. Eta horretan geldituko balitz gutxienez! Baina erlijioa immoralitatea agintzen, krimenak ezartzen ikusi izan dugu. Zenbat eta zakarra goa, hainbat eta leku handiagoa hartzen du materialki herri baten bizitzan. Geroago, zientzia, artea, filosofiarekin partekatu behar duena, beretzat bakarrik eskatu eta lortzen du lehenik. Badago zertan harritua gizakia izaki adimendun definitzetik hasi garelako.

Gure harridura handitu egiten da superstizio beherena hainbeste denboraz gertakari unibertsala izan dela ikusten dugunean. Bestalde, oraindik ere iraun egiten du. Iraganean aurkitzen ditugu; gaur egun ere aurkituko genituzke ez zientziarik, ez arterik ez filosofiarik ez duten giza sozietateak. Baina inoiz ez da izan erlijio gabeko sozietaterik.

Nolakoa izan beharko lukeen gure nahasmenduak, orain, geure burua animaliarekin erkatuko bagenu puntu horretan! Oso segurki animaliak ez du superstiziorik ezagutzen. Ia ez dakigu zer gertatzen den gureaz bestelako kontzientzietan; baina egoera erlijiosoak jarrera eta egintzetan eskuarki adierazten direnez, animalia erlijiotasunerako gai izango balitz zeinuren batek emango liguke horren berri. Derrigo-

rrrezkoa zaigu geure ondorioa ateratzea. *Homo sapiens*-a, arrazoia duen bakarra, era berean bere existentzia gauza irrazionalen baitan jar dezakeen bakarra ere bada.

Asko hitz egiten da «mentalitate primitiboaz», gaur egun arraza beherekoena izango litzatekeen horretaz, behiala gizadiarena oro har izango zatekeenaz, eta zeinari egotzi behar baitzaio superstizioa. Horrela mugatzen bagara pentsatzeko modu batzuk izendapen komun baten azpian taldekatzera eta beraien arteko erlazio jakin batzuk agerian jartzera, obra baliagarria bezain erasoezina egiten da: baliagarria, interes handieneko ikerketa etnologiko eta psikologikoko eremu bat zirkunskribatzen den heinean, eta erasoezina, zeren gurea baino giza-di zibilizatugabeagoan sineste eta praktika jakin batzuen existentzia egiaztatzea besterik egiten ez delako. Badirudi horixe besterik ez duela egin Lévy-Bruhl jaunak bere lan ohargarrietan, batez ere azkeneoetan. Baina orduan ukitu gabe geratzen da izaki adimendunek nola onar ditzaketen hain arrazoizkotasun gutxiko sinesteak eta praktikak. Guk auzi horri erantzuna bilatzeari ezin diogu utzi. Gogara edo desgogara, Lévy-Bruhl jaunaren liburu ederren irakurleak giza adimenak bilakaera izan duelako ondorioa aterako du: logika naturala ez bide zen beti bera izan; «mentalitate primitiboaz» oinarritzko egitura desberdin bati legokioke, zeina gureak ordeztu egin bide baitzuen eta gaur egun sozietate atzeratuetan bakarrik aurkitzen baita. Baina orduan onartzen da norbanakoek mendeetan zehar lortutako espiritu-azturak hereditario bihurtu, natura modifikatu eta espezieari mentalitate berri bat emateko gai izan direla. Ez dago ezer zalantzazkoagorik. Demagun gurasoek lortutako aztura bat noizbait semeari transmititzen zaiola, hori gertakari bakana izango litzateke, akzidentalki metaturiko zirkunstantzia batzuen ondoriozkoa: hortik ez litzateke espeziearentzat modifikaziorik sortuko. Baina orduan, espirituaren egiturak beti berean badirau, hurrenez hurreneko belaunaldiek lortutako esperientzia, ingurumen sozialean gordailaturik eta ingurumen horren bitartez gutako bakoitzarengan berrezarrik, aski izan behar du azaltzeko zergatik ez dugun pentsatzen ez-zibilizatuak bezala eta zergatik behialako gizakia gaurkoaz bestelakoa zen. Espirituak era berean funtzionatzen du bi kasuetan, baina agian ez zaio gai berari aplikatzen, seguraski gizarteak ez dituelako premia berak orduan eta orain. Hori izango da gure ikerketen ondorioa. Haietaz ezer aurreratu gabe, muga gai-

tezen esatera «primitiboen» behaketak ezinbestez planteatzen duela superstizioaren jatorri psikologikoen auzia, eta giza espirituaren egitura orokorra –gaurko gizaki zibilizatuaren behaketak, beraz– arazoa ebazteko behar adina elementu ematen dituen itxura izango du.

Ia gauza bera esango dugu mentalitate «kolektiboaz» eta jadanik ez-«primitiboaz». Émile Durkheimen arabera, ez dago zertan iker-tu honelako edo halako erlijioek sinesteko eskatzen duten gauzek zer-gatik «duten hain itxura aztoratzailea arrazoi indibidualentzat. Soilik da haietaz eskaintzen duen errepresentazioa ez dela arrazoi horien obra, baizik espiritu kolektiboarena. Alabaina, naturala da espiritu horrek gureaz bestelako modu batean errepresentatzea errealitatea, beste izaera batekoa baita. Gizarteak bere izateko era du, propio zaio-na, eta, beraz, pentsatzeko bere era propioa»³. Gogara onartuko dugu geure aldetik, instituzioetan, hizkuntzan eta ohituretan gordailaturiko errepresentazio kolektiboen existentzia, zeinen multzoak eratzen baitu adimen soziala, adimen indibidualen osagarria. Baina ez dugu ikusten bi mentalitate horiek desakordiozkoak nola izan daitezkeen eta nola horietako bata bestea «aztora» lezakeen. Esperientziak ez du antze-ko ezer esaten eta ez dirudi soziologiak arrazoirik duenik ere horrela-korik suposatzeke. Sinetsiko balitz natura norbanakoari zegokiola, gizartea era akzidental batean jaio dela edo konbentzio baten indarrez, muturreraino eraman ahal izango litzateke tesia eta norbanakoen bil-kura horrek, konbinazio kimikoan batzen diren gorputz sinpleenare-kin erkagarria denak, adimen kolektibo bat sorrarazi duela, zeinaren errepresentazioetako batzuk arrazoi indibiduala nahasteko gai baitira. Baina inork ez dio jadanik egozten gizarteari jatorri akzidental edo kontratualik. Soziologiari zerbait aurpegiratu beharko balitzaio, beste norabidean gehiegi bermatzearena izango litzateke: bere ordezkarieta-ko batzuek abstrakzioa ikusiko lukete norbanakoarengan eta errealita-te bakarra gorputz sozialean. Baina, orduan, nola ez da egongo aurrei-ruditurik mentalitate kolektiboa indibidualean? Nolatan naturak, giza-kia «animalia politiko» bihurtzean, ezarriko zituzkeen giza adimenak desorientaturik sentitzeko eran, «politikoki» pentsatzen dutenean? Gure aldetik, uste dugu norbanakoa aztertzen denean inoiz ez dela behar adina kontuan izango bere norako soziala. Hori egiteari utzi iza-nagatik aurreratu ahal izan da psikologia hain gutxi norabide batzue-tan. Ez naiz ari egoera anormal edo morboso jakin batzuetan sakon-

tzeak izango lukeen interesaz, zeinek sozietate bateko kideen artean, erlauntzeko erleen artean bezala, anastomosi ikusezin bat inplikatzeko baitute: erlauntzetik kanpo erlea ahuldu eta hil egiten da; gizartetik bakarturik edo bere ahaleaginean behar adina ez esku hartuz, gizakiak agian antzekoa den gaitz bat pairatzen du, orain arte gutxi samar aztertua, aspertzea deritzona; isolamendua luzatzen denean, presondegiko itxialdiaren kasuan bezala nahaste mental karakteristikokoak agertzen dira. Fenomeno horiek mereziko lukete psikologiak kontu berezi bat jadanik irekitzea; mozkin bikaineekin kitatuko bailitatzetke. Baina ez da aski hori esatea. Zientzia baten etorkizuna hasieratik bere objektua banatu duen moduan datza. Artikulazio naturalen arabera egiteko zortea izan badu, Platonek aipatzen duen sukaldari onak bezala, gutxi axola dio zenbat atal egin dituen: ataletan ebakitzeak elementuetan aztertzea prestatua izango duenez, azkenean multzoaren errepresentazio sinpletu baten jabe izango da. Gure psikologiak ez du hori ohartu azpibanaketa batzuen aurrean atzera egin duenean. Adibidez, psikologiak hautemateko, interpretatzeko, ulertzeko ahalmen orokorrak finkatzen ditu, galdetu gabe ea ez ote liratekeen mekanismo desberdinak jokoan sartuko ahalmen horiek pertsonen ala gauzei aplikatzen zaien, adimena ingurumen sozialean murgildurik dagoen ala ez. Hala eta guztiz ere, gizakien orokortasunak bereizkuntza hori jadanik ohartzen du eta bere hizkuntzan jaso ere egin du: gauzen berri ematen diguten zentzumenen alboan, zentzu komunak hitz egiten du, zeinak pertsonetikiko gure harremanen erreferentzia egiten baitu. Nola ez ohartu izan litekeela matematikari sakona, fisikari jakintsua, psikologo ezin finagoa nork bere burua aztertzen duen heinean eta, hala ere, oker interpretatu inoren egintzak, gaizki kalkulatu propioak, ez moldatu inoiz ingurumenara, azken finean, zentzu komunak ez izan? Jazarpenmaniak eta zehatzago ideia eldarniozkoek agerian jartzen dute zentzu komuna narrioturik egon daitekeela, arrazoitzeko ahalmena ukigabe dagoen bitartean. Afekzio horren larritasuna, tratamendu ororekiko bere erresistentzia tematua, gaixoaren iragan urrunenean prodromoak aurkitzen direlako, horrek guztiak badirudi ongi adierazten duela gabezia psikiko sakona, jaiotzatikoa eta zehatz definitua dela. Zentzu komuna, zentzu sozial dei litekeena, jaiotzatikoa da, beraz, gizaki arruntarengan, hitz egiteko ahalmena bezala, zeinak era berean gizartearen existentzia inplikatzeko baitu, eta zeina era berean definiturik baitago organismo banakoetan. Bestalde, zaila da onartzea naturak

bizitza soziala bi bilakaera-lerro handiren muturrean ezarri duenak, zeinek gidatzen baitute hurrenez hurren himenopterora eta gizakira, aldez aurretik erregelatu duela inurri bakoitzaren jarduera xehetasun guztiak irurritegian eta aldiz gizakiari araubideak emateari uko egin diola, orokorrak gutxienez, kideekiko bere portaera koordinatzeko. Giza sozietateak zalantzarik gabe desberdinak dira intsektu-sozietate-ekiko, banakoaren egintzak determinatu gabe uzten dituzten heinean, bestalde, kolektibitatearenak bezala. Baina horrek esan nahi du egintzak intsektuaren izaeran aurreiruditurik dauden bitartean, gizakiarenean funtzioa bakarrik dagoela, hala ere hor jarraitzeari uzten ez dion funtzioa, norbanakoan antolatua gizartean egikari dadin. Orduan, nola egon liteke mentalitate sozial bat gehigarri gisa agertzen dena, mentalitate indibiduala aztoratzeko gai dena? Nola ez da izango lehena bigarrenarekiko inmanentea? Horrela, bada, planteatzen genuen arazoa eta, zeina superstizio absurdoek izaki arrazoidunen bizitza nola gobernatu ahal izan duten eta orain ere goberna dezaketen, bere osotasunean oraindik ere badirauren jakitean datza. Esaten genuen, nahiz eta mentalitate primitiboaz hitz egin, horregatik arazoak ez duela gutxiago afektatzen gaur eguneko gizakiaren psikologia. Gehituko dugu nahiz eta errepresentazio kolektiboez hitz egin, auziak baduela zerikusia gizaki banakoaren psikologiarekin.

Baina hain zuzen ere, zailtasuna ez al legoke lehenik gure psikologia bere objektua azpibanatzeaz behar adina ez arduratu izanean, naturak markaturiko lerroen arabera? Superstizioak sorrarazten dituen errepresentazioek fantasmatico izatea dute izaera komuna, eta psikologiak gaitasun orokor batekin erlazionatzen ditu, irudimenarekin. Errotulu beraren pean sailkatzen ditu zientziaren aurkikuntza eta asmakuntzak ere, baita artearen burutzapenak ere. Baina, zergatik taldekatu hain gauza desberdinak, zergatik eman izen bera eta horrela haien arteko ahaidetasuna iradoki? Hizkuntzaren erabilpenean dagoen erosotasunarengatik bakarrik eta eragiketa desberdin horiek ez haute-mate, ez oroimen, ez espirituaren lan logiko ez direlako arrazoi guztiz negatiboarengatik. Onar dezagun, bada, errepresentazio fantasmaticok aparte ipintzea eta dei diezaiogun «fabulazio» edo «fikzio» horiek eragiten dituen egintzari. Lehen pauso bat izango da arazoa ebazte aldera. Azpimarra dezagun orain psikologia, espirituaren jardueran eragiketatan deskonposatzen duenean, ez dela behar adina arduratzen

horietako bakoitza zertarako den jakiteaz: hain zuzen ere horrexegatik gertatzen da azpibanaketa sarriegi askieza eta artifiziala. Gizakiak, zalantzarik gabe, amets egin edo filosofatu egin dezake, baina ezer baino lehen bizi egin behar du: inork ez du zalantzan jartzen gure egitura psikologikoak bizitza sozial eta indibiduala kontserbatu eta garatzeko beharrezana asetzeraz jotzen duela. Psikologiak bere burua kontsiderazio horren arabera gobernatzen ez badu, ezinbestez deformatuko du bere objektua. Zer esango genuke organoen anatomia eta ehunen histologia aztertuko litzukeen jakitunaz, horien zertarakoaz arduratu gabe? Faltsuki banatu eta taldekatzeko arriskua izango luke. Baldin eta funtzioa egituraz baizik ulertzen ez bada, halaber ezinezkoa da egituraren lerro nagusiak funtzioaren ideia gabe bereiztea. Ez da tratatu behar, bada, espiritua «hutsaren truk, gustuz» den hori izango balitz bezala. Ez da esan behar: bere egitura halakoa izatean, hartatik halako onura ateratu du. Aitzitik baizik, egitura horretatik aterako duen onurak determinatu behar izan du hura; edozein kasutan, hor dago ikerketaren hari gidaria. Horrela, bada, kontsidera dezagun «irudimenaren» esparru lauso eta zalantzarik gabe artifizialki zedarrituaren barruan, fabulazio deitu dugun bereizketa naturala, eta ikus dezagun zertan erabil daitekeen naturalki. Funtzio horretatik dator eleberria, drama eta mitologia, aurretik etorri zen guztiarekin. Baina eleberrigile eta dramaturgoak ez dira beti izan, aldiz gizadia ez da inoiz erlijiorik gabe egon. Horrela, bada, egiantzekoa da mota guztietako poemak eta fantasiak sortu izana gehigarri, espirituak fabulak asmatzeko zeukan ahalmenaz baliaturik, baina erlijioa funtzio fabulatzailearen izateko arrazoia izan izana: erlijioarekiko erlazioan funtzio hori efektu izango litzateke eta ez kausa. Beharrian agian indibidualak eta edozein kasutan sozialak exigitu izan bide dio espirituari jardueramota hori. Galde diezaiozun geure buruari zein zen beharrian hori. Seinalatu beharra dago fikzioa, eraginkorra denean, jaiotzen ari den haluzinazio baten modukoa dela: judizioa eta arrazoiketari kontra egiteko gai da, zeinak ahalmen propioi intelektualak baitira. Alabaina, zer egingo zukeen naturak, izaki adimendunak sortu ondoren, jardueraren intelektualaren arrisku batzuk prebenitu nahi izan balitu adimenaren etorkizuna arriskuan jarri gabe? Behaketak ematen digu horren erantzuna. Gaur egun, zientziaren garatze betean, munduko arrazoiketaren ederrenak esperimentu bakar baten aurrean porrot egiten ikusten ditugu: ezerk ez die egitatei erresistitzen. Beraz, hasiera batean adimena-

ri eutsi behar bazitzaion norbanakoa eta gizartearentzat arrikutsua den aldapa batean behera erori gabe, hori itxurazko konstatazioen, egitateen fantasmak bidez bakarrik lor zitekeen: esperientzia erreal baten faltaz, esperientziaren imitazio bat sorrarazi behar zen. Fikzio batek, imajina bizia eta obsesiboa bada, hautematea imita dezake eta, horrela, egintza eragotzi edo modifikatu. Esperientzia sistematikoki faltsuak, adimenaren aurrean sortuak, geldiarazi egin lezake egiazko esperientziatik ateratzen dituen ondorioetan urrunegi joango litzatekeen unean. Horrela jokatu bide du naturak. Baldintza horietan ez litzateke harritzekoa adimena, sortu bezain laster, superstizioaren mendean erori dela aurkitzea, izaki esentzialki adimenduna izaeraz superstiziosoa dela, eta izaki adimendunak bakarrik direla superstizioak.

Egia da orduan auzi berriak planteatzen direla. Sarreratik, zehatzago galdetu beharko da zertarako balio duen funtzio fabulatzailak eta zer arriskuri aurre egin behar zion naturak. Aspektu horretan sakondu gabe oraindik, seinala dezagun giza espirituak egiazkoan edo faltsuan egon daitekeela, baina bai kasu batean eta bestean, zeinahi delarik ere hartu duen norabidea, beti zuzenean aurrera egiten duela: ondorioz ondorio, azterketaz azterketa, gero eta gehiago hondoratzen da errearean edota erabat zabaltzen da egian. Ez dugu jadanik bilakaturiko gizadia besterik ezagutzen, zeren gaur egun behatzen ditugun «primitiboak» gu bezain zaharrak baitira, eta erlijioen historiak lan egiten dueneko dokumentuak iragan hurbil samarrekoak baitira. Ezagutzen dugun sinestebarietate neurgabea, beraz, ugaltze luze baten emaitza da. Haren izaera absurdo edo estrainiotik atera daiteke, zalantzarik gabe, estrainora edo absurdorako halako orientazio bat espirituaren halako funtzio baten bilakaeran; baina ezaugarri horiek seguraski hain nabarmenduak egotea, bere ibilera hainbeste luzatu delako da: norabidea bakarrik kontuan hartzen bada, estrainiotasun gutxiagokoa gertatuko zaigu joerak irrazionaletik daukana, eta agian bere baliagarritasuna atzemango da. Nork jakin, iritsi den errearek ez ote diren bere egunean espeziearentzat abantailatsuak izandako deformazioak, geroago norbanako jakin batzuei agertu behar zitzaizen egia batenak? Baina ez da hori guztia. Bigarren auzi bat planteatzen da, agian lehenago erantzun beharko dena: nondik dator joera hori? Batu egiten al zaie bizitzako beste agerpen batzuei? Naturaren asmo batez mintzo ginen: metafora bat zen, eroso psikologian biologian den bezala; horrela oharrarazten genuen behaturiko dis-

positiboak norbanakoaren edo espeziearen interesari zerbitzatzen diola. Baina adierazpena lausoa da, eta esango genuke, gehiago zehazteko, kontsideratzen ari garen joera instintu bat dela, instintu baten lekuan hain zuzen ere imajina fantasmatisakoak sortzea gertatuko ez balitz. Daukan eginkizuna instintuari egotzi *ahalizango zitzaiona* da eta zalan-tzarik gabe egotzi ere egingo zitzaion adimen gabeko izaki batengan. Esan dezagun behin-behineko *instintu birtuala* dela, horrekin ulertuz bilakaeraren beste lerroaren muturrean, intsektuen sozietateetan, ikus-ten dugula instintuak mekanikoki nola eragiten duen portaera bat, bere baliagarritasunean, imajina ia haluzinagarri horiek gizaki adimendun eta askeari iradokitzen diotenarekiko erkagarria dena. Baina horretara garapen dibergente eta osagarriak oroitaraztea, zeinek gidatuko bailuke, alde batetik, instintu errealetara eta, bestetik, instintu birtualetara, agian ez al litzateke biziaren bilakaeraz iritzia ematea?

Hori da, izan ere, gure bigarren galderak planteatzen duen arazo zabalagoa. Eta, gainera, lehendabizikoan zegoen inplizituki. Nola erlazionatu beharizan bital batekin adimenaren aurrean altxatzen diren fikzioak, eta batzuetan haren kontra, biziaren oinarritzko eskakizunak determinatu ez badira? Arazo hori berori aurkituko dugu berriz, era esplizituagoan, ekiditea ezinezkoa gertatuko zaigun auzi bat sortzean: nola iraun du erlijioak sorrarazi zuen arriskuaren aurrean? Nola, desagertu beharrean, ez da eraldatu baizik egin? Zergatik dirau, adimenak bere forma eta materiaren artean uzten duen hutsune zinez arriskutsua betetzera zientzia etorri denean? Ez ote da bizitzak agertzen duen egonkortasun-beharrianaren azpian, geratze horretan edo, areago, espeziearen kontserbazioa den bere baitako bira horretan, ez ote da, esaten dugu, aurreranzko higiduraren eskakizun bat, bultzada-hondar bat, bizi-bulkada bat dagoelako? Baina oraingoz aski dugu lehen bi galderekin. Batak eta besteak berriro beste batzuetan biziaren bilakaeraz egin izan ditugun kontsiderazioetara gidatzen gaituzte. Kontsiderazio horiek ez ziren inondik ere hipotetikoak, batzuek uste izan dutenez. «Bizi-bulkada» batez eta bilakaera sortzaile batez hitz egitean, ahal genuen heinean, esperientziara doitzen ginen. Horretaz ohartzen hasi gara zientzia positiboa, tesi jakin batzuk albora uzte hutsarengatik edota hipotesi soiltzat hartzearengatik, gure kontzepzio-etara gehiago hurbiltzen delako. Horiek bereganatzean berea duenaz jabetzea besterik ez luke egingo.

Itzul gaitezen, beraz, biziaren zertzelada nabarmenetako batzuetara, eta seinala dezagun «bizi-bulkada» baten kontzepzioaren izaera garbiro enpirikoa. Bizi-fenomenoa, genioen, ebatz al daiteke gertakari fisiko eta kimikoetan? Fisiologoak hori baieztatzen duenean, kontziente edo inkontzienteki, ulertzen du fisiologiaren zeregina dagoela bizian dagoen fisikoa edo kimiko dena bilatzean, ezinezkoa dela alde zurretik ikerketa horri bukaera bat esleitzea eta horregatik ikerketak bukaerarik izan behar ez balu bezala jokatu beharko dela: horrela bakarrik egingo da aurrera. Beraz, metodo-arau bat planteatzen du, ez du gertakari bat enuntziatzen. Gu gakizkion esperientziari: esango dugu –eta biologo batek baino gehiagok aitortzen du– zientzia inoiz baino urrunago aurkitzen dela biziaren azalpen fisiko-kimikotik. Hori konstatatzen genuen lehenik bizi-bulkadaz hitz egiten genuenean. Alabaina, bizia ezarri ondoren, nola errepresentatuko dugu bere bilakaera? Sostenga daiteke espezie batetik besterako igarobide guztia hautespenak kontserbatu eta herentziak finkaturiko bariazio txiki, akzidental sail baten bidez gertatu dela. Baina organismoak etekina ateratzeko edo inolako kalterik jasan ez dezan soilik gertatu behar duten elkarren artean koordinaturiko eta elkarrekiko osagarriak diren bariazioen kopuru eskergan pentsatzen denean, orduan galdetu beharra dago nola horietako bakoitza, aparte kontsideraturik, kontserbatuko den hautespenez eta itxarongo dien osatuko dutenei. Berez bakarrik, eskuarki ez du ezertarako balio izaten; eta funtzioa tratatu edo geldiarazi ere egin dezake. Beraz, zoria zoriarekin konbinatze bat aipatzean, ezein kausa bereziri biziak bere bilakera hartutako norabidea ez egoztean, zientzia positiboan gomendatzen den ekonomia-printzipioa aplikatzen *a priori* da, baina inola ere ez da gertakaririk konstatatzen, eta berehalaxe egiten dugu talka zailtasun gaindiezinekin. Darwinismoaren gabezia hori da bizi-bulkadaz mintzo ginenean aipatzen genuen bigarren puntua: teoriari guk gertakari bat kontrajartzen genion; biziaren bilakaera norabide jakin batzuetan burutzen dela egiaztatzen genuen. – Alabaina, norabide horiek bilakatzen deneko baldintzek ezartzen al diote biziari? Orduan onartu beharko litzateke norbanakoak jasandako modifikazioak beren ondorengoei transmititzen zaizkiela, funtzio bera gero eta delikatu kiago betetzen duen organo baten konplikazio mailakatua, adibidez, segurtatzeko behar besteko erregulartasunez gutxienez. Baina lortutakoaren heredagarritasuna eztabaidagarria da eta, noizbait behatuko

dela suposatuz, salbuespenezkoa. Berrir *a priori*, eta kausaren behar-
 rizanen arrazoiz, erregularitasun horrekin funtzionatzen duela supo-
 satzen dugu. Eraman dezagun jaiotzatikora transmitigarritasun erregu-
 lar hori: orduan esperientziaren azpian jarriko gara eta esango dugu ez
 dela kanpo-kausen egintza mekanikoa, baizik barne-bultzada bat,
 zeina banakoetan zehar ernamuin batetik bestera pasatuz, bizitza
 norabide jakin batean gidatzen duena, gero eta konplikazio handiago
 batera. Hori da bizi-bulkadaren imajinak iradokitako hirugarren ideia.
 – Goazen urrunago. Organismo baten aurrerakuntzaz edo baldintza
 konplexuagoetara moldatzen den organo batez hitz egitean, baldintzen
 konplexutasunak bere forma ezartzen diola biziari esaten da gehienu-
 tan, moldeak igeltsuari bezala. Baldintza horren azpian bakarrik
 –baieztatzen da– izingo dugu azalpen mekanikoa eta, ondorioz, zien-
 tifikoa. Baina moldaera, oro har, era horretara interpretatzeko atsegi-
 na hartu ondoren, kasu partikularretan moldaera zeharo bestelako zer-
 bait balitz bezala arrazoitzen da –eta horrela gertatzen da, izan ere–
 hau da, jatorrizko soluzioa, kanpo-baldintzek planteatzen dioten ara-
 zoari biziak aurkitutakoa, eta arazoak ebazteko ahalmen hori azaldu
 gabe uzten da. «Bulkada» bati esku harraraztean, orduan ere ez
 genuen azalpena ematen, baina seinalatu egiten genuen, oro har siste-
 matikoki baztertu beharrean, kasu partikular bakoitzean onartu eta
 itzalgaizka baliarazteko, biziaren eragiketaren izaera misteriotsu hori.
 Baina ez al genuen ezer egiten misterioa urratzeko? Baldin eta atalek
 osoarekiko duten koordinazio miresgarria ez badago mekanikoki azal-
 tzerik, horregatik ez du eskatzen, gure iritziz, helburutzat kontsidera-
 tzerik. Kanpotik ikusita, elkarrekiko koordinaturiko atal amaigabetan
 deskonposagarria dena, agian barrutik egintza soil gisa agertuko litza-
 teke: horrela gure eskuaren higidura bat, banaezin experimentatzen
 duguna, ekuazio batez definigarria den kurba bat bezala hautemango
 da kanpotik, hau da, puntuen ondozkatze bat bezala, kopuru muga-
 tuan, zeinek denek lege berari obeditzen baitiote. Bulkada baten ima-
 jina oroitaraztean, bosgarren ideia hori iradoki nahi genuen, eta zer-
 bait gehiago ere bai: gure analisiak, kanpoan geratzen denak, kopuru
 gero eta handiagoan elementu positiboak eta arrazoi berarengatik
 elkarren artean gero eta miresgarrikiago koordinaturik aurkitzen
 dituen tokian, puntu horretan bertan, barrura lekualdatuko litzatekeen
 intuizio batek ez litzuke bitarteko konbinatuak hautemango baizik
 eragozpen gaindituak. Esku ikusezin batek, burdin karrakakinen

mordo bat supituki gurutzatzean, erresistentzia menderatzea besterik ez luke egingo, baina egintza horren sinpletasunak berak, erresistentziaren aldetik ikusiak, karrikakin-izpien ordena jakin batean egindako ondozkatzea bezala agertuko litzateke. Alabaina, ezinezkoa al da egintza horretaz eta aurkitzen duen erresistentziaz ezer esatea? Bizia ez badago gertakari fisiko eta kimikoetan ebazterik, arrunki materia deitzen dugunari gainezarritako kausa berezi baten gisara jokutzen du: materia hori instrumentu da eta eragozpen ere bada. Banatu egiten du behar duena. Susma dezakegu gisa horretako banaketa bati zor zaiola bizi-bilakaeraren lerro handien aniztasuna. Baina horrela iradokitzen zaigu bizitzaz izan nahiko genukeen intuizioa prestatu eta egiaztatzeko bitarteko bat. Baldin eta bilakaeraren bizpahiru lerro handi libreki garatzen ikusten baditugu irteera gabeko karrika batean bukatzen diren beste batzuen ondoan, eta lerro horietan zehar gero eta gehiago garatzen bada izaera esentzial bat, susma dezakegu bizi-bulkadak hasiera batean aurkezten zituela izaera horiek elkarrekiko inplikazio-ko egoera batean: instintua eta adimena, zeinak iristen baitira goren puntura animali bilakaeraren bi lerro nagusien muturretan; beraz, biak batera hartu beharko dira, bata bestean, beren bikoiztearen aurretik, ez konposatu bat eratuz, baizik errealitate soil bat eratuz, zeinarekiko adimena eta instintua ikuspuntuak besterik ez bailirateke izango. Horiek dira, zenbakizatzen hasi garenez gero, seigarren, zazpigarren eta zortzigarren errepresentazioak, zeinek bizi-bulkada baten ideia oroitaraziko baitute. – Oraindik ez dugu esentziala dena inplizituki baizik aipatu: biziak, jauzi desjarraien bidez, osoki sortzen dituen formen aurreikusezintasuna, bilakaeran zehar. Mekanizismo hutsaren edo helburuzkotasan hutsaren doktrinan kokatzen garela, bi kasuetan biziaren sorkuntzak aurre-determinaturik daude, etorkizuna presentetik kalkulu batez ondoriozta daitekeelarik, edo hartan ideia baten formapean marraz daitekeelarik. Bai kasu batean eta bai bestean, denborak ez du eraginkortasunik. Esperientzia hutsak ez du antzeko ezer iradokitzen. Ez bultzadarik, ez erakarpenik, dioela badirudi. *Bulkada* batek iradoki dezake, hain zuzen ere, gisa horretako zerbait eta, baretik sentitua denaren banaezintasunaren eta kanpotik hautematen denaren infiniturainoko banagarritasunaren arrazoiz, iraupen erreal, eraginkor horretan pentsaraz diezaguke, biziaren atributu nagusia dela. – Horiek ziren «bizi-bulkadaren» imajinaren barruan sartzen genituen ideiak. Ahaztu ditugulako, sarriegitan egin denez, kontzeptu

huts baten aurrean aurkitzen gara, «bizi nahi izate» hutsarenaren eta metafisika antzu baten aurrean. Kontuan hartzen badira, materiaz kargaturiko, enpirikoki lortutako ikerketa orientatzeko gai den ideia bat dugu, zeinak laburbilduko baitu lerro handitan bizi-prozesuaz dakiguna, eta zeinak seinalatuko, halaber, hartaz ezagutzen ez duguna ere.

Horrela kontsideraturik, bilakaera jauzi bat-batekoen bidez burutua agertzen da, eta espezie berriaren bariazio eratzailea desberdintasun anitzez, elkarrekiko osagarriak direnez osatua, zeinak globalki sortzen baitira ernamuinetik datorren organismotik. Geure eraketari berriro heltzeko: karrakakinetan supituki hondoratutako eskua-ren higidura bat da eta burdin izpi guztien berehalako birtaldekatzea eragiten duena. Bestalde, eraldakuntza espezie beraren kide desberdinetan obratzen bada, litekeena da denetan arrakasta bera ez lortzea. Ez digu ezerk esaten giza espeziaren agerpena norabide berean egindako jauzi askoren emaitza ez denik, zeinak egin baitira han eta hemen aurreko espezie batean eta horrela gizadiaren forma aski desberdinak sorrarazi ez dituenik. Horietako bakoitza arrakasta izan duen ahalegin bati legokioke, bakoitza ezaugarritzen duten bariazio anitzak haietan perfektuki elkarrekin koordinaturik dauden zentzuan. Baina agian denek ez dute balio bera, jauzi guztiek tarte bera estali ez dutelako. Hala ere, ez diote utzi norabide bera izateari. Esan liteke, hitz horri zentzu antropomorfikoa egoztetik ihes eginez, biziaren asmo berari dagozkiola.

Gainerakoan, giza espeziea enbor bakarretik irten den ala ez, edo gizadiaren eredu erreduziezin bat edo batzuk daudela, gutxi axola dio: gizakiak beti bi ezaugarri esentzial aurkezten ditu, adimena eta soziagarritasuna. Baina kokatzen garen ikuspuntutik, ezaugarri horiek esanahi berezia hartzen dute. Ez zaizkio psikologiari eta soziologiari bakarrik interesatzen. Lehenik interpretazio biologikoa eskatzen dute. Adimena eta soziagarritasuna berriro birkokatu behar dira biziaren bilakaera orokorrean.

Soziagarritasunetik hasteko, bere erarik burutuenean aurkitzen dugu, bilakaeraren bi puntu gorenetan, inurria edo erlea bezalako intsektu himenopteroetan, eta gizakiarengan. Joera hutsezko egoeran, nonahi aurkitzen da natura osoan. Esan ahal izan da norbanakoa bazela, jadanik sozietate bat: zelula bakar batez eraturiko protozoarioek agregatuak eratu bide zituztela, eta horiek, beren aldetik, agregatuen

agregatuak eratzeko bilduko ziren; organismo desberdinduenek organismo doi desberdindu eta elementalen asoziazioan izango zuten horrela beren jatorria. Bada horretan begi-bistakoa den bapikatze bat; «polizoismoa» gertakari salbuespeneko eta anormala da. Baina ez da egia txikiagoa organismo goragoko batean lana banatzeko zelulak elkartu *balira bezala* gertatzen direla gauzak. Forma sozialarekiko obsesioa, espezie-kopuru hain handi batean aurkitzen duguna, banakoen egituraren ere agertzen da. Baina esan dezagun beste behin: horretan ez dago joera bat besterik, eta sozietate bukatuez, banakotasun desberdineko antolamendu garbiez jardun nahi badugu, intsektuen sozietateak eta giza sozietateak errepresentaturiko asoziazioaren bi tipo perfektuetara jo behar da: lehena higiezina⁴, eta bigarrena aldakorra; bata instintuzkoa, eta bestea adimenduna; lehena organismo batekin erkagarria, zeinaren elementuak osotasun bati begira bakarrik existitzen baitira, bigarrena hainbesteko tarteak utziz norbanakoei, non ez baita jakiten hura norbanakoentzat egina dagoen ala norbanakoak harentzat eginak. Comtek ezarritako bi baldintzetatik, «ordena» eta «progresua», intsektuak ordena bakarrik nahi izan du, aldiz progresura, zeinak askotan baztertzen baitu ordena eta zeina beti ekimen indibidualen ondoriozkoa baita, horretara jo izan du behinik behin beti gizadiaren parte batek. Bizitza sozialaren bi tipo bukatu horiek elkarri dagozkio, beraz, eta elkar osatzen dute. Baina gauza bera esan liteke instintuaz eta adimenaz, zeinak ezaugarritzen baitituzte hurrenez hurren. Biziaren bilakaeran birkokaturik, bi jarduera dibergente eta osagarri gisa agertzen dira.

Ez gara itzuliko aurreko lan batean aurkeztu dugunera. Gogora dezagun soilik bizia zenbait gauza materia gordinetik lortzeko ahalegin bat dela, eta instintua eta adimena, egoera bukatu batean harturik, bi bitarteko direla horretarako tresna bat erabiltzeko: lehen kasuan, lanabesa izaki bizidunaren atal da; bigarrenean, tresna inorganiko bat da, asmatu, fabrikatu, maneiatzen ikasi behar izan dena. Kontsidera itzazue erabilpena, arrazoi handiagoarekin fabrikazioa eta arrazoi handiagoarekin oraindik asmakuntza, eta bata bestearen atzetik adimenaren elementuak aurkituko dituzue, zeren bere zertarakoak azaltzen baitu bere egitura. Baina ez da ahaztu behar adimenaren inguruan instintu-zerrenda bat geratzen dela, eta instintuaren barrenean badaudela adimen-erlantzak ere. Susma daiteke bata bestearen baitan inpli-

katurik egotetik hasi zirela, eta iraganean behar beste atzera joko bagenu, gure intsektuenak baino adimenetik hurbilago dauden instintuak aurkituko genituzkeela, eta gure ornodunena baino instintutik hurbilago dagoen adimen bat. Bi jarduerak, hasiera batean elkarbarrrendurik baitzeuden, disoziatu egin behar izan zuten hazteko, baina bataren zatiren batek besteari itsatsirik iraun du. Gauza bera esan zitekeen, gainera, biziaren agerpen handi guztiez. Horietako bakoitzak aurkezten ditu, gehienetan egoera hasi-masizko, ezkutuko edo birtualean, gainerako agerpen gehienek ezaugarri esentzialak.

Beraz, naturaren ahalegin handietako baten muturrean, izaki esentzialki adimendun eta partzialki askeak direnen taldekatze horiek aztertzean, zeinak baitira giza sozietateak, ez dugu begietatik galdu behar bilakaeraren beste terminus puntua, instintu hutsez araturiko sozietateak, zeinetan banakoak itsuki zerbitzatzen baitio komunitatearen interesari. Erkaketa honek ez du inoiz ondorio irmorik baimenduko, baina interpretazioak iradoki ahal izango ditu. Baldin eta bilakara-higiduraren bi termino nagusietan sozietateak badaude eta organismo indibiduala sozietateena iragartzen duen plan baten arabera eraturik badago, horrek esan nahi du bizia elementuen koordinazioa eta hierarkia dela, zeinen artean banatzen baita lana: soziala bitalaren barrenean bertan dago. Baldin eta sozietate horietan, jadanik organismo indibidualak diren horietan, elementuak prest egon behar badu bere burua osoaren alde sakrifikatzeko, gainera gauza bera gertatzen bada sozietateen sozietateetan, zeinek eratzen baitituzte, bilakaeraren bi lerro handietako baten amaieran, erlauntza eta inurritegia; baldin eta, azkenik, emaitza hori instintuari esker lortzen bada, zeina naturaren lan antolatzailearen luzapena besterik ez baita, horrek esan nahi du natura gehiago arduratzen dela sozietateaz banakoaz baino. Eta jadanik gauza bera ez bada gertatzen, gizakiarengan espezie berriak sortzearen bidez, biziaren eremu guztian agertzen den asmakuntza-ahaleginak, banakoen bidez, gizadian bakarrik, luzatzeko bitartekoa aurkitu duelako da, zeinari egozten baitzaizkio orduan, adimenarekin batera, ekimen-gaitasuna, independentzia, askatasuna. Baldin eta adimenak mehatxu egiten badu orain kohesio sozialaren zenbait aspektu hausteko eta sozietateak iraun behar badu, beharrezko da kontrapisu bat egon dadin adimenarentzat. Eta kontrapisu hori ezin bada instintua bera izan, hain zuzen ere bere lekua adimenak hartu duelako,

beharrezko da instintuaren birtualitateak edo, nahiago bada, adimenaren inguruan oraindik dagoen instintu-hondarrak efektu bera sorraztea: instintu horrek ezin du zuzenean jardun, baina adimenak errepresentazioen bidez lan egiten duenez gero, errepresentazio «imajinarioak» sorraziko ditu hartan, zeinek egingo baitiote aurre errearen errepresentazioari, eta adimenaren beraren bidez lan intelektualari kontrapisu egitea lortuko du. Horrela azalduko genuke funtzio fabulatzailea. Benetan zeregin sozial bat badu, norbanakoari ere zerbitzatu behar dio, zeina jagoteko interesa izaten baitu eskuarki gizarteak. Horrela, bada, susma daiteke bere forma elemental eta jatorrizkoaren azpian, indar-gehitze baten ekarpena egiten diola norbanakoari. Baina bigarren puntu horretara heldu baino lehen, lehena kontsidera dezagun.

«Zientzia psikikoak» jasotako behakizunen artean, honako gertakari hau seinalatu dugu beste une batean. Andre bat hotel bateko goi-soilaruan aurkitzen zen. Jaitsi nahi zuelarik, eskailera-burura jo zuen. Igogailuaren kaxa itxi behar zuen burdinesia zabalik zegoen une hartan. Burdinesi hori harik eta igogailua solairuan gelditu arte ireki behar ez denez gero, berak uste izan zuen igogailua hantxe zegoela eta hura hartzera oldartu zen. Supituki, atzera jaurtia sentitu zen: aparatuaren arduradunak bat-batean agertu eta eskailera-burura bultzatu egin zion. Une horretan, bere barreiakuntzatik irten zen. Txunditurik egiaztatu zuen han ez zegoela ez gizonik eta ez aparaturik. Mekanismoa hondatu zelarik, burdinesia ireki egin ahal izan zen bera zegoen pisuan, igogailua behean zegoen bitartean. Hutsartera amiltzerari zihoan: haluzinazio mirarizko batek salbatu zion bizia. Miraria erraz azaltzen dela esan beharko ote dugu? Andreak zuzen arrazoitu zuen gertakari errealek batekiko, zeren langa zinez irekita baitzegoen, eta, ondorioz, igogailuak pisuan egon beharko zukeen. Tarte hutsa hautemateak bakarrik aterako zukeen erroretik, baina hautemate hori beranduegi helduko zatekeen, arrazoiketa zuzenaren ondotik datorren egintza hasi eta gero. Orduan pertsonalitate instintuzko, sonanbulikoa, arrazoitzen duen pertsonalitatearen azpian dagoena sortu zen. Arriskua hautemana zuen. Berehalakoan ekin beharra zeukan. Bat-batean jaurti zuen gorputza atzerantz, aldi berean itxuraz justifikatugabea zen higidura hobekien eragin eta azal zezakeen hautemate fikziozko eta haluzinagarria sorraziz.

Imajina ditzagun, orduan, giza primitibo bat eta hasi-masizko sozietate batzuk. Talde horiei nahigarria den kohesioa segurtatzeko, naturak bitarteko sinple asko bat izango luke: aski luke gizakia instintu egokiz hornitzea, erlauntza eta inurritegiarekin egin zuenez. Haren arrakasta, gainera, osoa izan zen, zeren kasu horietan banakoak komunitaterako bakarrik bizi izaten baitira, eta bere lana erraza izan zen, zeren bere ohiko metodoari jarraitzea besterik ez baitzuen behar izan: izan ere, instintua biziarekiko hedadurakidea da, eta instintu soziala, intsektuan aurkitzen denez, gorputz bizi ororen zelulak, ehunak eta organoak animatzen dituen subordinazio- eta koordinazio-espiritua besterik ez da. Baina ornogabeen seriean bizi-bulkadak adimenaren loratzera jotzen du, eta ez instintuaren garapenera. Higiduraren bukatu denean gizakiarengan, instintua ez da ezabaturik geratzen, baina bai eklipsaturik: hartaz erlantz lauso bat besterik ez da geratzen jadanik erabat argiztatua edo areago argitsua den nukleoaren inguruan, zeina baita adimena. Aurrerantzean, gogoetak ahalbidetuko die banakoari asmatzea eta gizarteari aurreratzea; baina gizarteak aurrera egin dezan beharrezko da irautea. Asmakuntzak ekimena esan nahi du, eta ekimen indibidualari egindako deiak diziplina soziala konprometitzeko arriskua du. Zer gertatuko da norbanakoak bere gogoeta objektutik desbideratzen badu, zeinarako baitago egina, hau da, egin, hobetu eta berritu behar duen atazatik bere baitara zuzentzeko, bizitza sozialak ezartzen dizkion sufrikarioetara, komunitatearen alde egiten duen sakrifizioa? Instintuaren baitan utzirik, inurria edo erlea bezala, gizakia lortu beharreko kanpoko xedetik zintzilik geratuko zatekeen; automatikoki, sonanbulikoki lan egingo zukeen espeziearentzat. Adimenaz hornitua, gogoetara irekia, bere baitara bihurtuko da eta atseginez bizi izatea besterik ez du pentsatuko. Zalantzarik gabe, arrazoiketa zuzenak erakutsiko lioke besteen zorianagatik ahalegintzea bere interes propioarekin bat datorren zerbait dela, baina mendeetako kultura behar da Stuart Mill bezalako utilitarista bat sortzeko, eta Stuart Millek ez ditu filosofo guztiak konbentzitu, eta gutxiago oraindik gizaki arrunta. Egia da adimenak ezer baino lehen egoismoa aholkatuko duela, eta norabide horretan amilduko da izaki adimenduna ezerk geldiarazten ez badu. Baina natura erne dago. Arestian ikusi dugu, burdinesi irekiaren aurrean, sarrera debekatzen zion zaindaria bat sortu zela eta debekuaren haustailea errefusatzeko zuela. Hemen hiriaren jainko babesle bat izango da debekatuko, mehatxatuko, erre-

primituko duena. Izan ere, adimena hautemate presenteez arautzen da, edo oroitzapenak deitzen diren imajina pertzeptiboz gutxi-asko betetiko hondar horiez. Nola instintua ez den existitzen aztarna- edo birtualitate-egoera batean izan ezik, eta nola ez duen behar adinako indarrik egintzak eragin edo eragozteko, hautemate lilurazko bat sorrarazi beharko du edo gutxienez oroitzapenaren faltsutze aski zehatz eta harrigarria, adimena hartaz determina dadin. *Aurreneko ikuspuntu horretatik kontsideraturik, erlijioa adimenaren ahalmen disolbatzailearen aurkako naturaren defentsazko erreakzio bat da.*

Baina, horrela, benetan gertatzen ari denaren figurazio estilizazioa besterik ez dugu lortzen. Argitasun handiago bat lortzeko, norbanakoaren bat-bateko errebolta bat ezarri dugu gizartean, eta irudimen indibidualean, eragotzi edo debekatu egiten duen jainko baten supituko agerpena. Zalantzarik ez dago, gauzek era dramatiko hori hartzen dute une jakin batean, zibilizazioaren bidetik jadanik aurrera egin duen gizadi batean. Baina errealtateak ez du aurrera egiten dramaren zehaztasunerantz esentziala denaren areagotzez eta gainoparoa denaren ezabatzez ez bada. Izatez, naturaren eskuetatik irten diren bezalako giza taldekatzeetan, ez da hain argia taldearen kohesioan inporta dena eta ez denaren artean, norbanakoak egindako egintza baten ondorioek ez dirudite hain hertsiki indibidualak, eta egintza burutzeroa doan unean sortzen den inhibizioaren indarra ez da pertsona bakarrengan hain osoki haragiztatzen. Gera gaitezen hiru puntuotan.

Gurea bezalako sozietateetan ohiturak daude eta legeak daude. Zalantzarik gabe, legeak sarritan ohitura sendotuak dira; baina ohitura bat ez da lege bihurtzen interes zehaztu, ezagutu eta formulagarri bat eskaintzen duen arte; orduan kontrastatzen du besteekin. Orduan argia da esentziala eta akzidentalaren arteko bereizkuntza: alde batetik, usadio soilak dago, eta, bestetik, betebeharrak legal eta are morala ere badena. Ezin liteke horrela izan gutxiago bilakaturiko gizarteetan, zeinek ez baitituzte ohiturak besterik, zeinetariko batzuk beharrian erreala batez justifikaturik baitaude, eta gehienak zori hutsari edo lehen hedatze gogoetage bati zor baitzaizkio. Hemen usadiozkoa den oro derrigor betebeharrekoa da, zeren legeetan kondentsaturik ez egotean, eta oraindik gutxiago printzipioetan, solidaritate soziala usadioen onarpen komunez hedatzen baita. Taldeko kideen artean ohikoa den guztiak, gizarteak norbanakoengandik espero duen guztiak izaera erli-

jiosoa hartu beharko du, beraz, baldin eta egia bada gizakia besteei loturik dagoela eta bere buruagandik desloturik ohitura betetzez eta haren bidez bakarrik. Esan dezagun bidenabar, horrela moralak erlijioarekin dituen erlazioen auzia asko sinpletzen da hasi-masizko gizarteak aztertzen direnean. Erlijio primitiboak ezin daitezke inmortalizat edo moralarekiko axolagabetzat kalifika, ez bada erlijioa hasiera batean izan zen bezala hartu eta gerora bihurtu den horrekin erkatzen ez bada. Bere jatorrietan, ohitura da moral guztia, eta erlijioak hartatik urruntzea debekatzen duenez, moralak erlijioarekiko hedadurakide da. Horrela, bada, alferrik objektatuko digute debeku erlijiosoak gaur inmoral edo antisoziala iruditzen zaigunari buruzkoak ez direla beti izan. Erlijio primitiboa, lehen kokatu garen angelutik ikusita, arreta bat da, pentsatzen denean, nork bere buruarengan bakarrik pentsatzeko izaten den arriskuaren aurrean. Beraz, naturaren defentsazko erreakzio bat da adimenaren aurka.

Bestalde, erantzunkizun indibidualaren ideia oso urrun dago uste zitekeen bezain sinplea izatetik. Norbanakoaren jardueraren errepresentazio erlatibo samarra inplikatzan du, zeina independentetzat edukitzen baita jarduera sozialetik bakartu delako. Baina lehen une batean, taldeko kideen arteko solidaritatea hainbestekoa da, non denek partaide sentitu behar duten, neurri batean, bakar baten flakeziaz, gutxienez berek larritzat jotzen dituzten kasuetan: gaitz moralak, jadanik termino hori erabiltzerik baldin badago, gaitz fisiko baten efektua eragiten du, zeina pixkanaka hedatuz joan eta gizarte osoa afektatuko bailuke, kutsaduraz. Beraz, botere mendekeztzaile bat sortzen bada, gizarteak bere osotasunean zigortzeko izango da, gaitzak abiatu zen puntuan bakarrik bere pisua erorarazi gabe: erruduna jazarritzen duen Justiziaren koadroa moderno samarra da, eta guk gehiegi sinpletu ditugu gauzak norbanakoa bere lokarri soziala eteten zuen unean erakutsiz, berak bakarrik pairatuko duen zigorrarekiko beldur erlijiosoak geldiarazirik. Ez da egia txikiagoa gauzek forma hori hartzera jotzen dutela eta, izatez, gero eta esplizituago hartuko dutela, erlijioak, bere inguruneak finkatuz, argi mitologikoago egingo den heinean. Mitoak, bestalde, bere jatorriaren aztarna izango du beti; ez ditu inoiz ordena fisikoa eta ordena moral edo soziala erabat bereiziko, denok lege berari obeditzetik datorren erregulartasun nahi izana eta naturaren joairak agertzen duena. Temis, giza justiziaren jainkosa,

Urtaroen “ eta Dikéren ama da, zeinak errepresentatzen baititu nola lege fisikoa hala lege morala. Nahaste horretatik, ozta gaude gaur egun askatuak; aztarnak iraun egiten du gure hizkuntzan. Ohiturak eta morala, araua konstantziaren zentzuan eta araua inperatiboaren zentzuan, egitezko unibertsaltasuna eta eskubidezko unibertsaltasuna, ia era berean adierazten dira. Agian, ez al ditu «ordena» hitzak aldi berean akordioa eta agindua adierazten?

Azkenik, debekatu, prebenitu edo zigortzeko sortuko litzatekeen jainko batez hitz egiten genuen. Indar morala, nondik abiatzen baita erresistentzia eta beharrezko bada mendekua, beraz, pertsona bakar-rengan haragiztatuko litzateke. Eztabaidaezina da indar horrek horrela, era guztiz naturalean, giza forma bat hartzera jotzen duela gizakien begietarako, baina mitologia naturaren ekoizkina bada, ekoizkin beranta da, loreak ematen dituzten landareak bezala, eta erlijioaren hasierak apalagoak izan dira. Gure kontzientzian gertatzen denaren azterketa arretatsuak erakusten digu erresistentzia intentzional bat, baita mendeku bat ere, lehen une batean bere baitan aski diren entitateak direla; gorputz definitu batean haragiztatzea, dibinitate zaindari eta mendekatzaile batena bezalakoan, haientzat luxu bat da jadanik: zalantzarik gabe, espirituaren funtzio fabulatzaila ez da atsegin artistiko batez eragiten horrela jantzitako errepresentazioen gain izan ezik, baina ez ditu sarreratik eratzen, baizik eta, hasieran, biluzik hartzen ditu. Puntu horri berriro ekin beharra daukagu, ez baitu behar adina erakarri psikologoen arreta. Ez dago frogaturik mahai baten aurka kolpea hartzen duen eta hartutako kolpea itzultzen haurrak hartan pertsona bat ikusten duenik. Gainera, psikologo guztiek gaur egun interpretazio hori onartzen duten ikusi beharko litzateke. Baina, hemen azalpen mitologikoari gehiegi amore eman ondoren, orain ez dute gehiegi aurrera egiten haurrak, amorrak eraginda, kolpea emateko premiaren aurrean amore ematen duela besterik gabe suposatzen dutenean. Egia da mahaia pertsonarekin berdintzearen eta mahaia gauza bizigabe bat hautematearen artean badela tarteko errepresentazio bat, ez gauza batena, ez pertsona batena dena: mahaiak kolpea ematean egiten duenaren imajina da, edo hobeki oraindik, atzean dagoen mahaiak berekin daraman kolpea ematearen imajina, –bizkarrean ezarritako ekipaje beten gisara. Kolpea ematea pertsonalitate-elementu bat da, baina oraindik ez da pertsonalitate osoa. Eskrima-borrokalariak bere arerio-

aren punta nola aurreratzen zaion ikusten duenak ongi baino hobeki daki puntaren higidurak arrastatu duela ezpata, berekin besoa erakarri duen ezpata, gorputzari tira egiten dion besoa, bera luzatzean: ez da oldartzen barreneraino egin behar den bezala, kolpe zuzen bat ematen ere ez du asmatzen, gauzak horrela sentitzen diren egunera arte. Alderantzizko ordenan ezartzea berreraikitzea da, eta ondorioz, filosofatzea; edozein kasutan, inplizitu dagoena esplizitatzea da, egintza garbiaren eskakizunei kontu egin beharrean, bitartegabeki emanari eta egiazki primitiboa denari. – Letrero batean «Sarrera debekaturik» irakurtzen dugunean, berehalaxe hautematen dugu debekua, egunargi betean dagoena; haren atzean, erdi-itzaletan, lausoki irudikatua, salaketa egingo duen zaindaria bakarrik dago. Horretara, ordena soziala babesten duten debekuak, hasteko, horrela sinpleki promulgaturik daude; egia da jadanik formula hutsak baino gehiago direla: erresistentziak, presioak, bultzadak dira; baina debekatzen duen dibinitatea eta haiek maskaraturik zeukatena geroago bakarrik agertuko da, funtzio fabulatzailearen lana osatzen den neurrian. Ez gaitezen harri, bada ez-zibilizatuengan debekuak aurkitzeaz, egintza indibidual batzuekiko partzialki fisikoak eta partzialki moralak diren erresistentziak. Erresistentzia-eremu baten erdigunea hartzen duen objektua aldi berean «sakratu» eta «arriskutsu» deitua izango da bi nozio zehatz horiek eratu direnean eta aldarapen fisikoko eta inhibizio moraleko indar baten arteko bereizkuntza argia denean; ordura arte bi propietateak bat eginik ditu bakar batean; *tabu* da, erlijioen zientziak ezagun bihurtu digun termino polinesiarra erabiliz. Gizadi primitiboak gaurko «primitiboek» kontzebitzen duten era berean kontzebitu al du *tabua*? Ezer baino lehen, gatozen bat hitzei ematen diegun zentzuaz. Ez zatekeen gizadi primitibo bat existituko espezieak igarobide sentigaitzez eratu izan balira; ezein une zehatzetan gizakia ez zatekeen animaliatasunetik irtengo. Baina hori hipotesi hautazkoa da, egiantzik ez duten gauza askorekin topo egiten duena, eta hainbeste ekibokoren gainean oinarriturik dagoena, non sostengaezintzat baitauekagu⁵; gertakari eta analogien hari gidariari jarraitzen zaionean, bilakaera desjarrai batera areago iristen gara, zeinak jauzika aurrera egiten duen, gelditze bakoitzean bere generoan perfektua den konbinazio bat lortuz, kalidoskopio bati birak ematen zaizkionean ondozkatzen diren figurekin erkagarria dena. Bada, beraz, gizadi primitibo-mota bat, nahiz eta giza espeziea gunes berberetatik egindako zenbait jauzi konbergentez eratu ahal

izan den eta denak eredia egikaritzetik hain hurbil egon ez diren. Bestalde, gaur egun arima primitiboak erabat ihes egingo liguke lortu-tako azturen herentziazko transmisio bat gertatu izan balitz. Gure iza-
era morala, egoera gordinen harturik, gure arbaso urrunekoenek izan
zutenarekiko errotik bereiziko litzateke orduan. Baina herentziazko
azturez hitz egiten bada, eta, batez ere, eraldakuntza bat eragiteko
transmisio aski erregularrean sinesten bada, ideia aurrekontzebituen
eraginpean eta teoria baten eskakizunak asetzeko bakarrik da. Egia da,
ezen zibilizazioak sakon eraldatu badu gizakia, hori azturak eta eza-
gutzak, gizarte-ingurumenean, gordailu batean bezala metatzearen
bidez izan da, zeinak gizarteak isurtzen baititu norbanakoarengan
belaunaldi berri bakoitzean. Harramazka egin diezaiogun gainaldeari,
ezaba dezagun hezkuntza iraunkor batetik datorkiguna eta geure
buruaren barrenean gizadi primitiboa aurkituko dugu, edo ez asko
gehiago. Eskaintzen al digute gaur egun behatzen ditugun «primitibo-
ek» gizadi horren irudia? Ez da oso segurua, zeren natura, horiengan
ere, azturen geruza batek estalia baitago, zeinak gizarte-ingurumenak
iraunarazi egin baititu norbanako bakoitzarengan gordailutzeko. Baina
bada arrazoirik uste izateko geruza hori ez dela gizaki zibilizatuaren-
gan bezain lodia eta natura nabariagotzen uzten duela. Azturak men-
deetan zehar biderkatzean, izan ere, horiengan beste era batean gerta-
tu bide da, gainaldean, analogotik analogorako pasu batez eta inguru-
bar akzidentalaren eraginpean, aldiz, teknikaren, ezagutzen, hitz batean,
zibilizazioaren progresua aldi luze samarretan betetzen da zentzu
bakar eta berean, altueran, anastomosatzen diren bariazioen bidez,
horrela eraldakuntza sakonak sortuz eta ez bakarrik gainaldeko kon-
plikazioak. Nabari da, beraz, zer neurritaraino eduki dezakegun erabat
primitibotzat gaur eguneko primitiboengan aurkitzen dugun *tabu*
nozioa. Demagun nozio hori horrelaxe agertu dela naturaren eskueta-
tik irten berria den gizadi batean, ez zitzaien gauza berei aplikatzen
ezta hainbeste gauzari ere seguraski. Tabu bakoitza debeku bat izan
bide zen, zeinean gizarteak interes definitu bat aurkitzen baitzuen.
Norbanakoaren ikuspuntutik irrazionala, zeren egintza adimentsuak
geldiarazten baitzituen kolpez, arrazionala zen gizartea eta espeziea-
rentzat abantailatsua zen heinean. Horrela, adibidez, sexu-harremanak
tabuen bidez baliagarriki arautu ahal izan dira. Baina, hain zuzen ere,
adimen indibidualera jotzen ez zenez gero eta kontua hura kontrarres-
tatzea ere bazenez gero, horrek era guztietako hedapen hautazkoak

egin behar izan ditu hartaz, ideia akzidentalaren asoziazioz eta naturaren jatorrizko asmoa dei genezakeenaz arduratu gabe. Horrela, *tabua* gaur den hori izan dela beti suposatuz, ez zuen hain objektu-kopuru handi batekiko zerikusia izan behar, ezta hain aplikazio arrazoigabeak izan ere. Baina gorde al du jatorrizko bere forma? «Primitiboen» adimenak ez du esentziaz gurearekiko alderik; gureak bezala, dinamikoa estatiko bihurtzera jo behar du eta egintzak gauzatan solidotzera. Horrela, bada, suposa daiteke, bere eraginpean hark zerikusia zeukan gauzetan instalatu direla debekuak: ez ziren joerei kontrajarritako erresistentziak besterik, baina joerak ia beti objektu bat duenez gero, objektutik, hartan egoitza balu bezala, badirudi abiatzen dela erresistentzia, horrela substantziaren atributu bihurtuz. Gizarte estankatuetan, sendotze hori behin betiko egin da. Osotasun gutxiagokoa izan bide da eta edozein kasutan denbora batekoa, higidurako gizarteetan, zeinetan adimenak azkenerako pertsona bat hautemango baitzuen debekuaren atzean.

Adierazi berria dugu erlijioaren lehen funtzioa, gizarte-kontribuzioari zuzenean interesatzen zaiona. Goazen bestera. Berriro gizartearen onerako nola lan egiten duen ikusiko dugu, baina zeharka, norbanakoen jarduerak estimulatzuz eta gidatuz. Bere lana, bestalde, konplikatuagoa izango da, eta bere formak zenbakiztatu beharko ditugu, baina ikerketa honetan ez dugu desorientatzeko arriskurik, hari gidariaren jabe baikara. Ez dugu galdu beharko begietatik biziaren eremua esentzialki intuituarena dela, halako bilakaera-lerro batean intuituak laga egin diola adimenari bere lekuaren parte bat, horretatik biziaren perturbazio bat etor litekeela eta naturak orduan adimenari adimena kontrajartzea beste baliabiderik ez duela. Naturaren mesedetan oreka horrela berrezartzen duen errepresentazio intelektuala maila *erlijiosokoa* da. Has gaitezen kasurik sinpleenetik.

Animaliek ez dakite hil behar dutenik. Zalantzarik gabe, horien artean badira batzuk hildakoa eta biziduna bereizten dituztenak: horrenbestez ulertzen dugu hildakoa eta biziduna hautemateak ez dituela haiengan higidura berak eragiten; horrek ez du esan nahi heriotzaren ideia orokorra dutenik, ezta biziaren ideia orokorrik ere, ezta beste edozein ideia orokor ere, gutxienez, espirituan errepresentatua den heinean eta ez gorputzak interpretatua bakarrik. Animalia horrek «hildakoarena egingo du» etsaiari ihes egiteko, baina geuk izendatzen dugu horrela haren jarrera; bere aldetik, ez higitzea zirki-

na egitean arreta erakarri edo ernarazi egingo duela sentitzen duelako da, erasoa eragingo duela, higidurak higidurari dei egiten diola. Animaliengan suizidio-kasuak aurkitu direla uste izan da; demagun ez dugula huts egin, tarte handia dago hiltzeko behar dena egitearen eta horregatik hil egingo dela jakitearen artean. Gauza bat da egintza bat burutzea, zuzena eta egokia ere bai, eta beste bat horren ondoren etorriko den egoera imajinatzea. Baina demagun animaliak baduela heriotzaren ideia. Jakina, ez dio bere buruari hiltzera destinaturik dagoela errepresentatzen, heriotza naturalez hilko dela, bortxazko heriotzaz ez bada. Horretarako beharrezko izango luke beste animalia batzuei buruz behaketa-sail bat egina edukitzea, gero sintesia eta, azkenik, izaera zientifikoa eskaintzen duen orokortze-lana. Demagun animalia gai dela horrelako ahalegina egiteko, mereziko lukeen zio batengatik izango litzateke; alabaina, ezer ez luke baliagarritasun gutxiagokoa izango hil behar duela jakitea baino. Areago, hori ez jakiteko interesa du. Aitzitik, gizakiak badaki hil egingo dela. Gainerako izaki bizidun guztiek, biziari indarrez atxikiek, bulkada hartzea besterik ez dute egiten. Bestela beren buruak *sub specie aeterni* pentsatzen dituzte, haren konfiantza, presenteak etorkizunaren gain egiten duen aurreratze betikoa, pentsamendu hori sentimendu bihurtzea da. Baina gizakiarekin gogoeta agertzen da eta, ondorioz, berehalako onurarik gabe behatzeko gaitasuna, behakizun behin behineko desinteresatuak elkarren artean erkatzekoa, azken finean, induzitu eta orokortzeko gaitasuna. Bere inguruan bizi den guztia azkenean hil egiten dela egiaztatzean, bera ere hilko den konbentzimendura iristen da. Naturak, adimenaz hornitzean, derrigor gidatzen zuen, nahi izan ala ez, konbikzio horretara. Baina konbikzio hori bera tartejartzen zaio orain naturaren higiduran. Bizi-bulkadak gainerako izaki bizidun guztiak urruntzen baditu heriotzaren errepresentazioetik, heriotzaren pentsamenduak gutxitu egin behar du gizakiarengan biziaren higidura. Aurrerago, gizadia bere buruaren gainetik jasoko duen filosofia batean kokatu ahal izango da eta jarduteko indar handiagoa emango dio, baina hasiera batean heriotzaren ideia deprimigarria da, eta oraindik gehiago izango litzateke gizakiak ezezaguna izango ez balu, ziur iraungi behar duela jakinik, hil behar duen data. Nahiz eta jazoerak gertatu beharrezkoa izan, aldiune bakoitzeko ez dela gertatzen egiaztatzean, esperientzia negatibo, etengabe errepikatu hori, doi kontzientea den zalantza batean kondentsatzen da, zeinak gutxitzen baititu gogoe-

tazko ziurtasunaren ondorioak. Ez da ziurtasun gutxiagokoa hiltzearen ziurtasunak, bizi izatean bakarrik pentsatzeko egina zegoen izaki bizidunen mundu batean gogoetarekin sortuak, naturaren asmoari kontra egiten diolakoa. Horrek oztopo egingo du bere bidean ezarri duen eragozpenarekin, baina berehala jasotzen du. Heriotza ezinbestekoa den ideiari heriotzaren ondoren bizitzaren jarraipenaren imajina kontrajartzen dio⁶; imajina horrek, ideia ezarri berria duen adimenaren eremuan berak jaurtiak, gauzak berriro ordenan jartzen ditu; imajinak ideia neutraltzeak naturaren oreka bera agertzen du orduan, zeinak bere buruari eusten baitio ez laban egiteko. Horrela, bada, imajina eta ideien jolas erabat bereziaren aurrean aurkitzen gara, zeinak iruditu baitzaigu ezaugarritzen duela erlijioa bere jatorrietan. *Bigarren ikuspuntu horretatik kontsideraturik, erlijioa naturaren defentsazko erreakzio bat da adimenak egindako heriotzaren ekidinezintasunaren errepresentazioaren aurka.*

Erreakzio horretan, gizartea norbanakoa bezain interesaturik dago. Ez banakoaren ahaleginaz baliatzen delako bakarrik eta ahalegin hori urrunago iristen delako azken amaiera baten ideiak bere bulkadari kontrakarra egiten ez dionean, baizik eta, batez ere, berak duelako egonkortasun- eta iraupen-premia. Gizarte jadanik zibilizatuak legeetan, instituzioetan aurkitzen du babesa, denborari erronka egiteko egindako eraikinetan ere bai; baina gizarte primitiboak «gizakien gain eraikiak» daude soilik: zer izango litzateke bere autoritateaz osagai dituzten banakoen iraupenean sinetsiko ez balitz? Garrantzizko da, ondorioz, hildakoek presente egoten jarraitzea. Gerora arbasoen kultura etorriko da, eta orduan hildakoak jainkoengana hurbilduko dira, baina horretarako beharrezko izango da jainkoak izatea, prestabidean gutxienez; kultu bat egotea, espiritua deliberatuki mitologiarako norabidean orientatu izana. Bere abiapuntuan, adimenak nahasturik bezala errepresentatzen ditu hildakoak, besterik gabe, biziekin, gizarte batean, zeinari oraindik on adina gaitz egin baitiezaiokete.

Zer formaren pean ikusten ditu bizirik irauten gizarteak? Ez dezagun ahaztu arimaren barnean, introspektzio-bidez, erlijio primitibo baten elementu eratzaileak bilatzen ari garela. Elementu horietakoren bat baliteke ez gertatu izana kanpoan egoera garbian, eta berehala aurkitu izango ditu beste elementu sinple batzuk, jatorri berekoak, zeinekin konbinatuko baita, edo bestela hartua izango da, erabat baka-

rrik, edo besteeekin, funtzio fabulatzailaren lan amaigabeki jarraitura-ko gai gisara. Badira horrela, alde batetik, gai sinple edo konplexuak, naturak eskuratuak, eta, bestetik, mila bariazio haien gainean giza fantasiak egikarituak. Gaiei beraiei buruzkoak dira zalantzarik gabe oinarritzko sinesteak, erlijioaren zientziak nonahi aurkitzen dituenak. Gaiei buruzko bariazioei dagokienez, mitoak dira eta infinituraino desberdintzen diren kontzepzio teorikoak ere bai, denbora eta tokien arabera. Ez dago zalantzarik aipatu berri dugun gai sinplea bitartegabeko eran erlazionatzen dela beste batzuekin, mitoak eta teoriak baino lehen, arimaren errepresentazio primitiboa emateko. Baina ba al dago forma definiturik konbinazio horretaz kanpo? Auzi hori planteatzen da gorputza baino gehiago irauten duen arimaren gure ideiak bere burua baino gehiago irauteko gai den gorputz baten imajina, kontzientzia bitartegabeari emana, estaltzen duelako. Imajina hori ez da existitzen horregatik gutxiago, eta aski da ahalegin arin bat hori berreskuratzeke. Gorputzaren ikusteko imajina besterik ez da, ukitzeko imajinatik bereizia. Lehena bigarrenetik bereizezintzat kontsideratzeko ohitura lortu dugu, isla edo efektu bat bezala. Norabide horretan burutu da ezagutzaren aurrerakuntza. Gure zientziarentzat gorputza esentzialki ukimenarentzat den hori da; forma eta tamaina jakin batzuk ditu, gugandik independenteak; leku jakin bat hartzen du espazioan eta ezin da lekuz aldatu denbora erabili gabe tarteko posizioak banan-banan bete gabe; hartaz dugun ikusteko imajina itxura bat litzateke horrela, zeinaren bariazioak zuzendu beharko bailirateke beti ukitzeko imajinara itzuliz; hori izango litzateke gauza bera, aldiz besteak seinalatzea besterik ez luke egingo. Alabaina, hori ez da bitartegabeko inpresioa. Espiritu ez-ohartu batek maila berean ezarriko lituzke ikusteko imajina eta ukitzeko imajina, errealtate bera egoztiko die eta erlatiboki independentetzat hartuko ditu elkarren artean. Primitiboak aski du urmael batera makurtzea ikusten dugun bezala bere gorputza hautemateko, ukitzen dugun gorputzetik jaregina. Zalantzarik gabe, ukitzen duen gorputza ikusten duen gorputza da era berean; horrek frogatzen du gorputzaren gainaldeko mintza, zeinak eratzen baitu gorputz ikusia, bikoizteko gai dela, eta bikoizte horren bi aleetako bat ukitzeko gorputzarekin geratzen dela. Era berean, egia da, badela gorputz bat ukitzen dugunetik bereiz daitekeena, barrenik eta pisurik gabeko gorputz bat, dagoen tokira aldiune batean garraiatu dena. Zalantzarik gabe, ez dago ezer gorputz horretan herio-

tzaren ondoren irauten duela sinestera gonbidatzen gaituenik, baina printzipiotzat zerbaitek iraun behar duela onartzetik hasten bagara, bistan dago gorputz hori izango dela, eta ez bestea, zeren ukitzen dugun gorputza oraindik presente baitago, higiezin dirau eta laster usteltzen da, aldiz, mintz ikuskorra edozein tokitan babestu ahal izan da eta bizirik iraun dezake. Gizakiak itzal edo fantasma gisa bizirik irauten duen ideia erabat naturala da, eta gorputza hats batek bezala animatuko lukeen printzipio baten ideia errefinatuago baten aurretikoa dela uste dugu; hats hori “μ”, bestalde, pixkanaka espiritua-lizatu egin da arima bihurtzean (*anima* edo *animus*). Egia da gorpu-tzaren fantasma badirudi ez dela gai, berez, giza gertaeretan presio bat eragiteko, eta hala ere beharrezkoa dela eragitea, zeren egintza jarraitu baten eskakizunak sinetsarazi baitu biziraupenean. Baina hemen elementu berri batek esku hartzen du.

Oraindik ez dugu definituko beste joera elemental hori. Aurreko biak bezain naturala da; halaber, naturaren defentsazko erre-akzio bat da. Horren jatorria ikertu behar dugu. Oraingoz, bere emai-tza bakarrik kontsideratuko dugu. Joera hori natura osoan barreiatu-rikoa da eta, objektuen eta izaki banakoen artean banatzen den indar baten errepresentazioan bukatzen da. Erljioen zientziak zerbait pri-mitiboa bezala kontsideratzen du. Polinesiarren «manaz» hitz egiten zaigu, zeinaren analogoa izen desberdinen azpian agertzen baita: «wakanda» bezala siouxen artean, «orenda» bezala irokiarren artean, «pantang» bezala malaiarren artean, eta abar. Batzuen ustez, «mana» bizi-printzipio unibertsal bat litzateke eta, gure hizkuntzaz hitz egite-ko, arimen substantzia eratuko luke. Beste batzuentzat, indar gehitu bat areago litzateke, zeina arimak, beste edozein gauza bezala, haute-man ahal izango bailuke, baina era esentzialean bere izango ez lukee-na. Durkheimek, lehen hipotesian arrazoitzen duela dirudienak, «manak» printzipio totemikoa ematen duela uste du, zeinaren komu-nioan esku hartuko bailukete leinukideek; bestalde, arima «totema-ren» zuzeneko banakotze bat izango litzateke eta «manan» bitarteka-ri horren bidez esku hartuko luke. Guri ez dagokigu bi interpretazio desberdin horien artean hautua egitea. Termino orokorretan, ez zaigu erraza gertatzen primitibo kontsideratzea, natural, esan nahi dugu, gaur era naturalean ere eratuko ez genukeen errepresentazio bat. Uste dugu primitiboa izan zenak ez diola halakoa izateari utzi, nahiz eta

beharrezko izan hura berriz aurkitzeko barne-sakontzezko ahalegin bat. Baina edozein formaren pean hartzen delarik ere delako errepresentazioa, ez dugu inolako zailtasunik onartzeko indar-metaketa baten ideia, zeinatik aterako bailukete izaki bizidunek berena, eta baita objektu bizigabe ugari ere, espirituak aurkitzen duen lehenetako bat da bere aurrean halako joera, natural eta elemental bati jarraitzen diotenean, zeina geroago definituko baitugu. Eman dezagun lortutzat nozio hori. Hona hemen gizakia geroago arima deituko denaz hornitua. Bizirik iraungo al dio arima horrek gorputzari? Ez legoke inolako arrazoirik hori uste izateko berari bagengozkio, era berean ezerk esaten ez duen bezala «mana» bezalako botere batek bere baitan daukan objektuak baino luzeago iraun behar duenik. Baina gorputzaren itzala irauten duen printzipioa dela suposatzetik hasi bagara, ezerk ez du eragotziko jarduteko indarra gorputzari ezartzen zion printzipioa hor uztea. Horrela itzal aktibo, eraginkor, giza gertaeretan eragiteko gai dena lortuko dugu. Horretan datza bizirik irautearen kontzepzio primitiboa.

Eragiten duen influentzia, bestalde, ez litzateke handia arimaren ideia espirituarenari batuko ez balitzai. Hori beste joera natural batetik dator, zeina ere determinatu egin beharko baitugu. Eman dezagun hori ere ezarritzat, eta konstata dezagun bi nozioen artean trukeak obratuko direla. Naturan edonon presentetzat suposatzen diren espirituak ez lirateke hainbeste giza formara hurbilduko jadanik arimak horrela errepresentatuko ez bagenitu. Bestalde, gorputzetatik bereizitako arimek ez lukete influentziarik fenomeno naturalen gain espirituen genero bereko, eta, gutxi-asko, haien artean kokatzeko gai ez balira. Hildakoak, orduan, kontuan hartu beharreko pertsonaia bihurtuko dira. Kalte egin dezakete. Mesede egin dezakete. Neurri bateraino, naturako indarrak deitzen ditugun horien jabe dira. Zentzu propioan eta figuratuan, euria eta eguraldi ona eragiten dituzte. Uko egin beharko zaio haiek sumintzen dituen egiteari. Haien konfiantza irabazten saiatu beharko da. Mila bitarteko imajinatuko dira haiek irabazteko, erosteko eta atzipetu ere egiteko. Bide hori hartu orduko, ia ez dago absurdorik, zeinean adimena ezin baitaiteke eror. Funtzio fabulatzaileak jadanik aski ongi lan egiten du bere kabuz. Zer ez ote du egingo beldurrak eta beharrizanak eztenkatzen badu! Arriskua aldendu edo mesedea lortzeko, berak nahi duela uste dugun guztia

eskainiko zaio. Buruak moztera ere iritsiko da, hori atsegin bazaio. Misiolarien kontakizunak horri buruzko xehetasunez beteak daude. Umekeriak, munstrokeriak, giza ergelkeriak hemen asmaturiko jardueren zerrenda amaigabea da. Gauza horiek bakarrik ikusiko bage-nitu, gizadiari nazka hartzera makurtuak sentituko ginateke. Baina ez da ahaztu behar gaur eguneko edo atzoko primitiboek, gu adina mende bizi izanik, aski denbora izan dutela joera elemental, aski natu-raletan irrazionaletik egon zitekeena bapikatu eta sumintzeko. Egiazko primitiboak zentzudunagoak ziren zalantzarik gabe, joerari eta berehalako efektuei bazegozkien. Dena aldatzen da, eta lehenago esan dugunez, aldaketa gainaldean gertatuko da sakonean obratzerik ez badago. Badira aurrera egiten duten gizarteak, halako baldintza desfaboragarri batzuegatik bizi izateko ahalegin jakin bat egitera beren burua beharturik ikusi izan dutenak seguraski, eta, orduan, noi-zean behin, beren ahalegina areagotzea onartu dutenak hasiera-email-e, asmatzaile edo gizaki goren bati jarraitzeko. Aldaketa kasu horre-tan intentsitate-hazkuntza bat da; haren norabidea iraunkor samarra da eta gero eta eraginkortasun handiago batera goaz. Bestalde, badira beren maila derrigor apalagoari eusten dioten gizarteak. Nola horiek edozein modutara aldatzen diren, horietan ez da areagotzerik gerta-tzen, zeina aurrerakuntza kualitatibo bat izango bailitzateke, baizik primitiboki emanaren biderkatze edo bapikatzea: asmakuntzak, orain-dik termino hori erabiltzerik badago, ez du ahaleginik eskatzen. Beharrian bati erantzuten zion sineste batetik, kanpotik aurrekoaren antza duen beste sineste batera, azaleko izaeraren bat areagotzen due-nera igaroko da, baina jadanik ezertarako balio ez duen batera. Une horretatik, pausoa markatuz, gehitu eta etengabe hedatzen da. Errepikatzearen eta bapikatzearen efektu bikoitzaren bidez, irraziona-la absurdo bihurtzen da eta estrainioa munstrozko. Bestalde, hurrenez hurreneko hedapen horiek norbanakoe ere egin behar izan dituzte, baina hemen jadanik ez zegoen nagusitasun intelektualaren premiarik asmatzeko, ezta asmakuntza onartzeko ere. Aski zen absurdoaren logika, logika horrek gero eta urrunago gidatzen du espiritua, gero eta ondorio nabarmenagoetara, ideia estrainio batetik abiatzen denean estrainiotasuna azaltzeko eta ugalketa ekiditeko gai den jatorri bateki-ko lotura aipatu gabe. Denok izan dugu oso baturik eta bere buruare-kin oso pozik dauden familia horietakoren batekin topo egiteko auke-ra, zeinek herabez edo destainaz, bakaturik baitiraute. Ez da arraroa

horietan ezohiko jarrera jakin batzuk, fobiak edo superstizioak naba-ritzea, zeinak larriak izatera irits baitaitezke ontzi itxian hartzitzen jarraituz gero. Singulartasun horietako bakoitzak badu bere jatorria. Familiako halako edo bestelako kide bati etorri zaion ideia bat da, eta gainerakoek fidatuki onartu dutena. Igande batean egindako paseoa bat da, eta hurrengo igandean errepikatutakoa, eta harrezkero urteko igande guztietarako ezarrita gelditu dena: zoritxarrez behin egiteari utziko balitzaio, inork ez daki zer gerta litekeen. Errepikatzeko, imitatzeke, konfiatzeko, aski da eramaten uztea; kritikak eskatzen du ahalegina. – Har itzazue orduan ehunka mende batzuk urte banaka batzuen ordez, gehitu neurri handi batean bakartzen den familia baten nabarmenkeriatxoak: zailtasunik gabe irudikatu ahal izango dituzue gizarte primitiboetan gertatu bide dena, zeinak egon baitira itxita eta beren zoriaz pozik kanpora leihoak ireki, bere eguratsean sortzen ziren heinean miasmak kanporatu, eta etengabe bere ostertza hedatzeko ahalegin jarraitua egin ordez.

Erlijioaren bi funtzio esentzial determinatu berriak ditugu, eta geure analisisian zehar joera elementalak aurkitu ditugu, zeinek erlijioak hartu dituen forma orokorrak azaldu behar baitituzte gure ustez. Goazen orain forma orokor horiek, joera elemental horiek aztertzerara. Gure metodoa, noski, lehengo bera izango da orain ere. Halako jarduera intuituzko bat dagoelakotik abiatzen gara; orduan adimena sorraraziz, ikertzen dugu ea hartatik nahaste arriskutsurik datorren; kasu horretan, oreka berrezarri egingo da, seguraski, intuituak adimen nahastailearen baitan sorrarazitako errepresentazioen bidez: erre-presentazio horiek existitzen badira, ideia erlijioso elementalak dira. Horrela, bizi-bulkadak ez daki heriotzaren berri. Adimena haren presiopean sortzen bada, heriotzaren saihestezintasunaren ideia agertuko da: biziari bere bulkada emateko, errepresentazio antagoniko bat altxatzen da, eta hartatik sortuko dira heriotzari buruzko sineste primitiboak. Baina heriotza *par excellence* ezbeharra bada, beste zenbat ezbeharren arriskupean ez ote dago giza bizia! Agian biziari adimena aplikatzeak berak ez al dio irekitzen atea aurreikusigabeari, eta ez al du arriskuaren sentimendua sartzen? Animalia seguru dago bere buruaz. Xedea eta egintzaren artean, ezer ez da harengan tartejartzen. Bere harrapakina agertzen bada, oldartu egiten zaio. Ataizean badago, bere itxarotea egintza aurreratua da eta, osotasun banatugabea eratuko

du burutzen ari den egintzarekin. Behin betiko xedea urrun badago, erleak bere erlauntza eraikitzen duenean bezala, animaliak ezagutzen ez duen xede bat da. Objektu bitartegabea bakarrik hautematen du, eta kontzienteki hartzen duen bulkada betetzeko asmoa duen egintzarekiko hedadurakidea da. Baina esentzial zaio adimenari bitartekoak konbinatzea xede urruneko bat lortzeari begira eta burutzeko erabat gai sentitzen ez den hari ekiteko. Egiten duenaren eta lortu nahi duen emaitzaren artean bada, gehienetan, nola espazioan hala denboran, akzidenteari leku zabala uzten dion tarte. Adimena hasi egiten da, eta beharrezkoa da buka dadin, adierazpen sagaratuaren arabera, inguruabarrak horretarako prest egotea. Gainera, izan dezake aurreikusigabeko tarte horren ezagutza betea. Bere gezia jaurtitzen duen basatiak ez daki jopuntua atzemango duen: kasu horretan ez dago jarraitasunik keinua eta emaitzaren artean, animalia harrapakinari oldartzen zaionean bezala. Hutsarte bat agertzen da, akzidentera irekia, aurreikusigabea erakartzen duena. Zalantzarik gabe, horrek ez luke horrela izan behar teorian. Adimena materiaren gain mekanikoki jarduteko egina dago; horrela, bada, mekanikoki errepresentatzen ditu gauzak, mekanismo unibertsala postulatu du eta zientzia bukatua kontzebitzen du birtualki, zeinak ahalbidetuko bailuke aurreikustea, egintza hasten den unean, bere helmugara heldu aurretik aurkituko duen guztia. Baina horrelako ideal baten esentziakoa da inoiz ez burutzea eta, gehienez ere, estimulagarri gisa zerbitzatzea adimenaren lanari. Izatez, giza adimena oso inperfektuki ezagutzen duen gai baten gain egintza oso mugatu bati atxiki behar zaio. Alabaina, bizi-bulkada hor dago, itxaroterik onartzen ez duena, eragozpenik ametitzen ez duena. Gutxi axola zaio akzidentea, aurreikusigabea eta, azken batean, bidean zehar indeterminatutik dagoena; jauzika aritzen da eta, bulkadak tarte bakoi-tza irensten duen bitartean, hark ez du bukaera baizik ikusten. Hala ere, beharrezko da adimenak ezagutza izan dezan aurrerapen horretaz. Izan ere, errepresentazio bat sortuko da, kausa naturalei gainezarriko litzaizkiekeen edo haiek ordeztuko lituzketen potentzia faboragarriena eta naturalki hasitako egintza luzatuko dutenak haiek nahi izandako egintzatan, gure desiren arabera. Mekanismo bat jarri dugu abian, hona hemen bere hasiera; mekanismoa berragertu egingo da nahi izandako efektuaren burutzapenean: hona hemen amaiera: bataren eta bestearen artean arrakastaren berme estramekanikoa sartuko litzateke. Egia da: guk arrakasta izan dezagun interesatzen diren potentzia adis-

kideak irudikatzen ditugun bezala, adimenaren logikak eskatuko du kausa antagonikoen, potentzia desfaboragarrien existentzia guk suposatzea, zeinek azalduko baitute gure porrota. Azken sineste horrek, gainera, badu baliagarritasun praktiko bat, gure jarduera zeharka estimulatuko baitu, erne egotera gonbidatuz. Baina hori deribatua da: ia dekadentea esango nuke. Kontra jartzen den indar baten errepresentazioa doi-doi ondorengoa da, zalantzarik gabe, laguntzen duen indar batekiko; hori naturala bada, bestea hartatik eratorria da bitartegabeko ondorio gisa, eta batez ere gizarte estankatuetan ugaltu bide da, gaur primitibo deitzen ditugun bezalakoetan, zeinetan sinesteak amaigabeki biderkatzen baitira bide analogikoz, haren jatorria kontuan izan gabe. Bizi-bultzada baikorra da. Hartatik zuzenean irteten diren erre-presentazio erlijioso guztiak, beraz, era berean defini litezke: *naturaren defentsazko erreakzioak dira, adimenak eginak, errepresentazioaren aurka, aurreikusigabearen marjina desadoregarri batena, hartuta-ko ekimenaren eta efektu desiratuaren artean.*

Gutako edonork, nahi badu, egin dezake saioa: superstizioa bere begien aurrean, arrakasta-nahitik nola jaiotzen den ikusiko du. Ezarri diru-kopuru bat erruletako zenbaki batean eta itxaron bola karreraren amaierara iritsi arte: iritsi behar duen unean, agian, bere ezbaiak gorabehera, zuek aukeratu duzuen zenbakira, zuen eskua aurreratu egiten da bultza egiteko, gero geldiarazteko. Zuen nahimena bera da, zuengandik kanpora proiektatuz, hartutako erabakiaren eta itxaroten duen emaitzaren arteko tarte bate behar duena, horrela ezbeharra ezabatuz. Ibili orain sarri joko-aretoetan, utzi ohituraren indarrari jarduten, eta laster uko egingo dio zuen eskuak higitzeari, eta zuen nahimena bere buruaren barnera bilduko da; baina nahimenak bere lekua utziz doan neurrian, beste entitate bat instalatzen da han, zeina hartatik jariatzen baita eta zeinak hartatik delegazio bat hartzen baitu: zoria da, zeinean itxuraldatzen baita ideia aurrekontzebitua. Zoria ez da pertsona oso bat: dibinitate bat sortzeko zerbait gehiago behar da. Baina haren elementuetako batzuk baditu, kontuan har deza-zuen behar beste dituen.

Gisa horretako potentziari dei egiten dio basatiak bere geziak jopuntua uki dezan. Bilakaera luze baten aldiak gaindi itzazue: hiria-
ren jainko babesleak izango dituzue, gudukariei garaitzapena segurtat-
tu behar dietenak.

Baina kontuan izan kasu guztietan bitarteko arrazionalen bidez jartzen ditugula gauzak abian, kausa eta efektuen kateatze mekanikolari erreparatuz. Gure baitan dagoena egitetik hasten gara; geure buruari laguntzeko gai sentitzen ez garenean bakarrik jotzen dugu potentzia estramekanikora, nahiz eta hasieratik beretik bere deipean ezarrita eduki –presente zegoela uste baikenuen– egintza, zeinetatik ez baikenuen geure burua dispentsaturik sentitzen. Baina kasu horretan psikologoa engaina dezakeena da, aipatzen den bakarra bigarren kausalitatea izatea. Lehenaz ez da ezer hitz egiten, zeren ulertutzat ematen baita. Materia instrumentutzat harturik burutzen diren egintzak arautzen ditu; hartan dugun sinestea jokatzen eta bizi izaten dugu; zertarako balioko luke hitzetara itzultzeak eta bere ideia esplizitatzeak? Alferrikakoa izango litzateke, hartatik etekina ateratzeko gai den zientzia bat edukiko ez balitz. Aitzitik, atseгина da bigarren kausalitatean pentsatzea, zeren, gutxienez, hartan hatsa eta estimulua aurkitzen baitira. Baldin eta zientziak ez-zibilizatuari dispositibo bat eskuratuko balio arteskarra jotzea matematikoki segurtatuko liokeena, kausalitate mekanikoa bakarrik hartuko luke kontuan (bat-batean aztura mental zahartuei uko egiteko gai dela suposatuz, noski). Zientzia horren zain, bere egintzak ahal duen guztia ateratzen du kausalitate mekanikotik, zeren egitez arkua teinkatu eta destatu egiten baitu; baina bere pentsamenduak areago jotzen baitu kausa estramekanikora, zeinak gidatu behar baitu gezia beharrezkoa denera, zeren hartan duen sinesteak emango baitio, bere xedea lortzeaz ziur egongo litzatekeen armarik ez izatean, hobeki destatzea ahalbidetzen dion bere bururekiko konfiantza.

Giza jarduera gertaeren artean destolestean da, zeinen gain baitu eragina, eta zeinen baitan ere baitago. Horiek partez aurreikusgarriak dira, eta neurri handi batean aurreikusezinak. Gure zientziak gero eta gehiago zabaltzen duenez gure aurreikuspenaren eremua, azken finean, zientzia integral bat kontzebitzen dugu, zeinentzat ez bailegoke aurreikusezintasunik. Arrazoi horrengatik, gizaki zibilizatuaren pentsamendu gogoetazkoaren begietan (ikusi behar dugu hori ez dela erabat horrela bere errepresentazio berezkorako), kausa eta efektuen kateakuntza mekaniko berak, zeinarekin ukipenean jartzen baita gauzen gain diharduenean, unibertsoaren osotasunerara hedatu behar du. Ez du ametitzen jazoerei dagokien sistema azaltzaileak, zeinen gain hel-

mena baitu, bere lekua utzi behar duenik, urrunago, sistema zeharo desberdin batera joatera ausartzen denean; gizarte-bizitzan berak erabiltzen duen sistema da hori asmo on edo txarrei, adiskidekor edo etsaikorrei beste gizaki batzuen portaera berak egozten dienean. Hori egiten badu ezjakinean da, eta ez dio bere buruari aitortzen. Baina ez-zibilizatuak, zientzia hedaezinaren, materiaren gain eragiten duen egintzaren neurri zehatzera eginaren jabe bakarrik denak, ezin du utzi aurreikusezinaren eremuan erabat estaliko lukeen zientzia birtual bat eta zeinak berehalaxe ikuspegi zabalak irekitzen baitizkio bere askonahiari. Adorea galdu beharrean, eremu horretara hedatzen du bere kideekiko harremanetan erabiltzen duen sistema azaltzailea, botere adiskideak aurkitzen dituelakoan eta influentzia gaizkileen arriskupean dagoelakoan. Edozein kasutan, erabat estrainioa zaion mundu batekin ez dio aurre egin beharko. Jakina, iratxo on eta gaiztoek berak materiaren gain eragiten duen egintza jarraitu behar badute, egintzaren beraren gain eragina duten irudipena izango da. Gure gizakiak hitz egingo du, bada, kausa eta efektuen kateatze mekaniko batekin inoiz kontatuko ez balu bezala, ezta bere baitan daukan heinean ere. Baina kateatze mekaniko horretan sinetsiko ez balu hemen, ez guke ikusiko, jardun diharduenean, beharrezko guztia mekanikoki egiten emaitza eragiteko. Alabaina, basatiak zein zibilizatuak izan, gizaki batek pentsatzen duenaren barrena jakin nahi bada, egiten duena hartu behar da kontuan, eta ez esaten duena.

«Mentalitate primitibo»ari eskaini dizkion liburu interesgarri eta irakasgarrietan, Lévy-Bruhl jaunak azpimarratzen du «mentalitate horren bigarren kausekiko axoleza» eta «kausa mistikoetara» berehalaxe jotzea. «Gure eguneroko jarduerak, dio, natur legeen aldaezintasunean konfiantza lasai eta perfektua inplikatzeko du. Ongi desberdina da primitiboaren jarrera espirituala. Natura, zeinaren erdian bizi baita, oso itxura desberdin baten pean ageri zaio. Hartan objektu guztiak eta izaki guztiak inplikaturik daude partaidetza eta eskusio mistikozko sare batean.⁷». Eta aurreraxeago: «Errepresentazio kolektiboetan aldatzen dena indar ezkutuak dira, zeini gaixotasuna edo heriotza egozten baitzaizkie; belagin bat dela erruduna, hildako baten espiritua, indar gutxi-asko definitu edo banakotuak...; beti antzekoa dena eta ia identiko esan liteke, gaixotasuna eta heriotzaren arteko erlazio baten aurre-existentzia da, alde batetik, eta botere ikusezin baten existen-

tzia, bestetik»⁸. Ideia horren alde autoreak bidaiarien eta misiolarien lekukotasun adostuak aipatu eta adibiderik bitxienak ematen ditu.

Baina bada lehen puntu bat harrigarri bat: aipaturiko kasu guztietan, hitz egiten ari garen kausa eta primitiboak kausa ezkutuko bati egozten diona, gizakiarekin zerikusia duen jazoera bat da, zehatzago, gizaki bati gertaturiko ezbehar bat, eta zehatzago oraindik, gizaki baten heriotza edo gaixotasuna. Inoiz ez da izaten bizigabeak bizigabearen gain duen egintza, fenomeno meteorologiko edo beste mota batekoa ez bada behintzat, zeinean gizakiak, nolabait esateko, interesen bat eduki baitezake. Ez zaigu esaten primitiboak, haizea zuhaitz bat kurbatzen ikustean, edo uhina harbilak piririkarazten eta bere oin propioari hautsa altzarazten, kausalitate mekanikoa deitzen dugunaz aparteko ezer esku harrarazten duenik. Bi kasuetan, aurrekariaren eta ondorengoaren artean hautematen duen erlazio iraunkorrek ezin du harritu gabe utzi. Kasu horietan aski du erlazio horrekin, eta ez dugu ikusten kausalitate «mistiko» bat gehitzen dionik, eta gutxiago oraindik horretaz ordeztzen duenik. Goazen urrunago eta utz ditzagun alde batera gertakari fisikoak, zeinetan gizaki primitiboak ikusle axolagabe gisa esku hartzen baitu: ez ote dago esaterik horretaz ere «bere eguneroko jarduerak erabateko konfiantza inplikatzeko duela natur legeen aldaezintasunean?». Hori gabe ez luke ibaiaren korrantearekin kontatuko bere kanoa eramateko, ezta arkuaren tentsioarekin ere gezia jaurtitzeko, aizkorarekin zuhaitz-enborra ebakitzeko, bere hortzekin hozka egiteko edo bere zangoekin ibiltzeko. Baliteke era esplizituan ez errepresentatzea kausalitate natural hori, eta ez du inolako interesik hori egiteko, zeren ez baita fisikaria, ez filosofoa, baina fedea du horretan eta bere jardueraren euskarritzat hartzen du. Goazen oraindik urrunago: gizaki primitiboak kausa mistiko bati dei egiten dionean heriotza, gaixotasuna edo beste edozein ezbehar azaltzeko, zein da zehatz-meatz atxikitzen zaion eragiketa? Adibidez, ikusten du gizaki bat hilik erortzen dela ekaitz batean jaulki den harkaitz-zati batek jota. Ukatu egiten al du ordurako arrakalaturik egon izana, haizeak harria erauzi izana, kolpeak garezurra hautsi izana? Ez, noski. Guk bezala egiaztatzen du kausa sekundario horien egintza; alabaina, zergatik sartzen du kausa mistiko bat, adibidez espiritu baten edo belagin baten nahimena, kausa nagusi bihurtzeko? Begira diezaiogun horri hurbilagoetik eta ikusiko dugu kasu horretan primitiboak kausa «supernatural» baten bidez

azaltzen duena ez dela efektu fisikoa, baizik bere *giza esanahia*, giza-kiarentzako bere garrantzia eta, berezikiago, halako gizaki jakin baten-tzakoa, harkaitza zapaldu duenarentzakoa. Ez dago horretan ezer ilogikorik, ondorioz, ezta «aurrelogikorik» ere, ezta «esperientziarekiko iragaizkaiztasuna» adierazten duen ezertxo ere, kausa bat bere efektuarekiko proportzionatua izan behar duelako sinestean, eta harkaitza-ren pitzadurak egiaztatu ondoren, haizearen norabidea eta bortxa –gauza erabat fisikoak eta gizatasunarekiko axolezak–, guretzat funtsezkoa den gertakari hori gelditzen da azaltzeko, gizaki baten heriotza. Kausak era gorenean dauka bere baitan efektua, zioten antzina filosofoek; eta efektuak giza esanahi nabarmena baldin badu, kausak gutxienez pareko esanahi bat izan behar du gutxienez, eta, edozein kasutan, ordena berekoa da: *asmo* bat da. Zalantzarik gabe, espirituaren hezkuntza zientifikoak baztertu egiten du horrela arrazoitze ohi-tura, baina modu hori da naturala, iraun egiten du gizaki zibilizatuare-gan eta agertu egiten da indar antagoniko batek esku hartzen ez duen guztietan. Adierazten genuen erruletako zenbaki baten alde jotatzen duen jokalaria, arrakasta edo porrota zoriari edo ezbeharrari egotziko diola, hau da, asmo faboragarri edo desfaboragarri bati: hala ere, ez dio utziko kausa naturalen bidez azaltzeari dirua ezartzen duen unetik hasi eta bola gelditzen den unea arte gertatzen den guztia, baina kau-salitate mekaniko horrek gainezarri egingo du, azken finean, hautu erdi-borondatezkoa berearekin jokoa egingo duena: azken efektua horrela garrantzi berekoa izango da eta lehen kausaren ordena bere-koa, zeina era berean hautu bat izan baitzen. Bestalde, atzematen dugu hain logikoa den arrazoiketa horren jatorri praktikoa ikusten dugune-an jokalaria higidura-keinada bat egiten eskuaz bola geldiarazteko: bere arrakasta-nahimena da, nahimen horrekiko erresistentzia zori onean edo zori txarrean objektibatuko duena aldekoa edo etsaia den botere baten aurrean aurkitzeko eta jokoari bere interes guztia emate-ko. Baina are deigarriagoa da oraindik gizaki zibilizatuaren eta primi-tiboaren mentalitatearen arteko antza kontsideratu berriak ditugun ger-takariei dagokienean: heriotza, gaixotasuna, ezbehar larria. Gerra Handian esku hartu zuen ofizial batek zioen beti ikusi zuela soldaduak beldur handiagoa ziola balari obusari baino, nahiz eta artilleriako tiroa askozaz hilgarriagoa izan. Balarekin miragunean sentitzen da norbera eta, hura gorabehera, honako arrazoiketa egiten da: «efektu hau eragi-teko, niretzat hain garrantzizkoa dena, heriotza edo zauria larria izan-

go litzatekeena, garrantzi bereko kausa bat behar da, asmo bat behar da». Obus-kasko batek, hain zuzen ere, harrapatutako soldadu batek kontatu zigun bere lehen erreakzioa « A zer lelokeria!» oihu egitea izan zela. Indar mekaniko hutsez proiektaturiko obus-kasko hori, edozein harrapa zezakeena edo inor harrapa ez zezakeena, hala ere, bera zauritzera etorri izana eta ez beste inor, ilogikoa gertatzen zen bere adimen espontaneoarentzat. «Zori txarra» esku harraraziz oraindik hobeki agertuko zukeen adimen espontaneo horren ahaidetasuna mentalitate primitiboarekin. Materiaz hain kargaturiko errepresentazio bat belagin edo espiritu batena bezalakoak zalantzarik gabe bertan behera utzi behar du bere edukiaren parterik handiena «zori txarra»rena bihurtzeko, baina hala ere iraun egiten du, ez dago erabat hustua, eta beraz, bi mentalitateak ez dira elkarren artean esentzialki desberdintzen.

Lévy-Bruhl jaunak «mentalitate primitiboaz» bere obretan metatu dituen adibide hain desberdinak halako epigrafe-kopuru baten pean taldekatzen dira. Ugarienak, egilearen arabera, ezer ustekabekorik ez onartzeko primitiboak duen seta agerian jartzen dutenak dira. Harri batek erori eta bidazti bat zapaltzen badu, espiritu gaizkile batek jaurti duelako da: ez da zoria. Kaiman batek gizaki bat bere kanoatik erauzi badu, sorgindua izan delako da. Gerrari bat lantzak hil edo zauritzen badu, hori geldiarazteko egoeran ez zegoelako da haren aurka malefizio bat bota dutelako; ez dago zoririk⁹. Formula hori hain sarri agertzen da Lévy-Bruhl jaunarengan, non mentalitate primitiboaren ezaugarri esentzialesak baten adierazgarritzat har daitekeen. – Baina, esango diogu filosofo gailenari, zorian ez duela sinesten primitiboari aurpegiratzean, edo, gutxienez, bere mentalitatearen ezaugarri karakteristikotzat hartan ez duela sinesten behatzean, ez al duzu onartzen zoria badagoela? Eta hori onartzean, ziur al zaude kritikatzeko ari zaren mentalitate primitibo horretan ez zarela berriz erortzen eta, zeina, edozein kasutan, esentzialki zeuretik bereizi nahi baituzu? Argi eta garbi ulertzen dut zuk ez duzula zoria indar aktibo egiten; baina zuretzat ezertxo ere ez balitz ez zenuke hartaz hitz egingo. Ez-existenteztat edukiko zenituzke hitza zein gauza. Alabaina, hitza existitu egiten da, zuk erabili egiten duzu eta zerbait errepresentatzen du zuretzat, gu guztiontzat bezalaxe. Galdegin diezaiozun geure buruari zer errepresenta dezakeen. Haizeak erauzitako teila handi batek erori eta bidaztia hiltzen du. Zoria dela esaten dugu. Esango al genuke hori teila

lurraren kontra hautsiko balitz besterik gabe? Agian bai, baina orduan bertan aurki zitekeen gizakiarengan lausoki pentsatuko genukeelako, edo arrazoi batengatik edo beste batengatik, espaloiairen gune jakin hori era berezian interesatzen zitzaigulako, halako moldez, non badi-rudien teilak huraxe *hautatu* duela bertan erortzeko. Bi kasuetan zoria agertzen bada giza interes bat jokoan dagoelako da eta gizakia kontuan hartu izan balitz bezala gauzak gertatu direlako¹⁰, bai zerbitzuren bat emateko, edo, areago, kalte egiteko asmoarekin. Ez ezazu pentsa haizeak erauzten duen teilan baizik, espaloira erortzen den teilan, teilak lurraren kontra egiten duen tupustean, eta mekanismoa besterik ez duzue ikusiko: zoria ezabatu egiten da. Esku har dezan beharrezkoa da efektuak giza esanahi bat izatea eta esanahi hori kausaren gainean erortzea eta, nolabait esateko, gizatasun-tindu bat horri ematea. Zoria, beraz, asmo bat balu bezala portatzen den mekanismoa da. Agian esango da, hain zuzen ere, asmoa egon izan *balitz bezala* gauzak gertatzen direnean hitza erabiltzen dugulako, ez dugula asmo erreal bat suposatzen orduan, baizik eta alderantziz, dena mekanikoki azaltzen dela berrezagutzen dugula. Eta hori oso justua izango litzateke gogoetazkoaz, erabat kontzienteaz aparte, beste pentsamendurik existituko ez balitz. Baina horren azpitik pentsamendu espontaneo eta erdi-kontziente bat dago, kausa eta efektuen kateatzeari zeharo bestelako zer-bait gainezartzen diona, ez noski teilaren erorketaren berri emateko, baizik erorketa bat etorri dela gizaki bat igarotzearekin, hain zuzen une hori hautatu duela. Hautespen- edo asmo-elementua ahalik eta mugatuena da; atzera egiten du gogoetak atzeman nahi duen neurrian; iheskorra da eta ezabakorra ere bai, baina existituko ez balitz mekanismoaz baizik ez genuke hitz egingo, ez genuke zoriaz galdegingo. Zoria, beraz, bere edukiaz hustu den asmo bat besterik ez da. Itzala besterik ez da, baina formak hor dirau, materiari ezean. «Errealki primitibo» deitzen ditugun eta joera natural baten indarrez gizadiak espontaneoki sorturiko errepresentazio horietako baten aurrean al gaude hemen? Ez erabat. Nahi bezain espontaneo delarik ere, zoriaren ideia ez da iristen gure kontzientziara metaturiko esperientzien estratua zeharkatu gabe, zeinak gizarteak ezartzen baititu gudan hitz egiten irakasten digun egunetik. Ibilbide horretan bertan husten da bere zentzuaz, eta gero eta zientzia mekanizistago batek kanporatu egiten du hartatik bere baitan helburuzkotik zeukana; beraz, bete egin beharko litzateke, gorputza eman, baldin eta jatorrizko errepresenta-

zioa berreraiki nahi bada. Asmoaren fantasma asmo bizi izatera iritsiko litzateke orduan. Alderantziz, asmo bizi horri eduki gehiegi eman beharko litzaioke, materialiaz exageratuki bete, entitate gaizkile edo ongileak lortzeko, zeinetan pentsatzen baitute gizaki ez-zibilizatuak. Inoiz ez dugu behar adina errepikatuko: superstizio horiek loditze bat, trinkotze bat inplikatzan dute eskuarki; hitz batean, zerbait karikaturazkoa. Oro har, adierazten dute bitartekoa bereizi egin dela bere xedetik. Sineste bat printzipioz baliagarria, nahimena estimulatzeko gai dena, bere izateko arrazoia zuen objektutik objektu berrietara garraiatua izango da, zeinetan ez baitu ezertarako balio, eta zeinetan arriskutsu izateraino ere irits baitaiteke. Nagiki biderkaturik, erabat kanpokoa den bere buruaren imitazio baten indarrez, bere efektua orain nagikeria estimulatzean egongo da. Hala ere, ez dezagun bapikatu. Arraroa da gizaki primitiboa haren kausaz obratzetik salbuetsirik sentitzea. Kamerungo indigenek beretarren bat krokodiloak irentsi badu bakarrik jotzen dute belaginarengana; baina Lévy-Bruhl jaunak, gertakaria kontatzen digunak, gehitzen du, bidaiari baten lekukotasunean oinarrituz, herrialdeko krokodiloek ia ez diotela inoiz gizakiari erasotzen¹¹. Konbentzi gaitezen, krokodiloa eskuarki arriskutsua den tokietan, indigenak uko egiten diola, guk adinaxe, uretan sartzeari: animaliak orduan halako beldur bat eragiten diola, malefizioarekin edo bera gabe. Hori bezain egiazkoa da, «mentalitate primitibo» horretatik gureak ere izango liratekeen arima-egoeretara pasatzeko, ia beti bi eragiketa burutu behar direla: hasteko, gure zientzia guztia abolitutzat suposatu behar da. Gero, halako nagikeria batean murgildu behar da, arrazoizkoago susmatzen dugun baina adimenaren, eta batez ere nahimenaren, ahalegin handiago bat eskatuko lukeen azalpen bati uko eginez. Kasu askotan aski da eragiketa horietako bakar bat; beste batzuetan, biak konbinatu beharko ditugu.

Kontsidera dezagun, adibidez, Lévy-Bruhl jaunaren kapitulu-rik bitxienetako bat, gure su-armek, gure idazkuntzak, gure liburuek, hitz batean, guk eramandakoak primitiboengan sortutako lehen inpresioaz diharduena. Lehen une batean, inpresio horrek aztoratu egiten gaitu, eta izan ere gureaz bestelako mentalitate bati egozteko tentazioa sentituko genuke. Baina zenbat eta gehiago ezabatu gure espiritutik lortutako zientzia era mailakatuan eta ia inkontzientean, hainbat naturalago iritziko diogu azalpen «primitiboari». Hona hemen jendea, zei-

nen aurrean bidaiari batek liburu bat irekitzen baitu eta zeini esaten baitzaio liburu horrek informazioak ematen dituela. Jende horrek ondorioztatzen du liburuak hitz egiten duela eta, belarrira hurbilduz, haren soinua hautemango duela. Baina gure zibilizazioaz kanpoko gizaki batengandik besterik espero izatea gutako gehienena bezalako adimen bat baino askozaz gehiago eskatzea da, adimen goren bat baino ere gehiago oraindik, genioa baino gehiago: idazkuntza berrasma dezan nahi izatea da. Izan ere, primitiboak bere buruan errepresentatuko balu paper-orri batean hitzaldi bat ezartzearen ahalbidea, idazkuntza alfabetiko baten, edo orokorrako, fonetiko baten printzipioa izango luke; kolpe batean gizaki goren kopuru handi batek luzaroan metaturiko ahaleginei esker bakarrik zibilizatuok lortu dugun puntura helduko zatekeen. Ez dezagun hitz egin, bada, hemen gureaz bestelako espirituez, eta esan dezagun besterik gabe guk ikasitakoa ez dutela ezagutzen.

Badira kasuak, gehi dezagun guk, zeinetan ezjakintasuna ahaleginerako higuinarekin batera baitoa. Horrelakoak lirateke Lévy-Bruhl jaunak «gaixoen eskergabezia» epigrafepean sailkatu dituenak. Mediku europarrek artatuak izan diren primitiboek ez diete haiei inolako eskerronik erakusten; kontrara, sariren bat espero izaten dute medikuarengandik, zerbitzua egin dutenak beraiek balira bezala. Baina inolako ideiarik ez izatean gure medikuntzaz, ez dakitelarik zer den zientzia bat arteaz gainera, bestalde, medikua urrun dagoela gaixoa beti sendatzetik ikusirik eta, hitz batean, denbora eta ahalegina eskaintzen diola, nola ez dute, bada, sinetsiko medikuak interesen bat daukala, haientzat ezezaguna dena, egiten duen hori egiteko? Era berean, nola ez dute naturalki azalpen hori hartuko, bururatzen zaien lehen eta, zeinaz balia baitaitezke, beren ezjakintasunetik irteten saiatu ordez? Nik «Mentalitate primitiboa»ren egileari galdetzen diot, eta oso antzinako oroitzapen bat oroitaraziko dut, zeina, hala ere, gure adiskidetan zaharra baino doi-doi baita zaharragoa. Ni orduan haurra nintzen eta hortz-hagin txarrak neuzkan. Derrigor eraman behar izaten ninduten noizean behin dentistarengana, zeina bat-batean oldartzen baitzitzaion hortz errudunari eta gupidagabeki erauzten baitzuen. Gure arterako esanik, horrek ez zidan min handirik ematen, berez erortzera zihoazen hortzak baitziren; baina artean dentistaren besaulkian jarri gabe nengoela, nik ezintasunezko oihuak jaregiteari ekiten nion, has-

teko. Nire familiak ni isilarazteko modua aurkituko zuen azkenerako. Zaratarekin, eragiketaren ondoren ahoa garbitzeko erabiliko nuen edalontzian (garai hartan asepsia ez zen ezaguna), dentistak berrogeita hamar zentimoko txanpona jaurtitzen zuen, zeinaren erosmena orduan hamar karamelukoa baitzen. Nik ordurako banituen sei-zazpi urte, eta ez nintzen beste edozein haur baino leloagoa. Derrigor susmatu beharko nukeen dentista eta nire familiak konpontxo egin zutela nire isiltasuna erosteko, eta nire inguruko konspirazio hori nire onerako zela. Baina gogoeta-ahalegintxo bat beharko zatekeen, eta nik nahiago nuen hori ez egitea, nagikeriaz seguraski, agian baita higuina nion gizon baten aurrean –orain esan dezaket– neure jarrera ez aldatzeko ere. Horrela, bada, joaten uzten nion neure buruari pentsatu gabe, eta dentistaz egin behar nuen ideia berez marrazten zen nire gogamenean trazu argitsuekin. Bistan zegoen gizaki bat zela, zeinaren gozamenik handiena hortzak erauztean baitzegoen eta zeinarengatik berrogeita hamar zentimoko kopurua ordaintzeraino iristen baitzen.

Baina parentesi hau itxi eta laburbilduma bat egin dezagun. Kontsideratu berriak ditugun sinesteen jatorrian, adimenean sorrera izango lukeen abaildura baten aurkako naturaren defentsazko erreazio bat aurkitu dugu. Erreakzio horrek imajinak eta ideiak sorrarazten ditu, zeinek aurre egiten baitiote errepresentazio deprimigarriari edota horri aktualizatzea egozten baitiote. Pertsonalitate osoan izan beharrik ez duten entitateak sortzen dira, eta aski dute asmoak izatea edo horiekin bat etortzea bera ere. Horrela, bada, sinesteak esentzialki konfiantza esan nahi du; lehen jatorria ez da beldurra, baizik eta beldurraren aurkako segurtasuna. Eta, bestalde, sinesteak ez du lehenik objektutzat derrigor pertsona bat hartzen; aski du antropomorfismo partzial bat. Horiek dira harritzen gaituzten bi aspektuak gizakiaren jarrera morala kontsideratzen dugunean etorkizun baten aurrean, zein角度 adimenduna delako pentsatzen baitu hain zuzen ere, eta zeinaren kausarengatik alarमतuko bailitzateke, hartan aurreikusezinetik aurkitzen duenaren arrazoiz, adimen hutsak hornitzen dion errepresentazioari balegokio. Alabaina, horiek dira halaber egin daitezkeen bi egiaztapenak ere, etorkizunari buruzkoak ez diren, baizik presenteazkoak diren kasuetan, eta, zeinetan gizakia jostailu bihurtzen baita berea baino askoz indar handiagoen eskuetan. Gisa horretakoak dira perturbazio handiak, lurrikara, uholdea, urakana. Teoria jadanik antzi-

nako batek naturak kasu horietan sorrarazten digun beldurretik jaioarazten zuen erlijioa: *Primus in orbe deos fecit timor*. Urrunegi jo da erabat baztertzear; gizakiak naturaren aurrean sentitzen duen emozioak badu seguraski zerikusia erlijioen jatorriarekin. Baina, esan dezagun berriro ere, erlijioa ez da hainbeste beldurra nola den beldurraren aurkako erreakzioa, eta ez da bitartegabeki jainkoengan sinestea. Ez litzateke alferrikakoa hemen egiaztapen bikoitz hori egitea. Gure aurreko analisiak berretsi ez ezik, oraindik pertsona izan gabe pertsonalitatean esku hartzen dutela esaten dugun entitate horiek hurbilagoetik prezatzea ere ahalbidetuko digu. Mitologiako jainkoak horietatik sor zitezkeen; aberaste baten bitartez lortuko dira. Baina era berean aterako litzateke haietatik, txirotuz, gauzen barrenean, esan zaigunez, primitiboek ezartzen omen duten indar inpersonal hori. Jarrai dezagun, beraz, gure ohiko metodoa. Galde diezaiogun geure kontzientzia propioari, lortutako guztiaz gabetu ondoren, jatorrizko soiltasunera itzulirik, nola erantzuten dion naturaren eraso bati. Norberaren behaketa hemen oso zaila da jazoera larri horien bat-bateko izaerarengatik; sakon egikaritzeko dituen abaguneak, jakina, oso bakanak dira. Baina beste aro bateko inpresio batzuk, zeinez ez baitugu oroitzapen nahasia baizik gorde, eta, zeinak azaleko eta lausoak baitziren, agian zehaztu egingo dira, eta erliebe handiagoa irabaziko dute zientzia psikologikoko maisu batek bere buruaz egin zuen behaketarekin osatzen badiugu. William James Californian zegoen 1906ko apirileko lurrikara ikaragarria gertatu zenean, zeinak San Franciscoren zati bat suntsitu baitzuen. Hona hemen, hori zela-eta, idatzi zituen orrialde egiazki itzulezinen itzulpen ez-perfektu samar bat:

Harvard utzi nuenean Stanfordeko Unibertsitatara joateko, abenduan, azken «adioa», edo ez asko gutxiago, B*** nire kaliforniar adiskide zaharrarena izan zen: «Espero dut –esan zidan– zuri ere han zaudenean lurrikararen zatitxo baten oparia egingo dizutela, beraz kaliforniar instituzio berezi horrekiko ezagupidea egiteko aukera izan dezazun.»

Beraz, artean oheraturik nengoela, apirilaren 18ko goizaldeko bost eta erdiak aldera, Stanfordeko unibertsitate-hiriko nire apartamentutxoan, nire ohea dardarka hasi zela ohartu nintzen, nire lehen sentimendua higiduraren esanahia pozez berrezagutzea izan zen: «Tira, kontxo! –esan nion neure buruari. B***ren lurrikara zahar hori

duk-eta! Azkenean etorri duk!». Gero, *in crescendo* zihoanez gero: «Nork esan ! Lurrikara gisa ez zagok bat ere gaizki...!»

Hark guztiak ez zuen 48 segundo baino gehiago iraun, geroa-go Lickeko behatokiak jakinaraziko zigunez. Hori izan zen gutxi gorabera niri iruditu zitzadana, nahiz eta tarte luzeagoa izan zela uste izan zuenik ere izan. Nire kasuan, sentsazioa eta emozioa hain bortitzak izan ziren, non fenomenoak iraun zuen denboraldi laburrean tarte gutxi izan bainuen pentsamendurako, eta gogoetarik batere ez eta nahirik batere ez.

Nire emozioa dena poz eta miresmen handikoa zen: poz handia, ideia «lurrikara» bezalako abstraktu bat, hitz-konbinazio huts bat hartzeko gai zen bizi-intentsitatearengatik errealitate sentigarri bihurtu eta egiaztapen konkretu baten objektu bilakatu ondoren; miresmena, zurezko etxetxo bat halako astinaldiari eusteko gai zelako. Beldur-izpirik ere ez: bakarrik, atsegin muturrekoa, neure ongietorria emateko gogoarekin.

Ia oihu egiteraino iritsi nintzen: «Baina segi, segi ezak *indar gehiagorekin!*»

Pentsatu ahal izan nuenean, fenomenoaren aurrean nire kontzientziak egin zuen harreran atzera begira modalitate erabat bereziak bereizi nituen. Zerbait espontaneo zen eta, nolabait esateko, ezinbestekoa eta erresistiezina.

Lehenik, lurrikara entitate iraunkor eta indibidual batean pertsonifikatu nuen. B*** nire adiskidearen iragarpeneko lurrikara *hura* zen, lasai egona zen lurrikara, aurreko hilabete guztietan bere burua erreprimitu zuen lurrikara, azkenean, apirileko goiz gogoangarri hartan, nire logela inbaditu eta hain era energiadun eta garaikorrezt bere burua baieztatzeko. Gainera, niregana jotzen zuen zuzenean. Barrura sartu zen, nire atzetik, eta logelan zegoela, beretzat nindukan, era kontzentzagarrian agertzeko. Animazioa eta asmoa sekula ez ziren aurkitu presenteago giza egintza batean. Sekula giza egintza batek ez zuen argiroago ikusten utzi, iturri eta jatorri gisa, agente bizi bat.

Galdetu nien guztiak orduan bat etorri ziren, gainera, beren esperientziako aspektu hori seinalatzean: «Asmo bat ageri zuen», «Makurra zen», «Suntsitzen ahalegindu zen», «Bere indarra erakutsi nahi zuen», eta abar, eta abar. Niri, bere *izenaren* esanahi betea adie-

razi besterik ez zidan egin nahi. Baina nor zen halako «hori»? Batzuentzat, agian, botere demoniako lauso bat. Niretzat, izaki bana-kotu bat, B***aren lurrikara.

Bere inpresioak jakinarazi zizkidaten pertsonetako batek mun-duaren amaieran aurkitzen zela uste izan zuen, azken judizioaren aurrean; San Franciscoko hotel batean ostatu hartzen zuen emakume bat zen, zeinari lurrikararen ideia kalean aurkitu zenean bakarrik burutu baitzitzaion eta azalpen hori ematen zutela entzun baitzuen. Bere interpretazio teologikoak beldurretik babestu egin zuela esan zidan, astinaldia patxadarekin hartzea ahalbidetu ziolarik.

«Zientzia»rentzat lur-azaleko tentsioak haustura-gunera iris-ten direnean eta estratuek modifikazio bat izaten dutenean beren oreka, lurrikara grakada guztien, astinaldi guztien, gertatzen diren perturbazio guztien izen kolektiboa besterik ez da: lurrikara dira. Baina, niretzat, lurrikara perturbazioen *kausa* zen, eta ikara hori agen-te bizi gisa hautematea erresistiezin gertatzen zitzaidan. Dena aurrean hartzen zuen konbikzio-indar dramatikoaren jabe zen.

Orain hobeki prezatzen dut zeinen saihestezinak ziren gisa honetako hondamendien antzinako interpretazio mitologikoak, eta zenbat duten artifizialetik, nola doazen gure hautemate espontaneoaren alderantzizko zentzuan, zientziak gugan hezkuntzaren bidez inprimitzen dituen ondorengo azturak. Hezigabeko espirituentzat ezinez-koa zen soilik lurrikararen inpresioak ohar edo santzio supernaturalez bestetara hartzea¹².

Kontuan izango da, hasteko, Jamesek lurrikaraz «izaki indibi-dualduaz» bezala hitz egiten duela; lurrikara «entitate iraunkor eta indibidual gisa pertsonifikatzen dela beretzat» konstatatzen du. Baina ez du esaten hartan –jainko edo demonio– pertsonalitate oso bat dago-enik, egintza desberdinetarako gai dena, eta zeinaren agerpen partiku-lar bat izango bailitzateke lurrikara. Aitzitik, aipatzen den entitatea fenomeno bera da, iraunkor gisa kontsideratua; bere agerpenak bere esentzia eskuratzen digu; lurrikara bat izatea beste funtziorik ez du; bada arima bat, asmoak egintzaz egiten duen animazioa dena¹³. Egileak esaten badigu «sekula giza egintza batek ez zuen argiroago ikusten utzi, iturri eta jatorri gisa, agente bizi bat», horrenbestez uler-tzen du asmoa eta «animazioa» lurrikararenak ziren itxura zutela, agente bizi batenak diren bezala, haien atzean kokatua, agente horrek

burutzen dituen egintzak. Baina kontakizun osoa agente bizia lurrikara bera dela agerian jartzera dator, ez dagoela beste jarduerarik, eta den hori bat datorrela egiten duenarekin. Gisa horretako entitate bat, zeinean izatea eta iruditzea gauza bera baitira, egintza jakin batekin nahasten dena, eta zeinaren asmoa inmanentea baita egintza horrekin berarekiko, bere diseinua eta esanahi kontzientea besterik ez delarik, horrixe deitzen diogu hain zuzen ere pertsonalitate-elementua.

Baina bada oraindik beste aspektu bat gure arreta erakartzeari utziko ez diona. San Franciscoko lurrikara hondamendi ikaragarria izan zen. Baina Jamesi, bat-batean arriskuaren aurrean kokatuari, halako ontasun-kutsu bat duela iruditzen zaio, familiartasunez tratatzea ahalbidetzen duena: «Kontxo!, lurrikara zahar hori duk!». Beste lekuko batzuen inpresioa antzekoa izan zen. Lurrikara «makurra» zen, bazuen bere ideia, «suntsitzen ahalegindu zen». Horrelaxe hitz egiten da harreman guztiak eten zaizkion alproja batekin. Geldiarazten duen beldurra indar ikaragarri eta itsu batzuk inkontzienteki gu suntsitzeko prest dauden pentsamendutik jaiotzen dena da. Horrela agertzen da mundu materiala adimen hutsaren aurrean. Lurrikararen kontzepzio zientifikoa, Jamesek bere azken lerroetan aipatzen duena, denetan arriskuetsuena izango da, zientziak, arriskuaren ikuspen argia ematen digunak, hartatik ihes egiteko bitartekoren bat eman ez digun bitartean. Kontzepzio zientifiko horren aurka, eta orokorrago, zehaztera etorri den errepresentazio intelektualaren aurka, defentsazko erreakzio bat gertatzen da arrisku larri eta bat-batekoaren aurrean. Topo egiten dugun perturbazioak, zeinetako bakoitza erabat mekanikoa baita, Jazoera batean integratzen dira, zeinak, nolabait esateko, agian morroi txar bat denaren antza baitauka, baina hala ere gure mundukoa izateari uzten ez dionarena. Ez da estrainioa guretzat. Beraren eta gure artean ahalgarri da halako kamaradatasun bat, eta hori aski da izuikara ezabatzeko edo, hobeki esan, horri jaiotzea eragozteko. Oro har, izua baliagarria da, gainerako sentimendu guztiak bezala. Beldurrerako irispiderik ez duen animalia ez litzateke ihes egiteko edo aterpetzeko gai izango, eta berehala porrot egingo luke biziarengatiko borrokan. Azalgarria da, beraz, beldurra bezalako sentimendu baten existentzia. Halaber ulergarria da beldurra arriskuaren larritasunaren arabera izatea. Baina eraduki, urrundu eta errefusatzen duen sentimendu bat da: esentzialki inhibigarria da. Arriskua muturrekoa denean, beldurra paroxismora hurbildu

eta paralizatzaile bihurtzen denean, naturaren defentsazko erreakzio bat sortzen da emozio horren aurka, era berean naturala litzatekeena. Sentitzeko gure ahalmena, noski, ezingo da aldatu, eta lehen zena izaten jarraitzen du; baina adimenak, instintuak bultzaturik, eraldatu egiten du harentzat egoera. Segurtasuna ematen duen imajina sortzen du. Jazoerari batasuna eta indibidualtasuna ematen dizkio, zeinek izaki maltzur edo makur bihurtzen baitute agian, baina aldi berean gugandik hurbilekoa eta zerbait soziagarria eta gizatiarra duena.

Irakurleari bere oroitzapenei galde egiteko eskatzen diot. Edo huts handia egiten dut edo bestela Jamesen analisisa berretsiko dute. Edozein kasutan, nireetako bat oroitarazteko baimena hartuko dut. Lehena aspaldiko garaietakoa da, zeren ni oso gaztea bainintzen eta kirola egiten bainuen, ekitazioa bereziki. Hona hemen egun batean, ziklista bat belozipedo gainera igota eratzen zuen agerpen fantastikoa errepidea gurutzatu zuelako, gainean ninderaman zaldia izutu eta aztoratu egin zen. Hori gerta zitekeela eta horrelako kasuetan bazirela egin zitezkeen edo gutxienez saia zitezkeen gauza batzuk jakin banekien nik, zalditegi batean ibilitako edonork dakien bezala. Baina abagune hori ez zen inoiz nire espirituaren aurrean agertu era abstraktuan izan ezik. Espazio eta denborako puntu jakinean ezbeharra egiazki gertatzea, eta niri gertatzea beste edonori gertatu ordez, horri irizten nion nire pertsonari emandako hobespen bat inplikatzan zuela. Orduan, nork hautatu ninduen? Zaldiak ez. Ez zen izaki oso bat, zeinahi zela ere, iratxo on edo txar bat. Jazoera bera zen, zegokion gorputzik ez zeukan banako bat, zeren eta zirkunstantzien sintesia besterik ez baitzen, baina oso arima elementala zeukana eta doi-doi bereizten zena zirkunstantziek agertzen zutela zirudien asmotik. Nire lasterketa nahasian jarraitu egiten ninduen, maltzurki, estuasunetik nola irteten nintzen ikusteko. Eta nik neuk kezka bakarra neukan: egiten nekiena erakustea. Inolako izudurarik sentitzen ez banuen kezka horretan guztiz murgildurik nengoelako zen, eta halaber, agian, nire lagun bitxiaren maltzurkeriak ez zuelako halako ontasun bat baztertzen. Sarritan pentsatu izan dut gorabeheratxo horretan, eta neure buruari esan izan diot naturak ez zukeela beste mekanismo psikologiko bat imajinatuko hartatik babestu nahi izan bagintu, emozio baliagarri gisa beldurra ematean, hartan geure burua abandonatzea baino zerbait hobe egiteko daukagun kasuetan.

Aipatu berria dut adibide bat, zeinean deigarriena Akzidenteak zeukan «mutil on»aren izaera baita. Hona hemen beste bat, bere bata-suna, bere banakotasuna, errearen jarraikitasunean nabarmentzen deneko garbitasuna agian hobeki agerian jartzen duena. Artean haurra nintzela, 1871n, gerra bukatu berri hartan, nire belaunaldiko guztiek bezala, eta hurrengo hamabi edo hamabost urteetan, hurbilekotzat jo izan nuen beste gerra bat. Geroago, gerra horri gertakor eta aldi bere-an ezinezko iritzi izan genion; ideia konplexu eta kontraesankorra, data fatala arte iraun zuena. Egia da ez zuela iradokitzen gure espiri-tuan bere adierazpen berbalaz aparteko ezein imajina. Bere izaera abs-traktua gorde egin zuen, harik eta gatazka jadanik saihestezintzat agertu zen ordu tragikoak arte, azkeneko unea arte, esperantza guztia-ren kontra espero zen unea arte. Baina 1914ko abuztuaren 4an, *Matin*-en ale bat irekitzean karaktere handitan «Alemaniak gerra deklaratzeko dio Frantziari» irakurri nuen arte iragan guztiak prestatu eta iragarri-tako presentzia ikusezin baten bat-bateko sentsazioa izan nuen, proiektatzen duen gorputzaren aurretik doan itzal baten antzera. Legendako pertsonaia bat, bere historia kontatzen duen liburutik ihes eginez gelan lasai-lasai instalatuko balitz bezalako zerbait izan zen. Egia esateko, ez neukan pertsonaia osoarekin aritu beharrik. Halako efektu bat lortzeko beharrezkoa zena bakarrik neukan hartatik. Bere orduaren zain egona zen, eta konplimendurik gabe, familiartasunez, bere lekuan eseri zen. Une horretan esku hartzeko zen, leku horretan, nahastu zen ilunki nire historia osoarekin. Konposa dezagun koadro hori: gela bere altzariekin, egunkaria mahaian zabaldurik, ni zutik haren aurrean, Jazoera bere presentziaz dena blai egiten, zeina seina-latzen baitzuten artegasun nahasizko berrogeita hiru urtek. Nire asaldura gorabehera, eta nahiz eta gerra bati, garaikorra izanik ere, hondamendia neritzon, Jamesek esandakoa sentitu nuen, miresmen-sentimendu bat, abstraktutik konkreturako igarobidea hain erraz ger-tatu zelako: nork usteko zukeen hain gertaera ikaragarria erreala dene-an hain traba gutxirekin sar zitekeenik? Sinpletasun-inpresio horrek dena menderatzen zuen. Hartaz gogoeta eginez ulertzen dugu naturak defentsazko erreakzio bat kontrajarri nahi izango balu beldurraren aurka, ezin konta ahala ondorioko kataklismo baten errepresentazio inteligenteegi baten aurrean nahimenaren uzkuertze bat prebenitzeko, hain zuzen ere gure eta jazoera sinpletuaren, pertsonalitate elemental eraldaturikoaren artean, ongi sentiarazten, erlaxatzen eta gure betebe-

harra behar bezala betearazteko prestatzen gaituen kamaradasun hori sorraraziko luke hain zuzen ere.

Beharrezkoa da inpresio iheskor, berehala gogoetak ezabaturiko horien bila joatea gure arbaso urrunekoenek sentitu ahal izan zutenetik zerbait aurkitu nahi badugu. Ezbairik gabe egingo genuke, baldin eta lorpen intelektual eta moralak, organismo banakoen substantzian txertaturik, hereditarioki transmititu diren aurreiritziak menderaturik ez baginduzka. Horrela izanez gero, gure arbasoak izan zirenaz zeharo bestelako jaioko ginatkeke jadanik. Baina herentziak ez du indar hori. Ez luke jakingo prestutasun natural bihurtzen belanez belaun lortutako azturak. Inolako eraginik izango balu azturaren gain, txiki samarra litzateke, eta akzidentalki eta salbuespenez leukake, baina zalantzarik ez dago ez duela inolakorik. Naturala, bada, gaur beti izan dena bera da. Egia da gauzak elementu natural hori eraldatu izan balitz bezala gertatzen direla, zeren zibilizazioak lortutako guztiaz estalita baitago eta gizarteak jaiotzatik etengabe jarraitzen den hezkuntza batez modelatzen baititu norbanakoak. Baina bat-bateko ezusteko batek geldiarazten baditu azaleko jarduera horiek, lanean ari direneko argia une batez iraungitzen bada: berehalaxe berragertzen da, izar aldaezina gauean bezala. Primitiboa deneraino atzera eginez iritsi nahi duen psikologoak salbuespenezko esperientzia horietara joan beharko du, bere hari gidaria bertan behera utzi gabe eta natura utilitariora dela ahaztu gabe eta ez dagoela ezein instintu bere funtzioa ez daukanik; intelektual dei genitzakeen instintuak defentsazko erreakzioak dira, adimenaren bapikatuak, eta, batez ere, aldiz lehen inteligentetik egon litekeenaren aurka. Baina bi metodoek elkarri laguntza emango diote; batak gehiago balioko du ikerketarako, eta besteak egiaztapenerako. Gure harrokeriak, harrokeria bikoitzak, apartatzen gaitu eskuarki horietatik. Gizakia garai batean izan zena baino gorenago jaio dadin nahi dugu: benetako meritua ahaleginean ez balego bezala! Espezie bat, zeinean banakoak bere buruaren gainetik altxatu behar baitu, iraganaren asimilazio neketsu baten indarrez, gutxienez balio izango ez balu bezala beste batek adina, zeinean belaualdi bakoitza blokean eramana izango bailitzateke, aurrekoek haratago, herentziaren joko automatikoaren indarrez! Baina bada oraindik beste harrokeria bat, adimenarena beharrian biologikoekeko duen mendekotasuna berrezagutu nahi ez duenarena. Ez dugu zelula bat, ehun bat, organo bat aztertzen bere funtzioaz arduratu gabe;

psikologiaren eremuan bertan, ez genuke sinetsiko instintu batetik jareginik gaudenik espeziearen beharrian batekin erlazionatuko ez bagenu; baina adimenera iristen garenean, agur, natura!, agur, bizitza! Adimena den hori «hutsarengatik, plazerez» izango litzateke. Berak ere bizi-eskakizun horiei erantzungo ez balie bezala! Jatorrizko bere zeregina instintuak ebatzen dituen antzeko arazoak ebatzea da, zeharo bestelako metodo batez, noski, zeinak progresua ziurtatzen baitu, eta zeina ez baitago naturarekiko independentzia teorikoki osorik gabe praktikatzerik. Baina independentzia hori, izatez, mugatua da, eta gelditu egiten da adimenak bere xede propioaren aurka, bizi-interes bati kalte eginez jotzen duen une berean. Horrela, bada, adimena derrigor instintuaren zaindaritzapean dago, edo hobeki esateko, biziarenean, instintua eta adimenaren jatorri komuna den horretan. Instintu intelektualez hitz egiten dugunean, ez dugu besterik esan nahi: adimenak naturalki eraturiko errepresentazioak dira, konbikzio batzuen bidez segurtasuna irabazteko ezagutzaren arrisku batzuen aurrean. Horiek dira joerak, eta horiek dira, halaber, esperientziak ere psikologiak kontuan izan beharrekoak jatorrietaraino iritsi nahi badu.

Ez-zibilizatuen azterketa ez litzateke baliagarritasun gutxiagokoa izango. Jadanik esana dugu eta ez dugu inoiz gehiegi errepikatu: gu bezain urrun daude beren jatorrietatik, baina gutxiago asmatu dute. Beraz, aplikazioak biderkatu egin behar izan dituzte, bapikatu, karikaturizatu; azken finean, deformatu errotik transformatu ordez. Bestalde, transformazioa edo deformazioa delarik ere, jatorrizko formak iraun egiten du, lortutakoak estalita beste gabe; bi kasuetan, beraz, jatorriak aurkitu nahi dituen psikologoak klase bereko ahalegina egin beharko du, baina ibili beharreko bidea izan liteke luzera txikiagokoa bigarren kasuan lehen kasuan baino. Berezian, horixe gertatuko da elkarren artean komunikatzerik izan ez duten tribuetan antzeko sinesteak aurkitzen direnean. Sineste horiek ez dira derrigor primitiboak, baina gerta liteke introspekzio-ahalegin batek geure baitan aurkiaraziko lizkigukeen oinarrizko joeretako batetik zuzenean etortzekoak izatea. Beraz, aurkikuntza horren aztarna eman ahal izango digute, geroago azaltzeko balioko diguten barne-behaketa gidatzeko.

Itzul gaitezen berriro metodoari buruzko kontsiderazio horietara, geure ikerketan galdu nahi ez badugu. Era berezian behar ditugu iritsi garen puntu honetan, izan ere gizakiak gauzen, jazoeren eta, oro

har, unibertsoaren hautematearekiko duen erreakzioa bera baita. Zalantzarik gabe, adimena materia erabiltzeko, gauzak dominatzeko eta gertakariak menderatzeko egina dago. Ez da egia txikiagoa bere arrazoa bere zientziarekiko zuzeneko erlazioan dagoela Baina zientzia hori hasieran oso mugatua da; mekanismo unibertsalaren portzioa, hedadura eta iraupena, zeinen gainean baitu domeinuren bat, oso txikia da. Zer egingo du gainerakoarekin? Bere baitan abandonatua, bere ezjakintasuna egiaztatzea besterik ez du egingo; kasu horretan, gizakia galdua sentituko da neurgabetasunean. Baina instintua zelatan dago. Teknikak berekin duen ezagutza propioki zientifikoari edo hartan inplizitu dagoenari gehitu egiten dio, gure egintzari ihes egiten dion guztirako, gizakiaz arduratuko liratekeen botereekiko sinestea. Unibertsoa, horrela, asmoz betetzen da, bestalde, iraizeko eta aldakor direnez; mekanismo hutsetik kenduko luke bakarrik gunea, zeinaren barruan mekanikoki baitihardugu. Gune hori hedatu egiten da gure zibilizazioa aurrera doan neurrian: unibertso osoak, azkenetarako, mekanismo baten forma hartzen du adimen baten begietan, zeinak errepresentatzen baitu idealki zientzia bukatua. Hori da gure egoera, eta gaur egun beharrezko zaigu introspektzio-ahalegin indartsua gure jatorrizko sinesteak berraurkitzeko, zeinak zientziak estali egiten baititu dakien guztiarekin eta jakitea espero duen guztiarekin. Baina aurkitzen ditugun bezain laster, prezatu egiten ditugu nola azaltzen diren adimena eta instintuaren joko konbinatuaren bidez; bizi-interes bati nola erantzun behar izan dioten. Ez-zibilizatuak orduan aztertzean, geure baitan behatua egiaztatzen dugu; baina sinestea hemen hanpatua, bapikatua, biderkatua dago: atzera egin beharrean, zibilizatuarengan egin duen bezala zientziaren progresuen aurrean, egintza mekanikoari erreserbaturiko gunea inbaditzen du eta baztertu beharko luketen jarduera batzuei gainezartzen zaie. Horretan puntu esentzial batera iristen gara. Esan izan da erlijioa magiatik hasi dela. Magian zientziaren aurreko bat ere ikusi izan da. Alabaina, psikologiari bagagozkio, orain egin berri dugunez, introspektzio-ahaleginaren bidez giza-kiak gauzekiko bere hautematearen erreakzio naturala berreraikitzen badugu, magia eta erlijioa elkarri loturik daudela aurkituko dugu, eta ezer ez dagoela komunik magiaren eta zientziaren artean.

Izan ere, ikusi berria dugu adimen primitiboak, bere esperientzian, bi aspektu aurkeztu dituela. Alde batetik, eskuaren eta lanabe-

saren egintzari obeditzen diona, seguru gauden hori aurreikus daitekeela: unibertsoaren atal hori fisikoki kontzebitua dago, matematikoki ere izango den esperantzan; kausa eta efektuen kateatze bat bezala agertzen da, edo, edozein kasutan, hala tratatua da; gutxi axola dio errepresentazioa hautazkoa eta doi kontzientea izateak; gerta liteke esplizitu ez egitea, baina adimenak zer pentsatzen duen jakiteko esplizituki aski da zer egiten duen behatzea. Bada, bestalde, esperientziaren partea, zeinaren gain *homo faber*-ek jadanik ez baitu inolako ahalmenik sentitzen. Hori ez da jadanik fisikoki tratatzen, moralki baizik. Haren gain ezin jardun izatean, espero dugu berak guretzat jardutea. Natura hemen gizatasunez blai egingo da, baina beharrezkoa den neurrian bakarrik. Botererik ez izatean, konfiantza behar dugu. Gustura senti gaitezen, gure begien aurrean errearen multzoan zehazten ari den jazoerak asmo batek animatuaren itxura izan behar du. Izan ere, hori izango da gure konbikzio natural eta originala. Baina ez gara hor geratuko. Ez dugu aski beldurtzeko ezer ez izatearekin; gainera, espero izateko zerbait eduki nahiko genuke. Jazoera erabat sentigaitza ez bada, ez ote dugu lortuko hartan eragina izatea? Ez ote du utziko konbentzitzen edo hertsatzen? Nekez egin ahal izango du orain dena izaten jarraitzen badu, pasatzen den asmo bat, arima hasi-masizko bat; ez luke izango behar adinako nortasunik gure desirei kontu egiteko, eta gehiegi izango luke gure aginduetara jartzeko. Baina gure espirituak erraz bultzatuko du norabide batean edo bestean. Instintuaren presioak, izan ere, adimenaren baitan bertan sorrarazi du funtzio fabulatzaila den irudimen-forma hori. Horrek aski du bere buruari joaten uztea, primitiboki zehazten diren nortasun elementalekin, jainko gero eta jasoagoak, fabulakoak bezalakoak, edo dibinitate gero eta behereagoak espiritu soilak bezalakoak fabrikatzeko, edo indarrak berak ere bai, zeinek beren jatorri psikologikotik propietate bakarra kontserbatuko baitute, mekaniko hutsak ez izatearena eta gure desirei amore ematearena, gure nahimenera makurtzearena. Lehen eta bigarren norabidea erlijioarenak dira, eta hirugarrena, magiak hartzen duena da. Has gaitezen azkenekotik.

Asko hitz egin izan da *mana* nozio horretaz, zeina aspaldi jaso baitzuen Codringtonek melanesiarrei buruzko bere liburu sonatuan, eta zeinaren nozio baliokidea, edo hobeki esan, analogoa, beste primitibo askorengan aurki baikenezake: horrela *orenda* irokiarren, *wakanda* siouxengan, eta abar. Termino horiek guztiek naturan heda-

turiko indar bat izendatuko lukete, zeinatik esku hartuko bailukete gradu desberdinetan, gauza guztiek ez bada, haietako batzuek gutxie-nez. Hemendik filosofia primitibo baten hipotesira, zeina giza espiri-tuan zehaztuko bailitzateke gogoeta egiten hasten denetik, urrats bakarra besterik ez dago. Izan ere, batzuek suposatu izan dute pan-teismo lauso bat agertuko zela gizaki ez-zibilizatuen pentsamenduan. Baina ez du egiantzekotasun handirik gizadia nozio hain orokor eta abstraktuetatik hasi izanak. Filosofatu baino lehen bizi egin behar da. Jakintsu eta filosofoak isuriegia daude pentsamendua guztiengan berengan bezala egikaritzen dela sinestera, plazerez. Egia esan pen-tsamendua egintzara orientatzen da, eta gizaki ez-zibilizatuengan filo-sofiaren bat aurkitzen badugu, pentsatua baino egikaritua areago izan behar du; eragiketa baliagarri edo hala kontsideratuzko multzo oso batean inplikaturik dago; ez da haietatik jalkiarazten, ez da hitzen bidez adierazten –derrigor lausoak baitira, bestalde–, egintzaren ero-sotasunerako izan ezik. Hubert eta Mauss jaunek, beren *Magiaren teo-ria orokorra* guztiz interesgarrian, indarrez frogatu dute magian sines-tea «mana»ren kontzepzioa bereizezinak direla. Badirudi, haien ustez, sineste hura kontzepzio horretatik datorrela. Baina erlazioa, ez ote da areago alderantzizkoa? Ez deritzogu gertakorra «mana, «orenda», eta abar bezalako terminoei dagokien errepresentazioa lehenik eratu izan-nari, eta horretatik magia irten izanari. Alderantziz baizik, gizakiak magian sinesten zuelako, hura praktikatzen zuelako, errepresentatuko zituen horrela gauzak: bere magiak arrakasta zuela zirudien, eta bera azaltzera mugatzen zen edo, areago, bere arrakasta azaltzera. Gainera, aise ulertzen da gizaki primitiboak berandu gabe magia praktikatu izana: ulertu zuen kanpo-munduaren gaineko bere eragin normalaren muga berehala lortu zela eta ez zuen amore eman hartan geratu beha-rraren aurrean. Jarraitu egin zuen higidura, eta berez higidurak nahi zen efektua ez zuenez gero, beharrezkoa zen natura bera horretaz ardura zedin. Eta hori ezinezkoa zen, materia nolabait imandurik ez bazegoen, berez gizakiarengana itzultzen ez bazen harengandik igor-penak hartzeko eta haren aginduak betetzeko. Hala ere, horregatik ez zion uzten lege fisikoen mendean egoteari, gaur esango genukeenez; ahalgarri izan zedin beharrezkoa zen mekanikoki menderatzea. Baina gainera gizatasunez blai eginik zegoen, hau da, giza asmoetan esku hartzeko gai zen indarrez hornitua. Gizakia balia zitekeen disposizio horretaz lege fisikoek baimentzen zutenaz haratago bere egintza luza-

tzeko. Zailtasunik gabe konbentzituko gara horretaz, magiaren jardupideak eta materiaren kontzepzioak kontsideratu bezain laster, zeinen indarrez lausoki errepresentatuko baikenioke geure buruari magiak arrakasta izan lezakeela.

Sarritan deskribatu izan dira eragiketa horiek, baina «antzekoak antzekoaren gain dihardu», «atalak osoaren balioa du», eta abar bezalako printzipio teoriko halako batzuen aplikazio gisa. Eztaba daezina da: formula horiek eragiketa magikoak sailkatzeko balio dezakete, baina hortik ez da inola ere eragiketa magikoak horietatik datozenik ondorioztatzen. Baldin eta adimen primitiboa hasi izan balitz hemen printzipioak kontzebitzetik, berehalaxe amore eman beharko zukeen esperientziaren aurrean, zeinak haien faltsutasuna frogatuko baitziokeen. Baina hemen ere instintuaren sugestioak errepresentazio bihurtzea besterik ez du egiten. Termino zehatzagoetan esanik: bada gorputzaren logika bat, desiraren luzapen bat, adimenak forma kontzeptual bat aurkitu baino askozaz lehenago egikaritzen dena.

Horra, adibidez, bere etsaia erail nahi duen «primitibo» bat; baina hura urrun dago, eta horregatik ezinezkoa da atzematea. Ez dio axola!, gure gizona sumindurik dago eta absentearen gain oldartzeko imintzioa egiten du. Oldartu eta gero, azkeneraino doa: bere eskuez estutzen du eduki uste duen edo eduki nahiko lukeen biktima, eta irato egiten du. Hala ere, ondotxo daki emaitza ez dela osoa. Bere baitan dagoen guztia egin du: gauzak gainerakoaz ardura daitezela exigitzen du. Gauzek ez dute hori mekanikoki egingo. Ez dute beharrian fisikoko baten aurrean amore emango gure gizakiak lurra jo, beso-zangoei eragin, eta azkenik beren egintzei erantzuten zieten erreakzioak materialik lortzen zituenean bezala. Beharrezko da, beraz, jasotako higidurak mekanikoki berrizultzeko premiari desirak egikaritzeko eta aginduak obeditzeko ahalmen bat gehitzea materiak. Hori ez da ezinezkoa izango natura jadanik berez makurtzen bada gizakia kontuan hartzera. Askizango da *jazoera* batzuek testigatzen duten amore ematea *gauzetan* ere aurkitzea. Kasu horretan, azken horiek gutxi-asko obedienciaz eta boterez hornituak egongo dira; indar bat izango dute, zeina gizakiaren desiretara makurtzen baita, eta zeinaz gizakia jabetu ahal izango baita. «Mana», «wakonda», eta abar terminoek indar hori adierazten dute eta aldi berean inguratzen duen prestigioa. Denek ez dute zentzu bera, zentzu zehatza nahi bada, baina denek erantzuten diote

idea lauso berari. Magia-eragiketetarako prestatzea eragiten duena izendatzen dute. Eragiketa horiei dagokienez, berorien izaera determinatu berria dugu. Gizakiak amaitu ezin duen egintza hasten du. Nahi den efektua eragiteraino iritsiko ez den keinua egiten dute, baina gizakiak gauzen konplazentzia behartzen baldin badaki lortuko duena.

Magia, beraz, jaiotzatikoa du gizakiak, eta bere bihotza betetzen duen desira bat kanporatzea besterik ez da. Artifizial itxura izan badu eta ideia azalekoen asoziazioetara murriztua izan bada, eragiketetan aztertua izan delako da, zeinak, hain zuzen, magoak haietan bere arima ezarri beharrik izan ez dezan eta emaitza bera nekerik gabe lortzeko eginak baitira. Bere papera ikasten duen aktoreak adierazi behar duen emozioz blai egiten du egiazki bere burua; hartatik sortzen diren keinu eta intonazioak notatzen ditu eta geroago, ikusleen aurrean, intonazioa eta keinua bakarrik errepikatuko ditu, emozioa aurrez dezakeelarik. Gauza bera gertatzen da magiarekin. Hartan aurkitu diren «legeek» ez digute ezer esaten sortu diren bulkada naturalaz. Nagitasunak jatorrizko magia horri bere burua imitatzeko iradoki dizkion prozeduren formula besterik ez dira.

Lehenik, esaten zaigu, «antzekoak antzekoa sortzen duelako» ideiatik dator. Ez da ulertzen zergatik gizadiak lege hain abstraktu eta hautazkoa ezartzetik hasi beharko zuen. Baina ulertzen da etsai absentearengana oldartzeko keinua instintuz egin ondoren eta bere burua konbentzitu ondoren bere suminak, espaziora jaurti eta materia konplaziente batek garraiatuak, hasitako egintza amaitzera iritsiko dela, gizakiak efektu bera lortu nahi izatea egoera berean jarri beharrik gabe. Beraz, eragiketa hotzean errepikatuko du. Egintza, zeinaren zirri-marra egiten baitzuen sumindurak, itotzen ari zen etsaia esku artean estutzen zuela uste zuenean, jadanik egindako eskema baten laguntzarekin birsortuko du, panpina batekin, zeinaren inguruneek ez baitute birpasatzea besterik beharko. Horrela praktikatuko du malefizioa. Baliatuko duen panpinak, bestalde, ez dauka etsaiaren antza izan beharrik, zeren bere eginkizuna egintzak bere buruaren antza izan dezan eragitean bestetan ez baitatza. Horri deritzogu dela printzipio baten jatorri psikologikoa, zeinaren formula areago bailitzateke: «Antzekoa antzekoaren baliokidea da», edo, hobeki oraindik, termino zehatzagotan: «Estatikoak dinamikoa ordez dezake, zeinaren eskema ematen baitu». Azken formula horren azpian, zeinak bere jatorria

gogoratzen baitu, ez da hedadura amaigabe baterako prest agertzen. Baina, lehenaren azpian, ulertarazten du ahalgarria dela urruneko objektu baten gain jardutea objektu presente baten bitartez, zeinak harekin antzen bat baitu, denik eta azalekoena bada ere. Printzipio horrek ez dauka deduzitua eta formulatua izan beharrik. Ia instintuzkoa den eragiketa batean soilik inplikaturik, magia natural horri ugal-tze amaigabea ahalbidetzen dio.

Jarduera magikoak beste lege batzuei buruzkoak ere izaten dira: «Izaki edo gauza batean eragin daiteke ukitu dituenaren gain obratuz», eta abar. Baina jatorri psikologikoak lehena izaten jarraitzen du. Beti patxadaz errepikatzea da kontua, eraginkorra dela nork bere buruari sinetsaraziz, bere eraginkortasunaren hautemate ia haluzinaziozkoa eman duen egintza, exaltazio une batean burutzen ari zenean. Lehortean euria lortzea eskatzen zaio aztiari. Aztiak horretan bere arima osoa jarriko balu, irudimen-ahalegin batez hodeiraino igoko litzateke, deskargarazten ari dela sentitzen duela sinetsiko luke, ur-tantatan barreiatuko luke. Baina sinpleago aurkituko du suposatzea jadanik atzera lurrera berriro jaitsi dela eta orduan ur pixka bat isuri duela: gertakariaren parte minimo hori gai izango da gertakari osoa errepikatzeko, lurretik zerura jaurtikitzeko beharko zatekeen ahalegi-na ordezerik baldin badago behintzat, eta baldin eta materia bitarte-karia gutxi-asko kargaturik badago –elektrizitate positiboz edo nega-tiboz egon litekeenez– prestutasun erdi-psikiko eta erdi-moralez giza-kiari zerbitzatzeko edo kontra egiteko. Ikusten dugu, beraz, nola dago-en magia natural oso sinple bat, praktika-kopuru txiki batera murriz-tuko litzatekeena. Praktika horiei buruzko gogoeta da, edo agian horiek hitzetan itzultzea besterik gabe, zentzu guztietan biderkatzeko eta era guztietako superstizioz kargatzeko baimena eman diena, zeren formulak gainpasatu egiten baitu beti adierazten duen gertakaria.

Baderitzogu, beraz, magia bi elementutan ebazten dela: zerbai-ten gain jarduteko desiran, zernahi dela ere, lortu ezin den zerbaiten gain ere bai, eta gauzak kargaturik daudelako edo giza jariakina dei-tuko genukeenaz karga ditzaten uzten dutelako ideian. Lehen puntura jo behar da magia eta zientzia elkarren artean erkatzeko, eta bigarre-nera, magia erlijioarekin erlazionatzeko.

Baliteke magia zientziari zerbitzatzera akzidentalki iritsi izana, zeren ez baita materia manipulatzeko hartatik etekinen bat lortu gabe.

Era berean beharrezko da, behaketa bat erabiltzeko edo besterik gabe notatzeko, ikerkuntza zientifikorako isuriren bat aurretik izatea. Baina bide horretatik ez dago mago izaterik, eta magiari bizkarra eman ere egiten zaio. Izan ere, erraza da zientzia definitzea, zeren eta beti norabide berean lan egin baitu: aurreikusi eta jarduteko asmoarekin neur-tu eta kalkulatzeko baitu. Lehenik suposatu egiten du, eta gero egiazta-tu, unibertsoa lege matematikoez eraendurik dagoela. Hitz gutxitan zientziaren aurreratze oro ezagutza intentsoagoan eta mekanismo uni-bertsalaren erabilpen aberatsagoan datzala. Aurreratze hori, gainera-koan, gauzen gaineko gure egintza gidatzeko egindako adimenaren ahaleginari esker betetzen da, eta zeinaren egiturak, beraz, unibertso-aren taxuera matematikoan kalkaturik egon behar baitu. Nahiz eta inguratzen gaituzten objektuen gain soilik obratu behar dugun eta adimenaren lehen zertarakoa hori izan den, hala ere, unibertsoaren mekanika nola bere ataletako bakoitzean presente dagoen, beharrez-koa izan da gizakia mundu materiala bere osotasunean besarkatzeko birtualki gai den adimenarekin jaiotzea. Horrek berdin balio du egin-tza intelektualarentzat eta ikuspenarentzat: begia sortua izan da, bes-talde, objektuak agerian jartzeko, zeinen gainean jarduteko baikaude prest. Baina naturak nahi zuen ikuspen-gradua dispositibo batez, zei-naren efektuak gaintitzen baitu bere objektua, bakarrik lortu duen bezala (zeren gai baikara izarrak ikusteko haietan egintzarik gabe), era horretara derrigor ematen zigun, manipulatzeko dugun materia ulertze-ko ahalmenarekin batera, gainerakoaren ezagutza birtuala, baita hori erabiltzeko ahalmen hura bezain birtuala ere. Egia da hemen tarte handia dagoela birtualaren eta aktualaren artean. Aurreratze efektibo orok, nola ezagutzaren sailean hala egintzarenean, gizaki goren baten edo gehiagoren ahalegin iraunkorra exigitu du. Edozein kasutan ere, naturak adimena ematean zalantzarik gabe ahalbideturiko sorkuntza da, zeinaren formak gainpasatu egiten baitu materia, baina zeina, nolabait esateko, naturak nahi izandakoaz haratago baitzihuan. Izan ere, gizakiaren antolakuntzak hura bizitza apalagora aurredestinatzen zuela baitzirudien. Aldaketetarako bere erresistentzia instintuzkoa horren proba ona da. Gizadiaren inertziak genioaren bultzadaren aurrean bakarrik eman du amore. Hitz gutxitan, zientziak ahalegin bikoitza eskatzen du, gizaki batzuen berria aurkitzeko eta gainerako guztiena hura hartu eta hartara moldatzeko. Gizarte bat zibilizatutzat jo daiteke bertan aldi berean ekimen horiek eta esanekotasun horiek

aurkitzen diren unetik. Bigarren baldintza, noski, lehena baino betetzen zailagoa da. Ez-zibilizatuei falta izan zaiena ez da seguraski gizaki garaia (zeren ez baitugu ikusten zergatik naturak ez zitzakeen zori-
neko distrakzio horiek beti eta nonahi izan), baizik gizaki horri bere garaitasuna erakusteko aukera ematea areago, horri jarraitzeko besteen prestutasuna. Gizarte bat zibilizazioaren bidean sartu denean, ongizatearen hazkuntza soil bat zalantzarik gabe eraginkorra izan daiteke bere errutina menderatzeko. Baina bide horretan sar dadin, abian jar dadin, askozaz gehiago behar da: agian suntsieraren mehatxua, leinu etsaian arma berri bat agertzeak sortzen duena bezalakoa. Gutxi-asko «primitibo» iraun duten gizarteak auzorik izan ez dutenak dira seguraski eta, orokorragoan, bizitza errazagia izan dutenak, hori zela-eta ez baitzuten hasierako ahalegina egin beharrik izan. Gero beranduegi izan zen: gizarte horrek ezin zuen aurrera egin, ezta nahi izan balu ere, bere nagikeriaren produktuez toxikaturik baitzegoen. Produktu horiek magiaren praktikak dira hain zuzen ere, gainugaritik eta hurrupatzailetik duten heinean gutxienez, zeren magia zientziaren alderantzizkoa baita. Ingurumenaren inertziak ugalarazten ez duen bitartean, bere baitan dauka izate-arrazoia. Behin-behinekoz, adimen baten kezka baretzen du, zeinaren formak gainditu egiten baitu materia, zeina lausoki ohartzen baita bere ezjakintasunaz eta zeinak horrek bere baitan daukan arriskua ulertu egiten baitu. Egintza bere efektutik seguru dagoen zirkulu txiki-txikiaren inguruan, zeinean berehalako etorkizuna aurreikusgarria baita eta zeinean, ondorioz, hor baitago zientzia, egintza desanima lezakeen aurreikusgarritasunezko gune neurgabe bat susmatzen baitu. Hala eta guztiz ere, jardun egin behar da, eta orduan esku hartzen du magiak bizi-bulkadaren efektu bitartegabe gisa, zeina bere garrantzia murriztuz joango baita gizakia bere ahaleginaz ezagutza zabalduz joango den neurrian. Bitartean, arrakasta duela dirudieenez gero (zeren eragiketa magiko baten porrota beti egotz bailekioke magia antagonikoren baten arrakastari), zientziaren efektu moral bera sortzen du. Baina horixe besterik ez du komunean harekin, zeinatik desiratzearen eta nahi izatearen artean dagoen distantzia osoaz bereizirik baitago. Zientziaren etorrera prestatzetik oso urrun, batzuek nahi izan dutenez, jakite metodikoak borrokatu behar izan duen eragozpen handia izan da. Gizaki zibilizatua hain zuzen ere hura da, zeinarengan eguneroko egintzan inplikaturik dagoen eta sortzen ari den zientzia gai izan baita aurrera egiteko, beti tentsioan dagoen nahimenari esker,

lursailaren gainerakoa hartzen zuen magiaren aurrean. Gizaki ez-zibilizatua, aitzitik, hura da, zeinak ahaleginari muzin eginik, sortzen ari den zientziaren gunean sartzen eta horri gainezartzen utzi baitio magiari, mentalitate original bat sinetsarazteraino maskaratuz, zeinatik absente egongo bailitzateke egiazko zientzia oro. Argi dago, lursailaz jabetu eta gero, milaka bariazio exekutatzen ditu bere buruaz, eta zientzia baino askozaz emankorragoa gertatzen da, zeren bere asmakuntzak fantasia hutsa baitira eta ez dira ezer kostatzen. Ez dezagun hitz egin, beraz, magiaren aro batez, zeinaren ondotik etorri bide baitzen zientziarena. Esan dezagun zientzia eta magia biak berdinki naturalak direla, beti izankide gertatu direla, gure zientzia izugarriki zabalagoa dela gure urruneko arbasoena baino, baina haiek askozaz magotasun gutxiago izan behar izan zutela gaur eguneko gizaki ez-zibilizatuek baino. Barrenean, haiek izan zirena izaten jarraitzen dugu. Nahiz eta zientziak errefusatu, magiarako jaidurak iraun egiten du eta bere orduari itxaroten dio. Une batez zientziarekiko aditasuna distraitzen bada, magia supituki sartzen da gure gizarte zibilizatuan, ernegotean erreprimituriko desirak logura txikiena baliatzen duen bezala amets batean bere burua asetzeko.

Magia eta erlijioaren arteko erlazioen auzia gelditzen zaigu orain. Bistan dago azken termino horri ematen zaion esanahiaren baitan dagoela dena. Gehienetan, filosofoak aztertzen dituen gauzak zentzu komunak ordurako hitz batez izendaturikoak izaten dira. Auzitako gauza baliteke erdi-ikusia bakarrik izatea, baliteke gaizki ikusia edo beste batzuekin nahastu izana, zeinetatik bakartu beharko baita. Halaber, gerta liteke besterik gabe errealtatearen multzotik bereizi izana diskurtsoaren erosotasunez, eta ez izatea zinez azterketa independenterako objektu. Horretan datza filosofiaren beheragotasuna matematikaren aldean eta natur zientzien beraien aldean ere. Hizkuntzak eragindako erreala denaren desartikulaziotik abiatu behar du eta, seguraski, hiriaren beharrezko buruzkoa bakarrik da: sarriegi, filosofiak ahaztu egiten du jatorri hori eta geografo batek egingo lukeenez dihardu, zeinak, lurbolaren erregio desberdinak zedarritzeko eta beren artean dituzten erlazio fisikoak seinalatzeko, tratatuek finakaturiko mugei kontu egingo bailieke. Hasia dugun azterketan aurreikusia dugu arrisku hori, berehalaxe «erlijio» hitzetik eta gauzen agian desartikulazio artifical baten indarrez besarkatzen duen guztitik espi-

rituaren funtzio bateraino lekualdatuz, zeina bitartegabe beha baitaiteke, hitzei dagozkien kontzeptuetan errealaren banaketari kontu egin gabe. Lana funtziotik bereiziz, analisisan erlijio hitzari ematen zaizkion zentzuak aurkitu ditugu banan-banan. Geure azterketari jarraituz, esanahi horren beste ñabardurak aurkituko ditugu, eta beharbada beste berri bat edo bi gehituko dizkiogu. Ongi finkaturik gera bedi, beraz, hitzak oraingoan errealitate bat zirkunskribatzen duela. Errealitate horrek gainezkatu egingo du, goitik eta behetik, terminoaren ohiko esanahia, baina bere baitan atzemango dugu orduan, bere egituran eta bere printzipioan, funtzio fisiologiko bati batzen zaion bezala, digestioari adibidez, organismoaren gune desberdinetan behaturiko gertakari-kopuru handi bat eta horrela ere, gertakari berriak aurkitzen direnean bezala. Ikuspuntu horretatik, bistakoa denez, magia erlijioaren atal da. Zalantzarik gabe erlijio beheare bat besterik ez da, une honetara arte jorratu duguna; baina magiak, erlijio horrek orokorrean bezala, adimendun izateak dituen arrisku batzuen aurkako naturaren arreta adierazten du. – Orain beste bide batetik jo daiteke, erlijio terminoaren ohiko esanahi desberdinetatik abiatzea, elkarren artean erkatzea eta batezbesteko esanahi bat deduzitzea: kasu horretan lexiko-auzi bat ebatzia izango dugu arazo filosofiko bat baino areago, baina ez dio axola gogoan badaukagu zer egin dugun eta ez dezagun imajina (filosofoen etengabeko ilusioa!) gauzaren esentziaren jabe garela terminoaren zentzu konbentzionalaz akordio batera iriste husarengatik. Ezar ditzagun orduan geure hitzaren adiera guztiak eskala batean, espektroaren ñabardurak edo musika-eskalaren notak bezala: erdigunean, bi muturretatik distantzia berera, jainkoen adorazioa aurkituko dugu, zeinengana jotzen baitugu geure otoitzetan. Zer esanik ez dago horrela kontzebituriko erlijioa magiari kontrajartzen zaiola orduan: hori esentzialki egoista da, aldiz, hark onartzen du desinteresa eta sarritan exigitu ere egiten du. Batak naturaren onarpena behartu nahi du, besteak jainkoaren mesedea erregutzen du. Batez ere, magia ingurumen erdi-fisiko eta erdi-moralean egikaritzen da; magoak, edozein kasutan, ez dauka pertsona batekin aritu beharrik; aitzitik, erlijioak bere eraginkortasun handiena jainkoaren pertsonatasunetik hartzen du. Onartzen bada, gurekin, adimen primitiboak bere inguruan, fenomenoetan eta jazoeretan pertsonatasun-elementuak hauteman uste dituela pertsonatasun osoak baino areago, erlijioak, ulertu berri dugunez, azkenerako elementu horiek errebertxatu egingo ditu harik eta pertso-

na bihurtu arte, aldiz, magiak mundu material batean, zeinean bere eraginkortasuna nabari baitaiteke, andeaturik eta disolbaturik suposatzen ditu. Magia eta erlijioa bereizi egiten dira orain jatorri komun batetik, eta ez da erlijioa kontsideratu behar magiatik sortzen den zer-bait bezala, garaikideak baitira. Hori bai, ulertzekoa da horietako bakoitza bestean berragertzen jarraitzea, magia pixka batek erlijioan irautea eta, batez ere, erlijio zerbaitek magian. Jakina da magoak batzuetan espirituen bitartez jarduten duela, hau da, izaki erlatiboki banakotuen bitartez, pertsonatasun osorik ez dutenen eta jainkoen duintasun gailenik ez dutenen bitartez. Bestalde, enkantamendua aldi berean aginduaren eta errekuaren parte izan daiteke.

Erlijioen historiak, denbora luzean, espirituekiko sinestea kontsideratu izan du gainerako guztiaren elementu primitibo eta esplikatzailezat. Gutako bakoitzak bere arima, gorputzarena baino esentzia sotilagoa daukan bezala, horrela naturan gauza oro animatua izango litzateke; entitate lausoki espiritual batek lagunduko luke. Espirituak onartu eta gero, gizadia sinestetik adoraziora igaroko zatekeen. Beraz, filosofia natural bat, animismoa legoke, zeinatik sortuko baitzen erlijioa. Gaur egun badirudi hipotesi horren ordez beste bat nahiago dela: fase «aurre-animista» edo «animatista» batean, gizadiak mana polinesiarra bezalako indar inpersonel bat errepresentatu bide zuen, osoan hedatua, desberdinki atalen artean banatua; geroago bakarrik elkartuko zitzaizen spirituei. Gure analisiak zehatzak badira, lehen une batean ez ziren kontzebitu ez indar inpersonel bat eta ez espiritu jadanik banakotuak; gauzei eta jazoerei asmoak egozte besterik ez bide zen egin, naturak gizakiarengana zuzentzen dituen begiak nonahi balitu bezala. Hor jatorrizko jarrera bat dagoela konstatu dezakegu gutako bakoitzaren barrenean lotan dagoen gizaki primitiboa iratzartzen duenean bat-bateko talkak. Orduan sentitzen duguna *presentzia eraginkor* baten sentimendua da; gainera, gutxi axola dio presentzia horren izaerak: bere eraginkortasuna da esentziala. Gutaz norbait arduratzen den unetik, nahiz eta bere asmoa beti ez izan ona, gutxienez zerbaiteko kontatzen dugu unibertsoan. Hori da esperientziak dioena. Baina *a priori* egiantzik gabea gertatzen da gizadia aspektu teoriko batetik hasi izana, hori zeinahi delarik ere. Behin eta berriz errepikatuko dugu: filosofatu aurretik bizi egin behar da; jatorrizko jarrera eta konbizioak bizi-beharrizan batetik irtenak bide dira. Erlijioa ideia-siste-

ma batekin, logika batekin edo «aurrelogika» batekin erlazioan jar-
tzea, gure aurreko arbaso urrunekoenak intelektual bihurtzea da, eta
gure artean ugari izan beharko luketen intelektual, zeren teoria ede-
rrenak grina eta interesaren aurrean makurtzen ikusten baititugu, ezer-
tarako kontatu gabe espekulazioari eskainitako orduetan izan ezik,
bizitza osoa antzinako erlijioetatik esekita zeuden bitartean. Egia da
erlijioak, gure espeziearen hedadurakide izaki, gure egiturara molda-
tu behar duela. Oinarrizko esperientzia batekin erlazioan jarri dugu;
baina esperientzia hori berori auresentituko zatekeen egin aurretik,
edozein kasutan oso ongi azaltzen da izan eta gero; aski da horretara-
ko berriro gizakia izaki bizien multzoan, eta psikologia biologian
kokatzea. Kontsidera dezagun, izan ere, gizakiaz bestelako animalia
bat. Zerbitza diezaiokeen guztiaz baliatzen da. Mundua beretzat egina
dagoela sinesten al du hain zuzen? Zalantzarik gabe, ez, ez baitu mun-
dua errepresentatzen eta ez baitu hartaz espekulatzeko inolako gogo-
rik. Alabaina, bere beharrianak ase ditzaketen gauzak bakarrik ikus-
ten dituen eta haiei bakarrik begiratzen dienez, gauzak erabiltzen
dituen neurrian bakarrik beretzat existitzen direnez, natura guztia bere
onerako eta bere espeziearen interesarako konbinaturik balego bezala
portatzen da. Hori da animaliak bizi izandako konbikzioa; horrek sos-
tengatu egiten du eta, bestalde, bizitzeko bere ahaleginarekin nahasten
da. Sorraz ezazue orain gogoeta: konbikzio hori ezabatu egingo da;
gizakiak unibertsoko neurgabetasunean puntu bat bezala hauteman eta
pentsatuko du bere burua. Galdua sentituko litzateke bizitzeko bere
ahaleginak berehalaxe bere adimenean, hautemate horrek eta pentsa-
mendu horrek hartu beharko lukeen leku berean, gizakiarengana
zuzenduriko gauzen eta jazoeren konbertsio baten imajina antagoni-
koa proiektatuko ez balu: onezkoa zein gaitzezkoa, inguruneko asmo
batek nonahi jarraitzen dio, ilargiak berarekin lasterka egiten duela
dirudien legez berak lasterka egiten duenean. Asmo ona bada, hartan
bermatuko da. Aitzitik, bere kaltea nahi badu, bere efektuari eskintxo
egiten saiatuko da; baina, edozein kasutan, aintzakotzat hartua izango
da. Ez dago horretan inolako teoriarik, ez da hautazkorako inolako
lekurik ere. Konbikzioa nagusitu egiten da ez baitu ezer filosofikotik,
bizi-mailako soilik delarik.

Bestalde erdibitu eta bi norabide dibergentetan bilakatzen
bada, alde batetik, jadanik banakotuak diren espirituen sinisterako

norabidean eta, bestetik, esentzia inbertsonal baterako norabidean, hori ez da arrazoi teorikoengatik gertatzen; arrazoi horiek kontrobertsia eskatzen dute, zalantza onartzen dute, portaeran eragina izan dezaketen doktrinak sorrazten dituzte, baina existentziako gorabehera guztietan ez dute esku hartzen eta ez lirateke bizi osoaren arautzaile bihurtzeko gai izango. Konbikzioa nahimenean kokatu denean, egia da horrek bere ahaleginean irekita aurkitzen dituen edo irekitzen diren norabideetara bultzatzen duela erresistentzia gutxieneko puntuetan. Presente sentitzen duen asmoa era guztietara erabiliko du, fisikoki eraginkorra daukan horretan hartuz, materialetik daukana bera ere bapikatuz eta orduan indarrez menderatzen ahaleginduz, edo alde moraletik ekinez, bultzatuz, aitzitik, pertsonatasunaren zentzuan erre-guaz irabazteko. Beraz, magia eraginkor baten exigentziatik sortu da manaren kontzepzioa, jatorrizko sinestearen txirotze edo materialtzea; eta mesedeak lortzearen beharrianak atera ditu sineste horretatik bertatik, alderantzizko norabidean, espirituak eta jainkoak. Inbertsonala ez da pertsonalerantz bilakatu, eta hasieratik ere ez dira pertsonatasun puruak ezarri, baizik tarteko zerbaitetik, adimena argitzeko baino areago nahimenari eusteko egindakotik sortu dira, disoziazioz, gorantz eta beherantz, indarrak, zeinen gainean pisu egiten baitu magiak, eta jainkoak, zeinengana igotzen baitira arrenak.

Lehen puntua azaldu dugu eta zeregin aski izango genuke bigarrenean hedatu beharko bagenu. Erlijioaren jainkoenganako igotze mailakaturik, zeinen pertsonatasuna gero eta markatuagoa baita, zeinek elkarren artean gero eta harreman hobeki definituagoak baitituzte, edota dibinitate bakar batengan hurrupatzera jotzen baitute, gizadiak zibilizazioa egindako bi urrats handietako bat da. Goratze horrek jarraitu egin du, espiritu erlijiosoak kanpokotik barnekora itzuli zen eguna arte, estatikotik dinamikora, adimen puruak egin zuenaren antzeko eraldakuntza batean, magnitude mugatuaren kontsideraziotik kalkulu diferentzialera igaro zenean. Azken aldaketa hori, zalantzarik gabe, erabakigarria izan zen; orduan ahalgarri bihurtu ziren banakoaren eraldakuntzak, mundu antolatuan hurrenez hurreneko espezieak eragin dituztenak bezalakoak. Progresua nolakotasun berri batzuk sortzean egon zitekeen eta ez hazte hutsean; tokian bertan bizia bakarrik aprobe txatu beharrean edo gelditu garen puntuan, orain bizi-higidura jarraituko dugu. Erabat barnekoa den erlijio horretaz hurrengo kapituluan arituko gara. Ikusiko dugu nola

sostengatzen duen gizakia ezartzen dion higiduraren beraren indarrez eta ez errepresentazio irudimenezkoez bulkada sortzailean kokatuz, zeinek eutsiko bailiokete higiezintasunean bere jarduerari. Baina ikusiko dugu ere dinamismo erlijiosoak erlijio estatikoaren beharra daukala adierazi eta hedatzeko. Ulertzekoa da, beraz, horrek hartzea lehen lekua erlijioen historian. Beste behin, ez daukagu bere agerpenen barietate neurgabeen jarraitu beharrik. Aski izango dugu nagusiak adierazi eta horien kateakuntza markatzeaz.

Abia gaitezen, bada, gauzen baitako asmoak daudelaketik: berehala helduko gara espirituak errepresentatzera. Entitate lausoak dira, adibidez, iturri, ibai, iturburuetan bizi direnak. Espiritu bakoitza agertzen den lekuari loturik dago. Horrenbestez bereizten da dibinitatea propioki deitutik, zeina zatitzeko, leku desberdinetan banatzeko eta genero berekoa den guztia gobernatzeko gai baita. Dibinitate horrek izena izango du; bere figura propioa izango du, bere pertsonatasun ongi definitua, aldiz, baso edo iturrietako milaka espirituak eredu beraren aleak dira eta gehienera ere Horaziorekin: *Nos numerus sumus* esan lezakete. Geroago, erlijioa pertsonaia handi horienganaino igo denean, zeinak baitira jainkoak, espirituak bere irudira kontzebitu ahal izango ditu: jainko beheak izango dira, eta beti halaxe izan direla irudituko du. Baina atzera-eragitezko efektu baten indarrez bakarrik ziratekeen izanak. Zalantzarik gabe, denbora luzea behar izan da, grekoen kasuan, iturriaren espiritua ninfa txairo eta oihaneko Hamadriade izatera iristeko. Primitiboki, iturriaren espiritua iturria bera izan da, antza, gizakiaren ongile den heinean. Zehatzago esateko, egintza ongile hori zen iraunkorretik daukan heinean, eta huts egingo genuke ideia abstraktutzat hartuko bagenu (hau da, gauzetatik ahalegin intelektualez ateratakotzat) egintzaren errepresentazioa eta jarraipena. Zentzumenen datu bitartegabea da. Gure filosofiak eta gure hizkuntzak lehen lekuan ezartzen dute substantzia, atributuz inguratzen dute eta egintzak itrenarazten dituzte hartatik, emanazio gisa. Baina inoiz ez dugu gehiegitan errepikatuko: batzuetan gertatzen da egintza lehenik aurkezten dela eta aski duela bere buruarekin, batez ere giza-kiari bereziki axola zaion kasuetan. Horrelakoa da edatekoa ateratzearen kasua: gauza batean lokaliza daiteke eta geroago pertsona baten gan, baina bere existentzia propio eta independentea du, eta, modu amaigabeen jarraitzen badu, iraupenak berak bihurtuko du edaten

duguneko iturriaren espiritu animatzaile, aldiz, iturria, betetzen duen funtziotik bakarturik, askozaz osokiago pasatuko baita gauza soilaren egoerara. Egia da hildakoen arimak erabat modu naturalean etortzen direla espirituekin elkartzera, zeren, beren gorputzetatik bereizirik ere, ez baitiote beren pertsonatasunari erabat uko egin. Espirituekin nahastean, derrigor lagatzen diete beren koloretik zerbait eta horrela, ematen dieten ñabardurengatik, pertsona bihurtzeko prestatzen dituzte. Horretara, bide desberdin nahiz eta konbergentez, espirituak pertsonatasun osora bideratuko dira. Baina hasieran zuten forma elementalaren azpian, hain beharizan natural bati erantzuten diote, non ez baita harritu behar antzinako erlijio guztien barrenean espirituekiko sinestea aurkitzeaz. Grekoen artean izan zuen eginkizunaz ari ginen: beren erlijio primitibo izan eta gero, zibilizazio mizenikotik atera dezakegunez, erlijio herritar izaten jarraitu zuen. Hori izan zen erlijio erromatarraren hondoa, baita Greziatik eta beste leku batzuetatik inportaturiko dibinitate handiei leku zabalagoa eman eta gero ere eta bestalde: *lar familiaris*, etxeko espiritua zenak beti eutsiko dio bere garrantziari. Nola erromatarren artean hala grekoengan, Hestia edo Vesta deituriko jainkosa hasieran subazterreko sugarra besterik ez bide zen izan bere funtzioan kontsideratua, hau da, bere asmo ongilean. Utz dezagun orain antzinate klasikoa, goazen India, Txina edo Japoniara: nonahi aurkituko dugu espirituekiko sinestea: gaur egun ere (arbasoekiko kultuarekin batera, hartatik oso hurbil baitago) erlijio txinatarraren osagai esentziala hori dela ziurtatzen da. Sineste uni-bertsal bat izatean, aise iritsi zen originala delako konbikziora. Gutxienez konstata dezagun jatorrietatik ez dela urrun aurkitzen, eta giza espiritua hartatik naturalki pasatzen dela jainkoen adoraziora heldu aurretik.

Sinestea, bestalde, tarteko etapa batean gera liteke. Animalien kultuaren aipamena egin nahi dugu, beste garai batzuetako gizadian hain hedatua zen horrena, zeina batzuek kontsideratu izan baitute giza formako jainkoen adorazioa bera baino ere oraindik naturalagozat. Ikusten dugu nola irauten duen, bizi eta hisituki, gizakiak bere irudi propiora jainkoak errepresentatzen dituen tokian bertan ere. Halaxe iraun zuen azkena arte antzinako Egipton. Batzuetan animali formatik sortu den jainkoak uko egiten dio erabat hura uzteari, eta bere gizaki-gorputzari animali buru bat gainezarriko dio. Horrek guztiak harritu

egiten gaitu gaur, batez ere gure begietarako gizakiak duintasun gaile-
na lortu baitu. Adimenaz ezaugarritzen dugu, eta badakigu ez dagoe-
la nagusitasunik adimena emateko gai ez denik, ezta konpentsatu ezin
duen beheretasunik ere. Baina hori ez zen artean horrela adimenak
oraindik bere gaitasunen probarik eman ez zuenean. Bere asmakun-
tzak urriegiak ziren asmatzeko bere gaitasun amaigabea agertu ahal
izateko; gizakiari eskuratzen zizkion armek eta lanabesek gaizki jasa-
ten zuten animaliak naturatik harturikoekiko erkaketa. Gogoeta bera,
bere indarraren sekretua dena, ahulezia baten efektua izan zitekeen,
ezbai-iturri baita, aldiz, animaliaaren erreakzioa, zinez instintuzkoa
denean, bitartegabea eta segurua da. Animaliaaren mintzatzeko gaita-
sunik ezak berak ere ez dio bere alde jokatzeari utzi, misterio-aureola
bat emanez. Bere isiltasuna, bestalde, destaina gisa hartua izan zite-
keen, animaliak gurekin hitz egitea baino zerbait hoberik balu bezala.
Horrek guztiak azaltzen du gizadiak animaliekiko kultuaren higuinik
ez sentitu izana. Alabaina, zergatik iritsi da horretara? Animalia pro-
piedade karakteristiko batengatik adoratzen dela ohartuko da.
Antzinako Egipton, zezanak gudu-ahalmena irudikatzen zuen; lehoie-
mea suntsiera zen; saia, kumeekiko hain arretatsua dena, amatasuna.
Alabaina, ez guke ulertuko noski animalia kultu-gai izatera iristea
gizakia espirituengan sinestetik hasi izan balitz. Baina izakiengana ez
baizik iraunkortzat kontsideratzen diren egintza ongile edo kaltegi-
etara jo badugu lehenik, naturala da egintzak atzeman ondoren nola-
kotasunez jabetu nahi izana: beren aldetik, bazirudien nolakotasun
horiek egoera puruan agertzen zirela animaliarengan, zeinaren jardue-
ra sinplea baita, pieza bakarrekoa eta norabide bakar batean orienta-
tua. Animaliaaren adorazioa ez da izan, beraz, erlijio primitiboa; baina
horretatik irtetean, gizadiak topo egin zuen espirituekiko kultuaren eta
animaliekikoaren artean hautua egin beharrarekin.

Animaliaaren izaera nolakotasun bakar batean kontzentratzen
dela dirudien aldi berean, indibidualitatea genero batean disolbatzen
dela esan liteke. Gizaki bat berrezagutzea beste gizaki batzuegandik
bereiztean datza, baina animalia bat berrezagutzea zein espezietakoa
den konturatzean datza eskuarki: hori da gure interesa kasu batean eta
bestean, nondik ondorioztatzen baita gure pertzepzioak atzeman egi-
ten dituela ezaugarri indibidualak lehenean, eta aldiz, ihes egiten uzten
diela ia beti horiei, bigarreanean. Denik eta konkretu eta indibiduala

delarik ere animalia bat, beti agertuko da, esentzialki, nolakotasun bat bezala eta bai esentzialki genero bat bezala ere. Bi itxura horietatik, lehenak, ikusi berri dugunez, azaltzen du animaliekiko kultua hein handi batean. Bigarrenak, ulertaraz liezaguke neurri batean, hala uste dugu, hain singularra den totemismoa. Ez daukagu hemen aztertu beharrik, baina hitzerdi bat esan beharra daukagu hartaz gutxienez, zeren zoolatria ez bada, hala ere, gizakiak animalia espezie bat edo baita begetala ere, batzuetan objektu bizigabe soil bat, erlijioaren antz handia duen adeitasun batez tratatzea inplikitzen. Har dezagun kasurik sarriena: animalia bat da, adibidez, arratoia edo kangurua, «totemizat» balio duena, hau da, zaindaritzat leinu oso batentzat. Harrigarriena da leinukideak harekin identifikatzen direla aitortzea; arratoiak *dira*, kanguruak *dira*. Jakin egin beharko da, noski, zer zentzutan esaten duten hori. Horretatik «primitibo»ak propioa duen logika berezi bat eta kontraesan printzipiotik libre dagoena bitartegabe ateratzea bizkorregi aritzea litzateke. Gure *izan* aditzak definitzeko lanak ematen dizkigun esanahiak ditu, nahiz eta oso zibilizatutzat eduki geure buruak: nola berreraiki primitiboak ematen dion zentzua halako edo bestelako kasuan hitz analogo bati, nahiz eta berak azalpenak eman? Azalpen horiek ez lukete inolako zehaztasunik izango filosofoa ez balitz behintzat, eta orduan ere bere hizkuntzaren sotiltasun guztiak ezagutu beharko lirateke horiek ulertu ahal izateko. Pentsa dezagun aldi berean, gutaz, bestalde, gure behaketa- eta arrazoiketa-ahalmenez, gure zentzu komunaz emango lukeen epaian, baldin eta jakingo balu gure moralistarik handienak «gizakia kanabera pentsatzaile bat *da*» esan duela. Bestalde, hitz egiten al du bere totemarekin?, gizaki bezala tratatzen al du? Beti toki berera itzultzen gara: gizaki primitibo baten espirituan zer gertatzen den jakiteko, baita zibilizatu batenean ere, zer egiten duen kontsideratu behar da, gutxienez zer esaten duen adina. Alabaina, primitiboa ez bada bere totemarekin identifikatzen, orduan enblematzat hartzen al du soilik? Hori baieztatzea urrunegi joatea litzateke, aurrekoari kontrajarritako zentzu batean: nahiz eta totemismoa ez-zibilizatuen antolakuntza politikoaren oinarria ez izan, Durkheimek nahi duenez, horrek gune handiegia hartzen du beren existentzian leinua izendatzeko bitarteko soil bat hartan ikus dezagun. Egiak tarteko zerbait izan behar du muturreko bi soluzioen artean. Hipotesi gisa, onar dezagun interpretazioa, zeinera gure printzipioek gida baikintzakete. Leinu batek halako edo bestelako animalia dela

esatetik ezin dugu ezer deduzitu. Baina tribu berean dauden bi leinuk derrigor bi animalia desberdin izan behar dutelakoa askozaz irakasgarriagoa gertatzen da. Izan ere, demagun seinالاتu nahi dela bi leinu horiek bi espezie eratzen dituztela terminoaren zentzu biologikoan: nola ulertu ahal izango da hori hizkuntza oraindik zientziaz eta filosofiaz blai egin ez den tokian? Animalia baten zertzelada indibidualek ez dute atentzioa ematen, eta animalia, genioen, genero gisa hautematen dela. Bi leinuk bi espezie desberdin eratzen dituztelakoa adierazteko, horietako batari animalia baten izena emango zaio eta besteari, beste batena. Izen horietako bakoitza, isolatuki hartuta, izendapen bat besterik ez zen: aldiz, batera baieztapen baten baliokide dira. Izan ere, bi leinuak *odol desberdinekoak* direla diote. Zergatik diote hori? Totemismoa presente badago, esaten denez, lurbolaren gune batean baino gehiagotan, elkarrekin komunikatzerik izan ez duten gizarteetan, gizarte horiek dute beharrian komun bati, bizi-exigentzia bati erantzun behar izan dio. Izatez, badakigu tribua banatzen deneko leinuak sarritan exogamoak direla: beste termino batzuetan, elkartzeak leinu desberdinetako kideen artean egiten dira, baina ez horietako baten barruan. Luzaroan, horretan lege orokor bat zegoela ere ikusi nahi izan zen, eta totemismoak beti exogamia inplikatzan zuela sinetsi ere egin zen. Demagun horrela izan zela hasieran eta exogamia desagertuz joan dela kasu askotan denborarekin. Aise ulertzen dugu naturak zer interes daukan leinu bateko kideak erregulariki beren artean ezkontzea ekiditeko, eta gizarte itxi horretan elkartzeak azkenerako hurbileko ahaideen artean egin ez daitezen: arraza berandu gabe andeatuko litzateke. Instintu batek, baliagarri izateari utzi dionetik zeharo aztura desberdinez estali den batek, leinutan bereiztera eramango du, zeinaren baitan ezkontza debekaturik egongo baita. Instintu horrek lortuko ditu, noski, bere xedeak, leinuko kideak ahaide bezala sentiaraziz eta leinutik leinura, aitzitik, ahal bezain arrotz sentiaraziz, zeren beren *modus operandi*-a, gure artean ere nabari dezakeguna, elkarrekin bizi diren edo ahaideak direla dakiten gizon eta emakumeen artean sexu-erakarmena gutxitzean datza¹⁴. Orduan, nola konbentzituko dute beren burua bi leinu desberdinetako kideek, nola adieraziko dute ez direla odol berekoak? Espezie berekoak ez direla esatera ohituko dira. Ondorioz, bi animali espezie eratzen dituztela aitortzen dutenean, ez dute animalitasuna azpimarratzen, dualtasuna baizik. Gutxienez, horrela izan bide da jatorrian¹⁵. Aitor dezagun, noski, gertakorra bai-

zik ez denaren eremuan gaudela hemen, ahalgarri hutsaren eremuan gaudela ez esatearren. Oso eztabaidatua den arazo batean eskuarki segurua dirudien metodoa probatzea besterik ez dugu egin nahi izan. Beharrian biologiko batetik abiatu, dagokion beharritzana bilatzen dugu bizidunarengan. Beharrian horrek ez badu instintu erreal eta aktibo bat sortzen, instintu birtual edo ezkutukoa dei litekeenaren bidez, instintuak egingo zukeenez portaera determinatzen duen erre-presentazio irudimenezko bat sorrazten du. Totemismoaren oinarrian gisa horretako erre-presentazioa legoke.

Baina itxi dezagun parentesi hau, agian arreta handiagoa merezi zuela esango den objektu batentzat irekia. Espirituen gaian gelditurik geunden. Uste dugu, erlijioaren beraren esentziaraino barrendu eta gizadiaren historia ulertzeko, beharrezko izango litzatekeela orain arte tratatu dugun erlijio estatiko eta kanpokotik hurrengo kapituluan tratatu dugun erlijio dinamiko, barnekora berehalakoan joatea. Lehenak adimenak gizakiari sorraz ziezazkiokeen arriskuak saihestea zuen helburu, eta infraintelektuala zen. Gehi dezagun naturala zela, zeren giza espezieak bizi-bilakaeraren halako etapa bat erre-presentatzen baitu; etapa, zeinean gelditu baita aurrerantz zihoan higidura; orduan gizakia globalki hartua izan da, adimenez hornitua, beraz, horrek sorraz zitzakeen arriskuekin, eta, aldi berean, horiei kontrajarri behar zitzaion funtzio fabulatzailarekin; magia eta animismo elementala, hori dena blokean agertua zen, eta denak bere multzoan zehatz-mehatz erantzuten zien norbanakoaren eta gizartearen beharritzei, bata eta bestea mugatuak beren askonahietan eta desiratuak naturan. Geroago, ez gertatzea ahalgarri zen ahalegin baten indarrez, gizakiak ihes egin zion geldialdiari berriro bilakatze-korrontera itzuli eta hura luzatzeko. Hori erlijio dinamikoa izan zen, zalantzarik gabe intelektualitate garaio bati lotua, baina hartaz bestelakoa. Erlijioaren lehen forma infraintelektuala izan zen, eta badakigu zergatik. Bigarrena, adieraziko ditugun arrazoiengatik, supraintelektuala izan zen. Elkarri kontrajarri hobeki ulertuko ditugu. Banaka, izan ere, esentzialak eta puruak dira muturreko bi erlijio horiek. Tarteko formek, antzinako zibilizazioetan garatu zirenek, huts egitera bakarrik eramango lukete erlijioaren filosofia pixkanakako hobekuntzaren bidez mutur batetik bestera igaro dela sinetsaraztera eramago balute: errore hori, zalantzarik gabe, naturala da eta erlijio estatikoak, partez, erlijio dinamikoan

bizirik iraun izanak azaltzen duena. Baina tarteko forma horiek giza-diari ezagutzen diogun historian hain leku handia izan dute, non beharrezkoa baita horietan geldi gaitezen. Ez dugu ikusten horietan, bestalde, erabat berria denik ezer, ezta erlijio dinamikoarekin erkagarria denik ere, ezertxo ere ez animismo elementala eta magiaren gai bikoi-tzaren gaineko bariazio soilak ez denik. Jakina, espirituekiko sinestea izan da beti herri-erlijioaren barrena, baina hori landu bide duen ahal-men fabulatzailerak gero garapen baten indarrez sortu da; mitologia horren inguruan literatura, artea, instituzio sail bat eta, azken finean, antzinako zibilizazioaren esentziazko guztia loratu da. Hitz egin dezagun, beraz, mitologiak, inoiz begietatik galdu gabe bere abiapuntua izan dena eta oraindik ere hartan argitara hautematen dena.

Nahiz eta espirituengandik jainkoenganako igarobidea sentigaitza izan, hala eta guzti ere, ez da harrigarritasun gutxiagokoa. Jainkoa pertsona da. Bere nolakotasunak ditu, bere akatsak, bere izaera ditu. Izen bat darama. Erlazio definituak ditu beste jainkoekiko, funtzio garrantzitsuak egikaritzen ditu eta, batez ere, berak bakarrik egikaritzen ditu. Aitzitik, milaka espiritu desberdin daude, herrialde baten gainaldean zehar barreiatuak, egiteko bera egikaritzen dutenak; izen arruntez izendatuak dira, eta izen horrek, kasu batzuetan, singularrik ere ez du izango: maneak eta penateak, adibide hori baizik ez hartze-arren, pluralean bakarrik aurkitzen ditugun hitz latindarrak dira. Errepresentazio erlijioso egiazki originala «presentzia eraginkorra»-rena bada, egintza batena areago izaki edo gauza batena baino, espirituekiko sinestea jatorrietatik oso hurbil kokatzen da; jainkoak geroago agertzen dira, espirituek zeukaten substantzialsasun puru eta sinplea, horietako batengan edo besterengan pertsonatasuneraino igotzen denean. Jainko horiek espirituei batzen zaizkie, baina horiek ordeztu gabe. Espirituekiko kultuak jarraitu egiten du, jadanik esana dugunez, herri-erlijioaren barrena izaten. Nazioaren alde ilustratuak ez dio utziko horregatik jainkoak nahiago izateari, eta esan daiteke politeismorako ibilbidea zibilizazioranzko progresua dela.

Alferrikakoa izango litzateke ibilbide horri erritmo bat edo lege bat bilatzea. Kapritxoa bera da. Espirituen ugaritasunetik tokiko dibinitate bat ikusiko da sortzen, hasieran apala dena, hiriarekin haziko dena eta azkenean nazio osoak beretzat hartuko duena. Baina beste bilakaera batzuk ere ahalgarri dira. Bestalde, arraroa da bilakaerak

behin betiko egoera batera gidatzea. Denik eta garaiena bada ere jainkoa, bere dibinitateak ez du inola ere aldaezintasuna inplikatzeko. Areago aitzitik, antzinako erlijioetako jainko nagusiak dira gehien aldatu direnak, atributu berriez aberastuz, jainko desberdinak hurrupatuz, horien bidez beren substantzia lodituz. Horrela, egiptoarren artean, Ra eguzki-jainkoa, hasiera batean adorazio gorenaren gai zenak beste dibinitate batzuk erakartzen ditu beregana, horiek asimilatu edo horiekin lotzen da, eta Amon, Tebasko jainko garrantzitsua-rekin nahasten da, Amon-Râ eratzeko. Horrela Marduk, Babiloniako jainkoa, Bel, Nippurreko jainko handiaren atributuez jabetzen da. Eta era berean Istar jainkosa ahaltsuarengan zenbait jainko asiriarrak egiten dira. Baina ez dago beste bilakaerarik Zeusena, Greziako jainko subiranoarena baino aberatsagorik. Zalantzarik gabe, mendien gailurrean adoratzeko den, hodei, euria eta ostotsaren gain agintzen duen jainkoa izanez hastetik, bere funtzio meteorologikoari, horrela hitz egiterik badago, gero eta konplexutasun handiago hartu zuten atributuzio sozialak gehitzen dizkio, eta azkenerako taldekatze guztien burua den jainko bihurtzen da, familiatik estaturaino. Beharrezko zen bere izenari epitetorik desberdinenak gehitzea bere jarduera garatzen zen norabide guztiak seinalatzeko: Xenios, abegikortasunaren betebeharrak betetzeaz arduratzen zenean; Horkios, zin-egiteetan izaten zenean; Hikesios, erregutzaileak babesten zituenean; Genethlios, ezkontza baterako dei egiten zitzaionean, eta abar. Bilakaera, eskuarki, geldo eta naturala izaten da, baina lasterra ere izan daiteke eta era artifizialean burutua jainkoaren adoratzaileen begi propioen aurrekoa. Olinpoko dibinitateak poema homerikoen garaikoak dira, zeinek agian ez baitituzte sortu, baina ezagutzen dizkiegun forma eta atributuak eman baitizkiete, elkarren artean koordinatu egiten baitituzte eta Zeusen inguruan taldekatu baitituzte, kasu horretan sinpletzez areago jokatuz konplikatzez baino. Baina horregatik grekoek ez diote utzi horiek onartzeari, zeinek, hala ere, bai baitzekizkiten horien ingurubarrak eta ia horien jaiotze-data bera ere. Baina poeten genioa ere ez zen beharrezkoa: printzearen dekretu bat aski izan zitekeen jainkoak egin edo desegiteko. Esku hartze horien xehetasunetan sartu gabe, gogora dezagun horietako erradikalena, Iknaton izena hartu zuen faronarena: Egiptoko jainkoak ezabatu zituen horietako bakar baten mesedetan, eta bere heriotza arte monoteismo gisako hori onarraraztea lortu zuen. Jakina da, bestalde, faraonek berek dibinitatean esku

hartzen zutela eta garairik antzinakoenetatik «Râren seme» deiarazten zituztela beren buruak. Subiranoa jainko bezala tratatzearen usadio egiptoar horrek segi egin zuen Ptolomeoen agintepean, eta ez zen Egiptora bakarrik mugatu: Sirian ere aurkitzen dugu Seleuziden agintepean, Txinan eta Japonian, non enperadoreak jainko-ohoreak hartzen baititu bere bizitzan eta jainko bihurtzen baita hil eta gero; azkenik, tradizio bera aurkitzen dugu Erroman, non Senatuak Julio Zesar jainkotu baitzuen, Augusto, Klaudio, Vespasiano, Tito, Nerva eta azkenik enperadore guztiek jainko-maila hartzearen zain geratuz. Zalantzarik gabe, subiranoaren adorazioa ez zen alderdi guztietan seriotasun beraz praktikatzen. Aldea dago, adibidez, erromatar enperadorearen eta faraonaren dibinitatearen artean. Azken hori gizarte primitiboetako buruzagiaren dibinitatetik oso hurbil aurkitzen da, eta agian subiranoak daukan jariakin berezi edo botere magikoaren ideia loturik aurkitzen da; aldiz, beste hartan lausengukeria morrontzapekoz soilik eman zitzaion Zesarri eta Augustok *instrumentum regni* bezala erabili zuen. Eta, hala ere, enperadoreak adoratzekak berekin zuen erdi-eszeptikotasunak espiritu landuen ondare izaten jarraitu zuen Erroman; ez zen hedatu herrian; seguraski ez zen probintzietara heldu. Hau da, antzinateko jainkoak jaio, hil, eraldatu egin zitezkeen, gizakien eta zirkunstantzien gogara, eta paganismoaren fedea mugarik gabeko konplazentziazkoa zen.

Hain zuzen ere gizakien apetak eta inguruabarren zoriak beren sorreran hainbesteko garrantzia izan dutelako, ez dago jainkoak zehazki sailkatzerik. Gehienez ere, fantasia mitologikoaren norabide handi batzuk bakar daitezke eta orduan ere ikusi egin beharko litzateke erregulartasunez jarraitu diren. Jainkoak eskuarki erabiliak izateko agertzen zirenez, naturala da orokorki funtzioak egotzi izana eta kasu askotan funtzio-ideia nagusia izatea. Horixe gertatu zen Erroman. Esan ahal izan da jainkoen espezializazioa erlijio erromatarraren ezaugarria zela. Ereintzarako Saturno zeukan; frutarbolen loratzerako, Flora; fruituak heltzeko, Pomona. Janori esleitzen zioten atearen zainketa, Vestari subazterrarena. Elkarrekin ahaideturiko funtzio ugari jainko berari egozte baina nahiago zuen jainko desberdinak ezartzea, izen bera emanez, hori bai, kalifikatibo desberdinekin. Horrela, Venus Victrix, Venus Felix, Venus Genetrix zeuzkan. Jupiter bera Fulgur, Feretrius, Stator, Victor, Optimus maximus zen, neurri bateraino inde-

pendenteak ziren, eta euria eta eguraldi ona bidaltzen zituen Jupiterren eta nola bakean hala gerran Estatua babesten zuenaren artean bidea zuintzen zuten dibinitateak ziren. Baina joera bera aurkitzen da nonahi, maila desberdinetan. Gizakiak lurra lantzen duenetik dauzka uztaz arduratu, beroa eman eta urtaroen erregularitasuna ziurtatzen duten jainkoak. Nekazaritza-funtzio horiek ezaugarritu bide dituzte jainkorik antzinakoenetako batzuk, nahiz eta begietatik galdu diren jainkoaren bilakaerak hura pertsonalitate konplexu bihurtzean, historia luze batek kargatua. Horrela Osiris, egiptoar panteoiko figurarik aberatsena, badirudi hasiera batean begetazioaren jainkoa izan zela. Hori zen grekoen Adonisi primitiboki itzulitako funtzioa. Hori bera zen Niasabarena, Babilonian, laboreak presiditzen zituenarena, Zientziaren jainkosa bihurtu baino lehen. Indiako jainkoen lehen mailan Indra eta Agni ageri dira. Indrari zor zaizkio lurrari mesede egiten dioten euria eta ekaitza; aldiz, Agniri sua eta etxeko subazterraren babesa zor zaizkio; eta hemen ere funtzio-desberdintasuna izaera-desberdintasun batek laguntzen du, Indra bere indarrez eta Agni bere jakituriaz bereizten direlarik. Funtzio garaiena, noski, Varunarena da, ordena unibertsala gobernatzen duenarena. Japoniako sintoismoan, Lurraren jainkosa, uztena, mendien zaindaria, zuhaitzena eta abarrena berraurkitzen ditugu. Baina mota horretako ezein dibinitatek ez du pertsonalitate nabarmenago eta osoagorik grekoen Demeterrek baino, zeina baita lurtzoruaren eta uzten jainkosa ere, eta gainera, hildakoez ere arduratzen dena, zeini ematen baitie egoitza, eta zeinak, bestalde, familiaren eta gizarte-bizitzaren buruzagitza ere egiten baitu Thesmoforos izenaren pean. Horixe da jainkoak sortzen dituen fantasiaren joera markatuena.

Baina horiei funtzioak esleitzean modu naturalean lurralde-forma hartzen duen subiranotasuna egozten zaie, eta jainkoek unibertsoa banatzen dutela beren artean kontsideratzen da. Poeta vedikoen arabera, horien eragin-eremu desberdinak zerua, lurra eta tarteko eguratsa dira. Kosmogonia babiloniarrean, zerua Anuren eremua da eta lurra Belena; itsasoaren sakonean Ea bizi da. Grekoek honela banatzen dute mundua: Zeus, zeruaren eta lurraren jainkoa, Poseidon, itsasoaren jainkoa, eta Hades, infernuetako erresumaren jabea. Horiek naturak berak zedarrituriko eremuak dira. Alabaina, astroen inguruneak ez dira zehaztasun gutxiagokoak; beren formarengatik banakotzen dira,

baita beren higidurengatik ere, zeinek baitirudite haien baitan daudela; bada bat hemen behean bizia ematen duena, eta gainerakoek ahalmen hori berori ez izateagatik ez daukate izaera berari uko egin beharrik; horiek ere badute, beraz, beharrezko guztia jainko izateko. Astroen dibinitatearekiko sinesteak Asirian hartu zuen bere forma sistematikoena, baina eguzkia eta zeruaren adorazioa ia nonahi aurkitzen da: Japoniako erlijio sintoistan, non Eguzkiaren jainkosa subirano aldarrikatzen baita ilargiaren jainko batekin eta izarren jainko batekin azpian; antzinako egiptoar erlijioan, zeinean ilargia eta zerua jainkotzat hartzen baitira menderatzen dituen eguzkiarekin batera; erlijio vedikoan, zeinean Mitrak (iraniar Mitraren berdin-berdina, eguzki-jainkoa dena) eguzkiaren edo argiaren jainko bati legozkiekeen atributuak aurkezten baititu; Txinako erlijio zaharrean, zeinean jainko pertsonala baita; azkenik, grekoen artean bertan, jainkorik antzinakoenetako bat Helios da. Herri indogermaniarretan, oro har, zerua kultu berezi baten gai izan da. Dyaus, Zeus, Jupiter, Ziu izenen pean komuna da hindu vediko, greko, erromatar eta teutoientzat, nahiz eta Grezian eta Erroman bakarrik izan jainkoen erregea, mongoliarren dibinitate zerutarra Txinan den bezala. Hemen, batez ere, egiaztatzen da jainko oso antzinakoen joera, erabat materialak ziren beharризenez hasiera batean arduratuena, beren adinak aurrera egin ahala atributu moralez aberastekoa. Hegoaldeko Babilonian, dena dakusan Eguzkia zuzenbidea eta justiziaren zaindari bihurtzen da, eta «epaile» titulua hartzen du. Hinduen Mitra egiaren eta zuzenbidearen babeslea da, eta kausa onari garaipena ematen dio. Egiptoarren Osiris, begetazioaren jainkoa izan eta gero eguzki-jainkoarekin bat egin dena, hildakoen lurraldean agintzen duen epaile handi berdinzale eta errukior bihurtzen da azkenerako.

Jainko horiek guztiak gauzei loturik daude. Baina badira beste batzuk –sarritan berak izaten dira, baina beste ikuspuntu batetik kontsideratuak– pertsona edo taldeekiko beren harremanez definitzen direnak. Jainkotzat har al daiteke norbanako baten genio edo demonio propioa? *Genius* erromatarra *numen* zen eta ez *deus*; ez zuen figurarik ez izenik, eta ia «presentzia eraginkor» hori besterik ez zen, zeina, jadanik ikusi dugunez, dibinitateak duen primitiboena eta esentziale-na baita. Familia zaintzen zuen *lar familiaris*-ak ia ez zuen beste pertsonalitaterik. Baina zenbat eta taldea garrantzitsuagoa izan, hainbat

eskubide gehiago du egiazko jainko baterako. Adibidez, Egipton lehen hirietako bakoitzak bere babesle jainkotiarra zeukan. Jainko horiek, elkarren artean, honelako edo bestelako komunitatearekiko zuten erlazioarengatik bereizten ziren; «Edfukoa», «Nekkebekoa» esatea aski zen behar adina bereizteko. Baina sarriago izaten ziren taldearen aurretik existitzen ziren eta horrek hartutako dibinitateak. Horixe bera gertatu zen Egipton bertan Amon-Rârekin, Tebasko jainkoarekin, eta Babilonian ere, zeinean Ur hiriak Ilargia baitzeukan jainkotzat, eta Urukekoak Venus planeta. Era berean, Grezian, non Demeter bere etxean sentitzen baitzen Eleusisen, Atenea Akropolian eta Artemisa Arkadian. Sarritan, babesleek eta babestuek elkarri laguntza ematen zioten, eta hiriko jainkoak hiriaren handitzeaz baliatzen ziren. Gerra-jainko arerioen arteko borroka izaten zen. Hori bai, horiek adiskidetu egin zitezkeen eta menderatutako herriko jainkoak garaitzailearen panteoian sar zitezkeen. Baina egia da hiria edo inperioak, alde batetik, eta horien jainko babesleek, bestetik, elkartasun lauso bat eratzen zutela, zeinaren izaera mugagabeki aldatu bide baita.

Hala eta guztiz ere, erosotasun hutsez definitzen eta sailkatzen ditugu horrela fabuletako jainkoak. Horien jaiotza eta garapena ez da ezein legeren pean egon, gizadiak atea irekita utzi dio hemen bere fabulazio-instintuari. Zalantzarik gabe, instintu hori ez da oso urrun iristen bere baitan uzten denean, baina amaigabeki egiten du aurrera lantzen saiatzen garenean. Zentzu horretan, alde handiak daude herri desberdinetako mitologiaren artean. Antzinako klasikoak kontrajartze horren adibide bat eskaintzen digu: izan ere, mitologia erromatarra txiroa da, aldiz, grekoena joria da. Antzinako Erromako jainkoak bat dotoz egotzi zaien funtzioarekin, eta ibilgeturik bezala daude bertan. Ozta-ozta dute gorputza, hau da, figura irudikagarria; izatez, doi-doi dira jainko. Aitzitik, antzinako Greziako jainkoetako bakoitzak bere fisionomia, bere izaera eta bere historia du. Joan eta etorri dabil, beren egintzek gaingitu egiten dute beren funtzioen ariketa, beren abenturak kontatu egiten dira eta gure arazoetan duten esku hartzea deskribatu egiten da. Artista eta poetaren fantasia guztietarako aukera ematen dute. Nobela-pertsonaia areago izango litzateke, gizakiena baino bote-re gorenagoa duelako ez balitz, baita naturako legeen erregularutasuna hausteko pribilegioa ere, zenbait kasutan gutxienez. Labur esanda, espirituaren funtzio fabulatzaila gelditu egin da lehen kasuan eta

jarraitu egin du bere lana bigarrenean, baina beti funtzio bera da eta, beharrezko denean, berriz ekingo dio etendako lanari. Horixe izan zen literatura, eta orokorragoan, ideia grekoak Erroman sartzearen efektua. Badakigu erromatarrek nola identifikatu zituzten beren jainkoak Heladekoekin, nortasun nabarmenago bat horrela eman eta atsedenetik higidurara pasaraziz.

Jadanik esan genuen funtzio fabulatzaile horretaz gaizki definituko genukeela hura imajinazioaren barietate bihurtuz gero. Termino horrek zentzu negatiboa areago zuela esana dugu. Izan ere, imajinatibo deitzen ditugu ez hautemate eta ez oroitzapen ez diren errepresentazio konkretuak. Nola errepresentazio horiek ez duten marrazten objektu presente bat, ez iragandako gauza bat ere, zentzu komunak era berean kontsideratzen ditu eta termino bakarrak izendatzen hizkuntza arruntan. Baina horregatik psikologoak ez ditu taldekatu behar kategoria berean ezta funtzio berari lotu ere. Utz dezagun, beraz, alde batera imajinazioa, hitz bat besterik ez baita, eta kontsidera dezagun espirituaren ahalmen ongi definitu bat, pertsonaiak sortzearena, zeinen historia geure buruari kontatzen baitiogu. Ahalmen horrek aparteko intentsitatea irabazten du eleberrigile eta dramaturgoengan. Badira horien artean beren heroiarekin egiazki obsesionaturik daudenak, eta heroiak gidatzen ditu, haiek bera gidatu beharrean. Heroiarengandik libratzeak berak ere lanak ematen dizkie, drama edo eleberria amaitu eta gero. Autore horiek ez dira derrigor balio handieneko obra dutenak, baina beste batzuek baino hobeki, gutako batzuegan gutxienez presente dagoen borondatezko haluzinaziorako ahalmen berezi baten existentzia eskuez ukitzeko aukera ematen digute. Egia esateko, neurri batean mundu guztian aurki dezakegu, eta oso bizia da haurrengan. Batzuek eguneroko harremana izango dute pertsonaia irudikatu batekin, zeinaren izena adieraziko baitizue, eta era berean eguneroko gorabehera bakoitzari buruzko bere inpresioak kontatuko dizkizue. Baina ahalmen hori bera sartzen da jokoan haiengan, zeinek berenez fikziozko izakia sortu gabe, fikzioez izaki errealez adina interesatzen baitira. Izan al liteke ezer estrainioagorik antzerkian ikusleak negarrez ikustea baino? Obra aktoreek antzezturik dagoela eta eszenan hezur eta haragizko gizakiak daudela esango da. Ados, era berean ia indar beraz «harrapa» gaitzake irakurtzen dugun eleberririk, eta puntu bereraino sinpatiza dezakegu kontatzen zaigun isto-

rioko pertsonaiekin. Ahalmen horrek duen misteriozkoak nola ez ditu psikologoak txunditu? Erantzungo zaigu gure ahalmen guztiak misteriotsuak direla horietako baten baruko mekanismoa ere ezagutzen ez dugun neurrian. Zalantzarik gabe; baina berreraikuntza mekaniko bat hemen planteatzerik ez badugu, azalpen psikologiko bat eskatzeko eskubidea badugu. Eta azalpena psikologian biologiakoa bera da: funtzio baten existentziaren berri ematen da biziarentzat nola eta zergatik den beharrezkoa frogatu denean. Alabaina, ez da beharrezkoa eleberrigile eta dramaturgoak izatea, noski, eta horrela fabulazio-ahalmenak orokorrean ez dio erantzuten bizi-eskakizun bati. Baina demagun aspektu konkretu batean, halako objektu bati enplegatuturik, funtzio hori ezinbestekoa dela nola norbanakoen hala gizartearen existentziarako: nekerik gabe pentsatuko dugu, lan horretarako dena, zeinerako beharrezkoa baita, ahalmen hori erabilia izango dela gero, zeren presente geratzen baita, besterik gabe jolasetarako. Izatez, nekerik gabe igarotzen gara gaur egungo eleberritik ipuin gutxi-asko antzinakoetara, elezaharretara, folklorera, eta folkloretik mitologiara, gauza bera ez denera, baina era berean eratua den horretara; mitologiak, bere aldetik, era historikoan jainkoen pertsonatasuna garatzea besterik ez du egiten, eta azken sorkuntza hori beste sinpleago baten hedapena besterik ez da, uste dugunez, erlijioaren jatorrian dauden «botere erdi-pertsonalena» edo «presentzia eraginkorrena». Hemen biziaren oinarritzko eskakizuna dela frogatutakoarekin kontaktuan sartzen gara: eskakizun horrek sorrarazi du fabulazio-ahalmena; horrela, funtzio fabulatzailea giza espeziearen izate-baldintzetatik deduzitzen da. Jadanik zabal aurkeztu dugun guztia berriz esaten ibili gabe, gogora dezagun, bizi-eremuan, analisiaren aurrean konplikazio amaigabe gisa agertzen dena intuizioari egintza sinple gisa ematen zaiola. Litekeena da egintza ez egikaritzea, baina egikaritu bada, eragozpen guztiak kolpe batez zeharkatu dituela esan nahi du. Eragozpen horiek, zeinetariko bakoitzak beste berri bat sorrazten baitzuen, askotarikotasun amaigabea eratzen dute, eta hain zuzen ere eragozpen horiek guztiak hurrenez hurren ezabatzea aurkezten zaio gure analisiari. Ezabatze horietako bakoitza aurrekoaz azaldu nahi izatea bide faltsuari heltzea izango litzateke; eragiketa bakarraz azaltzen dira guztiak, zeina baita egintza bera bere sinpletasunean. Horrela, geziaren higidura banagabea behingoz garaile ateratzen da milaka eta milaka eragozpenen gainetik, zeinak gure hautemateak, Zenonen arrazoike-

tak lagundurik, higiezintasunetan ibilitako lerroaren hurrenez hurreneko puntuak atzematen dituela uste baitu. Halaber, era berean, ikuspenaren egintza banagabeak, eraginkorra denean, kolpe batez milaka eta milaka eragozpen gainditzen ditu; eragozpen menderatu horiek dira gure hautesmenaren aurrean eta gure zientziaren aurrean agertzen direnak begia eratzen duten zelulen askotarikotasunean, ikus-aparatuaren konplikazioan, eta, azkenik, eragiketaren mekanismo elementaletan. Halaber, pentsa ezazue giza espeziean, hau da, bat-bateko jautzian, zeinaren bidez bilakatzen ari zen bizia gizaki banako eta sozialarengana iritsi baita; aldi berean, egintza berean, fabrikatzeko gai den adimena pentsatzen duzue, eta horren ondoren luzatuko den ahalegin bat, bulkada baten indarrez, fabrikatze hutsetik haratago, zeinerako baitzegoen egina, horrela arrisku bat sortuz. Giza espeziea existitzen bada hori da adimen fabrikatzaileaz gizakia eratzen zeneko egintzak, adimenaren ahalegin jarraituaz, eta ahaleginaren jarraipenak sorturiko arriskuaz, funtzio fabulatzailea bera eragiten zuelako. Hori ez da izan, beraz, naturak nahi izandakoa eta, hala ere, azalpen naturala du. Bai, izan ere, gainerako funtzio psikologiko guztiei batzen diegu, aurkitzen dugu multzoak askotarikotasun baten formapean egintza banaezina adierazten duela, zeinaren indarrez biziak jauzi egin baitu gelditurik zegoen mailatik gizakiarenganaino.

Baina ikus dezagun hurbilagoetik ahalmen fabulatzaile horrek bere asmakuntzak zergatik ezartzen dituen salbuespenezko indarrez eremu erlijiosoan egikaritzen denean. Ez dago zalantzarik hori duela bere eremua; espirituak eta jainkoak fabrikatzeko egina dago, baina beste alderdi batean bere fabulazio-lana jarraitzen duenez, badu zentzua galdetzeak, ea era berean obratuz, zergatik ez duen orduan sines-te bera lortzen. Bi arrazoi aurkituko ditugu hori horrela izateko.

Lehen a da gai erlijiosoan bakoitzaren atxikimendua guztien atxikimenduekin errebertxatu egiten dela. Antzerkian bertan, ikuslearen esanekotasuna autorearen iradokizunekiko era apartekoan gehitzen da gizarte presentearen arreta eta interesarekin. Baina kasu horretan doi-doi aretoa betetzeko bezain handia den gizarte bat da eta antzerkiaren iraupenekoa. Zer ez ote da gertatuko baldin eta sineste indibiduala herri oso batek sostengatua eta berretsia badago eta bermagune bat hartzen badu nola iraganean hala presentean? Zer ez ote da gertatuko jainkoa poetek kantatzen badute, tenpluetan ostatatzen

badute, artean irudikatzen badute? Zientzia esperimentalak trinko eratu-tuko ez den bitartean, ez da onarpen unibertsala baino egia-
ren berme ziurragorik izango. Egia, gehienetan, onarpen hori bera izango da. Esan dezagun bidenabar hori dela intolerantziaren izateko arrazoi-
etako bat. Sineste komuna onartzen ez duenak eragotzi egiten du, uka-
tzean, erabat egiazkoa izan dadin. Egiak ez du bere integritatea berres-
kuratu hark hitza jan edo hura desagertu arte.

Ez dugu esan nahi sineste erlijiosoa izan ahal ez denik, poli-
teismoan bertan ere, sineste indibiduala. Erromatar bakoitzak *genius*
bat zeukan bere pertsonari lotua; baina ez zuen bere genioan irmoki
sinesten baizik eta gainerako erromatar bakoitzak berea zuelako eta
bere fedea, puntu honetan pertsonala zena, fede unibertsalak bermatzen
ziolako. Halaber, ez dugu esan nahi erlijioa inoiz esentzia sozia-
lekoa izan denik indibidualak baino areago: ikusia dugu nola fun-
tzio fabulatzaileak, norbanakoak jaiotzatik duenak, gizartea sendotzea
duela bere lehen helburua, baina badakigu era berean norbanakoa bera
sostengatzera zuzendua dagoela eta, noski, gizartearen interesa hor
dagoela. Egia esateko, norbanakoa eta gizartea elkarrekin inplikatzeko
dira: norbanakoek gizartea eratzen dute beren batabestearekiko elkar-
tzez, eta gizarteak norbanakoen aspektu oso bat determinatzen du
haietako bakoitzean duen aurreirudikatzez. Norbanakoak eta gizarte-
ak, bada, elkar baldintzatzen dute era zirkularrean. Zirkulua, naturak
nahi izana, hautsi egin du gizakiak bulkada sortzailean bere burua
berriro kokatzea lortu duen egunean, giza naturari aurrerantz bultzatzen
eginez, bere ardatzaren baitan birakatu utzi ordez. Egun horretatik esen-
tzialki indibiduala den erlijio bat sortu da, zeina arrazoi horrengatik
berorrengatik, egia da, sakonkiago sozial izatera iritsi baita. Baina
geroago itzuliko gara puntu horretara. Esan dezagun soilik gizarteak
sineste indibidualari egindako bermearen ekarpena, gai erlijiosoan,
aski izango litzatekeela ahalmen fabulatzailearen asmakuntza horiek
parekorik gabe uzteko.

Baina oraindik beste gauza bat izan behar dugu kontuan. Ikusia
dugu nola antzinakoek zirkuniz egin gabe esku hartzen zuten honela-
ko edo bestelako jainkoren sorreran. Gero, harengan beste edozein
jainkorengan bezala sinesten zuten. Hori onartezina izango litzateke
beren jainkoren existentzia haien zatik ikusten eta ukitzen zituzten
objektuen izaera berekoa zela suposatuko balitz. Haien izaera erreala

zen, baina giza nahimenaren baitan egoteari uzten ez zion errealtate batekoa.

Zibilizazio paganoko jainkoak, izan ere, elfo, gnomo eta espirituen gisako entitate antzinakoagoetatik bereizi egiten dira, zeinetatik inoiz ez baitzen aldendu fede herritarra. Horiekia era bitartegabean zetozen naturala zaigun ahalmen fabulatzaitetik, eta horiek sortu ziren bezala naturalki hartuak ziren. Sorrarazi zituen beharrianaren ingurune zehatza islatzen zuten. Baina mitologiak, lan primitiboaren hedapena baita, gainpasatu egiten du zentzu guztietan beharrian hori; gauza baten eta beste baten artean uzten duen tartea gai batek betetzen du, zeinaren aukeran garrantzi handiko zeregina baitu giza apetak, eta ematen zaion atxikimenduak horren erasana du. Esku hartzen duen ahalmena beti bera da, eta bere asmakuntzen multzoarentzat sineste bera lortzen du. Baina asmakuntza bakoitza, bereizian harturik, besteren bat ahalgarri izan zitekeelako erreserbarekin onartzen da. Panteoia gizakiarekiko independentziarekin existitzen da, baina gizakiaren baitan dago bertan jainko bat sarrarazi eta horrela izatea ematen diolako. Gaur harritu egiten gaitu arimaren horrelako egoerak, baina izatez amets batzuetan esperimintatzen dugu, zeinetan sarraraz baitezakegu, une jakin batean, nahi dugun gorabehera. Hori guztia geuk egikaritzen dugu, baina gure esku hartzerik gabe bere burua egin duen multzo batean. Era berean, esan liteke jainko konkretu bakoitza kontingentea dela, aldiz, jainkoen osotasuna edo, hobeki, jainkoa orokorrean, beharrezkoa dela. Puntu hori sakonduz, eta antzinakoek egin zutenaz harago logika bultzatuz, espirituen sinestean bakarrik izan dela pluralismo behin betikoa aurkituko litzateke, eta politeismo propioki deituak, bere mitologiarekin, monoteismo ezkutu bat inplikatzan duela, zeinean dibinitate askotarikoak sekundarioki bakarrik existitzen baitira, jainkozkoaren adierazgarri gisa.

Baina antzinakoek kontsiderazio horiek gehigarritzat hartuko zituzketen. Erlijioa ezagutza edo kontenplazioaren eremukoa izango balitz bakarrik izango lukete garrantzia. Orduan bakarrik tratatu ahal izango litzateke kontakizun mitologikoa kontakizun historiko bezala, bai kasu batean eta bai bestean, autentikotasunaren auzia planteatuz. Baina egia esateko ez dago erkaketa ahalgarririk bien artean, ez baitira ordena berekoak. Historia ezagutza da, erlijioa batez ere egintza da, eta hari ez dagokio ezagutzarik, sarritan errepikatu dugunez, halako

intelektualitate baten arriskua prebenitzeko errepresentazio intelektual bat beharrezko den heinean izan ezik. Errerepresentazio hori isolatuki kontsideratzea, errepresentazio den heinean kritikatzeko, baterako egintzarekin amalgama bat eratzen duelakoa ahaztea izango litzateke. Mota horretako hutsa egiten dugu geure buruari galdetzen diogunean nolatan espiritu handiek onartu ahal izan duten beren erlijoak osatzen zuen umekeriazko eta baita absurdozko ehuna. Igerilariaren keinuak ere alferrikakoak eta irrigarriak irudituko litzaizkioke ura dagoela eta horrek eusten diola igerilariari ahazten duenari, eta gizakiaren higidurak, likidoaren erresistentzia, ibaiaren korrontea, multzoan hartu behar direla, osotasun banagabe gisara.

Erliijoak diziplinatu eta errebortxatu egiten du. Horretarako beharrezkoak dira ariketa etengabe errepikatuak, baita haiek ere, zeinen automatismoak azkenerako tinkatu egiten baitu, soldaduaren gorputzean, arrisku-egunean beharko duen segurtasun morala. Hau da, ez dagoela erlijiorik erritu eta zeremoniarik gabe. Errerepresentazio erlijiosoak aukera eskaintzen du batez ere sinestetik datozen erlijiokizun horietarako. Sinestea jariatzen dute zalantzarik gabe baina berehalaxe horren baitan jardun eta hori sendotu egiten dute: jainkorik badago, beharrezko da haiei kultua ematea, baina kultua dagoen unetik, jainkoak dauden seinalea. Jainkoaren eta egiten zaion omenaldiaren arteko elkartasun horrek egia erlijiosoa aparteko zerbait bihurtzen du, egia espekulatiboarekiko neurri komunik ez duena, eta neurri bateraino gizakiaren baitan dagoena.

Errituek eta zeremoniek, hain zuzen ere, elkartasun hori estutzera jotzen dute. Horiez luzaro hitz egiteko aukera izango dugu. Hitzerdi bat bakarrik esan dezagun bi nagusiez: sakrifizioaz eta arreraz.

Dinamikoa deituko dugun erlijioan, arrena axolagabea da bere adierazpen berbalarekiko: arimaren igotze bat da, hitzaren beharrik ez izateko modukoa. Bestalde, bere gradurik beherenean, ez zion aztikeria magikoarekin harremana izateari utzi; jainkoen eta batez ere espirituen borondatea bortxatzera ez bazen ere, gutxienez haien ederra irabaztera jotzen zuen. Otoitza, politeismoan ulertzen zenez, bi mutur horien artean kokatzen da eskuarki. Inolako zalantzarik gabe, antzinaroak arren-era miresgarriak ezagutu izan ditu, zeinetan adierazten baitzen hobetzeko arimak zuen jorana. Baina salbuespenak ziren, sineste

erlijioso puruago baten aurrerapen batzuk bezalakoak. Ohikoagoa da politeismoan arrenari era estereotipatu bat ezartzea, bigarren asmo batekin, hari eraginkortasuna emango diona ez dela esaldiaren esnahia soilik, baizik eta hitzen lorpena, baterako keinuen multzoarekin. Esan ere egin daiteke, bilakatuz doan neurrian, politeismoa zorrotzagoa bihurtzen dela aspektu horretan; apaiz baten esku hartzea gero eta beharrezkoago bihurtzen da eliztarraren trebakuntza segurtatzeko. Nola ez ikusi jainkoaren ideia luzatzearen ideia horrek, oroitarazi eta gero, hitz preskribatu eta harrera aurrefinkatuetan, bere imajinari objektibitate garaiaigo bat ematen diola? Jadantik esana daukagu hautemate baten errealtatea eratzen duena, oroitzapen edo imajinazio batetik bereizten duena, ezer baino lehen, gorputzari ezartzen dizkion higidura sorkorren multzoa dela eta, automatikoki hasitako egintza baten indarrez osatzen dutena. Mota horretako higidurak beste kausa baterako diseinatu ahal izango dira: bere aktualitatea eragin dituen errepresentaziorantz birjarioko da eta praktikoki gauza bihurtuko ditu.

Sakrifizioari dagokionez, zalantzarik gabe, ezer baino lehen, jainko baten ederra irabaztera edo haren sumina urrunaraztera zuzenduriko eskaintza da. Hainbat hobeki onartua izango da, zenbat eta gehiago kostatu den eta biktimaren balioa handiagoa izango den. Seguraski horrela azaltzen da, partez, giza biktimak inmolatzeko ohitura, antzinako erlijio gehienetan aurkituko genukeen ohitura, denetan agian, behar adina iraganean atzera egingo bagenu. Ez dago errorerik ez horrorerik, zeinetara logikak zuzen ez dezakeen, adimen hutsaren baitan ez dauden gaiei ezartzen zaienean. Baina oraindik bada besterik sakrifizioan, edo bestela ez litzateke azalduko eskaintza derrigor animalia edo begetala izan izana, ia beti animalia. Hasieran akordioa zegoen sakrifizioaren jatorriak otordu batean ikustean, zeina jainkoak eta bere adoratzaileek, hala uste zen, batera egiten baitzuten. Gero, eta batez ere, odolak bertute berezi bat zuen. Bizi-printzipio zen heinean, jainkoari indar-ekarpen bat egiten zion, zeinak jarriko baitzuen gizakiari hobeki laguntzeko baldintzatan eta agian baita (nahiz eta hori ozta-ozta kontzientea zen erreserba mental bat izan) existentzia trinkoago segurtatzeko ere. Arrena bezala, gizakiaren eta dibinitatearen arteko batura-lokarria zen.

Horrela, politeismoak bere mitologiarekin gizakia inguratzen duten botere ikusezinak gero eta gehiago jasotzeko eta botere horiekin

gero eta harreman estuagoan ezartzeko efektu bikoitza izan du. Antzinako zibilizazioekiko hedadurakide izanik, haiek sortzen zuten guztiaz elikatu da, literatura eta artea inspiratu duelarik, eta haietatik emandakoa baino gehiago jasoz. Hau da, antzinaroan sentimendu erlijiosoa oso elementu ugarietz osaturik zegoen, zeinak herri batetik bestera aldatu egiten baitziren, baina gune primitibo baten inguruan biltzen ziren. Erdiko gune horri erreparatu diogu, zeren antzinako erlijioak espezifikoki erlijiosoa zeukanetik jaregin nahi izan baititugu. Horietako batzuk, Indiakoa edo Pertsiakoa adibidez, filosofia batez lagundurik zeuden, baina filosofiak eta erlijioak beti desberdin diraute. Izatez, gehienetan filosofia espiritu landuenak asetzeko bakarrik sortzen da, aldiz erlijioak herrian deskribatu dugunez irauten du. Nahaste hori gertatzen den tokian bertan ere elementuek eutsi egiten diote beren indibidualtasunari: erlijioak nahikunde espekulatiboak izango ditu, eta filosofia ez da egintzarekiko axolagabe agertuko, baina horregatik lehenak ez dio esentzialki egintza izateari utziko, ezta bigarrenak pentsamendu izateari ere, beste ezer baino gehiago. Erlijioa errealki filosofia bihurtu denean, antzinakoengan, desaholkatu areago egin du egintza eta uko egin dio munduan egitera etorri zen horri. Erlijio al zen artean? Nahi dugun zentzua eman diezaiekegu hitzei, horien definiziotik hasten bagara behintzat. Baina hutsegitea egingo genuke gauzen ebakidura natural bat izendatzen duen hitz batekin zoriz topo egiten dugun kasuetan hori egingo bagenu: kasu horietan, gehienera ere hartan akzidentez sarturiko honelako edo bestelako terminoren hedadura baztertu beharko genuke. Hori da erlijioarekin gertatzen dena. Erakutsi dugu nola ematen zaion eskuarki izen hori egintzara orientaturiko eta interes jakin batekin naturak sorturiko errepresentazioei. Salbuespen gisa, erraz ulertzeko arrazoiengatik, terminoaren aplikazioa objektu desberdina duten errepresentazioetara hedatu ahal izan da, baina horregatik ez dugu utzi beharko erlijioa definitu gabe, naturaren asmoa deitu dugunaren arabera.

Sarritan azaldu dugu zer ulertu behar den hemen asmoarekin, eta luzaroan ekin diogu kapitulu honetan naturak erlijioari esleitu dion funtzioaz. Agian, espirituekiko edo animaliekiko kultura, jainkoen adorazioa, mitologia, era guztietako superstizioak, oso konplexuak irudituko zaizkigu banan-banan kontsideratuz gero, baina multzoa oso sinplea da.

Gizakia da animalia bakarra, zeinaren egintza ziurtasun gutxi-koa baita, zalantzan eta haztamuka ibiltzen baita, zeinak egiten baititu proiektuak arrakastaren, itxaropenaren eta porrotaren beldurrarekin. Gaixotasun-arriskuarekin sentitzen den bakarra da, baita hil behar duela dakien bakarra ere. Naturaren gainerakoa lasaitasun perfektuan existitzen da. Landareek eta animaliek, zalantzarik gabe, nahiz eta zori guztien mendean egon, horregatik ez diote atsedenean egoteari uzten aldiune igarokorrean betieran egingo luketenez. Konfiantza aldaezin horretako zerbitu arnasten dugu landatik paseo bat egitean, zeinatik bareturik itzultzen baikara. Baina horrekin ez dugu aski esan. Sozietatean bizi diren izaki guztietatik, gizakia da portaera sozialaren norabidetik desbideratzeko gai den bakarra, kezka egoistei amore emanez ongi komuna arriskuan dagoen uneetan; gainerakoetan, bana-koaren interesa interes orokorrarekiko koordinaturik edo subordinaturik dago. Inperfekzio bikoitz hori da adimenaren prezioa. Gizakiak ezin du pentsatzeko bere ahalmena egikaritu beldurra eta itxaropena iratzartzen dizkion etorkizun ziurreza errepresentatu gabe. Ezin du gogoeta egin izaki sozial bat egitean naturak exigitzen dionean bere buruari esan gabe batzuetan abantailatsu aurkituko lukeela besteak alde batera uztea, bere buruaz bakarrik arduratuz. Bi kasuetan ordena normal, naturalaren haustura bat gertatzen da eta, hala ere, natura izan da adimena nahi izan duena, zeinak ezarri baitu animali bilakaeraren bi lerro handietako baten bukaerako instintuarik, perfektuenari, bestearen azken puntuarekin jokia egiteko. Ezinezkoa da arretarik ez hartzea adimenak doi-doi aldatutako ordenak modu automatikoan lehengoratzera jo dezan. Izatez, funtzio fabulatzailak, adimenarena den baina adimen purua ez denak, eginkizun hori du hain zuzen ere. Bere egitekoa orain arte jorratu dugun erlijioa lantzea da, estatikoa deitzen duguna, eta zeinaz erlijio naturala dela esango baikenuke adierazpide horrek beste zentzu bat hartu duelako ez balitz. Askiz dugu, beraz, laburbiltzea erlijio hori termino zehatzetan definitzeko. *Naturaren defentsazko erreakzio bat da, adimenaren ariketan, norbakoarentzat deprimigarri eta gizartearentzat disolbagarri egon litekeenaren aurka.*

Buka dezagun bi oharrekin beste bi gaizkiulertze prebenitzeko. Erlijioaren funtzioetako bat, naturak nahi izan duenez, gizarte-bizitzari eustea dela baieztatzen dugunean, ez dugu esan nahi erlijio horren

eta moralaren artean solidaritaterik dagoenik. Historiak alderantzizkoaren testigantza ematen du. Bekatu egitea dibinitateari irain egitea izan da beti, egia da, baina dibinitateak ez du beti bere burua inmoralitatearengatik edota krimena beragatik ere iraindutzat eman: horiek agintzeraino ere iritsi izan da. Noski, badirudi gizadiak beti nahi izan duela bere jainkoak onak izatea, eta sarritan ezarri ditu bertuteak haren inbokaziopean; agian jatorrizko moralaren eta erlijioaren, biak hasi-masizkoak zirenen artean seinalatzen genuen bat etortzeak berak ere elkar bultzatuko luketen moral zehatz eta erlijio antolatu baten ideal lausoa utzi du giza arimaren barrenean. Halaber, egia da moralala alde batetik zehaztu dela eta erlijioa bestetik, eta gizakiek tradizioetik hartu izan dituztela beti beren jainkoak moralitate-ziurtagiririk eskatu gabe eta ordena moralala bermatuko dutela espero izan gabe. Baina bereizi egin behar dira izaera orokorreko betebeharrak sozialak, zeinak gabe ezinezkoa baita baterako edozein bizitza, eta lokarri sozial partikularra, konkretua, zeinak egiten baitu komunitate jakin bateko kideak beren kontserbazioari loturik egotea. Lehenak pixkanaka jaulki egin dira beren jatorrian erakutsi ditugun ohituren fondo nahasitik. Garbikuntza- eta sinpletze-bidez, abstrakzio- eta orokortze-bidez jaulki dira hartatik, azkenean moral sozial bat emateko. Baina gizarte jakin bateko kideak elkarren artean lotzen dituen tradizioa, beharri-zana, taldea beste talde batzuen aurka babesteko eta guztia gaine-tik jasotzeko nahimena da. Lokarri hori kontserbatu eta estutzeroa jotzen du eztabaidarik gabe natural aurkitu dugun erlijioak, talde bateko kideek batera dutenak, errituetan barrenetik asoziatzen dituenak, taldea beste taldeetatik bereizten duenak, baterako egitekoaren arrakasta bermatzen duenak eta guztien arriskuaren aurrean segurtasuna ematen duenak. Ukaezina deritzogu erlijioak, naturaren eskuetatik irten denez, aldi berean bi funtzio –gure gaurko hizkuntza erabiliz– bete dituelakoari: moralala eta nazionala; izan ere, bi funtzio horiek derrigor nahasturik zeuden hasi-masizko gizartean, zeinetan ohiturak besterik ez baitzegoen. Baina esan berri duguna kontuan hartzen badugu, zailtasunik gabe ulertuko da gizarteak, garatzean, erlijioa bigarren norabidean arrastatu izana. Berehala konbentzitu ginen horretaz giza sozietateek, bilakaera biologikoaren lerro handien muturretako batean joko egiten dutela animali sozietate perfektuenekin kontsideratuz, zeinak baitaude lerro handiaren beste muturrean, eta funtzio fabulatzaileak, instintu bat izan gabe instintuak animali sozie-

tateetan jokatzeko duenaren zeregin simetriko bat jokatzeko duela giza sozietateetan kontsideratzean.

Gure bigarren oharra, hainbeste aldiz esan dugunaren ondoren esan gabe utz genezakeena, «naturaren asmoa»ri, «erlijio naturala»z hitz egitean erabili dugun adierazpideari ematen diogun zentzuari buruzkoa da. Egia esan, erlijio hori baino areago zen berak lorturiko efektua. Bada bizi-bulkada bat materia zeharkatzen duena eta hartatik ahal duena ateratzen duena, nahiz eta bidean erdibitu. Horrela marrazturiko bilakaera-lerro nagusi bien muturrean adimena eta instintua aurkitzen dira. Hain zuzen ere adimena arrakasta delako, instintua bera ere den bezala, ez da kontzebigarria bere efektu osoa sortzea eragotzikatu liokeena apartatzeko joera batek lagundu gabe. Joera hori bere parte du, baita adimenak auresuposatzen duen guztia ere, bloke bana-gabe bat, hauteman eta analizatzeko gure ahalmenarentzat bakarrik banatzen dena, gure adimen propioarekiko erabat erlatiboa den ahalmena. Itzul gaitezen beste behin begiaz eta ikuspenaz esandakora. Ikuste-egintza existitzen da, zeina sinplea baita, eta existitzen dira ezin zenbatu ahal elementu eta elementu horiek bata besteen artean dituzten elkarrekiko egintzak, zeinekin anatomistak eta fisiologoak egintza sinplea berreraiki egiten baitute. Elementuek eta egintzek analitikoki adierazten dute, eta nolabait esateko, negatiboki, beste erresistentzia batzuei kontrajarritako erresistentziak izaki, egintza banaezina, positibo bakarra, naturak zinez lortu duena. Horretara lurrera jaurtiketak gizakiaren kezka eta norbanakoak izan ditzakeen tentaldiak bere burua nahiago izateko komunitatearen aldean –izaki adimendunaren kezka eta tentaldi propioak– amaigabeko zenbaketa baten gai izango lirakeke. Era berean amaigabeak dira kopuruz superstizio-erak edo, hobeki, erlijio estatikoarenak, erresistentzia horiei erresistentzen dietenak. Baina konplikazio hori ezabatu egiten da gizakia berriro naturaren multzoan kokatzen bada, nonahi aurkitzen den baretasunerako eragozpen bat dela adimena kontsideratzen bada, eragozpena gainditu egin behar dela eta oreka berreskuratu. Ikuspuntu horretatik, genesiarena den eta analisiarena ez den horretatik kontsideratuta, biziari aplikaturiko adimenak asaldura eta errebelatitza berekin zekarren guztia, erlijioek ibitzeko horretara egin zuten ekarpen guztia erekin, gauza sinple bihurtzen da. Perturbazioak eta fabulazioak elkar konpentsatu eta ezeztatu egiten dute. Goitik dena ikusiko lukeen

jainko bati, osotasuna banaezina irudituko litzaioke, udaberrian irekitzen diren loreen konfiantza bezala.

III KAPITULUA

ERLIJIO DINAMIKOA

Eman diezaigun atzerako begirada bat biziari, zeinaren gara-pena jadanik jarraitua baikenuen hartatik erlijioak irten behar zuene-ko unera arte. Energia sortzailezko korronte handi bat jaurtitzen da materiara hartatik ahal duena lortzeko. Unerik gehienetan, korrontea gelditu egiten da; geldialdi horiek gure begien aurrean espezie bizien, hau da, organismoen, beste hainbeste agerpen bihurtzen dira, zeinetan gure begirada, esentzialki analitiko eta sintetikoa denak elementu koordinatu ugari bereizten baititu funtzio ugari betetzeko; hala ere, antolakuntza-lana korrontea gelditzea besterik ez zen, egintza sinple bat, oina hondoratzearen antzekoa, zeinak egiten baitu bat-batean milaka hondar-ale hedatzea, marrazki bat eskaintzeko. Urrunenera iristea lortu zuen lerroetako batean, uste ahal izango zen bizi-energia horrek bere baitako hoberena arrastatuko zuela bere buruarekin eta zuzenean aurrerantz jarraituko zuela; baina horra desbideratu egin zen, dena okertu egin zen: izakiak sortu ziren, zeinen jarduera zirkulu berean biraka baitzebilen amaigabeki, zeinen organoak tresna erabat bukatuak baitziren, lanabes-asmakuntza baten ahalbidea, etengabe berritua irekita utzi beharrean, zeinaren kontzientzia instintuaren sonanbulismora lerratzen baitzen pentsamendu gogoetazko gisa zuti-tu eta intentsifikatu beharrean. Hori da banakoaren egoera intsektu-sozietate horietan, zeinaren antolakuntza jakintsua baita, baina auto-matismoa erabatekoa. Ahalegin sortzaileak gizakiarengana gidatzen

duen bilakatze-lerroa bakarrik lortu zuen arrakastarekin pasatzea. Materia zeharkatzean, kontzientziak, molde batean bezala, adimen fabrikatzailearen forma hartu zuen. Eta asmakuntza, gogoeta lagun zuela, askatasunean garatu zen.

Baina adimena ez zen arrisku gabea. Honaino, izaki bizidun guztiek gutiziaz edana zuten biziaren edalontzitik. Naturak haren ertzean ezarritako ezia dastatzen zuten; gainerakoa irentsi egiten zuten gainera, ikusi ere egin gabe. Adimenak, bestalde, barreneraino begiratzen zuen. Zeren izaki adimenduna ez baitzen presentean bakarrik bizi; ez dago gogoetarik aurreikuspenik gabe, ezta aurreikuspenik kezkarik gabe, ez kezkarik biziarekiko atxikimenduaren une bateko erlaxamendurik gabe. Baina batez ere, ez dago gizadirik gizarterik gabe, eta gizarteak norbanakoari interesgabezia eskatzen dio, zeina intsektuak, automatismoan, bere burua erabat ahazteraino eramaten baitu. Interesgabezia horri eusteko ez dago gogoeta kontuan hartu beharrik. Adimenak, filosofo zorrotz utilitarista batena ez bada behintzat, egoismoaren alde areago egingo luke. Zeren bi aldetatik exigitzen baitzuen kontrapisua. Edo adimena, areago, jadanik hartaz horniturik zegoen, zeren naturak, beste behin, ez baititu egin izakiak atal soltez eta puska bakartuz: bere agerpenean askotarikoa dena sinplea izan daiteke bere sorreran. Sortzen den espezie batek berekin dakar, sortu duen egintzaren banaezintasunean, bideragarri bihurtzen duen xehetasun guztia. Gure espeziaren agerpen bihurtu den bulkada sortzailea gelditzeak berak sortu du, giza adimenarekin batera, giza adimen horren berorren barrenean, erlijioa lantzen duen funtzio fabulatzailea. Hori da, beraz, estatiko edo natural deitu dugun erlijoaren eginkizuna, eta hori da bere esanahia. Erlijioa da, gogoetaz hornituri-ko izakiengan, biziarekiko atxikimenduaren balizko defizit bat bete behar duena.

Egia da berehalaxe hautematen dela arazo honen beste soluzio bat. Erlijio estatikoak biziari atxikitzen dio gizakia, eta ondorioz, norbanakoa gizarteari, haurrak sehaskan lokartzeko erabiltzen diren moduko istorioak kontatuz. Jakina, argi dago horiek ez direla besteak bezalako istorioak. Funtzio fabulatzailetik, ez plazer hutsez baizik behartasunez irtetea, hautemandako errealitatea egintzatan luzatzeraino imitatzen dute: beste sorkuntza imajinaziozkoek joera hori dute, baina ez dute haien baitan gure burua uztea exigitzen; ideia-egoeran

iraun dezakete; haiek, aitzitik, ideo-motorrak dira. Halaber, espiritu kritikoeak, egitez, sarritan, ikusi izan dugunez, onartuko dituzten fabulak dira, nahiz eta eskubidez baztertu beharko lituzketen. Printzipio aktibo eta motorrak, zeinaren gelditze soila muturgune batean giza-diaz adierazi den, zalantzarik gabe eskatzen du sortutako espezie guztietatik biziari atxikitzea. Baina lehen erakutsi dugunez, nahiz eta printzipio hori izan espezie guztiak globalki sortzen dituen, kimutan bukatutako adarrak norabide guztietan jaurtitzen dituen zuhaitz baten antzera, gordailu bat da, material, energia libreki sortzaile batena, gizakia da edo esangura bereko beste izaki bat –ez diogu forma berekoa–, zeina baita garapen osoaren izateko arrazoia. Multzoa den hori baino askoz goragokoa izan zitekeen agian, eta hori gertatzen da seguraski hain errefraktarioa ez den material zehar korrontea jaurti izan den munduetan. Era berean, korronteari gerta zekiokoen pasabide librerik inoiz ez aurkitzea, ezta neurri askiek horretan ere, eta kasu horretan sekula ez zuten biderik urratuko gure planetan giza forma eratzen duen energia sortzailearen kalitateak eta kantitateak. Baina, edozein kasutan, bizia gizakiarentzat gutxienez hain desiragarria da, eta gehiago ere bai, nola den gainerako espezieentzat, zeren horiek energia sortzailea pasatzean sortutako efektu bat bezala esperimentatzen baitute, aldiz, gizakiarengan bizia ahalegin horren arrakasta bera da, nahiz eta ezosoa eta prekariora izan. Zergatik ordudanik ez zuen aurkitu behar falta zuen konfiantza edo gogoetak hautsi bide duena, bulkada zetorren aldera hurbilduz, hura berreskuratzeko? Hori adimenarekin egin ezin zuen zerbait zen, edo edozein kasutan, adimen hutsarekin; hori alderantzizko zentzuan areago joango litzateke, zeren helmuga berezia baitu, eta bere espekulazioetan goratzen denean, gehienara ere, ahaltasunak kontzebiarazten dizkigu, baina ez du errealtatea ukitzen. Baina badakigu adimenaren inguruan intuizio-zerrenda bat geratu dela, lauso eta ezabakorra. Ez ote liteke finka, intentsifika eta, batez ere, egintzan osa, zeren, izan ere, ikuspen huts bihurtu baita bere printzipioaren ahultzez bakarrik eta, horrela aditzera ematerik badago, bere baitan praktikaturiko abstrakzio batez?

Ahalegin hori egiteko gai eta duina den arima batek ez lioke bere buruari galdetuko orain ukipenean dagoen printzipioa gauza guztien kausa transzendentea den ala horren lurreko ordezkaritza besterik ez ote den. Askizango luke sentitzea izaki bati barneratzen uzten

diola, zeinak bere nortasuna hurrupatu gabe, berak baino neurgabeki gehiago baitezake, burdina goritzen duen suak barneratzen duen bezala. Biziarekiko bere atxikimendua aurrerantzean printzipio horrekiko bere banaezintasuna izango litzateke, poza izango litzateke pozean, maitasuna baizik ez denarekiko maitasuna. Gehigarri gisa emango litzaioke gizarteari, baina orduan gizadi osoa izango litzatekeen gizarte bati, bere printzipioa eratzen duenaren maitasunaz maitatuari. Erlijio estatikoak gizakiari ekartzen zion konfiantza orain itxuraldatu-rik aurkituko litzateke hartan: gehiago kezkarik ez etorkizunaz, gehiago itzuli beharrik ez nor bere baitara; objektuak ez du materialki mereziko eta esanahi garaiegia hartuko luke moraliki. Biziarekiko atxikimendua oro har gauza partikularrekiko desatxikimenduz egina legoke. Baina orduan, beharrezkoa izango al litzateke erlijioez hitz egiten jardutea? edo agian orduan beharrezko al zen jadanik termino hori aurreko guztia-erentzat erabiltzea? Ez al dira desberdintzen bi gauzak bata bestea baztertzeraino eta izen bera ezin hartu ahal izateraino?

Hala ere, bada aski arrazoi erlijioaz hitz egiteko bi kasuetan. Lehenik, mistizismoak –izan ere horretan pentsatzen baitugu– beste plano batera garraia dezake arima: horregatik ez dizkio segurtatu gabe uzten, era gailenez, erlijio estatikoak funtzioz eskuratu beharrekoak diren segurtasuna eta baretasuna. Baina, batez ere, kontsideratu behar da mistizismo garbia esentzia bakana dela, ia beti egoera motelduan aurkitzen dugula, eta horregatik beragatik, ez diola uzten nahasten deneko masari bere kolorea eta bere perfumea komunikatzeari, eta berarekin utzi behar dela, praktikoki hartatik banaezin, zerbait aktibo gisa hartu nahi bada, izan ere horrela lortu baitu azkenean munduari gainezartzea. Ikuspuntu horretan kokatuz igarobide-sail bat eta gradu-desberdintasun moduko bat hautemango genuke, izaerazko desberdintasun errotikoa errealki dagoen tokian. Itzul gaitezen bi hitzetan puntu horietako bakoitzaren baitara.

Bizi-bulkadarekiko erlazioan definitzean, egiazko mistizismoa zerbait bakana dela onartu dugu inplizituki. Aurreraxeago hitz egingo dugu bere esanahiaz eta balioaz. Oraingoz muga gaitezen, aurrekoaren arabera, une batean kokatzen dela azpimarratzera, zeinera materialian zehar jaurtiriko korrante espiritualak seguraski iritsi nahi izango baitzukeen, baina ezin izan duela. Izan ere, naturak amore eman behar izan dueneko eragozpenei iskintxo egin die eta, beste alde batetik,

biziaren bilakaera ez da ulertzen, albo-bideen abstrakzioa eginik, zeinetatik derrigor aurrera egin baita, zerbait iritsi ezinezkoa dena bilatuz bezala ikusten ez bada, nora heltzen baita mistiko handia. Gizaki guztiek edo horietako askok gizon pribilegiatu horrek bezain goraino iristeko aukera izan balute, natura ez zatekeen giza espeziean geldituko, zeren mistikoa izatez gizakia baino zerbait gehiago baita. Hori bai, genioaren formez gauza bera esan ahal izango genuke: denak dira era berean bakanak, beraz, ez akzidentez, baizik bere esentzia beraren indarrez, da salbuespeneko egiazko mistizismoa.

Baina mistizismoak hitz egiten duenean, bada gizakien gehien-goaren barrenean, oharkabea oihartzuna egiten dien zerbait. Aurkitu egiten digu, edo, areago, aurkitu egingo liguke ikuspegi miresgarri bat nahi izango bagenu: ez dugu nahi eta, gehienetan, ezingo genuke nahi izan; ahaleginak suntsitu egingo gintuzke. Liluramenduak ez dio obratzeari utzi; eta gainpasatzen gaituen obra bat artista genial batek sortu duenean gertatzen denez, zeinaren espiritua ez baikara gureganatzera iristen, baina zeinak gure aurreko mirespenen arrunkeria sentiarazten baitigu, horrela erlijio estatikoak, nahiz eta iraun, erabat uzten dio lehen zen hura izateari eta, batez ere, egiazko mistizismo handia agertu denean ez da agertzeraz ausartzen. Gizadiak jarraitu egingo du erlijio estatikoari eskatzen, edo gutxienez, berari batez ere, behar duen laguntza; berriro lan egiten utziko dio, ahalik eta erarik hoberenean eraberrituz funtzio fabulatzailea; hitz gutxitan, biziarekiko bere konfiantzak naturak eratu bezalakoa izaten jarraituko du. Baina zinez izango du itxura naturaren printzipioarekin berarekiko ukipen hori bila ibili eta neurri batean lortu izanarena, zeina agertzen baita erabat bestelakoa den biziarekiko atxikimendu batean, konfiantza itxuraldatu batean. Hain gora igotzeko gaitasunik gabe, keinua zirrimarratu, jarrera hartu eta bere diskurtsoetan tokirik ederrena gordeko du bere zentzu osoz berarentzat betetzera iristen ez diren formulentzat, zeremonia batean pertsonaia handientzat prestatuak ziren eta hutsik gelditzen diren siloi horiek bezala. Horretara, erlijio misto bat eratuko da, zeinak zaharraren orientazio berri bat inplikatu baitu, aspirazio gutxi-asko azpimarratua aintzinako jainkoarena, funtzio fabulatzailetik sortua, efektiboki agertzen den hartan galtzekoa, arima pribilegiatuak bere presentziaz argitu eta berpizten dituen. Horrela tartekatzen dira, esaten genuenez, igarobideak eta itxurazko gradu-desberdintasu-

nak izaeraz errotik desberdinak diren, eta, printzipioz, izen beraz deitu beharko ez liratekeen bi gauzaren artean. Kasu askotan, kontrastea txundigarria da, adibidez, gerran dauden bi nazioek baieztatzen dutenean, nola batak ala besteak, jainkoa bere aldetik dutela, paganismoaren jainko nazionala gertatzen den jainkoa, aldi berean aipatzen ari direla uste duten Jainkoa gizaki guztientzat komuna den Jainkoa delarik, zeina denek ikusteak gerra berehalaxe ezabatzea ekarriko bailuke. Eta hala ere, ez litzateke atera beharko kontraste horretatik erlijioa mesprezatzeko argumenturik, zeinek, mistizismotik jaioak izaki, beren formulak orokortu baitituzte gizadi osoa barrentzera iritsi gabe bere espirituaren osotasunaz. Batzuetan gertatzen da ia hutsak diren formulek hemen edo han sorrazten dituztela egiazko hitz magikoak, horiek betetzeko gai den espiritua. Era berean, irakasle erdipurdiko batek, gizon genialek sorturiko zientzia baten irakaskuntza mekanikoaren indarrez, berak sentitu ez duen deia iratzarriko du ikasleetakoren batengan, inkontzienteki gizon handi horien lehiakide bihurtuz, transmititzen duen mezuan ikusezin baina presente baitaude.

Hala ere, bada alderik bi kasu horien artean, eta kontuan hartzen badugu, moteltzen ikusiko dugu, erlijio-gaian, «estatikoa» eta «dinamikoa»ren arteko oposizioa, batak eta besteak dituen ezaugarriak hobeki seinalatzeko azpimarratu dugun oposizioa. Adibidez, gizakien gehiengo handiak matematikekiko ia zerikusirik gabe iraun dezake, nahiz eta Descartesen edo Newtonen genialitatea aitortu. Baina urrunetik hitz mistikoaren aurrean makurtu direnek, beren barrenean oihartzun ahul bat entzun dutelarik, ezingo dute axolagabe iraun iragartzen duenarekiko. Jadanik sinesteen jabe baziren eta ez badute nahi edo ezin badute haietatik aldendu, eraldatzen ari direla eta efektiboki aldatuko dituztela konbentzituko dira: haien elementuek iraun egingo dute, baina magnetizaturik eta zentzuz aldaturik imantazio horren indarrez. Erlijioen historialari batek ez du izango, gizakien artean hedatu den sineste lausoki mistiko baten materialtasunean, elementu mitikoak eta magikoak ere aurkitzeko zailtasunik. Frogatu egingo du, horrela, badela erlijio estatiko bat, gizakiarengan naturala dena, eta giza natura aldaezina dela. Baina baieztapen horretan gelditzen bada, zerbait zabartuko du, esentziala dena agian. Gutxienez, eta nahi izan gabe hain zuzen ere, zubi bat ezarria izango du estatikoa eta dinamikoaren artean, hitz beraren erabilpena justifikatuz kasu hain

desberdinetan. Zalantzarik gabe erlijio baten aurrean gaude, baina erlijio berri batenean.

Oraindik gehiago konbentzituko gara horretaz, eta ikusi egingo dugu gainera nola kontrajartzen diren eta nola berriro batzen diren bi erlijioak, kontuan izaten badugu bigarrenaren ahaleginak lehendabizikoan instalatzeko hura ordeztu baino lehen. Egia esateko, geu gara, atzera begira, ahalegin huts bihurtzen ditugunak. Gertatu zirenean, beren buruarentzat aski ziren egintza osoak ziren, eta ez dira hasiera edo prestakuntza bihurtu azken arrakasta batek porrot bihurtu zituen eguna arte, presenteak iraganaren gain duen botere misterioitsuari esker. Hala ere, balioko digute tarte bat seinalatzeko, erlijio dinamikoak sortu duen egintza banaezina bere elementu birtualetan analizatzeko, eta aldi berean erakusteko, emaitzarik izan ez duten bulkaden norabide nabariki komunarengatik, zer puntutaraino behin betikoa izan zen jauzi bat-batekoak ez zuen ezer akzidentalik izan.

Lehen mailan, etorkizuneko mistizismoen zirrimarren artean misterio paganoen aspektu batzuk sartuko ditugu. Beharrezkoa litzateke hitzak gugan lilurarik ez sortzea: misterio horien parterik handienak ez zuen ezer mistikorik izan. Ezarritako erlijioari loturik zeuden, zeinarentzat naturala baitzen alboan edukitzea. Jainko berak ospatzen zituzten, edo funtzio fabulatzaila beretik sortutako jainkoak. Iniziatuengan erlijio-espirtua errebertxatzen mugatzen ziren, sozietate handiaren baitan txikiak eratzean gizakiek beti sentitu izan duten asetasun hori gehituz, pribilegiatu bihurtzera sekretutzat edukitako inimizazio baten indarrez. Sozietate itxi horietako kideak dei egiten zioten jainkoarengandik hurbilago sentitzen ziren, eszena mitologikoak antzezteak jendaurreko zeremonietan baino hemen zeregin handiagoa betetzen zuelako besterik ez bazen ere. Zentzu batean, jainkoa presente zegoen eta iniziatuek haren dibinitatean esku hartzen zuten nolabait, horrela beste bizitzatik zerbait gehiago eta hobea espero zezaketen erlijio nazionalak itxaronarazten zuenaren aldean. Baina, seguraski, ez zegoen misterio horietan ideia inportatuak, erabat atzerrian landuak besterik: jakina da Egipto zer puntutaraino egon den beti kezkatutik gizakiaren heriotzaren osteko zoriaz, eta Herodotoren testigantza oroitaraz dezakegu, zeinrentzat Eleusisko misterioetako Demeter eta orfismoaren Dionisos Isis eta Osirisen eraldakuntzak baizik ez baitziren. Beraz, misterio horien ospakuntzak, edo gutxienez, haietaz dakigunak ez digu eskaintzen jendaurreko kulture-

kin modu erabatekoan kontrastatu duen ezer. Lehen begiratuan, bada, ez legoke erlijio horretan bestean baino mistizismo gehiago. Baina ez dugu aspektu horretan gelditu behar, zeina baitzen seguraski inizatuen partetik handienari interesatzen zitzaion gauza bakarra. Galdetu behar diogu geure buruari gutxienez misterio horietako batzuek ez ote zeramaten pertsonalitate handiren baten marka, zeinaren espiritua berpizt baitzeza-keen. Halaber seinlatu behar dugu autorerik gehienek azpimarratu egiten dituztela entusiasmo-eszenak, zeinetan jainkoa errealki jabetzen baitzen dei egiten zionaren arimaz. Izatez, bizitasun handieneko misterioak, berekin eleusiar misterioak berak ere azkenerako arrastatu zituzte- nak, Dionisosenak eta Orfeo haren jarraitzailearenak izan ziren. Traziatik etorritako jainko atzeritarrak, Dionisosek, kontraste egiten zuen, bere bortxaz, olinpikoen baretasunarekin. Hasiera batean ez zen ardoaren jainkoa izan, baina zailtasunik gabe iritsi zen horretara, zeren ariman eragiten zuen horditasunak bai baitzuen ardoak eragiten duena- rekin antzen bat. Ezaguna da nola tratatu zuten William James nitroge- no-protóxidoaren inhalazioaren ondoko egoera mistikotzat kalifikatu, edo halakotzat aztertu zuelako,. Irreberentzia ikusi zuten horretan, eta akusazioak oinarria izango zukeen filosofoak «barne-agerpena» proto- xidoaren baliokide psikologiko bihurtu izan balu, zeina kasu horretan, metafisikoez diotenez, sortutako efektuaren kausa egokia izango baitza- tekeen. Baina kontua da toxikazioa ez bide zela izan haren begietarako aukera soila baino ezer gehiago. Arimaren egoera aurre-existitzen zen jadanik, zalantzarik gabe, beste batzuekin aurreiruditurik, eta seinale baten zain bakarrik zegoen agertzeko. Espiritualki jalgia-razia izan zite- keen, berea zuen maila espiritualean egindako ahalegin batez. Baina era material batean izan zitekeen, erreprimitzen zuenaren inhibizio baten indarrez, eragozpen bat ezabatzearen bitartez, eta horretan egon zen toxikoaren efektu erabat negatiboa. Psikologoak horri ekiten zion batez ere, emaitza bere nahierara lortzeko aukera emango ziolako. Agian ez zen hainbeste ardoa gehiago ohoratzea haren efektuak horditasun dioni- siakoarekin erkatzea baizik. Kontua da jakitea ea horditasun hori atzera begira kontsidera daitekeen, gero agertutako mistizismoaren argitan, egoera mistiko jakin batzuen iragarletzat. Horri erantzuteko aski da filo- sofia grekoaren bilakaerari begiratu bat ematea.

Bilakaera hori erabat arrazionala izan zen, eta giza pentsamen- dua bere abstrakzio- eta orokortasun-maila gorenera eramane zuen,

espirituaren funtzio dialektikoei hainbesteko indarra eta zalutasuna emanez, non gaur egun ere, horiek lantzeko, Grekoen eskolan kokatzen baikara. Alabaina, bi puntu kontuan izan behar dira. Lehena da mugimendu handi horren sorreran bulkada edo inarroste bat gertatu zela, maila filosofikokoa izan ez zena. Bigarrena da doktrinak, zeinera mugimendu horrek gidatzen baitzuen eta zeinean pentsamendu helenikoak bere betekuntza aurkitu baitzuen, arrazoi hutsa gaingitu nahi izan zuela. Izan ere, ez da harritzekoa entusiasmo dionisiakoa orfismoan luzatu izana, eta orfismoa pitagorismoan jarraitu izana: alabaina, pitagorismora, edo agian orfismoraino bertaraino iristen zen platonismoaren lehen inspirazioa. Jakina da nolako misterio-giroan, hitzaren zentzu orfikoan, dabilzan igerian mito platonikoak, eta Ideien teoria bera zenbakien teoria pitagorikorantz makurtu zen ezkutu sinpatia baten indarrez. Zalantzarik gabe, Aristotelesengan eta bere hurbileneko jarraitzaileengan ez dugu gisa horretako eraginik aurkitzen, baina Plotinoren filosofia, zeinean gailurtzen baita bilakabide hori, eta zeinak hainbeste zor baitie nola Aristotelesi hala Platoni, doktrina mistikoa da zalantzarik gabe. Ekialdeko pentsamenduaren eragina izan badu, alexandriar munduan guztiz bizia zena, Plotino berari esker izan zen, zeinak filosofia grekoa kondentsatzen ari zela besterik ez baitzuen uste izan, hain zuzen ere hura doktrina atzerritarrei kontrajartzeko. Horretara, hitz batean, orfismoaren jatorrizko barneratzea gertatu zen eta, azkenean, dialektikaren mistikarako hedatzea. Horretatik deduzi liteke indar estrarrarazional bat izan zela garapen arrazional horren sortzailea, eta indar hori bera izan zela bukarara, arrazoiak haratago eramanez. Jalkitze-fenomeno geldo eta erregularrak, ikuskorak diren bakarrak, horrela daude baldintzaturik indar eruptibo ikusezinen aldetik, zeinek, une jakin batzuetan lurrazala jasotzean, beren norabidea ezartzen baitiote jalkitze-jarduerari. Baina bada beste interpretazio posible bat; gure iritziz egiantzekoagoa izango litzateke. Suposa daiteke pentsamendu grekoaren garapena arrazoi hutsaren obra izan zela eta, haren ondoan, harekiko independentzian, noizean bein sortu zela, horretarako aurre-prestaturiko arima batzuetan, adimenaz haraindi, ikuspen bat, ukipen bat, errealtate transzendente baten agerpenaren bila joateko ahalegin bat. Ahalegin hori sekula ez zatekeen bere bukaerara helduko, baina abagune bakoitzean, agortzera zihoala zirudien unean, dialektikaren esku utzi bide zuen bere baitatik geratzen zena, erabat desagertu baino

lehen; eta horretara, energia-gastu berarekin, saio berri bat urrunago irits zitekeen, adimena garapen filosofikoaren puntu aurreratuago batean kokaturik aurkituz, zeinak bitartean elastizitate handiagoa irabazi baitzuen eta mistizismo-maila garaiagoa baitzeukan. Izatez, lehen olatu bat ikusten dugu, dionisiako hutsa dena, orfismoan galtzera etortzen, zeina intelektualtasun garaiagoaren jabe baitzen; bigarren bat, orfikoa dei liteeena, pitagorismoan bukatzen dena, hau da, filosofia batean; bestalde, pitagorismoak bere espiritutik zerbait komunikatu zion platonismoari; eta hori, jaso ondoren, ireki egin zen geroago, era naturalean, alexandriar mistizismora. Baina edozein kasutan, edozein eratarik errepresentatzen dugula ere bi korronteen arteko erlazioa, bata intelektuala eta bestea estraintelektuala, kontua da bere bukaeran kokatuz bakarrik kalifika dezakegula hori supraintelektual edo mistikotzat, eta mistikotzat kontsidera misterioetatik abiatu zen inpultsioa.

Orduan jakin beharko litzateke mugimenduaren bukaera mistizismo oso bat izan ote zen. Nahi dugun zentzua eman diezaiekegu hitzei, definitzen hasten bagara behintzat. Gure begietarako, mistizismoaren helduera kontaktu-hartze bat da, eta ondorioz, bat-etortze partzial bat, biziak agertzen duen ahalegin sortzailearekiko. Ahalegin hori Jainkoarena da, Jainkoa bera ez bada. Mistiko handia materialtasunak espezieari ezarritako mugak gaindituko litzatekeen norbanako bat izango litzateke, horrela jainko-egintza jarraitu eta luzatuko lukeena. Hori da gure definizioa. Finkatzeko aske gara, aplikaziorik duen galdetzen badiogu geure buruari, halako edo bestelako kasu jakini aplikatzen zaion orduan. Plotinori dagokionez, erantzuna ez da zalan-tzazkoa. Berari eman zitzaion aginduriko lurraldeak ikustea, baina ez zorua zapaltzea. Estasiraino iritsi zen, egoera batera, zeinean arima Jainkoaren aurrean sentitzen baita edo sentitzen dela uste baitu, haren argiak argiztaturik; baina ez zuen azken etapa hori gainditu kontenplazioa egintzarekin, giza nahimena Jainkoarenarekin batzen den unera iristeko. Gailurrean zegoela uste izan zuen: urrunago joatea jaistea izango zatekeen berarentzat. Hori da hizkuntza miresgarri batean adierazi duena, baina mistizismo betearena ez den batean: «egintza, dio, kontenplazioaren ahultze bat da»¹⁶. Horretan leial dirau greziar intelektualismoarekiko, eta formula txundigarri batean laburbildu ere egiten du; gutxienez, mistizismo indartsuz blai egin du. Hitz

batean, mistizismoa, terminoa erabiltzea hitzartu dugun zentzu absolutuan, pentsamendu helenikoak ez du atzeman, zeinak zalantzarik gabe nahi izango baitzukeen bertara iristea. Mistizismoak,irtualitate soil gisa, behin baino gehiagotan dei egin zion atera. Atea gero eta gehiago erdi-ireki zen, baina inoiz ez zion oso-osorik pasatzen utzi.

Mistika eta dialektikaren arteko bereizkuntza errotikoa da hemen; berandutik berandura bakarrik elkartzen dira. Beste toki batzuetan, aitzitik, etengabe elkarrekin nahasturik egon dira, itxuraz elkarri lagunduz edo agian azkeneraino iristea elkarri eragotziz. Horixe gertatu da, hain zuzen ere, hala uste dugu, pentsamendu hinduan. Ez diogu ekingo hori sakontze edo laburbiltzeari. Bere garapena denboraldi handi samarretan zehar hedatzen da. Filosofia eta erlijioa izaki, denboren eta tokien arabera desberdindu egin da. Hizkuntza batean adierazi da, zeinaren ñabardura askok hura hobeki ezagutzen dutenei ere ihes egiten batie. Hizkuntza horretako hitzek, gainera, ez dute inola ere zentzu aldaezina izan, zentzu hori beti zehatza izan dela edo noizbait hala-koa izan dela suposatuz. Baina esku artean dugun gairako aski izango da begiratu bat ematea doktrinen multzoari. Eta, ikuspegi orokor horretaz jabetzeko, jadanik hartutako zenbait ikuspegi elkargainkatzera derrigor mugatu beharko dugu, bat datozen lerroak lehentasunez kontsideratuz izango dugu huts ez egiteko aukeraren bat.

Esan dezagun, lehenik, Indiak beti praktikatu izan duela antzinako Greziakoarekin parekatzeko moduko erlijioa. Jainkoek eta espirituek beste edonon duten zeregin bera zuten hartan. Errituak eta zereemoniak antzekoak ziren. Sakrifizioak aparteko garrantzia zeukan. Kultu horiek brahmanismoa, jainismoa eta budismoan zehar iraun zuten. Nola ziren bateragarri Budaren irakatsiarekin? Azpimarratu beharra dago budismoak, gizakiei askapena zekarkienak, jainkoak berak ere askatu beharra zeukaten izakitzat jotzen zituela. Beraz, gizakiak eta jainkoak espezie berekotzat eta fatalitate beraren mendekotzat tratatzen zituen. Hori guztia oso ulergarri gertatuko litzateke gurea bezalako hipotesiaren argitan: gizakia naturalki bizi da gizarte-
an eta, fabulatzaile deitu dugun funtzio natural baten efektu gisa, izaki fantasmalak proiektatzen ditu bere inguruan, zeinek bizi baitute haren antzeko bizitza, jasoagoa, baina harekiko solidarioa. Horretan datza naturaltzat hartzen dugun erlijioa. Indiako pentsalariek inoiz errepre-
sentatu ote dituzte horrela gauzak? Seguraski ez. Baina mistikaren

bidetik abiatzen den espiritu orok, hiritik kanpo, gizakiak eta jainkoak bere atzean uzten dituela sentitzen du gutxi-asko lausoki. Horregatik batera ikusten ditu.

Alabaina, noraino iritsi da pentsamendu hindua bide horretatik? Antzinako Indiaz bakarrik ari gara –uler bekigu–, bere buruarekin bakarrik zegoenaz, Mendebaleko zibilizazioak hartan izan zeza-keen eraginaren edo haren aurka erreakzionatzeko beharrianaren aurrekoaz. Estatiko edo dinamiko, izan ere, guk erlijioa jatorrietan hartzen dugu. Lehena naturan aurreiruditurik zegoela aurkitu dugu; orain bigarrenean jauzi bat dagoela naturatik kanpora ikusten dugu, eta bulkada askieza edo kontrakartua izan zen kasuetan kontsideratzen dugu lehenik jauzia. Badirudi arima hinduak bulkada hori bi metodo desberdinen bidez entseatu duela.

Horietako bat aldi berean fisiologikoa eta psikologikoa da. Bere jatorri urrunena hinduek eta iranianrek duten praktika komun batean, beraz horiek bereizi baino lehenagokoan aurkituko litzateke: batzuek eta besteek «soma» deitzen duten edari hordigarrira jotzean. Horditasun jainkozkoa zen, Dionisosen suhartuek ardoari eskatzen ziotenaren parekoa. Geroago ariketa-multzo bat agertu zen sentsazioa eten, jarduera mentala berandutu eta, azken finean, hipnosiarekin erkagarriak diren egoerak indultzeko; horiek «yoga»rekin sistemati-zatu ziren. Ba al zegoen mistizismorik hor, guk terminoari ematen diogun zentzuan? Egoera hipnotikoez, berenez, ez dute ezer mistiko-rik, baina izatera irits daitezke edo, gutxienez, egiazko mistizismoa iragar eta presta dezakete, horietan sar daitekeen sugestioaren indarrez. Erraz iritsiko dira hori izatera, forma materialiaz betetzea aurre-ekarrita egongo da, ikuspenak eta estasiak zirrimarratzen dituzten kasuan, adimenaren funtzio kritikoa esekiz. Hori izan bide da, zentzu batean bederen, azkenerako «yoga»n antolatuko ziren ariketen esan-gura. Mistizismoa bertan zirrimarra-egoera hutsean zegoen, baina mistizismo nabarmenduagoa, kontzentrazio espiritual hutsa, yogan berma zitekeen, horrek materialetik zeukanean, eta, horregatik bera-gatik, espiritualdu egin zezakeen. Izatez, yoga, badirudi aldi eta alde-en arabera, kontenplazio mistikoaren era herritar bat, edo hura besar-katzen zuen multzo bat izan dela.

Oraindik ez dakigu zer izan zen kontenplazio hori bere baitan, eta zer erlazio izan zezakeen mistizismoarekin guk ulertzen dugunez.

Antzineneko garaietatik, hinduak espekulatu egin zuen izateaz, naturaz, bizitzaz orokorrean. Baina bere ahalegina, hainbeste mendez luzatua, ez da iritsi, filosofo grekoena bezala, jadanik zientzia helenikoa izan zen ezagutza amaigabeki garagarri horretara. Horren arrazoia da ezagutza beti izan zela haien begietarako helburu baino bitarteko areago. Berarentzat, bizitzatik ihes egitea zen kontua, bereziki krudela gertatzen baitzitzaion. Eta suizidioaren bitartez ez zukeen ihes egitea lortuko, zeren arimak beste gorputz batera igaro behar baitzuen heriotzaren ondoren, eta hori bizitza edo sufrimendua berriro hastea bihurtuko zatekeen betiko. Baina Brahmanismoaren lehen aldietatik konbentzitu zen ahalgarria zela askapenera iristea uko egitearen bitartez. Uko egite hori Denaren baitan hurrupatua izatean, baita bere baitan ere, Budismoak, Brahmanismoan eragina izatera etorri zenak, ez zuen era esentzialean aldatu. Hartaz batez ere zerbait jakitunagoa bihurtu zuen. Ordura arte egiaztatua zegoen bizitza sufrimendua zela: Budak sufrimenduaren kausaraino bertaraino egin zuen atzera, eta, oro har desiran, bizitzeko egarrian aurkitu zuen hori. Horrela marraztu ahal izan zen askapenerako bidea zehaztasun handiago batez. Brahmanismoak, Budismoak eta Jainismoak berak ere bai predikatu izan dute, gero eta indar handiagoz, bizitzeko gogoaren iraungitzea, eta prediku hori hasieran adimenerako dei bezala aurkezten da, eta hiru doktrinak elkarren artean beren intelektualtasun-maila handiagoz edo txikiagoz bakarrik bereizten dira. Baina hurbilagotik begiratzen badugu, ezarri nahi zuten konbikzioa egoera intelektual hutsa izatetik urrun zegoela hautematen da. Jadanik antzinako Brahmanismoan, azken konbikzioa ez zen arrazoiketa edo ikasketaren bidez lortzen: aitzitik, ikusi duenak komunikaturiko ikuspen bat zen. Budismoa, jakitunago dena aspektu batean, oraindik mistikoagoa da bestean. Arima bideratzen duen egoera zoriona eta sufrimenduaz haratago, kontzientziaz haratago dago. Etapa batzuen bitartez eta diziplina mistiko baten indarrez, nirvanara gidatzen du, bizitzan desira eta heriotzaren ondoren karma ezabatzerara. Ez da ahaztu behar Budaren misioaren jatorrian bere lehen gaztaroan izan zuen argitzapena dagoela. Budismoak hitzetan adierazgarri duen guztia, zalantzarik gabe filosofia bezala trata daiteke; baina behin betiko agerpena da esentziala, nola arrazoia hala hitzarekiko transzendentea dena. Xedera iritsi izanaren konbikzio pixkanaka irabazi eta supituki lortua da: sufrimendua bukatu dela, determinaturik dagoen guztia hori dela eta, beraz, exis-

tentzian zinez existente dagoena. Kontsideratzen badugu hemen ez gaudela ikuspen teoriko baten baizik esperientzia baten aurrean, zeinak zerikusi handia baitu estasiarekin, eta bulkada sortzailearekin bat egiteko bere ahaleginean, arima batek hartu ahal izango lukeela horrela deskribaturiko bidea eta bidearen erdian geratu delako bakarrik porrot egingo lukeela, giza bizitzatik bereizirik, baina jainkozkoa lortzera iritsi gabe, eta bi jardueren artean esekita geratuz ezerezaren zorabioan; gauzak horrela kontsideratzen baditugu, zalantzarik gabe ikusiko dugu Budismoan mistizismo bat. Baina ulertuko dugu zergatik Budismoa ez den mistizismo osoa. Egintza, sorkuntza eta maitasuna izango litzateke hori.

Ez da, noski, Budismoak karitatea ezagutu ez duelako. Alderantziz, muturreko jasoera-terminotan gomendatu du. Aginduari etsenplua gehitu dio. Baina ez du berotasunik izan. Erlijioen historialari batek oso zuzen esan duenez, ez du ezagutu «norbere buruaren emate erabateko eta misterioitsua». Gehi dezagun –eta hori gauza bera da agian– ez duela giza egintzaren eraginkortasunean sinetsi. Ez du horretan konfiantzarik izan. Konfiantza hori bakarrik bihur daiteke ahalmen eta mendiak altxatzeko gai. Mistizismo oso bat horraino helduko zatekeen. Horrelako mistizismoa agian aurkitu da Indian, baina askozaz geroago. Izan ere, karitate gartsua da, kristauarekin parekagarria den mistizismo bat, Ramakrishnagan edo Vivekanandagan aurkitzen duguna, berrienez baizik ez hitz egitearren. Baina, hain zuzen ere, tarte horretan sortu zen kristautasuna. Indian izan duen eragina –zeinak islamaren eragina hartu baitzuen– aski azalekoa izan da, baina arima aurreprestatuentzat aski zen seinale bat, iradokizun soil bat. Onar dezagun, ordea, kristautasunaren zuzeneko egintza, dogma gisa, ia hutsaren hurrengoia izan dela Indian. Mendebaldeko zibilizazio osoan sartu denez gero, perfume bat bezala arnasten da zibilizazio horrek berekin daraman guztian. Gizarte industrialaren espiritua bera, erakusten ahaleginduko garenez, hartatik dator zeharka. Alabaina, industrialismoa, gure zibilizazio mendebaldarra, hori da Ramakrishnaren edo Vivekanandaren mistizismoa eragin duena. Sekula ez zatekeen mistizismo suhar, aktibo hori sortuko, hindua naturak zanpatua sentitzen zen eta giza esku hartze oro alferrikakotzat jotzen zen garaietan. Zer egin gosete ekidinezinek milioika dohakabe gosez hiltzera kondenatzen zituztenean? Ezkortasun hinduak ezintasun horretan zeukan bere jato-

rri nagusia. Eta ezkortasunak eragotzi du India bere mistizismoaren azkenera iristea, zeren mistizismo osoa egintza baita. Baina hona hemen non datozen makinak, lurraren errendimendua gehitzen dutenak eta, batez ere, horren emaitzak zirkulazioan jartzen dituztenak; badatoz antolakuntza politiko eta sozialak ere, zeinek erakusten baitute jendemasak ez daudela morrontza eta miseriapeko bizitzara kondenatuak, beharrian ezinbesteko batera bezala: askapena posible egiten da zentzu erabat berri batean; bultzada mistikoa, behar adinako indarrez lan-tzen den edonon, ez da jadanik geldituko ezintasunaren aurrean jarduteko, ez die ekingo behin eta berriz uko egitearen edo estasi-praktika-ren doktrinei. Bere baitan hurrupatu ordez, arima ireki egingo da han-diturik, maitasun unibertsalera. Alabaina, asmakuntza horiek eta anto-lakuntza horiek mendebaldar esentziakoak dira, eta horiek eman diote aukera mistizismoari bere buruaren barreneraino iristeko. Ondoriozta dezagun, beraz, ez Grezian eta ez Indian ez zela mistizismo osorik izan, bai bulkada behar adinako ez zelako izan, bai bere aurka inguruabar material batzuk edo intelektualitate estuegi bat izan zituelako. Une jakin batean agertzeak eramaten gaitu atzera begira bere prestakuntza-ren lekuko izatera, bat-batean sorturiko sumendiak iraganean lurrikara-sail luzea azaltzen duen bezala¹⁷.

Mistizismo osoa, izan ere, mistiko kristau handiena da. Oraingoz, utz dezagun alde batera horien kristautasuna eta horiengan forma materia gabe kontsidera dezagun. Ez dago zalantzarik horieta-ko gehienak antzeko egoeretatik igaro izana antzinako mistizismoaren gailurtze desberdinetara. Baina horietatik igarotzea besterik ez dute egin: beren baitan bilduz ahalegin erabat berri batean teinkatzeko, dike bat hautsi dute; bizi-korronte neurgabe bat jabetu da horietaz eta horien bizitasun areagotutik energia, ausardia eta kontzebitze- eta burutze-ahalmen apartekoa jalki dira. Pentsa bedi zer egin zuten, egin-tzaren domeinuan, San Paulok, Santa Teresak, Sienako Santa Katalinak, San Frantziskok, Arc-eko Santa Joanak eta beste hainbes-tek¹⁸. Jarduera gainugari horiek ia guztiak kristautasunaren hedapene-an erabili ziren. Hala ere, badira salbuespenak, eta Arc-eko Santa Joanaren kasua aski litzateke forma eta materia bereizgarriak direla ikusarazteko.

Horrela hartzen denean, bere terminoan, mistiko handien barne-bilakaera, gaixotzat harturik nola eduki izan diren galde egiten

diogu geure buruari. Noski, oreka ezegonkorreko egoera batean bizi gara, eta espirituaren osasun ertaina, bestalde, baita gorputzarena ere, gauza zaila da definitzen. Hala ere, bada sendo erroturiko osasun intelektuala, salbuespenekoa, zailtasunik gabe berrezagutzen dena. Agertzen da egintzaletasunean, zirkunstanzietara moldatzeko eta birmoldatzeko gaitasunean, malgutasunari baturiko irmotasunean, ahalgarriaren eta ahalezinaren bereizmen profetikoan, konplikazioen gainetik garaile gertatzen den espirituaren sinpletasunean eta, azkenik, zentzu komun garaiagoan. Ez al dugu, hain zuzen ere, hori aurkitzen hitz egiten ari garen mistikoengan? Eta ez ote luke balioko sendotasun intelektualaren definizio bererako?

Beste era batera epaitu badituzte, horiengan sarritan behin betiko eraldakuntza preludiatzen duten egoera anormalengatik izan da. Beren ikuspenez, estasiez, jasoaldiez hitz egiten dute. Gaixoengan ere gertatzen diren eta horien gaixotasuna osatzen duten fenomenoak dira. Obra garrantzitsu bat agertu da estasiar berriki, agerpen psikasteniko¹⁹ gisa kontsideraturik. Jakina badaudela egoera gaixozkoak egoera osasuntsuen imitazio direnak, baina horregatik batzuek ez diote utziko osasuntsuak izateari eta besteak gaixozkoak. Eroak enperadoreztat joko du bere burua; bere keinuei, bere hitzei eta bere egin-tzei kutsu sistematikoki napoleonarra emango die, eta horretan, hain zuzen ere, egongo da bere erotasuna: afektatuko al du horrek ezertan Napoleon? Era berean parodia liteke mistizismoa ere, eta izango da erotasun mistiko bat ere: horretatik ondorioztatuko al da mistizismoa erotasuna denik? Hala ere, ukaezina da estasiak, ikuspenak eta jasoaldiak egoera anormalak direla eta zaila dela anormala eta gaixozkoa bereizten. Hori izan da, bestalde, mistiko handien iritzia. Lehenak izan dira beren ikasleak haluzinaziozkoak soilik izan zitezkeen ikuspenen aurka zelatan jartzen. Eta beren ikuspen propioei, halakorik izaten zutenean, bigarren mailako garrantzia baizik ez diete eman izan: bideko gorabeherak ziren; gaingitu egin behar izan ziren eta atzean utzi estasiak eta jasoaldiak xedea lortzeko, zeina giza borondatea Jainkoaren borondatearekin bat egitea baitzen. Egia da egoera anormal horiek, horien antza eta batzuetan, zalantzarik gabe, baita egoera gaixozkoetan horien partaidetza, nekerik gabe ulertuko direla estatikotik dinamikora, itxitik irekira, ohiko bizitzatik bizitza mistikora pasatzeak esan nahi duen nahastean pentsatzen bada. Arimaren sako-

nera ilunak inarrosten direnean, azalera irten eta kontzientziaraino iristen denak, imajina edo emozio baten forma hartzen du, intentsitatea behar bestekoa bada. Imajina ia gehienetan haluzinazio hutsa izaten da, eta emozioa asaldura hutsa besterik ez. Baina batak eta besteak adieraz dezakete auzitako nahastea berrordenatze sistematiko bat dela oreka garaia bat lortzeko: imajina orduan prestatzen ari denaren sinboloa da eta emozioa eraldakuntza baten zain dagoen arimaren kontzentrazioa. Azken kasu hori da mistizismoarena, baina bestearen parte ere izan daiteke; anormala besterik ez dena izan daiteke, gainera, argiro gaixozkoa; kontzientea eta inkontzientearen arteko ohiko erlazioak aldatzen direnean beti izaten da arriskua, eta horregatik ez da harritu behar kasu batzuetan mistizismoak nerbio-desordenak berekin izateaz; desordena horiek genioaren beste era batzuetan ere aurkitzen dira, musikariengan bereziki. Akzidente hutsak besterik ez dira ikusi behar horietan. Lehendabizikoen desordenak ez dira mistikakoak, musikarienek ere musikarekin inolako zerikusirik ez duten bezala.

Herrestan eramango duen korronteak sakoneretan inarrosirik, arimak utzi egiten dio bere baitan bira emateari, une batez ihes eginez espezieak eta banakoak elkar, zirkularki, baldintzatzea nahi duen legerari. Gelditu egiten da, dei egiten dion ahots bat entzungo balu bezala. Gero, aurrera eraman dezaten utzi egiten du. Ez du zuzenean indar higierazlea hautematen, baina haren presentzia definiezina sentitzen du, edo ikuspen sinboliko batean susmatu egiten du. Orduan dator poz neurgabea, bere burua hurruputzen duen estasia edo pairatzen duen jasoaldia: Jainkoa han dago eta bera Harengan dago. Jadanik ez dago misteriorik. Arazoak ezabatu egiten dira, iluntasunak ilaundu egiten dira: argitzapena da. Baina zenbat denborarako? Estasiaren gainean eralgitzen zen kezka hautemanezin bat jaitsi eta itzala bezala batzen zaio hari. Hori aski izango litzateke, ondorengo egoerarik gabe ere, egiazko mistizismo osoa eta beste une batean imitazio aurreratua edo prestakuntza bat izan zena bereizteko. Izan ere, agerian jartzen du mistiko handiaren arima ez dela estasian gelditzen bidaiaren bukaera balitz bezala. Nahi bada, atsedena da, baina makinak ekinean jarraitzen duen geltoki batean, etengabeko higidura batean astindurik, aurrerako jauzi berri bati itxaroten. Zehatzago esan dezagun: Jainkoarekiko batasuna, nahiz eta estua izan, osoa baldin bada baizik ez da behin betikoa izango. Zalantzarik gabe, jadanik ez dago tarterik

pentsamenduaren eta bere objektuaren artean, bien artean zeuden arazoak eta bereizkuntza bera eratzen zutenak ezabatu egin baitira. Jadanik ez dago errotiko bereizkuntzarik maitalearen eta maitatuaren artean: Jainkoa presente dago eta pozak ez du mugarik. Baina arima Jainkoarengan hurrupatzen bada pentsamenduaren eta sentimenduaren bidez, hortik zerbait kanpoan gelditzen da; nahimena da hori: bere egintza, gertatuko balitz, hartatik bakarrik etorriko litzateke. Horren bizitza, beraz, oraindik ez da jainkozkoa, eta berak badaki hori. Lausoki, kezkatu egiten da horregatik, eta atsedeneke kezka hori mistizismo osoa deitzen dugunaren ezaugarria da: adierazten du urrunago joateko hartua zela bulkada, estasiak afektatzen duela, noski, ikusi eta hunkitzeko ahalmena, baina nahi izatea ere existitzen dela, eta berriro Jainkoarengan ezartzea beharrezkoa litzatekeela. Sentimendu hori dena betetzeko punturaino hazi denean, estasiak amore eman du, arima bakarrik dago eta batzuetan nahigabeturik. Denbora batez argi itsugarria ohiturik, ez du bereizten ezer itzaletan. Ez da ohartzen bere baitan ilunki obratzen ari den lan sakonaz. Asko galdu duela sentitzen du, baina oraindik ez daki dena irabazteko dela. Hori da mistiko handiek aipatzen duten «gau iluna» eta, zeina baita agian esanguratsuena edo, edozein kasutan, mistizismo kristauak duen irakasgarriena. Behin betiko aldia, mistizismo handienaren ezaugarria dena, prestatzen ari da. Azken prestakuntza hori analizatzea ezinezkoa da, mistikoek berek ere doi-doi erdi-ikusi baitiote mekanismoa. Bakarrik esan dezagun altzairuzko makina izugarri erresistentea, ahalegin aparteko batean pentsatuz fabrikatua, antzeko egoera batean aurkituko litzatekeela bere buruaren kontzientzia hartuko balu montaketa-unean bere atalak, bata bestearen atzetik, probarik gogorrenen mendean jarri direlarik, eta horietako batzuk baztertuak eta beste batzuek ordeztuak izan direnean, han-hemenka zerbait falta zitzaion sentsazioa izango zuela, eta mina sentituko zuela alde guztietan. Baina nahigabe guztiz azaleko horrek sakondu egin beharko luke, tresna zoragarri baten itxarote eta esperantzan galtzera iristeko. Arima mistikoak tresna hori izan nahi du. Ezabatu egiten du bere substantziatik Jainkoak erabilia izateko behar bezain garbia ez dena, behar bezain erresistente eta malgua ez dena. Lehenago ere sentitu zuen Jainkoa presente, ikuspen sinbolikoetan hautematen zuela uste zuen, estasian berarekin batu ere egiten zen; baina horretatik ezer ez zen iraunkorra, zeren dena kontenplazioa murrizten baitzen: egintzak arima bere baitara itzultzen zuen eta

horretara Jainkoagandik bereizten zuen. Orain Jainkoa da haren bitartez eta hartan diharduena; batasun erabatekoa da eta, ondorioz, behin betikoa. Orduan, mekanismo eta tresna bezalako hitzek alde batera uztea hobe izango diren imajinak iradokitzen dituzte. Haietaz balia gintezke prestatze-lanaren ideia bat geure buruari emateko, baina azken emaitzaz ez digute ezer irakatsiko. Esan dezagun hori, aurretantzean, arimarentzat, bizi-gainugaritasuna dela. Bulkada eskega da, bultzada erresistiezina, egiteko handienetara jaurtikitzen duena. Bere ahalmen guztien goratze bare batek handitasunez ikustea egiten du, eta, nahiz eta ahula izan, ahaltsu jardutea. Batez ere, era sinplean ikusten du, eta sinpletasun horrek, hitzetan adina portaeran harritzen duen horrek, gidatzat balio dio hauteman ere ez dituela egiten diruditen konplikazioetan barrena. Zientzia jaiotzatiko batek, edo hobeki esan, errugabetasun lortu batek, iradokitzen dio horrela lehen kolpetik, pasu baliagarriena, egintza erabakigarria, ihardespenik gabeko hitza. Ahaleginak, hala ere, ezinbestekoa izaten jarraitzen du, baita erresistentziak eta iraupenak ere. Baina bakarrik datoz, berenez destolestean dira aldi berean aktuatzailerik eta «aktuatu» den arima batean, zeinaren askatasuna bat baitator jarduera jainkozkoarekin. Energia-xahuketa izugarria behar dute, baina energia hori behar bezain laster hornitzen zaie, zeren eskatzen duen bizi-gainugaritasuna bizia bera den iturri bati baitario. Orain ikuspenak urrun daude: dibinitatea ezingo litzaioke kanpotik ordurako hartaz beterik dagoen arima bati agertu. Jadanik ez dago ezer horrelako gizaki bat beste gizakiengandik, zeinen artean mugitzen baita, esentzialki bereizten duela dirudienik. Bera bakarrik ohartzen da *adjutores Dei*-en mailara jasotzen duen aldaketaz, zeinak baitira pazienteak Jainkoarekiko erlazioan eta eragileak gizakiekiko erlazioan. Gainerakoan, jasotze horretatik ez du inolako harrokeria-sentimendurik lortzen; aitzitik, bere umiltasuna handia da. Nola ez umila izan, bere buruarekiko elkarriketa isiletan egiaztatu ahal izan badu, bere arima osoki urtzen ari zela sentitzen zuen emozio batekin, umiltasun jainkozkoa dei litekeena?

Estasian gelditzen zen mistizismoan, hau da, kontenplazioan, jadanik bazegoen egintza halako bat aurre-formaturik. Zerutik lurrera itzuli bezain laster, gizakiei irakastera joateko premia sentitzen zuen. Beharrezko zen gorputz-begiez hautemandako mundua denei iragaritzea, zalantzarik gabe, erreala dela, baina badela beste gauza bat, eta

hori ez dela besterik gabe ahalgarri edo gertakorra, arrazoiketa baten ondorioa izango litzatekeenez, baizik esperientzia bat bezain ziurra: bada ikusi duen norbait, ukitu duen norbait, badakien norbait. Hala ere, horretan ez zegoen apostolutza-nahikunde bat besterik; izan ere, egiteko desadoregarria zen: nola hedatu diskurtsoez esperientzia bate-tik lortu den konbikzioa?, eta, batez ere, nola adierazi adierazezina? Baina auzi horiek planteatu ere ez zaizkio egiten mistiko handiari. Hark bere baitan jariatzen sentitu du bere egia, eta indar aktibo bat bezala bere iturritik sortzen. Ez dio uko egingo barreiatzeari, eguzkiak argiari barreiatzen uzten dion bezala; baina ez du diskurtso sinpleen bidez hedaraziko.

Zeren kontsumitzen duen maitasuna ez da soilik gizaki batek Jainkoari dion maitasuna, baizik Jainkoak gizaki guztiei dien maitasuna. Jainkoaren bitartez, Jainkoarengatik, maite du gizadi osoa maitasun jainkoko. Jadanik ez da arrazoiaren izenean filosofoek gomendatu duten senidetasuna, gizaki guztiek jatorriz esentzia arrazional berean esku hartzen dutela argudiatuz: hain ideal noblearen aurrean errespetuz makurtuko da, hori burutzen saiatuko da, norbana-koa eta komunitatearentzat nekagarriegia ez bada, baina ez dio bere atxikimendu suharra emango. Ez du hori egingo, gure zibilizazioaren bazterren batean mistizismoak utzitako perfume hordigarria usnatu ez badu behintzat. Filosofoek berek, agian planteatu izango al zuten segurtasun horrekin, gizaki guztiek esentzia garai berean berdin esku hartzen dutelako printzipioa, ohiko esperientziarekin hain adostasun gutxi duena, maitasun banaezin bakar batean gizadi osoa besarkatu duen mistikorik izan ez balitz? Beraz, kontua ez da orain senidetasuna, zeinaren ideia eraiki baita ideal bihurtzeko. Gizakiak gizakiari dion sinpatia jaiotzatiko bat areagotzea ere ez da kontua. Horrelako instintu batez, beti galde liteke ea inoiz existitu izan den filosofoen irudimenaz kanpo, zeinean sortu baita simetria-arrazoiengatik. Familia, aberria, gizadia, itxuraz gero eta zirkulu zabalago gisa agertzen dira, pentsatu izan da gizakiak era naturalean maitatu behar zuela gizadia, aberria eta familia maitatzen diren bezala, izatez, talde familiarra eta talde soziala naturak nahi izan dituen bakarrak direlarik, instintuak dagozkien bakarrak eta, instintu sozialek elkarren aurka borroka egitera eramango litzukete gizadia eratzeke efektiboki elkartzera bainoago. Gehienera ere, sentimendu familiarra eta soziala heda dai-

tezke, gainugaritasun akzidental gisako batez bezala, bere muga naturalez haratago edo jolasez, baina inoiz oso urrunera heldu gabe. Oso besterik da gizadiaren maitasun mistikoa, zeina instintu baten luzape-na ez baita, ezta ideia baten deribazioa ere. Ez da sentigarriaren ez arrazionalaren esparrukoa. Implizituki bata eta bestea da, eta efektibo-ki askozaz gehiago da, zeren horrelako maitasuna sentigarritasunaren eta arrazoiaren erroan bertan baitago, baita gainerako gauzenetan ere. Jainkoak bere obrari dion maitasunarekin bat etorritz, dena egin duen maitasun horrekin sorkuntzaren sekretua itauntzen jakingo lukeena entregatzeko gai izango litzateke. Bere esentzia metafisiko areago da morala baino. Jainkoaren laguntzarekin, giza espeziearen sorkuntza hobetuz bukatu nahiko luke eta gizadia bihurtu bitartegabeki izango zatekeena betin-betikoz eratu ahal izan balitz gizakiaren beraren laguntzarik gabe. Edo bestela, beste hizkuntza batean gauza bera dio-ten hitzak erabiltzeko, ikusiko dugunez: noranzkoa bizi-bulkadarena bera du; bulkada hori bera da, gizaki pribilegiatuei osoki komunika-tua, zeinek gizadi osoari ezarri nahi izango bailiokete, eta, buruturiko kontraesan baten bidez, ahalegin sortzaile bihurtu espezie bat den gauza sortu hori, higidura bat egin, definizioz, gelditze bat dena.

Lortuko ote du? Mistizismoak gizadia eraldatu behar badu, bere buruaren atal bat pixkanaka eta astiro transmitituz lortuko du hori. Mistikoek ongi sentitzen dute hori. Aurkituko duten eragozpen handia gizadi jainkozko bat sortzea eragotzi duena bera da. Gizakiak bekoki-ko izerdiaz irabazi behar du ogia: bestela esateko, gizadia animala espe-zie bat da, eta horrelakoa den heinean animala mundua gobernatzen duen legearen pean ezarria eta izaki biziduna bizidunaz elikatzeraz kon-denatzen duena. Bere mantenua naturak orokorrean eta bere izankide-ek lehiatzen diotenez gero, derrigor erabili beharra dauka bere ahalegi-na hura lortzeko; adimena, hain zuzen ere, borroka horretarako eta lan horretarako armak eta tresnak hornitzeko egina dauka. Nola bihur leza-ke gizadiak zerurantz, baldintza horietan, esentzialki lurrera zuzenduri-ko arreta? Hori ahalgarria bada, bi metodo zeharo bestelako aldi bere-an edo hurrenez hurren erabiltzearen indarrez bakarrik izango da. Lehena lan intelektuala halako punturaino areagotzean datza, adimena naturak harentzat nahi izan zuena baino haratago hain urrunera erama-tean, non tresna soilak makina-sistema neurgabe bati, giza jarduera askatzeko gai izango denari leku egingo dion; askapen hori, bestalde,

antolakuntza politiko eta sozial batek sendotua izango da, zeinak ziur-
tatuko baitio makinismoari bere egiazko zertarakoa. Bitarteko hori
arriskutsua da, zeren mekanika, garatzean, mistikaren aurkako bihur
baitaiteke: izan ere, horren aurkako itxurazko erreakzio gisa, horrelaxe
garatuko da mekanika osokiago. Baina badira hartu beharreko arris-
kuak: maila garaia goko jarduera batek, jarduera behereago baten pre-
mia duenak, sorrarazi beharko du edo, edozein kasutan, jarduten utzi
beharko dio, bere burua babesteko prest egonik hala behar izanez gero;
esperientziak erakusten du, baldin eta bi joera kontrako baina osagarri
direnatik, bata hazi bada espazio osoa bete nahi izateraino, bestea
ongi kokaturik egongo da, nahiz eta bere burua kontserbatzen oso gutxi
jakin: bere txanda iristean, bera gabe egindako guztiaz baliatuko da,
beraren aurka kemenez egin den hartaz ere bai. Edozein kasutan, ezi-
nezkoa zen bitarteko hori askozaz geroago arte erabiltzea, eta, bitarte-
an, bazen jarraitzeko beste metodo bat zeharo desberdina. Hori zetzan
bulkada mistikorako bitartegabeko hedapen orokor bat ez itxarotean,
begi-bistakoa denez ezinezkoa baita, baizik pribilegiatu-kopuru txiki
bati, nahiz eta ahuldurik, komunikatzean, zeinek elkarrekin sozietate
espiritual bat eratuko baitzuten. Gisa horretako sozietateak barreiatu
egin litezke, eta horietako bakoitzak, era apartekoan hornituriko bere
kideetakoren bati esker, beste bati edo beste zenbaiti sorrera eman lie-
zaioke; horrela kontserbatuko litzateke, horrela segiko litzateke bul-
kada, harik eta egun batean, naturak gizadiari ezarritako baldintza
materialezko aldaketa sakon batek, aspektu espiritualetan, errotiko eral-
daketa ahalbidetu arte. Hori da mistiko handiek jarraitu duten metodoa.
Beharrian, eta gehiago egitea ezinezkoa zelako, gastatu egin zuten
beren energia gainugaria, batez ere konbentuak edo ordena erlijiosoak
sortzen. Ordukoz ez zeukaten urrunago begiratu beharrik. Gizadia
Jainkoarenganaino jasotzera eta sorkuntza jainkozkhoa hobetzera era-
maten zuen maitasun-bulkada ezin zen garaile atera, haien begietan,
Jainkoaren laguntzarekin izan ezik, zeinaren tresna baitziren. Haien
ahalegin guztiak, bada, ataza oso handi eta oso zail baina mugatu bate-
an kontzentratu behar zuen. Etorriko ziren beste ahalegin batzuk, lehe-
nago beste batzuk ere etorri zirenez, eta denak konbergenteak izango
ziren azkeneko, zeren Jainkoak unitate bihurtzen baitzituen haiek.

Izan ere, asko sinpletu ditugu gauzak. Argitasun handiagorako
eta, batez ere, zailtasunak sail batean ordenatzeko argudiatu dugu mis-

tiko kristaua, barne-agerpen baten eroalea, hartaz ezer ez zekien gizadi batean supituki sortu izan balitz bezala. Baina, izatez, mistikoak hitz egiten dien gizakiak ordurako erlijio baten jabe dira, zeina gainera bere-na baitute. Ikuspenak bazituen, ikuspen horiek imajinatan aurkezten zioten erlijioak ideia-formapean ezarri ziona. Estasiak baldin bazituen horiek Jainko batekin batzen zuten, zeinak imajinaturiko guztia gainditzuten baitzuen baina erlijioak emandako deskribapen abstraktuari erantzuten baitzion artean. Eta galdetu ere egin zitekeen irakatsi abstraktu horiek ez ote dauden mistizismoaren jatorrian, eta horrek inoiz dogma-ren letra birpasatzea besterik egin ote duen berriz idazteko, oraingoan suzko karakterekin. Mistikoen zeregina legoke erlijioari berek duten sugarraren parte bat ematean, horri berotasuna ezartzeko. Eta jakina, horrelako iritzi baten jabe denari, ez zaio zaila gertatuko beste batzuei onarraraztea. Izan ere, erlijioaren irakatsiak, irakatsi oro gisa, adimenari zuzentzen zaizkio, eta maila intelektualekoa dena guztiei atzigarri gerta dakieke. Erlijioari atxikimendua eman ala ez, beti asimilatu ahal izango da intelektualki, nahiz eta bere misterioak misteriotu gisa erre-presentatu behar izan. Aitzitik, mistizismoak ez dio ezertxo esaten, hartaz esperientziaren bat izan ez duenari. Horrela, bada, mundu guztiak ulertu ahal izango du mistizismoa, noizean behin, original eta esanezin, erlijio aurre-existente batean, adimenak bereak dituen terminotan formulatu batean sartzea; aldiz, zaila izango litzateke erlijio baten ideia onarraraztea, mistizismoari esker baizik existituko ez litzatekeena, eta, zeina termino intelektualetan formulagarria, eta horregatik, orokorgarria den aterakina izango bailitzateke. Ez da beharrezko ikertzea interpretazio horietako zein bat datorren erlijio-ortodoxiarekin. Esan dezagun soilik, psikologoaren ikuspegitik, bigarrenak lehenak baino egiantz handiagoa duela. Doktrina besterik ez den doktrina batetik, nekez sortuko da suhar gartsua, argitzapena, mendiak jasotzen dituen fedea. Baina inkandeszentzia horretatik abiatzen bagara zailtasunik gabe ikusiko du irakinean dagoen materiak doktrina baten moldean husten, edota solidotzean doktrina horretan eraldatzen. Horrela, bada, mistizismoak, sugarretan, gizadiaren ariman ezartzera etorri zen hozte zuhur batek sorrarazitako zerbaiten kristaltzea bezala erre-presentatzen dugu erlijioa. Erlijioaren bitartez, denek lor dezakete pribilegiatu batzuek osoki jabetzan eduki zuten zerbaiten atal txiki bat. Egia da erlijioak gauza asko onartu behar izan dituela bere burua onarrarazteko. Gizadiak ez du inoiz ongi ulertzen berria dena antzinakoaren jarraipen

gisa aurkezten ez bada. Alabaina, antzinakoa, alde batetik, filosofo grekoek eraiki zutena zen eta, bestetik, antzinako erlijioek imajinatu zutena. Zalantzarik ez dago kristautasunak asko hartu duela edo, areago, asko atera duela batzuetatik eta besteetatik. Filosofia grekoz kargaturik dago, eta estatiko edo naturala deitzen dugun erlijiotik nahikoa erritu, zeremonia eta sinesteak berak ere kontserbatu ditu. Horretxek erakartzen zuen bere interesa, zeren neoplatonismo aristoteliarra zati batean onartzeak pentsamendu filosofikoaz jabetzeko aukera ematen zion, eta antzinako erlijioetatik hartutako maileguez lagundu egin behar zioten erlijio berriari, alderantzizko noranzkoan, zeinak ia ezer ez baitzeukan komunean antzinakoekin, erlijio herritar bat bihurtzen. Baina horretako ezer ez zen esentziala: erlijio berriaren esentzia mistizismoaren hedapena izango zen. Bada hedapen prestua, egia zientifikoaren formak errespetatzen dituen eta espiritu landuak baizik ez direnei larriki errepresentatzeko aukera ematen diena, harik eta ahalegin garaiago batek xehetasuna aurkiarazten dien eta, batez ere, bere esanahi sakonean sarrarazten dituen eguna arte. Iruditzen zaigu mota horretakoa dela mistizitatearen hedapena erlijioaren aldetik. Zentzu horretan, erlijioa mistizismoarekiko hedapena zientziarekiko dena hori bera da.

Beraz, mistikoak bere aurrean aurkitzen duena gizadia da, zeina beste mistiko batzuek, ikusezin direnek, eta irakasten den erlijioan presente daudenek, adigarri egiteko prestatu baitute. Bestalde, bere mistizismoa ere erlijio horretaz blai eginik dago, hartatik hasia baita. Bere teologia bat etorriko da, oro har, teologoenarekin. Bere adimenak eta bere irudimenak horien irakaspenak erabiliko dituzte esperimintatu duena hitzetan, eta espiritualki ikusi duena imajina materialetan adierazteko. Eta hori erraza gertatuko zaio, zeren teologiak mistizitatean iturria duen korrante bat atzeman baitu, hain zuzen ere. Horrela, bere mistizismoa erlijioaz baliatzen da, erlijioa bere mistizismoaz aberastuko delakoan. Horrela azaltzen du hasiera batetik egitera deitua sentitzen den zeregina, hau da, erlijio-fedearen areagotzailearen zeregina. Bizkortasunez dihardu. Izatez, mistiko handientzat, gizadia errotik eraldatzea da kontua, etsenplua ematetik hasiz. Eta jatorrian teorikoki existitu behar zuena, gizadi jainkozko bat azkeanean egotean bakarrik lortuko luke azken helmuga.

Mistizismoak eta kristautasunak elkar baldintzatzen dute, mugagabeki. Hala ere, beharrezkoa da hasiera bat egon izana. Izatez,

kristautasunaren jatorrian Kristo dago. Hartu dugun ikuspuntutik, nondik agertzen baita gizaki guztien jainkotasuna, gutxi axola dio Kristori gizaki deitzea edo ez deitzea. Jesusen existentzia ukatzera iritsi direnek ez dute eragotziko Mendiko Hitzaldia Ebanjelioan agertzea, beste hitz jainkozko batzuekin batera. Nahi dugun izena eman diezaiokegu bere egileari, baina ezin dugu egile bat egotea eragotzi; beraz, orain ez daukagu mota horretako arazorik planteatu beharrik. Esan dezagun besterik gabe, baldin eta mistiko handiak deskribatu ditugun bezalakoak badira, Ebanjelioetako Kristoa era oso batean izan zenaren imitatzailerik eta jarraitzailerik originalak direla, nahiz eta ezosoak izan.

Hura bera Israelgo profeten jarraitzailerik kontsidera daiteke. Zalantzarik ez dago kristautasuna judaismoaren eraldakuntza sakona izan zela. Askotan esan izan da: artean esentzialki izaera nazionala zeukan erlijioa unibertsal bihurtzeko gaitasuna zuen erlijio batez ordeztu zen. Jainko baten ondoren, zeinak zalantzarik gabe kontraste egiten baitzuen beste guztiekin bere justiziarengatik eta aldi berean bere ahalearengatik, baina zeinaren ahala egikaritzen baitzen bere herriaren alde eta zeinaren justizia bere mendekoei baitzegokien batez ere, maitasunezko Jainko bat etorri zen, gizadi osoa maite zuena. Horrexegatik, hain zuzen ere, ditugu zalantzak profeta juduak antzinako mistikoen artean sailkatzeko: Yahveh epaile zorrotzegia zen, eta Israelen eta bere Jainkoaren artean ez zegoen behar adinako intimitaterik judaismoa definitu dugun mistizismoa izan zedin. Eta hala ere, ezein pentsamendu- edo sentimendu-korrontek ez du lagundu profetismo juduak adina osoa deitzen dugun mistiko kristauen mistizismoa sorrarazten. Horren arrazoia da beste korronte batzuek mistizismo kontenplatibora arima batzuk eraman bazituzten eta horregatik mistikotzat kontsideratuak izatea merezi bazuten, gidatu kontenplazio hutsera gidatu zituzten. Pentsamendua eta egintzaren arteko tarteak gainditzeko bulkada bat behar izan zen, falta izan zena. Bulkada hori profetengan aurkitzen dugu: justizia-grina izan zuten eta Israelgo Jainkoaren izenean erreklamatu zuten; kristautasuna judaismoaren jarraipena izan zen, neurri handi batean profeta juduei zor izan zien mistizismo aktibo bat izatea, munduaren konkistari ekiteko gai zena.

Baldin eta mistizismoa esan berri dugun hori bada, nolabait, esperimenterik, Jainkoaren existentzia eta izaeraren arazoa jorratzeko bitartekoa hornitu behar du. Bestela ez dugu ikusten filosofiak nola

landuko lukeen beste era batera. Termino orokorretan, existitzen den objektua hautematen den edo hauteman daitekeen objektua dela kalkulatzeko dugu. Beraz, esperientzia erreal edo ahalgarrian emandako zerbait da. Aske gara objektu edo izaki baten ideia eraikitzeke, geometrak figura geometrikoarekin egiten duenez; baina esperientziak bakarrik ezarriko du objektu hori efektiboki existitzen dela, horrela eraikitako ideiaz aparte. Auzi guztia horretan datzala esango al dugu, eta hain zuzen ere kontua dela jakitea ea halako Izaki bat ez ote litzatekeen bereiziko beste guztietatik gure esperientziarentzat atzigarria izango ez litzatekeen horretan eta, hala ere, haiek bezain erreala? Onartzen dut une batez, nahiz eta gisa horretako baieztapen batek, eta inguruan hartzen dituen arrazoiketek ere oinarritzko ilusio bat inplikatzen dutelakoan nagoen. Baina finkatu gabe geratuko da horrela definituriko eta horrela frogaturiko Izakia Jainkoa dela. Definizioz dela horrela alegatuko al dugu eta aske garelako definitzen ditugun hitzei nahi dugun zentzua emateko? Onartzen dut hori ere, baina hitzari egozten badiogu eskuarki duenaz zeharo bestelako zentzu bat, orduan objektu berri bati egozten diogu. Gure arrazoiketek utzi egingo diote antzina-ko objektuari buruzkoak izateari, eta beste gauza batez ari garelako ulertuko da orduan. Bada, orokorrean, horixe da filosofia Jainkoaz mintzo deneko kasua. Hain gutxi da gizakien gehiengoak pentsatzen duen Jainkoa, non, mirariz eta filosofoen ustearen aurka, horrela definituriko Jainkoa esperientziaren eremura jaitsiko balitz, inork ez bailukeberrezagutuko. Nola estatikoa hala dinamikoa, izan ere, erlijioak ezer baino lehen gurekin harremanetan sartzeko den Izakitzat dauka; alabaina, horretarako hain zuzen ere ez da gai Aristotelesen Jainkoa, bere ondorengo gehienek aldakuntza batzuekin beretzat hartu zutena. Dibinitatearen kontzepzio aristoteliarraren azterketa sakon batean orain sartu gabe, esan dezagun besterik gabe auzi bikoitza sorrazten duela: 1º zergatik Aristotelesek defenditu izan duen Higierazle Higiezinaren existentzia lehen printzipio gisa, bere burua pentsatzen duen pentsamendua, bere baitan itxia eta bere perfektioaren erakarpenaren indarrez bakarrik diharduena; 2º, zergatik, printzipio hori finkatu ondoren, eman dio Jainko izena? Baina galdera batari eta besteari eman beharreko erantzuna erraza da: Ideien teoria platonikoak menderatu du antzinako pentsamendu osoa, eta gerora filosofia modernoan sartuko zen; alabaina, lehen printzipio aristoteliarrak munduarekiko duen harremana Platonek Ideia eta gauzaren artean ezarri zuena

bera da. Ideietan adimen sozial edo indibidualaren ekoizkinak besterik ikusten ez dituenarentzat, ez dago ezer estrainiorik ideiak, kopuru mugatu eta aldaezinean, gure esperientziako gauza mugagabeki bariatu eta aldakorrei egokitzean: moldatu egiten gara, izan ere, gauzen artean antzak aurkitzeko, beren dibertsitatea gorabehera, eta haien ikuspegi egonkorra izateko, beren ezegonkortasuna gorabehera; horrela ideiak lortzen ditugu, zeinen gainean eragina baitugu, aldiz gauzek ihes egiten digute eskuetatik. Hori dena giza fabrikazioa da, baina gizarteak bere lana oso aurreratua daukanean filosofatu nahi duenak eta haren emaitzak hizkuntzan gordailatuak aurkitzen dituenen, agian miretsi eta zirrarapean eror daiteke ideia-sistema horrengatik, zeinetara gauzak egokitzen direla baitirudi. Ez al lirateke izango ideiak, beren aldaezintasunean, gauza aldakor eta higikorrek imitatu baizik egiten ez dituzten ereduak? Ez al lirateke izango egiazko errealitatea, aldaketa eta higidura ia existitzen ez diren gauzen ahalegin alfer eta etengabearen adierazle, zeinek nolabait beren buruaren atzetik lasterka egiten baitute, Ideiaren aldaezintasunarekin bat egiteko? Ulertzekoa da, beraz, Ongiaren Ideia den Ideien Ideia horrek menderaturiko Ideien hierarkia mundu sentigarriaren gainetik ezarri eta gero, Ideiek orokorrean, eta arrazoi handiagoarekin, Ongiarenak beren perfekzioaren erakarpenaren indarrez zihardutela Platonek pentsatu izana. Horixe da, hain zuzen ere, Aristotelesen arabera, pentsamenduaren egintza-modua, zeina ez baita Ideien ideiarekin erlaziorik gabea. Egia da Platonek ez duela hori Jainkoarekin identifikatzen: *Timeo*ko Demiurgoa, mundua antolatzen duena, Ongiaren Ideiaz bestelakoa da; baina *Timeo* dialogo mitikoa da, eta Demiurgoak, beraz, erdi-existentzia besterik ez du; eta Aristotelesek, mitoei uko egiten dienak, dibinitatearekin bat eginarazten du Pentsamendu bat, zeina antza denez doi baita Izaki pentsatzailea eta, zeina areago deituko baikenuke Ideia Pentsamendu baino. Horregatik, Aristotelesen Jainkoak ezer ez du komunean grekoek adoratu zituzten jainkoekin; Bibliako, Ebanjelioko Jainkoaren antza ere doi-doi du. Estatiko zein dinamikoa dela ere, erlijioak filosofiari aurkeztzen diona arazo berriak planteatzen dituen Jainkoa da. Hala eta guztiz ere, eskuarki metafisikak aipatu duen hura da, nahiz eta bere esentziarekin bateragarria ez den honelako edo bestelako atributuz apaindu behar duen. Tamalez ez du hartu bere jatorrian! Ideia guztiak bakar batean biltzearen indarrez eratzen ikusiko zukeen. Tamalez bestalde, ez ditu ideia horiek ere kontsideratu!

Ikusiko zukeen ezer baino lehen norbanakoak eta gizarteak gauzen gaineko egintza prestatzeko balio dutela, zeinak horregatik gizarteak hornitzen baitizkio norbanakoari eta bere kintesentzia dibinitate bihurtzea soziala dena jainkotzea baizik ez dela izan. Tamalez, azken finean, egintza indibidual horren baldintza sozialak eta norbanakoak gizartearen laguntzarekin burutzen duen lanaren izaera ez dituela analizatu! Konstatatuko zukeen, baldin eta lana sinpletzeko eta lankidetzaz errazteko, gauzak hitzetan bihurgarriak diren kategoria edo ideiatara murriztetik hasten bada, ideia horietako bakoitzak propietate bat edo egoera egonkor bat bilakaera baten joairan hartua errepresentatzen duela: erreala higikorra da edo, areago, higidura da, eta guk aldaketaren jarraipenak baizik ez ditugu hautematen; baina errealaren gainean jarduteko eta bereziki azken onera eramateko fabrikazioaren lana, zeina baita giza adimenaren objektu propioa, pentsamenduz estadioak finkatu behar ditugu, jopuntu higikor batera tiro egiteko abiaduraren gutxitze edo gelditze erlatiboak une batzuk itxaroten ditugun bezala. Baina atsedentze horiek, higiduraren akzidenteak bakarrik direnak, eta gainera itxura hutsetara murrizten direnak, nolakotasun horiek aldaketaren gain hartutako aldiuneak baizik ez direnak, erreal eta esentzial bihurtzen dira guretzat, hain zuzen ere gauzen gaineko gure egintzari interesatzen zaizkionak baitira. Atsedena higiduraz aurreko eta gaineko zerbait bihurtzen da horrela guretzat, zeina hura lortzeko asaldatze bat besterik ez bailitzateke izango. Aldaezintasuna aldakortasunaren gainetik legoke, zeina ez bailitzateke gabezia bat, falta bat, behin betiko formaren bilaketa bat baizik izango. Areago oraindik, aldaketa eta higidura gauza dagoen puntuaren eta gauzak egon nahiko edo beharko lukeenaren arteko bereizkuntzaz neurtu eta definituko lirateke. Iraupena horrela izatearen degradazio eta denbora betieraz gabetze bihurtzen da. Metafisika hori guztia inplizitu dago dibinitatearen kontzepzio aristoteliarrean. Hizkuntzaren prestamena lan soziala eta txantilo edo ereduak eskatzen dituen fabrikazioaren lan indibiduala jainkotzean datza: ⁵ (Ideia edo Forma) dagokio lan bikoitz horri; Ideien Ideia edo Pentsamenduaren Pentsamendua dibinitatea bera da azkenean. Era horretara Aristotelesen Jainkoaren jatorria eta esanahia berreraiki direnean, galdegiten diogu geure buruari nolatan modernoek lantzen duten Jainkoaren existentzia eta izaera arazo ebatzezinetan katigatuz, zeinak Jainkoa ikuspuntu aristoteliarretik kontsideratzen denean eta gizakiek inoiz dei egiteaz pentsatu ez duten

izaki bati izen hori ezartzea ontzat ematen denean bakarrik planteatzen baitira.

Esperientzia mistikoak ebazten al ditu arazo horiek? Argiro ikusten dira sortzen dituen objektzioak. Baztertu egin ditugu mistiko oro desorekatu, eta mistizismo oro egoera patologiko bihurtzean dauztanak. Mistiko handiak, zeinaz bakarrik arduratu baikara, eskuarki egintza-gizon eta emakumeak izan dira, argi-ikuspen garaia gokoak: gutxi axola dio imitatzailetzat desorekatuak eduki izana, edota horietakoren bat eta adimenaren eta nahimenaren tentsio muturreko eta jarraituko une jakin batzuetan erasanak geratu izana: gizaki genial asko egon dira kasu berean. Baina badira beste objektzio batzuk derri gor kontuan hartu beharrekoak. Izan ere, mistiko handi horien esperientzia indibiduala eta salbuespenekoa dela aipatzen da, gizaki arruntek ezin dezaketela kontrola eta ondorioz ez dela esperientzia zientifikoarekin erkagarria eta ezingo lukeela ezein arazo ebatzi. Asko legoke esateko horri buruz. Hasteko, beharrezkoa litzateke esperientzia zientifiko bat edo, orokorragoan, zientziak erregistraturiko behaketa bat, beti kontrolatzeko edo errepikatzeke gai izatea. Ertafrika *terra incognita* zen garaian, geografia esploratzaile bakar baten kontakizunari atxikitzen zitzaion, baldin eta horrek behar besteko zintzotasun eta gaitasun-bermeak eskaintzen bazizkion. Livingstone-ren bidaien ibilbidea luzaroan agertu izan da gure atlasetako mapetan. Erantzungo da, izatez ez bazen eskubidez, egiaztapen hori ahalgarria zela, beste bidaiari batzuk aske zirela bertara joan eta ikusteko, eta gainera bidaiari bakar baten oharren arabera marrazturiko mapa behin-behinekora zela, harik eta hurrengo esplorazio batzuek behin betiko bihurtu arte. Onartzen dut; baina mistikoak ere egin du beste batzuek ere egin dezaketena bidaia bat eskubidez, izatez ez bada ere; eta egiazki egiteko gai direnak Livingstone-ren bila joateko Stanleyren ausardia eta energia izango luketenak bezain ugariak dira gutxienez. Hori ez da asko esatea. Bide mistikoa azkeneraino jarraituko luketen arimen ondoan, asko daude gutxienez bidaiaren parte bat egingo luketenak. Zenbat izan diren pauso batzuk eman dituztenak bide horretatik, bai bere nahimenaren ahalegin batez edo berezko disposizioz! William Jamesek aitortzen zuen ez zela inoiz egoera mistikoetatik igaro, baina gehitzen zuen esperientziaz ezagutzen zituen gizaki bati haietaz hitz egiten entzuten zionean «zerbaitek beragan oihartzun egiten zuela».

Gutako gehienak, seguraski, egoera berean gaude. Ez du ezertarako balio horri berritsukeria edo erokeria besterik mistizismoan ikusten ez dutenen protesta suminduak kontrajartzeak. Batzuk, inolako zalantzarik gabe, erabat itxiak dira esperientzia mistikoarekiko eta hartaz ezer esperimentatu edo imajinatzeko. Baina bada jendea, zeinarentzat musika zarata besterik ez baita; eta horietako batzuek herra pertsonalezko sumin eta tonu beraz egiten dituzte musikariei buruzko adierazpenak. Inork ezingo du horretatik atera musikaren aurkako argumeturik, beraz utz ditzagun alde batera ukapen horiek eta ikusagun ea esperientzia mistikoaren azterketa azal-azalekoago batek ez ote lukeen jada sortuko bere baliozkotasunaren aldeko presuntziorik.

Ezer baino lehen mistikoeak beren artean duten akordioa seinatu behar da. Gertakaria harrigarria da mistiko kristauen artean. Behin betiko jainkotzera iristeko, egoera-sail batetik igarotzen dira, mistiko batengandik beste batengana alda daitezkeen baina elkarren antz handia duten egoeretatik. Edozein kasutan, egindako ibilbidea bera da, geltokiek era desberdinean zedarritzen badute ere. Era berean, kasu guztietan, helduera-gune beti bera da. Behin betiko egoeraren deskribapenetan adierazpen berak, imajina berak eta antzeko konparazioak aurkitzen ditugu, nahiz eta beren egileek eskuarki elkar ez ezagutu izan. Ihardesten da batzuetan elkar ezagutu izan dutela, eta gainera badela tradizio mistiko bat, zeinaren eragina horiek guztiek hartu ahal izan baitute. Onartzen dugu, baina seinatu behar da mistiko handiei gutxi axola izan zaiela tradizio hori; horietako bakoitzak badu bere originaltasuna, nahi izana ez dena, desiratua izan ez dena, baina zeinari esentziazkoa denean atxikitzen baitzaio: horrek esan nahi du mistikoa salbuespeneko, nahiz eta merezi gabeko, mesede baten hartzailea dela. Erlijio-erkidegoa aski dela antza azaltzeko, mistiko kristau guztiak Ebanjeliotik elikatu direla eta denek irakaspen teologiko bera hartu dutela esango al da? Hori ahaztea litzateke ikuspenen arteko antzak erlijio-erkidegoz azaltzen badira ere, ikuspen horiek oso leku txikia hartzen dutela mistiko handien bizitzan; horiek laster gainpasatzen dira, eta haien begietan balio sinbolikoa besterik ez dute izaten. Irakaspen teologikoari oro har dagokionez, erabateko esanekotasunez onartzen dutela dirudi eta, bereziki, beren aitor-entzuleari obeditzen diotela. Baina zorrozki esan izan denez, «beren buruari bakarrik obeditzen diote eta instintu ziur batek eramaten ditu ibili

nahi duten bidetik gidatuko dituen gizakiarengana. Hori bide horretatik aldenduko balitz, orduan gure mistikoek zalantzarik gabe beren gainetik haren kenduko lukete autoritatea eta, dibinitatearekiko beren harreman zuzenetan sendo, askatasun garaia bati egingo liokete»²⁰. Interesgarria litzateke, noski, hemen gidatzaile eta gidatuaren arteko harremanak hurbiletik aztertzea. Bietatik gidatua izatea umiltasunez onartu duena behin baino gehiagotan, eta ez umiltasun txikiagoz, zuzendari bihurtu dela aurkituko genuke. Baina hori ez da garrantzizkoena guretzat. Bakarrik esan nahi dugu, nahiz eta mistiko kristauen arteko kanpoko antzak tradizio- eta irakaspen-erkidego batengatikoak izan, horien akordio sakona intuizio-identitate baten zeinua dela, zeina oso era sinplean azalduko bailitzateke Izaki baten existentziaz, zeinarekin komunikazioan daudela uste baitute. Zer gertatuko da kontsideratzen badugu beste mistizismoak, antzinakoak edo modernoak, gutxi-asko urrunera badoaz, hemen edo han gelditzen badira, baina denek noranzko bera seinalatzen badute?

Hala eta guztiz ere, onartuko dugu esperientzia mistikoak, bere baitan abandonatuak, ezin diola filosofoari behin betiko ziurtasunik ekarri. Ez litzateke erabat konbentzigarria filosofoa beste bide batetik iritsia ez balitz, adibidez esperientzia sentigarriaren eta hartan oinarrituriko arrazoiaketenetik, esperientzia pribilegiatu baten existentzia egiantzekotzat kontsideratzea, zeinari esker sartuko bailitzateke gizakia printzipio transzendente batekiko komunikazioan. Mistikoengan esperientzia hori aurkitzeak, espero zenez, lortutako emaitzei gehitzea ahalbidetuko luke orduan, eta emaitza lortu horiek berriro sorraraziko lukete esperientzia mistikoan bere objektibitatez zerbait. Ez dago beste ezagutza-iturririk esperientziaz aparte. Baina gertakariaren notazio intelektuala gertakari gordinaz haratago doanez, beharrezkoa da esperientzia guztiak era berean ondorioztatzaileak izatea eta ziurtasun bera baimentzea. Askok gertakorrak baizik ez diren ondorioetara gidatzen gaituzte. Hala ere, gertakortasunak batu egin daitezke, eta batuketak praktikoki ziurtasunaren baliokidea den emaitza eman dezake. Beste une batean dagoeneko hitz eginak gara «gertakari-lerro» horietaz, zeinetariko bakoitza egiaren norazkoaren berri ematera bakarrik iristen baita, behar bezain urrunera ez doalako: horietako bi elkar ebakitzen duten punturaino luzatzean, hala ere, egiaraino bereraino iritsiko da. Agrimentsoreak iristezina den puntu baten dis-

tantzia irisgarriak diren bi puntutatik aldioro begiratzuz neurtzen du. Uste dugu berrebakitze-metodo hori dela metafisika behin betikoz aitzinaraz dezakeen bakarra. Bere bidez ezarriko da filosofoen arteko lankidetza; metafisikak, zientziak bezala, lortutako emaitzen pixkanakako metatzez egingo du aurrera, onartu edo baztertu beharreko sistema oso, beti eztabaidatu eta beti berriro hasi beharreko bat izan ordez. Alabaina, hain zuzen ere gertatzen da arazo-sail bat, arazo erlijiosoaz zeharo bestelakoak direnak sakontzeak gidatu gaituela ondorioetara, zeinek esperientzia mistikoarena bezalako esperientzia singular, pribilegiatu baten existentzia egiten baitute gertakor. Eta, bestalde, esperientzia mistikoak, bere baitan azertuak, domeinu zeharo bestelako batean, metodo zeharo desberdin batez lortutako irakatsiei gehitu beharreko adierazpenak eskuratzen dizkigu. Beraz, elkar errebortxatze eta osatze bat gertatzen da hemen. Has gaitezen lehen puntutik.

Ahal bezain hurbiletik biologiaren datuak jarraituz, bizi-bulkada baten eta bilakaera sortzaile baten kontzepziara iritsi ginen. Aurreko kapituluaren hasieran erakusten genuen: kontzepzio horrek ez zeukan ezer komunik hipotesiekin, zeinen gainean eraikitzen baitira metafisika desberdinak; gertakarien kondentsatze bat zen, laburbildumen laburbilduma bat. Alabaina, nondik zetorren bulkada, eta zein zen haren hasiera? Bere buruarekin aski bazuen, zer zen bere baitan, eta zer zentzu eman behar zitzaion bere agerpenen multzoari? Kontsideraturiko gertakariak ez zieten inolako erantzunik ematen auzi horiei; baina ongi hautematen zen zein noranzkotatik etor zitekeen erantzuna. Materiaren bitartez jaurtitako energia, izan ere, kontzientepeko edo kontzientegaineko gisa agertua zitzaigun eta, edozein kasutan, kontzientziaren espezie bereko. Eragozpen ugari gainditu behar izan zituen, estutu igaro ahal izateko, eta batez ere, bilakaera-lerro desberdin bitan banatu; azkenean, bi lerro nagusien muturrean, bi eza-gutza-moduak aurkitzen ditugu, zeinetan hori banatu baitzen materialtzeko, intsektuaren instintua eta gizakiaren adimena. Instintua intuitiboa zen, adimenak gogoeta eta arrazonaketa egiten zuen. Egia da intuizioak degradatu egin behar izan zuela instintu bihurtzeko; hipnotizatu egin zen espeziearen interesaren gain, eta kontzientziatik kontserbatu zuenak forma sonanbulikoa hartu zuen. Baina, animalia instintuaren inguruan adimen-zerrenda batek irauten zuen bezala, horrela giza adimena ere intuizioz aureolaturik zegoen. Horrek, giza-

kiarengan, erabat desinteresatua eta kontzientea izaten jarraitu zuen, baina erlantzak bakarra zen, zeinaren distira ez baitzen oso urrunera heltzen. Hala ere, hartatik sortuko zen argia, baldin eta bizi-bulkadaren barrena, haren esanahia, haren zertarakoa noizbait argitzekoak baziren. Izan ere, hura barrualdera bihurturik zegoen; eta lehen area-gotze baten indarrez gure barne-bizitzaren jarraipena atzemanarazten bazigun ere, nahiz eta gutako gehienak ez joan askozaz urrunago, are-agotze garaia batek agian gure izatearen erroetaraino eramango zuen eta, horrenbestez, biziaren hasieraraino bertaraino oro har. Arima mistikoak, ez al zuen, hain zuzen ere, pribilegio hori?

Honela iritsi gara bigarren puntu gisa iragarri dugunera. Kontua zen, lehenik, mistikoak desorekatu soilak ziren ala ez jakitea, horien esperientzien kontakizuna fantasia hutsezkoa zen ala ez. Baina auzia laster ebatzi zen, mistiko handiei dagokienez behintzat. Gero kontua zen jakitea ea mistizismoa ez ote zen fedearen suhar handiago bat, erlijio tradizionalak arima grinatsuetan har dezakeen forma irudimenezko bat, edota erlijio horren ahalik eta antz handiena hartuz, baieztapen bat eskatuz eta bere hizkuntza maileguan hartuz, ez ote zeukan eduki original bat erlijioaren iturbururitik bertatik zuzenean hartua, erlijioak tradizioari, teologiari eta Elizei zor dien guztia aparte utzita. Lehen kasuan, derrigor geratuko litzateke filosofiaz kanpo, zeren horrek aparte uzten baititu data bat daukan agerpena, hori transmititzen duten instituzioak eta hori onartzen duen fedea: esperientzia eta arrazoiketari atxiki behar zaie. Baina bigarren kasuan, aski litzateke mistizismoa egoera hutsean hartzea, bere burua adierazteko erabiltzen dituen ikuspen, alegoria eta formula teologikoak gabe, hartaz ikerketa filosofikorako lagungarri ahaltsu bat egiteko. Erlijioarekin dituen erlazioen bi kontzepzio horietatik, bigarrena nagusitu dela iruditu zaigu. Horrela, bada, ikusi behar dugu zer neurritan esperientzia mistikoak luzatzen duen bizi-bulkadaren doktrinara gidatu gaituena. Filosofiari informazio gisa hornituko liokeen guztia berrespenaren erapean bihurtuko lioke hark berari.

Seinala dezagun ezer baino lehen mistikoek alde batera uzten dituztela «arazo faltsu» deitzen ditugunak. Agian esango da horiek ez dutela inolako arazorik planteatzen, ez egiazkorik ez faltsurik, eta arrazoiz gainera. Baina hori bezain egiazkoa da filosofia arduratu behar duten auzien erantzun inplizitua ekartzen digutela, eta zailtasu-

nak, zeinen aurrean filosofia huts eginez gelditu baita, haiek era inplizituan ez-existentztat pentsatzen dituzte. Dagoeneko erakutsi dugu metafisikaren parte bat, kontzienteki edo inkontzienteki, gauza bat zergatik existitzen den auziaren inguruan higitzen dela: zergatik existitzen da materia, edo zergatik espirituak edo Jainkoa ezerezaren orde? Baina auzi horrek auresuposatzen du errealtateak hutsarte bat betetzen duela, izatearen azpian ezereza dagoela, eskubidez, ez lego-keela ezer, eta, beraz, beharrezkoa dela azaltzea, izatez, zergatik dagoen zerbait. Eta auresuposizio hori ilusio hutsa da, zeren ezerez absolutu baten ideiak lauki biribil batek adinako esanahia baitu. Gauza baten absentsia beste baten presentzia da beti –zeina ez baitugu kontuan hartu nahi interesatzen zaiguna edo espero genuena ez delako–, ezabatzea ordeztzea besterik ez da, bi aurpegiko eragiketa bat alde batetik bakarrik begiratzea erabakitzen duguna: dena ezabatzearen ideiak, beraz, bere burua suntsitzen du eta kontzebiezina da; sasi-idea besterik ez da, errepresentazio-irudikeria bat. Baina beste une batean azaldu dugun arrazoi-sail batengatik, ilusioa naturala da; adimenaren sakoneretan du bere jatorria. Larridura metafisikoaren jatorri nagusia diren auziak sorrarazten ditu. Bestalde, mistikoak kontsideratuko du horrelako auziak planteatu ere ez direla egiten: barne-optikako ilusioak dira, giza adimenaren egiturari zor zaizkionak, zeinak eklipsatzen eta desagertzen baitira giza ikuspuntuaren gainetik gora igotzen garen heinean. Antzeko arrazoiengatik, mistikoa ez da filosofiak dibinitatearen atributu «metafisikoen» inguruan metaturiko zailtasunez ere arduratuko; ez du ezer egitekorik ukapenak diren eta era negatiboan bakarrik adieraz daitezkeen determinazioekin; Jainkoa zer den ikusten duela uste du eta ez du inolako ikuspenik Jainkoa izan ez denaz. Beraz, Jainkoaren izaeraz, positibotik daukan horretan bitartegabeki atzemanaz, esan nahi dut, arimaren begietan hautemangarritik daukan horretaz galdetu beharko dio filosofoak mistikoari.

Filosofoa berehalaxe definitu beharko zukeen izaera hori mistizismoa formula batean itxi nahiko balu. Jainkoa maitasuna da eta maitasunaren gai; mistizismoaren ekarpen guztia horretan datza. Mistikoak inoiz ez dio utziko maitasun bikoitz horretaz hitz egiteari. Bere deskribapena bukaezina da, zeren deskribatu behar duen gauza adierazezina baita. Baina argiro dioena da maitasun jainkozkoa ez dela Jainkoaren zerbait, Jainkoa bera baizik. Adierazpen horri atxi-

kiko zaio Jainkoarengan pertsona dakusan filosofoa eta, hala ere, antropomorfismo gordinean erori nahi ez duena. Adibidez, arima bat inbadi, hartan aurkitzen duen guztia kontsumi eta, azkenik, haren espazio guztia bete dezakeen suhertasunean pentsatuko du. Pertsona bat dator orduan emozio horrekin, eta, hala ere, inoiz ez da izan, puntu horretaraino, hura bera: sinpleturik, baturik, areagoturik dago. Inoiz ez da egon pentsamenduz hain beterik ere, esan dugun bezala egia bada bi emozio-mota daudela, bata infrainteletuala, erreprezentazio baten ondoko asaldatzea besterik ez dena, eta bestea, suprainteletuala, ideiaren aurretik datorrena eta ideia baino gehiago dena, baina nahi izango balu, ideiatan garatuko litzatekeena, arima erabat garbi gisa, bere buruari gorputz bat eman nahi izango balio. Ba al dago ezer Beethovenen sinfonia bat baino ezer landuago eta jakitunagorik? Baina bere konposatze-, birkonposatze- eta hautatzelari osoan zehar musikaria planotik kanpoan kokaturiko puntu batera igotzen zen, han onarpena edo errefusapena, zuzendaritza eta inspirazioa bilatzeko: puntu horretan zetzan emozio banaezin bat, zeina adimenak, zalantzarik gabe, musika gisa esplizitu egiten laguntzen baitzuen, baina bere horretan musika eta adimena baino gehiago baitzen. Emozio infrainteletualaz alderantzitara, emozio horrek nahimenaren dependentziapen zirauek. Harekin harremanetan jartzeko, artistak aldioro ahalegin bat egin behar zuen, begiak berehala gauean murgiltzen den izar bat berragerrarazteko egin behar duen bezala. Mota horretako emozio batek badu antza, zalantzarik gabe, nahiz eta alde handiekin, mistikoarentzat Jainkoaren esentzia bera den maitasun sublimearekin. Edozein kasutan, filosofoak hartan pentsatu beharko du intuizio mistiko gero eta hurbilagoetik jazartzean adimen-terminotan adierazteko.

Baliteke filosofoa musikari ez izatea, baina, eskuarki, idazlea da; eta konposatzen duenean, bere arima-egoera propioaren analisiak lagunduko dio ulertzen nola mistikoek dibinitatearen esentzia bera ikusten duteneko maitasuna izan daitekeen, aldi berean pertsona eta sortze-ahalmena. Eskuarki, idazten denean, kontzeptuen eta hitzen esparruan mantentzen gara. Gizarteak ideiak mailegatzen dizkio, bere aurrekoek landuak eta hizkuntzan gordailatuak, zeinak gero berak era berri batean konbinatzen baititu halako puntu bateraino birmoldatu ondoren konbinazio batean sartzeko. Metodo horrek emaitza gutxi-

asko asegarria emango du, baina beti emaitza konkretu batera gidatuko du eta denbora-epe mugatu batean. Sortutako obra, gainera, originala eta trinkoa izan daiteke, eta sarritan giza pentsamendua aberasturik geratuko da hari esker. Baina hori urteko errentaren gehitzea besterik ez da izango, eta adimen sozialak emari beraz eta balore berez bizitzen jarraituko du. Alabaina, bada beste konposizio-metodo bat, handinahiagoa, segurtasun gutxiagokoa, zeinaz ez baitago esaterik noiz emango duen emaitza, ezta emango duen ere. Plano intelektual eta sozialetik igotzean datza arimaren puntu bateraino, nondik abiatzen baita sortze-eskakizun bat. Eskakizun hori, espirituak, zeinean baitago, baliteke osoki behin bakarrik ez sentitu izana bere bizitzan, baina beti hor dago, emozio bakar bat bezala, astinaldi bat bezala edo gauzen barrenetik hartutako bulkada bat bezala. Horri erabat obeditzeko hitzak landu, ideiak sortu beharko lirateke, baina hori ez litzateke izango orduan komunikatzea, eta ondorioz, ezta idaztea ere. Idazlea ahalegindu egingo da, guztiarekin ere, eginezina egiten. Emozio sinplearen, bere materia sortu nahi duen formaren bila joango da, eta berarekin jadanik eginak dauden ideien bila abiatuko da, jadanik existitzen diren hitzen bila, labur esateko, errearen ebakin sozialen bila. Bere bide osoan zehar, esplizitu egiten dela sentituko du hartatik irtendako zeinuetan, esan nahi dut, bere materialtze propioaren ataletan. Elementu horretako bakoitza bakarra da bere motan; nola bat eginarazi jadanik gauzak adierazten dituzten hitzekin? Beharrezko izango da hitzak behartzea eta elementuak bortxatzea, eta, horrela ere, emaitza ez da inoiz segurtaturik egongo; idazleak aldioro galdetzen dio bere buruari bukaeraraino heltzerik izango ote duen; eskerrak emango dizkio zoriari lorpen zatiko bakoitzarengatik, hitz-jokoen sortzaile batek bidean aurkitzen dituen hitzei bere jokorako prest egon izanagatik eskerrak eman liezazkiekeenez. Baina errealki bere helburua lortzen badu, gizadia aberastuko du pentsamendu berri batekin, belaunaldi berri bakoitzarentzat aspektu berri bat hartzeko gai den batekin, eta mugagabeki korrituak sortuko dituen kapital batekin, ez berehala xahu daitekeen zenbateko batekin. Horiek dira literatur konposizioko bi metodoak, eta elkar erabat baztertzen ez badute ere, errotik bereizten dira elkarrekiko. Filosofoak bigarren metodoan pentsatu beharko du, formaren bitartezko materiaren sortze batez eman dezakeen imajinan, energia sortzaile gisa maitasuna errepresentatzeko, zeinean mistikoak Jainkoaren esentzia bera ikusten baitu.

Ba al du maitasun horrek objekturik? Azpimarra dezagun maila garaiagoko emozio batek aski duela bere buruarekin. Musika sublime jakin batek maitasuna adierazten du, baina ez pertsona jakin batenganako maitasuna. Beste musika bat beste maitasun bat izango da. Orduan bi sentimendu-atmosfera desberdin izango dira, bi perfumee desberdin, eta bi kasuetan maitasuna bere esentziaz kalifikatuko da, ez bere objektuaz. Hala ere, zaila gertatzen da ezertara zuzenduko ez litzatekeen maitasun aktibo bat kontzebitzea. Izan ere, mistikoek aho batezko testingantza ematen dute Jainkoak gure beharrezana duela esatean, guk haren beharrezana bezalaxe. Zertako izango luke gure beharrezana gu maitatzeko ez bada? Hori izango da esperientzia mistikoari kontu egingo dion filosofoaren ondorioa. Sorkuntza sortzaileak sortzeko, bere maitasunaren dinako izakiak hartzeko Jainkoaren zeregin bezala agertuko zaio.

Ezbaiak izango genituzke hori onartzeko, Lurra deritzon unibertsoaren bazterreko biztanle erdipurdikoen kontua bakarrik balitz, baina dagoeneko esana dugu beste abagune batean, egiantzekoa dela biziak izar guztietatik esekitako planeta guztiak animatzea. Planeta horietan, zalanztarik gabe, aurkitzen dituen baldintzen dibertsitatearengatik, imajinatzen dugunetik formarik bariatuenak eta urrunduena hartzen ditu; baina toki guztietan esentzia bera du, energia potentziala pixkanaka metatzearena supituki egintza asketan xahutzeko. Oraindik ere ezbaiak izan litezke hori onartzeko, akzidentaltzat edukiko balitz gizakia bezalako izaki bizidun baten agerpena, lurrean dauden animalien eta landareen artean, maitatzeko eta maitatua izateko gai dena. Baina ikusarazi dugu agerpen hori, aurre-determinaturik ez bazegoen, akzidente bat ere ez zela izan. Nahiz eta beste bilakaeratarako batzuk izan diren gizakiarengana gidatzen duenaren alboan, eta nahiz eta gizakiarengan oraindik osatu gabe egon, esan daiteke, esperientziaren irakaspena oso hurbiletik jarraituz, gizakia dela gure planetan bizia existitzearen arrazoia. Hitz batean, oraindik balegoke zalanztza izateko beste zio bat ere, baldin eta sinetsiko balitz unibertsoa esentzialki materia gordina dela, eta bizia materiari gaingehitu zaiola. Aitzitik, agerian jarri dugu materia eta bizia, guk definitzen ditugunez, batera eta solidarioki gertatu direla. Baldintza horietan, ezerk ez dio filosofoari eragozten mistizismoak iradokitzen dion ideia azkenearaino eramatea, unibertsoa maitasunaren eta maitatzeko beharrezana-

ren aspektu ikuskor eta ukigarria besterik ez izatea, emozio sortzaile horrek bere baitan dituen ondorio guztiekin, esan nahi dut, izaki bizidunen agerpenarekin, zeinengan emozio horrek bere osagarria aurkitzen baitu, eta beste izaki bizidun amaigabeena, zeinak gabe lehenek ez baitzuketen agertzerik izango, eta, azkenik, materialitate neurgabe batena, zeina gabe bizia ezinezkoa izango baitzatekeen.

Horrela, zalantzarik gabe gainditu egiten ditugu «Bilakaera sortzailea»ren ondorioak. Ahal bezain hurbil egon nahi izan genuen gertakarietatik. Ez genuen esaten egun batean biologiak baieztza ez zezakeen ezer. Berrespen horren zain, jadanik bagenituen metodo filosofikoak, guk ulertzen dugunez, egiazkotzat kontsideratzea baimentzen zizkigun emaitzak. Baina hemen egiantzekoaren eremuan bestetan ez gaude. Hala ere, ez diogu utzi ziurtasun filosofikoak graduak dituela berriro esateari, intuizioari dei egiten diola arrazoiketari egiten dion aldi berean eta zientziari atxikitzen zaion intuizioa luzatua izateko gai bada, intuizio mistikoz bakarrik egin litekeela hori. Izatez, aurkeztu berriak ditugun ondorioek era naturalean osatzen dituzte, nahiz eta ez derrigorrezkoan, gure aurreko lanenak. Maitasuna litzatekeen eta maitatuak izateko duinak diren izakiak bere baitatik atera nahiko lituzkeen energia sortzaile batek munduak erein ahal izango lituzke horrela, zeinen materialitateak, espiritualitate jainkozkoari kontrajarria den heinean, sortua eta sortzailearen arteko, sinfoniaren nota ondozkatuena eta hartatik jalkitzen utzi dien emozio banaezinaren arteko bereizkuntza adieraztea besterik ez bailuke egingo. Mundu horietako bakoitzean, bizi-bulkada eta materia gordina izango lirateke sorkuntzaren bi aspektu osagarriak, halako moldez, non biziak izaki desberdinetan izango bailuke bere azpisailkapena zeharkatzen duen materiaren kausaz, eta berekin daramatzen ahalmenak multzoan nahasturik geratzen direlarik, horiek agertzen dituen materiaren espazialtasunak baimentzen duen neurrian. Elkarbarneratze hori ezinezkoa izan da gure planetan; denak pentsarazten du hemen aurkitu den materia biziaren osagarri gisa bulkada faboratzeko gutxi egina zegoela. Jatorrizko bulkatzeak, beraz, bilakaerazko aurreratze dibergenteak izan ditu, azkeneraino banaezin iraun ordez. Bulkatze horren atal esentziala igaro den lerroan bertan ere, bere efektua agortu egin da azkenerako edo, hobeki esan, higidura lerrozuzena zirkular bihurtu da. Gizadia, lerro horren amaieran aurkitzen dena, zirkulu horretan

biraka dabil. Hori zen gure ondorioa. Suposizio hautazkotan erori gabe luzatzeko, mistikoaren oharpena jarraitzea besterik ez genuke egin beharko. Materia zeharkatzen duen bizi-korrontea eta zalantzarik gabe bere izateko arrazoia dena, emandakotzat hartzen genuen besterik gabe. Gizadiatz, noranzko nagusiaren bukaeran dagoenez, ez genuen galdetzen izateko beste arrazoirik bazuen bere burua izan ezik. Auzi bikoitz hori, intuizio mistikoak aldi berean planteatzen eta erantzuten du. Maitatzera eta maitatuak izatera destinaturiko izakiak existentziara deituak izan dira, eta energia sortzailea maitasun gisa definitu behar da. Jainkoaz bestelakoak izaki, zeina baita energia hori bera, gizakiak unibertso batean bakarrik sor zitezkeen, eta hori da unibertsoa sortu izanaren arrazoia. Gure planeta den unibertsoaren zatian, gure sistema planetario osoan seguraski, izaki horiek, ugaltzeko espezie bat eratu behar izan dute, zeinak, bestalde, bere prestakuntza, bere mantenua edo bere hondakina izan diren beste espezie batzuen ugaritasuna behar izan baitu: beste leku batzuetan erroitik bestelakoak diren izakiak bakarrik daude agian, oraindik anitzak eta hilkorrak direla suposatuz; agian horiek ere orduan kolpe batez eta osoki burutuak izan dira. Lurrean, edozein kasutan, beste guztien izateko arrazoia den espeziea partzialki bakarrik da bera. Osoki izatera iritsiko denik ere ez luke pentsatuko bere ordezkarietakoren batek, biziaren lan orokorrari gehitu zaion ahalegin banakako batez, instrumentuari kontrajartzen zion erresistentzia haustea, materialtasunaren gainetik garaile izatea eta, azken finean, Jainkoa aurkitzea lortu izan ez balu. Gizaki horiek mistikoak dira. Bide bat urratu dute beste gizaki batzuk hartatik ibili ahal izateko. Eta, horrenbestez, bizia nondik zetorren eta norantz zihoan erakutsi diote filosofoari.

Etengabe errepikatzen da gizakia ezer gutxi dela lurrean eta lurra ezer gutxi unibertsoan. Hala ere, bere gorputzarengatik berarengatik ere, eskuarki ematen zaion leku minimo hori besterik ez betetzetik urrun dago gizakia eta horrekin aski zuen Pascal berak ere «kanabera pentsatzailea», materialki, kanabera soila izatera murrizten zuenean. Izan ere, gure gorputza gure kontzientzia ezartzen zaion materia bada, gure kontzientziarekiko hedadurakide da, orduan haute-maten dugun guztia besarkatzen du eta izarretaraino iristen da. Baina gorputz neurgabe hori aldioro aldatzen da eta batzuetan errotik, bere buruaren atal baten lekualdatze arinenez, zeinak erdia hartzen baitu

eta espazio minimo batean mantentzen baita. Gorputz barneko eta zentral hori, erlatiboki aldagaitza dena, beti presente dago. Ez da presentea bakarrik, baita jardulea ere, eta beraren bidez, berari esker bakarrik, higi ditzakegu gorputzaren gainerako atalak. Eta nola egingtza den axola diona, jardun dihardugun tokian gaudela ulertzen denez, gorputz minimoan kontzientzia ixteko ohitura izaten da, gorputz neurgabea zabartuz. Bestalde, badirudi zientziak baimena ematen digula, zeren kanpo-hautematea dagozkion zerebro barneko prozesuen epifenomeno gisa kontsideratzen baitu: gorputz handitik hautematen den guztia ez litzateke, bada, txikiak kanporantz proiektaturiko fantasma bat baizik. Jadanik maskaragabetu dugu metafisika horrek bere baitan daukan ilusioa²¹. Gure gorputz antolatu (bitartegabeko egintzarako antolatu) guztiz txikiaren gainaldea bada gure higidura aktualen lekua, gure gorputz inorganiko handia gure egintza balizkoen eta teorikoki ahalgarrien lekua da: gure zerebroko hautemate-zentroak balizko egintzen arakatzailerik eta prestatzaileak, eta barnean bere plana burutzean, dena gertatzen da gure kanpo-hautemateak gure zerebroak eraiak eta berak espazioan proiektatuak *baleude bezala*. Baina egia zeharo bestelakoa da, eta gu hautematen dugun guztian gaude errealki, nahiz eta etengabe aldatzen diren gure baitako atalek egin hori, zeinetan egintza birtualak bakarrik errotzen baitira. Har ditzagun gauzak ikuspuntu horretatik eta ez dugu esango gure gorputza unibertsoaren neurgabetasunean galduta dagoenik ere.

Egia da gizakiaren txikitasunaz eta unibertsoaren neurgabetasunaz hitz egiten denean horren konplikazioan pentsatzen dela, bere neurrian adina gutxienez. Pertsonak sinple izatearen efektua egiten du; mundu materiala hainbesteko konplexutasunekoa da, non erronka egiten baitio imajinagarria den guztiari: materiaren sail ikuskor txikiak berez mundu bat da. Nola onartu horrek hark beste izateko arrazoirik ez duela? Baina ez gaitezen ikara. Atal-multzo baten aurrean gaudenean, zeinen zenbakuntzak amairik gabe jarraitzen baitu, litekeena da osotasuna sinplea izatea eta guk angelu txarrenetik kontsideratzea. Eramazue eskua puntu batetik bestera: zuentzat, barrutik hautematen duzuenontzat, keinu banaezina da. Baina nik, kanpotik hautematen dudana eta ibilitako lerroan neure arreta finkatzen dudana honek, lehenik tartearen lehen erdia gainditu behar izan dela esaten diot neure buruari, gero beste erdia, gero gainerako tartearen erdia, eta horrela

hurrenez hurren; milaka mendetan jarrai nezake, eta sekula ez nintzateke iritsiko egintzen zenbakuntza agortzera, zeinetan deskonposatzen baita nire begietan zuek banaezintzat esperimentatzen duzuen higidurara. Era berean, giza espezieak edo, termino orokorragoetan hitz eginenez, Sortzailearen maitasun-objektuak sorrarazten dituen keinuak, oso ongi eska litzake baldintza batzuk, zeinek beren aldetik beste baldintza batzuk eska bailitzakete, pixkanaka ezin mugatu ahala baldintza ekar litzaketenak. Ezinezkoa da aniztasun horretan pentsatzea zorabioa sentitu gabe, baina errealtatean banaezina den zerbaiten aldearantzia besterik ez da. Noski, egintza infinituki ugariak, zeinetan deskonposatzen baitugu eskuaz egindako keinua, birtual hutsak dira, derrigor keinuaren aktualitateak bere birtualitatean determinatuak; aldiz, unibertsoaren atal eratzaileak eta atal horien atalak errealtateak dira: bizirik daudenean jarduera askeraino irits daitekeen espontaneotasuna dute. Ez dugu esan nahi konplexua eta simplearen arteko erlazioa bera denik bi kasuetan. Hurbiltze honen bidez erakutsi nahi izan dugu konplikazioa, mugarik ez duenean ere, ez dela garrantzi-zeinua, eta existentzia sinple batek baldintzak eska ditzakeela, zeinen kateakuntzak ez baitu amaierarik izango.

Hori izango da gure ondorioa. Gizakiari leku hori egotziz eta horrelako esanahia biziari, ondorio baikorren antza izango du. Berehalaxe sortzen da sufrimenduen ikuskizuna, zeinek betetzen baitute biziaren eremua, kontzientzia-gradu beherenetik gizakiarenganaino. Alferrik oharraraziko genuke, animalia sailean, sufrimendu hori pentsatzen dena izatetik urrun dagoela: animalia makinen teoria kartesiarreraino heldu gabe, suposa daiteke mina bereziki murrizturik geratzen dela oroimen aktiborik ez duten izakietan, beren iragana beren presentean luzatzen ez dutenetan eta erabat pertsona ez direnetan; beren kontzientzia izaera sonanbulikokoa da; ez beren plazerek ez beren minek ez dituzte gureen propioak diren erresonantzia sakon eta iraunkorrak: agian min errealtzat jotzen al ditugu ametsetan izan ditugunak? Gizakiarengan berarengan, ez al zaie zor sarri askotan sufrimendu fisikoa zuhurtasun ezari eta aurreikuspen ezari, edo gustu errefinatuegiei, edo beharrian artifizialei? Sufrimendu moralari dagokionez, gutxienez maiztasun berarekin, gure hutsegite bati zor zaio, eta, edozein modutara, ez litzateke hain akutua izango geure sentsibilitatea gainkitzikatu izan ez bagenu zerbait gaixozko bihurtzeko puntu-

raino; gure minak amaigabeki luzatua eta biderkatua gertatzen da hartaz egiten dugun gogoetarengatik. Hitz gutxitan, erraza izango litzateke Leibnizen *Teodizeari* lerrokada batzuk gehitzea. Baina ez dugu hori egiteko inolako gogorik. Filosofoa murgil daiteke espekulazio-goza-menetan bere despatxuko bakardadean: zer pentsatuko du semea hiltzen ikusi berria duen ama baten aurrean? Ez, sufrimendua errealtate ikaragarria da, eta baikortasun sostengaezinekoa da gaitza, efektiboki den horretara murrizturik ere, gaitz txikiago bat bezala *a priori* definitzea. Baina bada baikortasun enpiriko bat, bi gertakari egiaztatzean datzana: lehenik, gizadiak kontsideratzen duela bizia ona dela bere osotasunean, berari atxikitzen baitzaio; bigarren, badela nahasterik gabeko poz bat, plazeraz eta sufrimenduaz haratago kokatua, mistikoren arima-egoera behin betikoa dena. Zentzu bikoitz horretan eta ikuspuntu bikoitz horretatik, baikortasuna nagusitzen da, filosofoak Jainkoaren kausa defenditu beharrik gabe. Esango al da baldin eta bizia ona bada bere osotasunean, hala ere, hobe izango zatekeela sufrimendurik gabe, eta sufrimendua maitasun-Jainko batek ezin izango zukeela nahi izan? Esan dugu alde batetik gauzen aniztasun neurgabe bat bezala agertzen dena, zeinen artean baitago, noski, sufrimendua, aurkez daitekeela beste alde batetik egintza banaezin bat bezala, hala-ko moldez, non atal bat ezabatzea osotasuna ezabatzea izango litzatekeen. Alegatuko da osotasuna desberdina izan zitekeela eta halako izaerakoa, non mina ez zatekeen haren parte izango; beraz, bizia, ona dela onarturik ere, hobeia izan zitekeela; horretatik ondorioztatuko da, errealki printzipio bat badago eta printzipio hori maitasuna bada, ezin duela dena eta, beraz, ez dela Jainkoa. Baina hortxe dago, hain zuzen ere auzia. Zer esan nahi du errealki «ahalguzti»k? Oharrarazi genuen «ezerez»aren ideia lauki biribil baten antzeko zerbait dela, analisiaren aurrean ilauntzen den ideia bat dela bere atzetik hitz huts bat besterik ez uzteko, azken batean, sasi-idea bat dela. Ez ote da gertatuko gauza bera «oso»aren ideiarekin, baldin eta hitz horretaz izendatu nahi dena erreala den multzoa bakarrik ez bada, baizik eta ahalgarriaren multzoa ere bai? Existitzen denaren osotasunaz hitz egiten zaidanean, zehazki, zerbait errepresentatzen dut, baina existitzen ez denaren osotasunean hitz-multzo bat besterik ez dut ikusten. Beraz, berriro sasi-idea batetik, hitzezko entitate batetik ateratzen da, kasu honetan, objektzioa. Baina urrunago joan daiteke: objektzioa metodo-akats errotiko bat inplikatzan duten argumentu-sail batekin erlazionatzen da. Halako

errepresentazio bat eraikitzen da *a priori*, eta bat etortzen gara Jainkoaren ideia dela esatean; orduan munduak aurkeztu beharko lituzkeen karaktereak deduzitzen dira hartatik, eta munduak aurkezten ez baditu, Jainkoa ez dela existitzen ondorioztatzen da. Baldin eta filosofia esperientzia eta arrazoiketaren obra bada, nola ez ikusi alde-rantzizko metodoa jarraitu behar duela, itaundu egin behar diola espe-rientziari nola errealtate sentigarriarekiko hala kontzientziarekiko transzendentea den Izaki bati buruz irakats diezagukeenaz eta, Jainkoaren izaera determinatu orduan, esperientziak esan dionaz arra-zoituz? Jainkoaren izaera bere existentzian sinesteko izan daitezkeen arrazoietan beretan agertuko da horrela; uko egingo zaio bere exis-tentzia edo existentzia eza bere izaeraren kontzepzio hautazko batetik deduzitzeari. Puntu horri buruzko akordio batera iristen bagara, era-gozpenik gabe hitz egin ahal izango dugu ahalguzti jainkozkoaz. Mota horretako adierazpideak aurkitzen ditugu mistikoengan, zeinengana jotzen baitugu jainkozkoaz duten esperientziarengatik. Begi-bistakoa da ahalguztiaz muga esleigarririk gabeko energia, imajinagarria den guztia gainditzen duen sortzeko eta maitatzeko ahalmena ulertzen dutela. Ez dute iradokitzen, noski, kontzeptu itxirik, eta gutxiago oraindik mundua zer den edo zer izan beharko lukeen deduzitzeko aukera ematen duen Jainkoaren definiziorik.

Metodo bera aplikatzen zaie haraindiko arazo guztiei. Litekeena da *a priori*, Platonekin, arimaren definizio bat finkatzea, zeinak egingo baitu hartaz zerbait deskonposaezina sinplea delako, ustelezina banaezina delako, hilezkorra bere esentziaren indarrez. Hortik igaroko da, dedukzio-bidez, arimak Denboran erortzearen ideiara, eta gero Betierera itzultzearenera. Zer erantzun horrela defi-nituriko arimaren existentzia zalantzan jarriko duenari? Eta, gainera, arima erreal bati, bere jatorriari eta bere zertarako errealari buruzko arazoak, nola ebatzi ahal izango genituzke errealtatearen arabera, edo gutxienez errealtate-terminotan planteatu, agian hutsa den espiritua-ren kontzepzio bati buruz espekulatzea besterik egin ez dugunean? Nola egin, baldin eta, kasurik hoberenean, elkarriketaren erosotasu-nerako egindako errealaren ebakin batean gizarteak inskribaturiko hitzaren zentzua era konbentzionalean pentsatu besterik egin ez badu-gu? Baieztapena hain antzua gertatzen da nola definizioa hautazko. Kontzepzio platonikoak ez du urrats bakar batean ere aurrerarazi ari-

maren gure ezagutza, nahiz eta hartaz bi mila urteko gogoeta egin. Behin betiko kontzepzioa zen, triangeluarena bezalakoa, eta arrazoi berberengatikoa. Hala ere, nola ez ikusi efektiboki arimaren arazo bat baldin badago esperientzia-terminotan planteatu behar dela eta termino horietan bakarrik ebatzi ahal izango dela pixkanaka, eta beti era zatikoan? Ez gara itzuliko beste nonbait landu dugun gai batera. Gogora dezagun bakarrik gertakari normalen eta egoera gaixozkoen behaketa, zentzumenen eta kontzientziaren bidezkoak oroimenaren azalpen fisiologikoen askieza agertzen digula, oroitzapenen kontserbazioa zerebroari egoztearen ezintasuna eta, bestetik, oroimenaren dilatazioen aztarna jarraitzearen ahalatasuna, presenteko egintzarako hertsiki beharrezkoa dena besterik ez eskaintzeko estutzen den puntutik, iragan suntsiezin guztia erabat exhibitzen duen muturreko planoraino: metaforikoki esaten genuen basearen gailurretik konoraino gindoazela horrela. Konoa bere erpinetik bakarrik sartzen da materialian; erpina abandonatzen dugun bezain laster, eremu berri batean sartzen gara. Zein da eremu hori? Esan dezagun espiritua dela, arima batez ere hitz egin dezagun, nahi baduzue, baina hizkuntzaren eragiketa erre-bortxatuz kasu horretan, esperientzia-multzo bat hitzaren azpian ezarritik eta ez definizio hautazko bat. Sakontze esperimental horretatik deduzituko dugu arimaren bizirik irautearen ahalatasuna eta gertakortasuna bera ere, zeren behaturik edukiko baitugu eta ia atzamarrez ukitua, hemen behetik, gorputzarekiko bere independentziako zerbaitekin. Hori independentzia horren aspektuetako bat besterik ez da izango; bizirik irautearen baldintzei buruzko gure informazioak, eta bere iraupenari buruzkoak bereziki, guztiz osagabea izaten jarraituko du. Denbora batez izango al da bakarrik?, betiko al da? Baina, gutxienez, puntu bat aurkitua izango dugu, zeinaren gainean esperientziak eragina baitu, eta baieztapen eztabaidaezin bat ahalgarria izatea iritsiko da, baita gure ezagutzaren aurreratze balizko bat ere. Hori dena hemen beheko esperientzia dei genezakeenari dagokionez. Joan gaitezen orain gora; beste mota bateko esperientzia izango dugu, intuizio mistikoa, esentzia jainkozkoan esku hartze bat izango litzatekeena. Alabaina, batu egiten al dira bi esperientzia horiek? Arima guztiei segurtatua bide dagokien bizirik irautea, hemen behean, bere jardueraren parte on bat gorputzarekiko independentea izatearengatik, nahastu egiten al da arima pribilegiatuak, hemen behean, txertatzera etortzen diren beste bizirik iraute horrekin? Bi esperientzien luzatze

eta sakontzeak bakarrik esango digu hori: bitartean, arazoak irekita jarraitu behar du. Baina jadanik bada zerbait, gune esentzial batzuetan, ziurtasun bihurtzeko gai den gertakortasunaren emaitza lortu izana, eta, gainerako guztirako, arimaren eta zertarakoaren ezagutzarako, amaiera gabeko aurreratze baten ahaltsuna. Egia da soluzio horrek ez dituela aseko arimaren *a priori* definizioaren inguruan, baieztapen edo ukapen kategorikoekin, guduan aurrez aurre ari diren bi eskoletako inor. Ukatzen dutenek, seguraski hutsa den espirituaren eraikuntza bat errealtate bihurtzeari uko egiten diotelako, beren ukapenean iraungo dute, erakusten zaien esperientziaren beraren aurrean, oraindik gauza bera dela konbentziturik. Baieztatzen dutenek destaina besterik ez dute sentituko behin-behineko eta hobegarritzat beren buruak jotzen dituzten ideiekiko, eta beren tesi propioa besterik ez dute ikusiko haietan, gutxitua eta pobretua. Denbora beharko dute ulertzeko beren tesia hizkera arruntetik ateratakoa zela besterik gabe. Gizarteak zalantzarik gabe barne-esperientziako sugestioak jarraitzen ditu arimaz hitz egiten duenean, baina hitz hori landu badu, gainerako guztiak bezala, bere erosotasun hutserako izan da. Gorputzetik bereizten den zerbait izendatu du horretaz. Zenbat eta errotikoagoa izan bereizkuntza, hobeki erantzungo dio hitzak bere destinoari: alabaina, bereizkuntza hori ezingo litzateke arimaren propietateak, argi eta garbi, materiaren propietateen ukapen egingo bagenitu baino errotikoagoa izan. Horrelakoa da filosofoak gizartetik sarriegi, hizkuntza-aren bitartez, hartu duen ideia erabat egina. Espiritualitaterik osoena errepresentatzen duela dirudi, zerbaiten bukaeraraino doalako hain zuzen ere, baina zerbait hori ukapena besterik ez da. Ezinezkoa da ezer hutsartetik ateratzea, eta horrelako arima baten ezagutza, jakina, aurrerapenerako gaitasunik gabea da; kontuan hartu gabe ideiak barren-hutsaren hotsa ateratzen duela kontrako filosofiak kolpeak ematen dizkionean. Askozaz hobea litzateke abiatu ginen kontzientziako sugestio lausoak kontuan hartzea, haiek sakontzea, intuizio argiraino gidatzea! Hori da guk aldarrikatzen dugun metodoa. Esan dezagun, beste behin, ez dela ez batzuen eta ez besteen gogokoa. Hori aplikatzean zuhaitzaren eta azalaren artean harrapaturik gelditzeko arriskua dago. Baina ezer gutxi axola dio. Azalak zapart egingo du, zuhaitz zaharra izerdiaren bultzada berriaz hanpatzen bada.

IV KAPITULUA

AZKEN OHARRAK MEKANIKA ETA MISTIKA

Gure analisiaren emaitzetako bat izan da, eremu sozialean, itxiaren eta irekiaren artean dagoen bereizkuntza sakon bereiztea. Gizarte itxia da kideek elkar sostengatzen dutena, gainerako gizakiekiko axolagabe, erasotzeko edo beren burua defenditzeko beti prest, gudu-jarrera bati eustera beharturik, hitz batean. Horrelakoa da giza sozietatea naturaren eskuetatik irteten denean. Gizakia hartarako egina zegoen, inurria inurritegirako egina zegoenez. Analogia ez litza-teke behartu behar; hala ere, oharrarazi beharra daukagu himenopteroen komunitateak animali bilakaeraren bi lerro nagusietako baten bukaeran daudela, giza sozietateak bestearen muturrean dauden bezala, eta zentzu horretan antzekoak direla. Zalantzarik gabe, lehenek forma estereotipatua dute, aldiz, besteak aldatu egiten dira; haiek intuituari obeditzen diote, hauek adimenari. Baina naturak, adimendun egin gaituelako hain zuzen, gure antolakuntza sozial mota halako puntu bateraino hautatzeko askatasuna eman badigu, gutxienez gizarte-bizitza ezarri digu. Norabide iraunkorreko indar batek, zeina baita arimarekiko grabitatea gorputzarekiko dena bera, taldearen kohesioa segurtatzen du, zentzu berean nahimen indibidual guztiak makurraztean. Horretan datza betebeharrak morala. Erakutsi dugu zabaldu egin daitekeela irekitzen den gizartean, baina gizarte itxi baterako egina izan zela. Eta erakutsi dugu nola gizarte itxi bat ezin den bizi, adimenaren egintza disolbatzaile jakin bati ezin dion erresistitu eta ezinbes-

tekoa den konfiantza kontserbatu eta bere kideetako bakoitzari komunikatu ere, funtzio fabulatzailetik irtendako erlijio baten indarrez ez bada. Erlijio hori, estatiko deitu duguna, eta betebeharrak hori, presio batean datzana, gizarte itxiaren eratzaile dira.

Gizarte itxitik gizarte irekira, hiritik gizadira, ez da inoiz hantitze bidez pasatuko. Ez dira esentzia bereko. Gizarte irekia, printzipioz, gizadi osoa besarkatuko lukeena da. Eliteko arima batzuek berandutik berandura amets egina da, bere baitako zerbait burutzen du hurrenez hurreneko sorkuntzetan, zeinetariko bakoitzak, gizakiaren eraldatze gutxi-asko sakonaren indarrez, ordura arte gaindiezinak ziren zailtasunak gainditzeko aukera ematen baitu. Baina horietako bakoitzaren ondoren, une batean irekitako zirkulua itxi egiten da. Berriaren parte bat zaharraren moldera lerratu da; gurari indibiduala presio sozial bihurtu da, eta betebeharrak multzoa estaltzen du. Norabide berean egiten al dira progresu horiek guztiak? Norabidea bera dela ulertuko da, horiek progresu deitzean bat etorri ginen unetik. Izan ere, horietako bakoitza aurrera-pauso gisa definituko da. Baina metafora besterik ez da izango, eta errealki norabide aurre-existente bat egongo balitz, zeinetan barrena aurrera egitearekin aski izango genukeen, berritze moralak aurreikusgarriak izango lirateke; ez litzateke ahalegin sortzailerik beharko horietako bakoitzarentzat. Egia esateko beti har daiteke azkena, kontzeptu baten bitartez definitu eta esan besteez kopuru handiago edo txikiago bat zutela kontzeptu horrek daukanetik; beraz, denak bertara gidatzen zuen bide bat zirela. Baina gauzek atzera begira kontsideratzen direnean bakarrik hartzen dute forma hori; buruturiko aldaketak kualitatiboak ziren eta ez kuantitatiboak, eta aurreikuspen oro gainditzen zuten. Hala ere, ikuspuntu jakin batetik, bere baitan, eta ez bere itzulpen kontzeptualean bakarrik, zerbait komuna aurkezten zuten: denek ireki nahi zuten itxita zegoena; taldea, aurreko irekieratik bere baitan tolesten zena, gero eta gehiago itzultzen zuten gizadirantz. Goazen urrunago: hurrenez hurreneko ahalegin horiek ez ziren hain zuzen ere ideal baten pixkanakako burutzapena, zeren aldezturik landuriko ezein ideiak ezin baitzuten errepresentatu lorpen-multzo bat, zeinetariko bakoitzak, sortzean, bere propioa sortuko baitzuen; eta, hala ere, ahalegin guztien dibertsitatea bakarra zen zerbaitean ongi laburbilduko zen: bulkada batean, zeinak gizarte itxiak sortu baitzituen, zeren jadanik ez baitzen

gai berekin materia arrastatzeko, baina gero, espeziearen faltaz, norbanako pribilegiatu batzuk bilatu eta berrartzera joango baita. Bulkada horri gizaki jakin batzuen bidez jarraitzen zaio, zeinetariko bakoitzak espezie bat eratzen baitu, norbanako bakarrez osatua. Norbanakoak horren kontzientzia betea baldin badu, bere adimena inguratzen duen adimen-zerrenda bere objektuaren zabalera guztiari aplikatzeko adina hazten bada, orduan bizitza mistikoaren aurrean gaude. Horrela sortzen den erlijio dinamikoa erlijio estatikoari, funtzio fabulatzailetik irtenari kontrajartzen zaio, gizarte irekia gizarte itxiari kontrajartzen zaion bezala. Baina gurari moral berriak gorputza hartzen ez duen bezala bere forma naturala gizarte itxitik maileguan hartuz izan ezik, zeina betebeharra baita, horrela erlijio dinamikoa funtzio fabulatzailak hornitzen dituen imajinen eta sinboloen bitartez bakarrik hedatzen da. Alferrikakoa litzateke aspektu desberdin horietara itzultzea. Gizarte irekiaren eta gizarte itxiaren artean egin dugun bereizkuntza azpimarratu besterik ez genuen egin nahi.

Bereizkuntza horretan kontzentratzen bagara, arazo handiak nola ezabatzen diren ikusiko dugu eta beste batzuk termino berritan nola planteatzen diren. Erlijioaren kritika edo apologia egiten denean, beti kontuan izaten al da erlijioak espezifikoki erlijiosotik daukana? Kontakizunak onartu edo erasotu egiten dira, zeinak agian erlijioak behar baititu hedatzen den arima-egoera bat lortzeko; baina erlijioa esentzialki egoera hori bera da. Ezartzen dituen definizioak eta azaltzen dituen teoriak eztabaidatzen dira, eta, izan ere, erlijioa metafisika batez baliatu izan da bere buruari gorputza emateko; baina, agian, beste bat har zezakeen edo batere ez hartu. Hutsegitea dago haztez edo hobetzez, estatikotik dinamikora, demostraziotik edo fabulaziotik, baita egiazkotik ere, intuiziora igarotzen dela uste izatean. Horretara, nahastu egiten da gauza bere adierazpide edo sinboloarekin. Horixe da intelektualismo errotikoaren ohiko hutsegitea. Berriro aurkitzen dugu erlijiotik moralera igarotzen garenean. Bada moral estatiko bat, izatez une jakin batean eta gizarte jakin batean existitzen dena, ohituretan, ideietan eta instituzioetan finkatu dena; bere izaera obligaziozkoa, azken finean, naturak egindako bizitza komun baten eskakizunera murrizten da. Bada, bestalde, moral dinamiko bat, bulkada dena, eta bizitza orokorrari lotzen zaiona, gizarte-eskakizuna sortu duen naturaren sortzailea. Lehen betebeharra, presio den heinean, infrarrazio-

nala da. Bigarrena, gurari den heinean, suprarrazionala da. Baina adimena sortzen da. Preskripzioetako bakoitzaren zioa bilatzen du, hau da, bere eduki intelektualak; eta, sistematikoa denez, uste du arazoa zio moral guztiak bakar batera murriztean datzala. Gainerakoan, bere zailtasun bakarra non hautatu sobera edukitzea da. Interes orokorra, interes pertsonala, buruestimua, sinpatia, pietatea, koherentzia arrazionala, eta abar, ez dago ezein egintza-printzipio, zeinatik ezin baitaiteke ondoriozta, gutxi gorabehera, eskuarki onarturiko moralak. Egia da eragiketaren erraztasunak eta lortutako emaitzaren izaera soilki gutxi gorabeherakoak goardian jarri beharko gintuzketela haren aurka. Baldin eta portaera-arau ia identikoak ateratzen badira, modu batera edo bestera, printzipio hain desberdinetatik, hori seguraski da printzipio horietako ezein ez delako espezifikotik zeukan horretan hartu. Filosofoa ingurumen sozialera joana zen hori hartzera, zeinean dena elkarbarrentzen baita, eta non egoismoa eta banitatea soziagarritasunez kargaturik baitaude: ez du ezer estrainiorik horietako bakoitzean hor jarrita edo utzita dagoen moralak aurkitzeak. Baina moralak bere baitan azaldu gabe dirau, zeren gizarte-bizitza sakontzea beharko baitzatekeen, eta natura bera sakontzea biziak orokorrean sortua den heinean. Moralaren erro berera, intelektualismoak alferrik bilatzen duen horretara helduko zatekeen horrela: horrek ezin du aholkuak ematea besterik egin, beste arrazoi batzuez gudukatzea ezerk eragoztiko ez digun arrazoiak alegatzea. Egia esateko, intelektualismoak beti gainulertzen du aipatzen duen zioa besteak baino «hobesgarriagoa» dela, zioen artean balio-desberdintasunak daudela, eta ideal orokor bat dagoela erreala dena erreferitzeko. Beraz, aterpe bat erreserbatzen du teoria platonikoan, gainerako guztiak menderatzen dituen Ongiaren Ideia batekin: jarduteko arrazoiak Ongiaren Ideiaren azpian mailakatuko lirateke, gehien hurbiltzen zaizkionak hoberenak direlarik; bestalde, Ongiaren erakarpina betebeharraren printzipioa izango litzateke. Baina orduan topo egiten dugu Ongi idealetik gutxi-asko hurbil dagoen portaera berrezagutzeko erabiliko dugun zeinua zein den esateko zailtasunarekin: hori jakingo balitz, zeinua bera izango litzateke esentziala, eta Ongiaren Ideia alferrikakoa izatera iritsiko litzateke. Zailtasun berak izango genituzke nola ideal horrek betebeharrak derrigorrezko bat sortzen duen azaltzeko, batez ere betebeharrak guztietan zorrotzena, gizarte primitibo esentzialki itxietako ohiturari buruzkoa. Egia esateko, ideal bat ezin daiteke derrigorrezko bihurtu

jadanik aktiboa ez bada; eta orduan ez da bere ideia baizik bere egintza behartzen duena. Edo, areago, ideal hori hitza besterik ez da, zeinaren bidez izendatzen baitugu egintza horren ustezko azken efektua, jarraitu gisa sentitua, jadanik higitzen gaituen higiduraren termino hipotetikoa. Horrela, bada, teoria guztien barrenean askotan salatu ditugun bi ilusioak aurkitzen ditugu. Lehena, oso orokorra, datza higidura errepresentatzean tarte baten pixkanakako gutxitze bezala higikariaren posizioaren, zeina baita higieztasun bat, eta bere bukaera ustez lortuaren artean, zeina ere zerbait higieztina baita, posizioak higidura banaezinaren gain espirituak hartutako ikuspegiak baizik ez direnean: hortik ateratzen da egiazko higikortasuna berrezartzeko ezintasuna, hau da, eskuartearen dugun kasuan, zuzenean edo zeharka betebeharra eratzen duten gurariak eta presioak. Bigarren ilusioak berezikiago afektatzen du biziaren bilakaera. Bilakaera-prozesu bat puntu jakin batetik behatua izan delako, puntu hori bilakaera-prozesuak berak lortua izatea nahi izaten da, aurreko bilakaera, izatez, desberdina izan zitekeelarik, eta horraino bilakaerarik ez izana ere posible denean. Zeren moralaren pixkanakako aberaste bat izan dela egiaztatzen dugulako, nahi dugu ez egotea moral primitibo, erreduziezin, gizakiarekin agerturik. Hala ere, beharrezko da moral horren existentzia finkatzea giza espeziarenarekin batera, eta hasieran gizarte itxi bat ematea.

Alabaina, itxiaren eta irekiaren arteko bereizkuntza horrek, arazo teorikoak ebatzi edo ezabatzeko beharrezkoa denak, balio al diezaguke praktikan? Ez litzateke baliagarritasun handikoa baldin eta gizarte itxia beti une batez ireki ondoren itxiz eratu izan balitz. Nahiz eta orduan asko atzera egin, amaigabeki, iraganean, inoiz ez ginateke primitibora iritsiko; naturala jadanik lortuaren sendotze bat besterik ez litzateke izango. Baina esan berri dugunez, egia zeharo bestelakoa da. Bada oinarritzko natura bat, eta badira lorpenak, moralari gainezarriz, harekin nahastu gabe, hura imitatzen dutenak. Pixkanaka, gizarte itxi jatorritzko batera iritsiko ginateke, zeinaren plan orokorra gure espeziearen eskemari egokituko bailitzaioke inurritegia inurriari bezala, hala ere, alde batekin, bigarren kasuan aurreratutzat ematen dena antolakuntza sozialaren xehetasuna dela, aldiz, bestean, lerro nagusiak, norabide batzuk, nahiko aurreirudikapen orokor bakarrik daude, norbanakoei bitartegabeki ingurumen sozial egoki bat segurtatzeko.

Plan horren ezagutzak, zalantzarik gabe, gaur interes historikoa bakarrik eskainiko luke bere xedapenak beste batzuek ezabatuak izan balira. Baina natura suntsiezin da. Errore bat da «Jaurti kanpora naturala dena eta trostan itzuliko da» esatea, zeren naturala denak ez baitio inori kanpora jaurtitzen uzten. Beti hor dago. Dagoeneko badakigu zer pentsatu behar den lortutako karaktereen transmitigarritasunaz. Ez da oso gertakorra aztura bat inoiz transmititzea: gertakari hori jazotzen bada, aldeko baldintzen hain kopuru handi baten kontzentrazio akzidental bati zor zaio, zeina ez baita aztura espezieari ezartzeko adina errepikatuko. Lorpen moralak ohituretan, instituzioetan, hizkuntzan bertan gordailatzen dira; gero, uneoro gertatzen den hezkuntza baten bidez komunikatzen dira, eta horrela igarotzen dira belaunaldiz belaunaldi azkeneko hereditariotzat hartzen diren azturak. Baina denak laguntzen du interpretazio faltsuari amore ematen: buruestimu gaizki kokatu batek, baikortasun azalekoak, progresuaren egiazko izaera gaizki ezagutzeak, azken batean eta batez ere, gurasoengandik seme-alabengana transmititzen den jaiotzatiko joeraren, eta sarritan joera naturalean txertatzen den lortutako azturaren arteko nahaste oso hedatuak. Ez dago zalantzarik sineste horrek pisua izan duela zientzia positiboaren beraren baitan, zeinak zentzu komunetik hartu baitu bere alde aipatzen dituen gertakarien kopuru murritza eta izaera eztabaida-garria gorabehera, berriro zentzu komunera itzularazi duela bere autoritate eztabaidaezinez errebortxaturik. Ezer ez irakasgarriagorik, horri buruz, Herbert Spencerren obra biologiko eta psikologikoa baino. Lortutako karaktereen transmisio hereditarioaren ideian oinarritzen da ia erabat. Eta ospea izan zuen garaian blai egin zuen zientzialarien eboluzionismoa. Alabaina, Spencerrengan bere lehen lanetan aurkeztu zuen progresu sozialari buruzko tesi baten orokorkuntza besterik ez zen: sozietateen azterketa izan zen hasiera batean arduratu zuen gauza bakarra; gerora ekin zion biziaren fenomenoak aztertzeari. Beraz, lortutakoaren transmisio hereditarioaren ideia biologiatik mailegutuan hartu duela imajinatzen duen soziologiak, egitez maileguan emandakoa berreskuratzea besterik ez du egiten. Tesi filosofiko frogatugabeak segurtasun zientifikoko kutsu faltsua lortu du zientziatik igarotzean, baina filosofikoa izaten jarraitzen du, eta inoiz baino urrunago dago tesi frogatu izatetik. Gakizkien, beraz, gertakari egiaztatuei eta horiek iradokitzen dituzten gertakortasunei: uste dugu, gaur eguneko gizakiarengan uneoro mantendu den hezkuntzak berarengan metatu

duena ezabatuko balitz, identiko aurkituko genukeela, edo ia identiko, bere arbaso urrunenekoekiko²².

Zer ondorio atera daiteke hortik? Espeziearen gaitasunak, aldaezin existitzen direnez gero, gutako bakoitzaren barrenean, ezinezkoa da moralistak eta soziologoak kontuan ez izatea. Jakina, kopuru txiki bati bakarrik eman zaio sakonketak egitea, lehenik, lortuan, geroago, naturan, eta biziaren beraren bulkadan birkokatzea. Ahalegin hori orokortzerik balego, bulkada ez zatekeen irteerarik gabeko kalekxa batean bezala geratuko giza espeziean, ezta ondorioz, gizarte itxi batean ere. Hori bezain egiazkoa da pribilegiatu horiek gizadia berekin arrastatu nahiko luketela; beren arima-egoera guztiei ezin komunikatu ahal izatean bere aspektu sakonenetan, transposatu egiten dute azalkiro eta dinamikoa denaren itzulpen bat bilatzen dute estatikoa denean, zeina onartzeroa gizarteak bere burua eramana ikusiko baitu eta, hezkuntzaren bidez, behin-betiko egitera. Alabaina, natura kontuan hartua duten neurrian bakarrik lortuko dute hori. Natura hori, gizadiak bere osotasunean ezingo luke bortxatu. Baina desbidera dezake. Eta bere taxueara ezagutzen badu bakarrik desbideratuko du. Ataza nekeza izango litzateke oro har psikologiaren azterketan barneratu beharko balitz. Baina puntu partikular bat besterik ez da: giza natura halako forma sozial baterako aurreprestatua den heinean. Guk diogu badela giza sozietate natural bat, gudan lausoki aurre-irudikatua, zeinaren eskema aldeztu aurretik emateko ardura izan baitu naturak, erabateko zabalatasuna utzirik gure adimenari eta gure nahimenari haren seinalea jarraitzeko. Eskema lauso eta osagabe hori legokioke, jarduera arrazoizko eta askearen alorrean, inurritegiaren edo erlauntzaren eskema oraingoan zehatzari dagokiona intuituaren kasuan, bilakaeraren beste terminus puntuan. Beraz, eskema sinple bakar bat legoke berraurkitzeko.

Baina nola berraurkitu, lortuak naturala estaltzen badu? Estuasunak izango genituzke erantzuteko, automatikoki ezargarria den ikerketa-bide bat eman beharko bagenu. Egia da haztamuka eta entseguz jokatu behar dela, metodo desberdin bat baino gehiago jarraitu aldi berean, zeinetariko bakoitzak ahalatasun edo gertakortasunetara bakarrik gidatuko bailuke: elkar interferitzean, emaitza horiek elkar neutralizatu edo errebertxatu egingo lukete; elkar egiaztatzea eta zuzentzea gertatuko da. Horrela, «primitiboak» kontuan izango dira, horiengan ere lorpen-geruza batek natura estaltzen duela ahaztu gabe,

nahiz eta horiengan ez izan gudan bezain lodia. Haurrak behatuko dira, naturak bakoitza adin-desberdintasunen arabera hornitu duela ahaztu gabe, eta haurrengan naturala ez dela derrigor gizakiarengan naturala; batez ere, haurra imitatzaila da, eta berarengan espontaneo iruditzen zaiguna jaramonik egin gabe ematen diogun hezkuntza baten efektua da sarritan. Baina informazio-iturri gailena introspektzioa izango da. Soziagarritasun-funts horren bila joan beharko dugu, baita ez-soziagarritasun horrena ere, zeina gure kontzientziaren aurrean agertuko bailitzateke gizarte eratuak gudan ezarri izan ez balitu bertara moldatzen gaituzten azturak eta gaitasunak. Berandutik berandura bakarrik izaten dugu, funts horren agerpena, oinaztarri bat beza-la. Beharrezko izango da oroitu eta finkatzea.

Esan dezagun ezer baino lehen gizakia sozietate oso txikietarako eginga izan zela. Sozietate primitiboak horrelakoak izan zirela, eskuarki onartua da. Baina gehitu behar da antzinako arima-egoerak iraun egiten duela, zenbait azturaren azpian disimulaturik, zeinak gabe ezinezkoa izango baitzatekeen zibilizazioa. Errefusaturik, ezin durik, iraun egiten du, hala ere, kontzientziaren sakoneretan. Egintzatan kanporatzera iristen ez bada ere, gutxienez hitzen bitartez agertzen da. Nazio handi batean guztien gogara administraturiko komunitateak egon daitezke, baina zein da gobernatuek ontzat erabakiko duten gobernu? Behar adina goretsiko dutela uste izango dute esanez denetan txartasun gutxienezkoa dela eta, zentzu horretan, hobereena bakarrik. Hori horrela da zeren kasu horretan kontentagaiztasuna sortzekidea baita. Oharraraz dezagun herri handi bat gobernatzearen artea prestakuntza-teknikarik eta hezkuntza eraginkorrik ez duen bakarra dela, batez ere postu garaienak kontuan hartzen badira. Gaitasun jakin bateko gizaki politikoen eskasia izugarria datza uneoro, xeheki, arazo bat, zeina gizarteek lortutako hedadurak ebatzezin bihurtu duena, ebatzi behar izatean. Azter ezazue nazio moderno handien historia: jakintsu handi, artista handi, soldadu handi, gai guztietako espezialista handi ugari aurkituko dituzue, – baina zenbat Estatu-gizaki handi?

Naturak, sozietate txikiak nahi izan dituenak, hala ere, atea irekidio bere hazkuntzari, zeren gerra ere nahi izan baitu edo, gutxienez, ekidinezin egiten zuten bizi-baldintzatan jarri baitu gizakia. Alabaina, gerra-mehatxuek determina dezakete sozietate txiki asko elkartzea

arriku komunari aurre egiteko. Egia da batze horiek oso bakanetan izaten direla iraunkorrak eta, edozein kasutan, horietako bakoitzaren tamaina-mailako sozietate-agregatu batera gidatzen dutela. Beste zentzu batean areago aurkitzen da gerra inperioen jatorrian. Horiek konkistatik jaiotzen dira. Nahiz eta hasiera batean gerrak konkistarako jorarik ez izan, azkenean konkistan amaitzen da, menderatzaileak menderatuaz eta lanari etekina ateratzeko populazioaz nola jabetu erabakitzen duen neurrian. Horrela eratu ziren behiala asiari inperio handiak. Denak deskonposatu ziren, eragin desberdinen pean, baina, izatez, bizi-itzeko handiegia zirelako. Menderatzaileak populazio azpiratuei independentzia-itxura bat ematen dienean, asoziazioak gehiago irauten du: erromatar inperioa da horren lekuko. Baina instintu primitiboak iraun egiten duela, egintza disozigarri bat eragiten duela, hori ez da zantzazkoa. Jarduten uztea aski da, eta eraikuntza politikoa porrokatu egiten da. Horrela sortu zen feudalitatea herrialde desberdinetan, jazoera desberdinen ondorioz eta baldintza halaber desberdinetan; horiek komun zuten gauza bakarra sozietateari atalkatzen uzten ez zion indarraren ezabatzea zen: orduan atalkatzea berez gertatu zen. Garai modernoetan nazio handiak sendoki eratu ahal izan badira koakzioak, multzoaren gain kanpotik eta goitik eragiten den kohesio-indarrak, pixkanaka multzoaren osagai diren sozietate elementaletako bakoitzaren barrenetik, hau da, erresistentzia etengabea kontrajarri behar zaien indar disozigarrien erregiotik bertatik igotzen den batasun-printzipio bati bere lekua utzi diolako izan da. Printzipio hori, disgregaziorako joera neutralizatzeko gai den bakar hori, abertzaletasuna da. Antzinakoek ongi ezagutu zuten; adoratu egiten zuten aberria, eta haien poetetako batek esan zuen aberriaren alde hiltzea gozoa dela. Baina tarte handia dago hiriarekiko atxikimendu horren, oraindik gudueta lagunduko dion jainkoaren deipean ezarritako taldekatzea denaren, eta nola bakeko hala gerrako bertutea den abertzaletasunaren artean, zeina mistizismoz tinda baitaiteke, baina zeinak ez baitu erlijioa ezein kalkululari utilitariorekin nahasten, herrialde batean hedatzen eta nazio bat eraikitzen duena, arimetan dagoen hoberena beregana erakartzen duena, hitz batean, astiro, pietatetsuki eratuz joan den abertzaletasuna, oroitzapenez eta itxaropenez, poesiaz eta maitasunaz, zerupean dauden edertasun moral guztiez pixka bat, eztia loreez bezala. Beharrezko zen sentimendu hain jasoa, egoera mistikoaren imitazioa zena, tribuaren egoismoa bezain sentimendu sakona menderatzeko.

Alabaina, zein da naturaren eskuetatik irteten den sozietate bati dagokion eraentza? Litekeena da izatez gizadia famili taldekatze, barreiatu eta bakartuetatik hasi izana. Baina haietan ernamuin-sozietateak baizik ez zeuden, eta filosofoak ez du bilatu behar haietan bizitza sozialerako joera esentzialik, ernamuinari kontu eginez bakarrik naturalistak espezie batek azturez informazioa bildu behar ez duen baino gehiago. Sozietatea sozietate oso den unean bakarrik hartu behar da, hau da, bere burua defenditzeko gai denean eta, ondorioz, nahiz eta txikia izan, gerrarako antolaturik dagoenean. Zein izango da orduan, zentzu zehatz horretan, bere eraentza naturala? Barbarokeriari ezarritz hitz grekoak profanatuko ez bagenu, monarkikoa edo oligarkikoa dela esango genuke, edo bi gauzak aldi berean. Beren egoera hasi-masizkoan, eraentza horiek nahastu egiten dira: buruzagi bat behar da eta ez dago ezein komunitate, zeinean ez baitago pribilegiaturik buruzagiarengandik bere prestigioaren parte bat hartzen ez duenik, edo ematen zaien, edo, areago, harekin batera, hartzen ez duten botere supernaturalen batengandik. Alde batetik, aginpidea erabatekoa da; bestetik, obediencia erabatekoa da. Sarri samar esan izan dugu giza sozietateak eta himenoptero-sozietateak bilakaera biologikoaren bi lerro nagusien muturrak hartzen zituztela. Jainkoak gorde gaitzala elkarren artean berdintzetik! Izan ere, gizakia adimentsua eta askea da, baina komeni da kontuan izatea bizitza soziala giza espeziearen egitura-planean besarkaturik zegoela, erlearenean bezainbat, eta beharrezkoa zela; eta, gainera, natura ezin izan zela gure nahimen askeen baitan geratu eta, horregatik, ahalegindu behar izan zuela bakarrak edo gutxi batzuek agindu eta gainerakoek obedi zezaten. Intsektuen munduan funtzioen dibertsitatea antolakuntza-desberdintasunari loturik dago; horretan «polimorfismoa» dago. Esango al dugu horrenbestez giza sozietateetan «dimorfismoa» dagoela, ez fisikoa eta psikikoa aldi berean intsektuengan bezala, baizik psikikoa soilik? Hala uste dugu, edozein kasutan, gizakiok bi kategoria erreduziezinetan, batzuk buruzagi eta beste batzuk mendeko jaiatz, ez dituela dimorfismo horrek banatzen ulertzearen baldintzarekin. Nietzscheren hutsegitea izan zen gisa horretako banakuntza sinestea: alde batetik, «esklaboak»; eta bestetik, «nagusiak». Egia esateko «dimorfismoa»k, eskuarki, gutako bakoitza, aldi berean, agintzeko instintua duen buruzagi eta obeditzeko prest dagoen mendeko bihurtzen du, nahiz eta bigarren joerak gaina hartu halako punturaino, non bakar gisa ager-

tzen baita gizaki gehienetan. Dimorfismo hori intsektuenarekin erka daiteke, bi antolakuntza inplikatzan dituen zentzuan, kualitateen bi sistema banaezin (horietako batzuk akatsak dira moralisten begietarako): sistema bat edo besteren aukera egiten dugu, baina ez pixkanaka eta xehetasunetan, azturak hartzean gertatuko litzatekeenez, kolpe batean baizik, era kalidoskopikoan, horregatik dimorfismo natural baten emaitza izan behar duelarik, enbrioia bi sexuen artean aukera egiten duenekoarekin erabat erkagarria. Guk horren ikuspen argia daukagu iraultza-garaietan, ordura arte hiritar jator, umil eta esanekoak zirenak goiz batean gizaki-gidari izateko nahiarekin itzartzean. Kalidoskopio finko mantenduak bira bat eman du eta metamorfosia gertatu da. Emaiza ona izaten da batzuetan: egintza-gizon handi gisa agertu dira beren burua ezagutzen ez zuten norbanakoak. Baina eskuarki emaitza gogaikarria izaten da. Izaki jator eta lasaiengan bat-batean sortzen da, behetik, nortasun uzatuta, buruzagi frustratuarena dena. Eta hemen agertzen da «animalia politikoa»ren zertzelada ezau-garri bat den gizakia.

Izan ere, ez gara iritsiko esatera uzatasuna denik buruzagiaren atribuetako bat gutako bakoitzaren barrenean lokarturik dagoena. Baina egia da naturak, zeina norbanakoen masakratzailea baita espezieen sortzailea den aldi berean, aurreikusirik zeukala buruzagiak izatea eta horiek gupidagabeak izatea nahi bide zuela. Historia osoak ematen du horren lekukotza. Inoiz entzun gabeko hekatonbeen kontakizunak gorde ditugu, supliziorik txarrenak aldeztu aurretik izan zituztenak, erabateko odol hotzez horien kontakizuna ondorengoetaratu duten gizakiek berek aginduak, harrian grabaturik. Gauza horiek oso aspaldiko garaietan gertatuak direla esango da. Baina egia bada forma aldatu egin dela eta kristautasunak amaiera ezarri diela krimen batzuei edo gutxienez haiek harrokeriaz ez aipatzea lortu duela, hala ere, asasinatzea izaten da oraindik ere politikaren *ratio ultima prima* ez denean. Munstrokeria, zalantzarik gabe, baina natura gizakia bezain erantzule duen munstrokeria. Naturak, izan ere, ez du presondegirik ez erbesteirik; heriotza-zigorra besterik ez du ezagutzen. Zilegi bekigu oroitzapen bat gogoraraztea. Gertatu izan zaigu ikustea urrunetik etorritako atzerritar nobleak, baina gu bezala jantziak eta frantsesez hitz eginez, gu bezala, gure artean paseatzen, adeitsu eta atsegin. Handik gutxira, egunkari batez, bat-batean jakin izan dugu, beren herrialdera

itzulirik eta alderdi desberdinetan afiliaturik, bietako batek bestea urkarazi egin zuela, justiziaren aparatu guztiarekin. Aurkari gogaikarriarengandik libratzeagatik bakarrik. Informazioak urkamendiaren argazkia zekarren gehiturik. Mundu-gizon zuzena, erdi-biluzik, dilindan zebilen jendetzaren begiradapean. Ikuskizun ikaragarria! «Zibilizatuak» ziren, baina instintu politiko jatorrizkoak saltarazi egin zuen zibilizazioa naturari bide emateko. Irain bati zigorra nekez emango lioketenak, nahiz eta erruduna izan, errugabe bat heriotzara epaitzeraino iristen dira politikaz denaz bezanbatean. Era berean, erle langileek zitzaka hiltzen dituzte arrak erlauntzak haien beharrik ez duela uste dutenean.

Baina uztagun alde batera «buruzagi»aren adiurrea, eta kontsidera ditzagun gidari eta gidatuen sentimenduak. Sentimendu horiek argiagoak izango dira zedarritze-lerroa ikuskorragoa den tokian, gizarte jadanik handi batean, baina «gizarte naturala»ren funtsezko aldakuntzarik gabe hazi denean. Klase gidaria, zeinean sartzen baitugu erregea, erregerik dagoen kasuan, era desberdinetan erreklutatua izan daiteke gizartea garatuz doan neurrian, baina beti arraza garaigokoa dela sinesten du. Horrek ez du ezer harrigarrik. Guretzat areago izango litzateke, gizaki sozialaren dimorfismoak oharrazirik egon ez bagina, herria bera konbentziturik egotea izango litzateke jaiotzatiko garaitasun horretaz. Zalantzarik gabe oligarkia sentimendu hori lantzen aritzen da. Gerrari zor badio bere jatorria, bertute militarrik sinetsiko eta sinetsaraziko ditu, zeinak berarengan jaiotzatikoak eta hereditarioki transmitituak izango baitira. Bestalde, klase beheara bere aldetik antola ez dadin ezartzen duen diziplinari eta hartzen dituen neurriei esker, indarrezko nagusitasun erreal bat du. Horrelako kasuetan, esperientziak, hala ere, erakutsi beharko lieke gidatuei gidariak berak bezalaxe eginak daudela. Baina instintuak erresistitu egiten du. Ez da amore ematen hasten, harik eta klase garaiak berak hori egitera gonbidatu arte. Batzuetan nahi gabe egiten du, gaitasun eza nabariarengatik edo berairengan ezarria zen fedea desadoretzen duten abusu hain eskandaluzkoengatik. Beste batzuetan errebeldiarako gonbita nahitakoa izaten da, bere kideetako batzuk haren kontra bihurtzen direnean, sarritan goranahi pertsonalez eta zenbaitetan justizia-sentimendu batez; baina klase beheara itzulikatzean, distantziak mantentzen zuen ilusioa ezabatzen dute. Horrela lagundu zuten nobleek,

1789ko iraultzan, jaiotza-pribilegioa ezabatzen. Era orokorrean, desberdintasunaren aurka gidaturiko asaltoen ekimena –justifikatua edo justifikatugabea– goitik areago etorri zen, faboratuenen erditik, eta ez behetik, espero izan zitekeenez haiengan klase-interesak bakarrik izan balira tarteko. Burgesak izan ziren eta ez langileak, 1830 eta 1848ko iraultzetan, aberastasunaren pribilegioaren aurka zuzenduetan zeregin nagusia izan zutenak, (bigarreanean batik bat). Geroago, klase ikasiko gizakiak izan ziren denentzat instrukzioa eskatu zutenak. Egia esateko aristokrazia batek era naturalean, erlijiosoki, sinesten badu jaiotzatiko bere garaitasuna, sentiarazten duen errespetua ez da erlijiotasun eta naturaltasun gutxiagokoa.

Ulertzekoa da, beraz, gizadia demokraziara ez iritsi izana oso berandu arte (zeren demokrazia faltsuak izan baitziren antzinako hiriak, esklabotzan oinarrituak, arazo handi eta itogarrienen oinarritzko makurkeria horretaz gabeturik). Izan ere, kontzepzio politiko guztietatik, demokrazia da naturatik urrunduena, «gizarte itxi»aren baldintzak, asmoz gutxienez, gainditzen dituen bakarra. Gizakiari eskubide bortxaezinak egotzen dizkio, eta eskubide horiek, bortxatu gabe irauteko, betebeharrarekiko fidelotasun alteraezina eskatzen dute guztien aldetik. Horrela, bada, gizaki ideal bat hartzen du materialtzat, besteekiko errespetutsua bere buruarekiko bezala, absolututzat jotzen dituen betebeharrak makurtzen dena, eta hain ongi dator bat absolutu horrekin, non jadanik esaterik ez baitago betebeharra den eskubidea ematen duena ala eskubidea den betebeharra ezartzen duena. Horrela definituriko hiritarra aldi berean «legegilea eta mendekoa» da, Kantek bezala hitz egiteko. Hiritarren multzoa, hau da, herria subiranoa da beraz. Hori da demokrazia teorikoa, askatasuna aldarrikatzen duena, berdintasuna erreklamatzeko duena eta bi ahizpa etsai horiek adiskidetzen dituen, ahizpak direla gogoraraziz eta guztiaren gainera senidetasuna ezarriz. Kontsidera bedi ikuspuntu horretatik goiburu errepublikarra eta aurkituko da hirugarren terminoak kontraesana ezabatzen duela, hain sarri beste bien artean seinalatua, eta senidetasuna dela esentziala; horrek aukera emango luke demokrazia esentzia ebanjelikokoa dela eta maitasuna duela higierazle esateko. Haren jatorri sentimentalak Rousseuren ariman, printzipio filosofikoak Kanten obran, funts erlijiosoa Kant eta Rousseurengan batera aurki litezke. Jakina da Kantek zer zor dion bere pietismoari eta Rousseauk elkar interferitu duten protestantismoa-

ri eta katolikotasunari. Independentziaren Aitorpen amerikarrak (1776), 1791eko Gizakiaren Eskubideen Aitorpenerako eredu izan zenak, erresonantzia puritanoak ditu noski: «Begi-bistakotzat jotzen dugu... gizaki guztiak bere Sortzaileak eskubide besterenezin jakin batzuez hornitu dituela..., etab.». Formula demokratikoaren lausotasunetik sortu diren objektzioak haren izaera jatorriz elijiosoa kontuan ez hartu izatetik datoz. Nola eskatu askatasunaren eta berdintasunaren definizio zehatza, etorkizunak irekia geratu behar duenean aurrerapen guztietara, baldintza berriak sortzera bereziki, zeinean ahalgarri egingo baitira gaur egun burutu ezinezkoak eta agian kontzebiezinak diren askatasun- eta berdintasun-formak? Haren inguruak marratzea besterik ezin dugu egin, zeinak gero eta hobeki beteko baitira, senidetatsunari esker. *Ama, et fac quod vis*. Gizarte ez demokratiko baten formula, bere leloak hitzez hitz demokraziarenarekin bat etortzea nahi izango lukeena, «Autoritatea, hierarkia, egonkortasuna» litzateke. Horra, bada, demokrazia bere esentzian. Esan beharrik ez dago horretan ideal bat besterik ez dela ikusi behar edo, areago, gizadia bideratzeko norabide bat. Hasteko eta, batez ere, protesta bezala sartu da munduan. Gizakiaren Eskubideen Aitorpeneko esaldietako bakoitza abusu bati jaurtiriko erronka da. Sufrimendu toleraezinak bukatzea da kontua. Estatu orokorren aktetan aurkezturiko kexuak laburbiltzean, Émile Faguetek idatzi zuen nonbait Iraultza ez zela askatasuna eta berdintasunarengatik egin, baizik «gosez hiltzen ari zen jendea zegoelako» besterik gabe. Hori zehatza dela emanik, azaldu beharko litzateke zergatik une jakin batetik aurrera «gosez hiltzeko» gogorik ez zen egon. Hori bezain egia da baldin eta Iraultzak formulatu bazuen izan behar zuena, izatez zegoenari bukaera jartzeko izan zela. Alabaina, ideia bat jaurti deneko asmoa ikusezinki hari atxikirik geratzen da, geziari bere noranzkoa bezala. Formula demokratikoak, hasiera batean protesta baten adierazpen gisa enuntziatuak, beren jatorriaz erasan dira. Eroso aurkitzen dira eragotzi, errefusatu, porrokatu egiteko; aldiz, zailagoa gertatzen da haietatik egin beharrekoaren adierazpen positiboa ateratzea. Batez ere, transposatzen badira bakarrik dira aplikagarriak, absolutu eta ia ebanjeliko, moral garbiki erlatibo baten edo areago interes orokorraren terminotan; eta transposizioak beti du desbideratze batera eragiteko arriskua, interes partikularren zentzuan. Baina alferrikakoa da demokraziaren aurka formulaturiko objektzioak aipatzea, baita horiei eman zaizkien erantzunak ere. Erakutsi baizik ez dugu egin nahi izan

arima demokratikoaren egoeran nola dagoen ahalegin handi bat, naturaren aurkako zentzuan gidatua.

Izan ere, sozietate naturalaren karakteretako batzuk adierazi berriak ditugu. Zertzelada horiek batu eta interpretatzeko erraza den fisionomia bat ematen diote. Bere baitan bilduriko sozietatea, kohe-sioa, hierarkia, buruzagiaren autoritate absolutua, horrek guztiak diziplina esan nahi du, gerrari-espirtua. Naturak gerra nahi izan al du? Errepika dezagun, beste behin, naturak ez duela ezer nahi izan, baldin eta nahimenaz erabaki partikularrak hartzeko ahalmena ulertzen badugu. Baina naturak ezin du sorrarazi animala espezie bat bere egituratik ateratzen diren eta bere luzapena diren jarrera eta higidurak inplizituki marratu gabe. Zentzu horretan nahi izan ditu naturak. Fabrikatzeko gai den adimenez hornitu du gizakia. Tresnak eskuratu ordez, animala espezie-kopuru ugari batekin egin duenez, nahiago izan du bere kabuz eraiki ditzan. Alabaina, gizakiak derrigor dauka bere tresnen jabetza, haietaz baliatzen den bitartean gutxienez. Baina, beragandik bereizirik daudenez, harrapa lekizkioke: jadanik eginak hartzea egitea baino errazagoa da. Batez ere, tresna horiek materia baten gain eragina izan behar dute, adibidez, ehizarako edo arrantzarako arma gisa balio behar dute. Bera kide duen taldeak begia baso, aintzira edo ibai batean ezarria izango du, eta, bestalde, beste talde batek kontsideratu ahal izango du erosoagoa dela han kokatzea beste toki batean bilatzea baino. Une horretara iritsirik, borroka egin beharko da. Ehizan egiten den basoaz, arrantzan egiten den aintziraz ari gara, baina lantzeko lurra, harrapatzeko emakumeak, jabetzan hartzeko esklaboak ere izan daitezke. Halaber arrazoi desberdinez justifikatuko da egindakoa. Baina gutxi axola dio hartzten denak eta ematen den zioak: gerraren jatorria jabetza indibidual edo kolektiboa da, eta gizadia bere egituraz jabetzara aurredestinaturik dagoenez gero, gerra naturala da. Instintu gerraria hain da indartsua, non lehena baita agertzen zibilizazioaren azala karrakatzen denean haren azpian natura aurkitzeko. Jakina da nola gustatzen zaien mutikoei borroka egitea: kolpeak hartuko dituzte, baina ematearen atsegina ere izango dute. Esan izan da, arrazoiz, haurraren jolasak prestakuntza-arietak zirela, zeinetara naturak gonbidatzen baitu gizaki helduak itxaroten daukan atazari begira. Baina urrunago joan eta prestakuntza-arietak edo -jolasak ikus ditzakegu historiak gogorarazten dituen gerrarik gehienetan.

Horien kopuru on baten zioen hutsaltasuna kontsideratzen dugunean, *Marion Delorme*-ko duelistengan pentsatzen da, elkar hiltzen baitzuten «hutsaren truk, atseginez», edo Lord Brycek aipaturiko irlandar harengan, zeinak ezin baitzituen ikusi bi gizon elkarri ukabilka kalean galdetu gabe: «Gai pribatua da ala esku har daiteke?». Aitzitik, eztabaida akzidentalaren alboan gerra erabakigarriak ezartzen baditugu, zeinek herri bat suntsitzera eramanez baitzuten, ulertzekoa da horiek haien izateko arrazoiak izan zirela: instintu gerrari bat behar zen, eta gerra uzuei begira existitzen zirelako natural dei zitezkeenak, gerra akzidental ugari izan dira, armak herdoildu ez zitezen eragozteko bakarrik. Pentsa dezagun orain gerra baten hasierako herrien asalduran! Bada horretan, zalantzarik gabe, beldurraren aurkako defentsazko erreakzio bat, kemenaren estimulazio automatiko bat; baina halaber presente dago arrisku eta abenturazko bizitza baterako eginak gauden sentimendua ere, bakea gerra arteko geldialdi bat besterik ez balitz bezala. Asaldurak laster amore ematen du, sufrimendua handia baita. Baina azken gerra alde batera uzten bada, zeinaren izulaborriak gainditu egin baitu ahalgarri jotzen zen guztia, bitxia da behatzea gerrako sufrimenduak zeinen bizkor ahazten diren bake-garaian. Esan izan da emakumearengan erdi-minetarako ahazte-mekanismo bereziak daudela: oroitzapen osoegiak eragotzi egingo lioke berriro hasia. Badirudi gisa horretako mekanismoren batek funtzionatzen duela errealki gerraren izulaborrientzat, batez ere herri gazteetan. Aspektu horretan, naturak beste arreta batzuk ere hartu ditu. Atzeritarren eta gure artean ezjakintasun, prebentzio eta aurreiritzizko beloa jarri du tartean, trebeki ehundua. Ez da ezer estrainioa inoiz izan ez garen herrialdea ez ezagutzea; baina ezagutu gabe, ia beti kontrakotasunez hura epaitzea, azalpena eskatzen duen gertakaria da. Bere herrialdetik kanpo bizi izan den edonork eta gero bere aberkideak «mentalitate» atzeritar batean hasiera eman nahi izan duenak haiengan instintuzko erresistentzia bat egiaztatu izan du. Erresistentzia ez da bortitzagoa herrialde urrunagoa bada; aitzitik kontrara, distantziarekiko alderantzizko heinean aldatuko da. Topaerrazagoak diren haiek ezagutzeko izaten dugu gogo gutxienean. Naturak ez zukeen beste era batera jakutuko atzeritar oro etsai birtual bihurtzeko, zeren, elkarren ezagutza perfektuak, derrigor sinpatiarene baliokide ez bada ere, gutxienez gorrotoa baztertu egiten du. Azken gerratean hori egiaztatzeko aukera izan dugu. Halako aleman-irakaslea beste edozein frantses bezain

abertzale ona zen, bere bizia emateko prest zegoen, era berean «herratua» Alemaniaren aurka, baina ez zen gauza bera. Txoko erreserbatu bat geratzen zen. Herri baten hizkuntza eta literatura sakon ezagutzen dituen ezin daiteke erabat haren etsaia izan. Horretan pentsatu behar-ko litzateke nazioen arteko ulerkuntza prestatzeko hezkuntzari eskatzen zaionean. Atzerriko hizkuntza bat menderatzea, dagozkion literaturaz eta zibilizazioaz espiritua blai egitea ahalbidetzean, kolpe bakar batez eroraraz dezake oro har atzeritarrentzat naturak nahi izandako prebentzioa. Baina ez ditugu aipatuko ezkutuko prebentzioaren kanpo-efektu ikuskor guztiak. Esan dezagun bakarrik *Homo homini deus* eta *Homo homini lupus* bi maxima kontrajarriak erraztasunez adiskidetzen direla. Lehena formulatzen denean aberkideren batean pentsatzen da. Bestea atzeritarrei buruzkoa da.

Esan berria dugu gerra akzidentalaren alboan badirela esentzialak diren beste batzuk, eta badirudi horientzat egina dagoela gerrari-intintua. Gaur egungo gerrak mota horretakoak dira. Gero eta gutxiago bilatzen da konkistatzea konkistatze hutsarengatik. Ez da gudukatzen buruestimu zaurituarengatik, prestigioarengatik edo aintzarengatik. Gosearen mendean ez egoteagatik –hala esaten da– gudukatzen da; izatez, bizi-maila jakin batean mantentzeko, zeinaren azpitik uste denez ez bailuke mereziko bizitzeak. Jadanik ez da nazioa ordezkatzear arduratuko litzatekeen soldadu-kopuru txiki batengan delegatzen. Jadanik ez da ezer dueluaren antza duenik geratzen. Beharrezkoa da denak denen aurka borrokatzea, lehen garaietako hordek egin zutenez. Soilik orain gure zibilizazioak landutako armez gudukatzen da, eta masakreak antzinakoek imajinatu ere egingo ez zituzkeen izulaborrikoak dira. Zientzia aurrera doan urratsean, hurbil dago eguna, zein-ean aurkarietako batek erreserbaturik eduki duen armaren jabe denak, bestea ezabatzeko bitartekoak izango baititu. Agian ez da geratuko lurrean menderaturiko aurrezkoaren aztarnarik ere.

Gauzak jarraituko ote zaizkio beren joariri? Gizadiaren ongi-leen artean ezartzeko zalantzarik ez dugun gizakiak, zorionez, trabeskatu dira bidean. Baikor handi guztiek bezala, ebatzi beharreko arazoa ebatzitzat suposatzetik hasi dira. Nazioen Elkarteak sortu dute. Uste dugu lortutako emaitzek espero zitekeena gairiditua dutela jadanik. Zeren gerrak ezabatzearen zailtasuna, oro har, gerrak ezabatzean sinesten ez dutenek imajinatzen dutena baino oraindik handiagoa

baita. Ezkorrak bat datoz baikorrekin borroka egitera doazen bi herriren kasua liskar bateko bi norbanakoen antzekotzat kontsideratzean; bakarrik uste dute lehenak inoiz ezingo direla, bigarrenak bezala, materialki behartuak izan beren auzia epaile baten aurrera eraman eta haren erabakia onartzera. Hala ere, aldea errotikoa da. Nazioen Elkarteak itxuraz behar besteko indar armatu bat izango balu ere (eta, guztiarekin, setati agertuko litzatekeenak beti izango luke haren gain bulkadaren abantaila: are, aurkikuntza zientifikoaren aurreikusezinak gero eta aurreikusezino bihurtuko luke Elkarteak prestatu beharko lukeen erresistentziaren izaera), Elkarteak zibilizazioa estaltzen duen gerra-instintu sakonarekin topo egingo luke; aldiz, diferentzia bat ebaztearen ardura epaileen eskuetan jartzen duten norbanakoek horretara ilunki animaturik daude gizarte itxiari inmanentea zaion diziplina-instintuz: eztabaida batek desbideratu ditu akzidentalki jarrera normaletik, zeina baitzegoen gizartean zehazki txertatzean, eta hartara itzultzen dira, pendulua bertikalera itzultzen den bezala. Beraz, zailtasuna nabarmen zailagoa da. Hala ere, alferrikakoa al da hori gainditzeko saiakerak?

Ez dugu uste. Esku arteko honek moralaren eta erlijioaren jatorriak ikertzea zuen helburu. Iritsi gara ondorio batzuetara. Hemen gera gintezke. Baina, gure ondorioen barrenean, errotiko bereizkuntza zegoen gizarte itxiaren eta gizarte irekiaren artean, zeren gizarte itxiaren joerek iraun egiten dutela iruditu baitzaigu, erauzezin, irekitzen den gizartean, eta azkenik, diziplina-instintu horiek guztiak primitiboki konbergitu egiten baitziren gerra-instinturantz, galdetu behar diogu geure buruari zer neurritan erreprimetua edo desbideratua izan daitekeen jatorrizko instintua, eta kontsiderazio gehigarri batzuekin erantzun era zeharo naturalean planteatzen zaigun auzi bati.

Nahiz eta gerrari-instintua berez existitu, horregatik ez dio arrazionalak diren zioak oratzeari uzten. Historiak irakasten digu zio horiek oso bariatatuak izan direla. Gero eta gehiago murrizten dira zenbat eta gerrak ikaragarriago bihurtuz joan. Azken gerra, baita etorkizunean sumatzen dena ere, baldin eta zorigaitzez oraindik gerrarik izan behar badugu, gure zibilizazioaren izaera industrialari loturik dago. Gaur egungo gatazken sinbolizazio eskematiko bat nahi bada, sinpletua eta estilizatua, nazioak lurreko emaitzetatik bizi diren populazio nekazari huts gisa errepresentatu behar ditugu ezer baino lehen.

Demagun ozta-ozta dutela zertaz elikatu. Lurretik errendimendu hobeia lortzen duten heinean haziko dira. Horrainsa dena ongi doa. Baina populazio-soberakin bat sortzen bada eta kanpora isuri nahi ez bada, edo atzerriak ateak ixten dizkiolako egin ezin bada, non aurkituko du bere elikadura? Industriak konponduko ditu gauzak. Populazio soberakina langile bihurtuko da. Herrialdeak ez badu makinari eragiteko beharrezko indar higierazlerik, horiek eraikitzeke burdinari, fabrikaziorako lehengairik, horiek atzerrian mailegatzen saiatuko da. Bere zorra ordaindu eta bere lurraldean aurkitzen ez duen elikadura hartuko du gainera, berriro atzerriara bidaliz ekoizkin manu-fakturatuak. Langileek aurkituko dute orduan «barneko emigratuak» direla. Atzerriak erabiltzen ditu beren herrialdean egingo zuketenez; nahiago ditu utzi –edo agian berek nahiago dute iraun– aurkitzen diren tokian, baina atzerriaren mendean daude. Horrek uzten badiu bere ekoizkinak hartzeari edo horiek fabrikatzeko bitartekoak hornitzeari, gosez hiltzera beharturik aurkituko dira, horrekin beren herrialdea arrastatuz, ukatzen zaiena hartzera joatea erabakitzen ez badute behintzat. Gerra izango da hori. Ez da beharrezko gauzak ez direla inoiz era hain sinplean gertatzen esatea. Nahiz eta gosez hiltzera mehatxaturik ez egon hain zuzen, bizitzak interesik ez duela uste izaten da ongizate materialik, dibertsiorik, luxurik ez badago; askieztat jotzen da industria nazionala bizi izatera mugatzen bada, aberastasunik ematen ez badu; herrialde bat osatugabetzat jotzen da portu onak, koloniak eta abar ez baditu. Elementu horietatik guztietatik sor daiteke gerra. Baina marratu dugun eskemak nahiko seinalatzen ditu kausa esentzialak: biztanleriaren hazkuntza, merkatuen galera, erregaien eta lehengaien gabezia.

Kausa horiek ezabatzea edo horien efektua biguntzea, horra hor nazioarteko antolakuntza baten ataza behinena gerra ezeztatu nahi badu. Horietako larriena gainbiztanleria da. Jaiokortasun ahulegiko herrialde batean, Frantziaren kasuan adibidez, Estatuak bultzatu egin behar du zalantzarik gabe biztanleriaren gehikuntza: ekonomialari batek, zeina izan baitzen hala ere «estatismoa»ren etsaierik handiena, familiek prima baterako eskubidea izan zezatela eskatzen zuen hirugarrenetik aurrerako seme edo alaba bakoitzarengatik. Baina orduan, biztanleria gehiegizkoa duten herrialdeetan, ez al litzateke ahalgarri, alderantziz, zerga gutxi-asko astunez zamatzea seme-alaba soberaki-

nak? Estatuak esku hartzeko eskubidea izango luke, gurasotasuna iker-
tzekoa, hitz batean, beste kasu batzuetan inkisitorialak izango lirate-
keen neurriak hartzekoa, zeren tazituki horiekin kontatzen baita
herrialdearen iraupena segurtatzeko, eta, ondorioz, mundura ekartzen
den haurrena ere bai. Aitortzen dugu biztanleriari muga bat admi-
nistratiboki ezartzeak duen zailtasuna, nahiz eta zifrari halako elasti-
kotasun bat utzi. Soluzio bat zirrimarratzen badugu, arazo ebatzezin-
tzat ez daukagula esateko bakarrik da: gu baino pertsona gaituagoek
soluzio hoberik aurkituko dute. Baina zalantzarik ez dago Europa
gainpopulaturik dagoela, mundua laster egongo dela eta gizakiaren
ekoizpena bera «arrazionalizatzen» ez bada bere lanarekin jadanik egi-
ten hasi denez, gerrak izango dira. Beste ezein aspektutan ez da arris-
kutsuagoa intuituari geure burua eramaten uztea. Antzinako mitolo-
giak oso ongi ulertu zuen hori maitasunaren jainkosa guduen jainkoa-
rekin kide zuenean. Utzi jarduten Venusi: Marte ekarriko dizue. Ez
duzue erregelamentazioa eragotziko (hitz itsusia, baina esanahia oso
ongi adierazten duena, zeren derrigorrean luzapenak ezartzen baitizkie
«erregela» eta «erregelamendu» hitzei). Zer ez ote da gertatuko arazo
ia hain larriak iristean, lehengaien banaketa, produktuen zirkulazio
handiago edo txikiagoa eta, arruntagoa dena, gatazkako alderdiek
bitaltzat aurkezturiko eskakizun antagonikoei justizia egitea bezalako-
ak? Hutsegite arriskutsua da nazioarteko antolakuntzak behin betiko
bakea lortuko duela sinestea, autoritatez, herrialde desberdinetako
legerian eta agian baita bere administrazioan ere esku hartu gabe.
Manten dadila, nahi izanez gero, Estatuaren subiranotasun-printzipioa:
derrigor makurtuko da bere aplikazioa kasu partikularretan. Beste
behin, errepika dezagun zailtasun horietako bat ere ez dela gaindiezi-
na gizadiaren atal behar besteko bat horiek gainditzera deliberaturik
badago. Baina aurrez aurre begiratu eta jakin beharra dago gerrak eza-
batzea eskatzen denean zer onartzeko prest egon behar den.

Alabaina, ez ote legoke ibili beharreko bidea laburtzerik, agian
baita kolpe batez zailtasunak lautzerik horiei banan-banan eskintxo
egin ordez? Utz dezagun alde batera auzi nagusia, biztanleriarena,
berez ebatzi beharko dena, edozer gertatzen dela ere. Gainerakoek
badute zerikusia, ezer baino lehen, gure existentziak hartu duen nora-
bidearekin industriaren garapen handitik aurrera. Erosotasuna, ongi-
zatea, luxua eskatzen dugu; dibertitu egin nahi dugu. Zer gertatuko

litzateke gure bizitza gartxuago bihurtuko balitz? Eztabaidaezina da mistizismoa eraldakuntza moral handien jatorrian dagoela. Gizadia, zalantzarik gabe, hartatik inoiz baino urrunago dagoela dirudi. Baina, nork daki? Gure azken kapituluari zehar, Mendebaldeko mistizismoaren eta bere zibilizazio industrialaren artean erlazioa erdi-ikusten genuela uste izan dugu. Patxada handiagoz aztertu beharko lirateke gauzak. Mundu guztiak sentitzen du berehalako etorkizuna neurri handi batean industriaren antolakuntzaren baitan, ezarri eta onartuko dituen baldintzen baitan egongo dela. Ikusi berria dugu arazo hori nazioen arteko bakearen baitan dagoela. Barneko bakearena gutxienez beste hainbestean dago horren baitan. Beldur izan behar da, itxaron egin behar da? Luzaroan uste izan da industrialismoak eta makinismoak zoriona emango ziotela gizadiari. Gaur prest geundeke nozitzen ditugun gaitzak egozteko. Inoiz ez da izan –esaten da– gizadia plazer, luxua eta aberastasunaren egarriago. Indar erresistiezina bultzatzen duela dirudi, gero eta bortxa handiagoz, bere gurari gordinenak asetzer. Litekeena da, baina igo gaitezen hori sortu zuen inpultsioraino. Energikoa bazen, hasieran aski izan zitekeen desbideratze arin bat gero eta bereizkuntza ohargarriago bat eragiteko jazarturiko xedearen eta lortutako objektuaren artean. Kasu horretan, ez litzateke hainbeste arduratu beharko desbideratzeaz nola inpultsioaz. Noski, gauzak inoiz ez dira berez bakarrik gertatzen. aldatu Nahi badu bakarrik aldatuko da gizadia. Baina agian hornitu dizkio bere buruari hori egiteko bitartekoak. Agian berak uste duen baino ere hurbilago dago helburutik. Ikus dezagun, beraz, zer dagoen ziurrik horretan. Ahalegin industrialak epaipean jarri dugunez gero, ikus dezagun hurbilagotik bere esanahia. Hori izango da obra honen ondorioa.

Sarri hitz egin izan da historian nabaritzen diren goraldi eta beheraldien alternantziez. Zentzu batean luzatzen den egintza orok kontrako zentzuko erreakzioa eragingo luke. Gero, berriz ekingo luke, eta penduluak amaigabeki oszilatuko luke. Egia da hemen pendulua oroimenez horniturik dagoela, eta ez dela itzulikoan joanekoan izan den hura bera, tarteko esperientziarekin gehitu baita. Arrazoi horrengatik, espiraleko higidura baten imajina, batzuetan ebokatu izan dena, oszilazio pendularrarena baino bidezkoagoa litzateke. Egia esateko, badira kausa psikologiko eta sozialak, zeinez iragar baitaiteke *a priori* mota horretako efektuak sortuko dituztela. Bilatu den gozatze etenga-

bearen onurak gogaita edo axoleza sortzen du; nekez ematen du agin-
dutako guztia; aurreikusigabeko eragozpenez lagundurik dago; utzi
denaren alderdi abantailatsua jartzen du azkenerako agerian eta hartara
itzultzeko gogoia ematen du. Batez ere, belaunaldi berriei emango die,
antzinako gaitzen esperientziarik ez dutenei eta haietatik irteteko zail-
tasunik ere izan ez dutenei. Gurasoek beren buruari zorionak ematen
dizkioten bitartean presenteko egoerarengatik, zeina garesti ordaindu
dutela gogoratzen duten lorpen gisa ikusten baitute, seme-alabek ez
dute horretan pentsatzen, arnasten duten airean pentsatzen ez duten
bezala; aldiz, sentibera izango dira haiek konkistaturiko hobekuntza
mingarrien alderantzia baizik ez diren ezbeharrekiko. Horretara, iraga-
nera itzultzeko nahikundeak sortuko dira. Joan-etorri horiek estatu
modernoaren ezaugarri dira, ez fatalitate historiko baten indarrez, bai-
zik eraentza parlamentarioa neurri handi batean deskontentua bidera-
tzeko kontzebitua izan delako hain zuzen. Gobernatzaileek laudorio
moderatuak bakarrik hartzen dituzte ongi egiten dutenarengatik: horre-
tarako daude, ongi egiteko. Baina haien hutsegiterik txikienak kontuan
izaten dira; denak metatzen dira, haien pisuak gobernuaren erorikoa
eragiten duen arte. Bi alderdi antagoniko bakarrik badira, jokoak erre-
gularitasun perfektuz jarraituko du. Bi ekipoetako bakoitza agintera itzu-
liko da printzipio batzuek ematen duten prestigioarekin, zeinek, itxuraz
ukigabe, indarrean irauten baitute erantzukizunak asumitzea beharrez-
ko izan ez den denbora guztian. Printzipioak oposizioan baieztatzen
dira. Izatez, oposizioko ekipoak onurak aterako ditu, adimentsua bada,
besteari edukitzen utzi dion esperientziatik eta bere ideien edukia eta,
ondorioz, printzipioen esanahia aldatu egingo du gutxi edo asko.
Horrela ahalgarri egiten da progresua, oszilazioa gorabehera, edo hobe-
ki berari esker, baldin eta hori gertatzeko ardura izaten bada. Baina
mota horretako kasuetan bi aurkakoen arteko joan-etorriak gizaki
sozialak, edo gizaki indibidualaren xedapen oso ikuskor batzuek, mon-
taturiko halako dispositibo oso simple batzuen emaitza dira. Ez dute
agertzen alternantziaren kausa partikularrak menderatuko lituzkeen eta
giza jazoerei era orokorrean gainezarriko litzaiekeen beharrianik. Ba
al dago horrelako beharrianik?

Ez dugu historiaren fatalitatean sinesten. Ez dago nahimen aski
teinkatuek mendera ez dezaketen eragozpenik, garaiz proposatzen
bazaie. Ez dago, beraz, lege historiko apelaezinik. Baina badira lege

biologikoak, eta giza sozietateak, zentzu batean naturak nahi izanda-koak diren heinean, biologiaren baitan daude puntu partikular horretan. Baldin eta mundu antolatuaren bilakaera lege batzuen arabera betetzen bada, hau da, indar batzuen eraginez, ezinezkoa da gizaki indibidualaren bilakaera psikologikoa eta sozialak egitea bizitzako aztura horiei erabat uko. Alabaina, dagoeneko erakutsi dugu bizi-joera baten esentzia sorta-eran garatzean datzala, bere hazte hutsez norabide dibergenteak sortuz, zeinetan bulkada banatuko baita. Gehitzen genuen lege horrek ez zuela ezer misteriozkorik. Soilik adierazten du joera bat aniztasun bereizigabe baten bulkada dela, zeina, bestalde, ez baita bereizigabe eta ez aniztasun, atzera begira kontsideratzen ez bada, bere iraganeko banaezintasunari buruzko ikuspegi desberdinak bere garapenak sortu dituen elementuz errealitatean osatzen direnean. Imajina dezagun laranja dela orain arte munduan agertutako kolore bakarra: jadanik horiz eta gorriz osaturik egongo al litzateke? Begibistan dago ezetz. Baina horiz eta gorriz osatua egongo da bi kolore horiek, bestalde, existituko direnean. Laranja primitiboa orduan kontsideratu ahal izango da gorriaren eta horiaren ikuspuntu bikoitzetik. Eta, fantasiaren jolas batez suposatuko balitz horia eta gorria laranja-ren areagotze batetik sortu direla, sorta-erako hazkuntza deitzen dugunaren adibide oso sinplea izango genuke. Baina ez dago fantasiaren eta erkaketaren beharrik. Aski da bizitzari begiratzea sintesi artifizial baten asmo ezkutukorik gabe. Batzuek borondatezko egintza erreflexu konposatutzat daukate; beste batzuek erreflexuan borondatezko egintzaren degradazioa ikusiko lukete. Egia esan erreflexuak eta borondatezko egintzak bi ikuspegi ahalgarri materialtzen dituzte egintza hasierako, banaezin bati buruz, zeina ez baitzen ez bata eta ez bestea, baina atzera begira eta horiei esker, bi horietan bihurtzen baita. Beste horrenbeste esango genuke instintuaz eta adimenaz, animalia eta landare-bizitzaz eta beste joera dibergente eta osagarri askoren bikoitzez. Soilik, biziaren bilakaera orokorrean, dikotomia-bidez horrela sorturiko joerak gehienetan espezie desberdin bilakatzen dira, eta zein bere aldetik doaz, munduan fortuna bilatzera; gainera, bere buruari eman dioten materialtasunak eragotzi egiten die berriz soldatzea indartsuago, konplikatuago eta bilakatuago jatorrizko joera birsortzeko. Gauzak ez dira berdinak bizitza psikologiko eta sozialaren bilakaeran. Hemen disoziazioz eraturiko joerak norbanako berarengan edo gizarte berean bilakatzen dira, eta eskuarki hurrenez hurren bakarrik

gara daitezke. Bi badira, sarrienik gertatzen denez, atxikimendua horietako baten gainean eroriko da; harekin gutxi-asko urrunago joango da, eskuarki ahal bezain urrunera; gero, bilakaera horretan irabazi denarekin, atzean utzi zena bilatuko da berriro; bere aldetik orduan garatuko da, lehena utzirik, eta ahalegin berri hori luzatu egingo da harik eta, lorpen berriek errebortxaturik, horretara itzuli eta urrunago bultzatu ahal izan arte. Eragiketakoan bi joeretako batekoa erabat izaten denez eta horrek bakarrik kontatzen duenez, positibo bakarria dela esatera joko da, aldiz, besteak bere ukapena bakarrik errepresentatzen duela; gauzak horrela planteatzea atsegin zaigunez gero, egiazki beste forma aurkakoa da. Egiaztatuko da —hori gutxi-asko ziurra izango da kasuen arabera— progresua bi aurkakoen arteko oszilazio baten indarrez bete dela, berdina izan ez delarik, egoera eta penduluak irabazi bat izan duelarik abiagunera itzuli denean. Hala ere, adierazpena zorrozki justua izatea eta oszilazioa errealki izatea aurkakoen artean gertatzen da: hori gertatzen da joera bat, bere baitan abantailatsua, moderatzeko gai ez denean joera antagoniko baten egintzaz izan ezik, zeina horrela berdinki abantailatsua gertatzen baita. Badirudi gomen-dagarriena izango litzakeela orduan bi joeren lankidetzaz, zeinetariko lehenak zirkunstantziek hala eskatuz gero esku hartuko bailuke, eta besteak hura geldituz neurria gainditzerakoan. Zoritxarrez, zaila da esaten non hasten diren gehiegikeria eta arriskua. Batzuetan, arazoizkoa zirudienaz haratago joan izate hutsak zirkunstantzia berri batera gidatzen du, egoera berri bat sortzen du, arriskua ezabatu eta aldi berean abantaila areagotuz. Horrela gertatzen da, batez ere, joera oso orokorrekin, gizarte baten orientazioa determinatzen dutenekin, zeinen garapena derrigor banatzen baita belaunaldi-kopuru gutxi-asko ohargarri batean. Adimen batek, nahiz eta gizakiazgaindiko adimen bat izan, ez luke jakingo nora iritsiko garen esaten, zeren abiako egintzak bere bide propioa sortzen baitu, era berean neurri handi batean sortzen ditu burutuko deneko baldintzak eta horretara kalkulu orori erronka egiten baitio. Beraz, gero eta urrunago joango gara, eta sarritan hondamendi bat hurbil denean bakarrik geldituko gara. Joera antagonikoak hutsik geratu den lekua hartzen du orduan; bere aldetik bakarrik helduko da, ahal duen bezain urrunera. Erreakzioa izango da besteari akzio deitu badiogu. Nola bi joerek, batera ibili izan balira, elkar moderatuko zuten, nola gainera beren elkarbarneratzea joera primitibo banaezin batean baita hura zeinaz definitu behar baita

moderazioa hain zuzen, espazio guztia betetze hutsak joera bakoitzari burua galtzeraino irits daitekeen bulkada bat ematen dio, trabak erori ahala. Bada horretan zerbait frenesiazkoa. Ez dezagun «lege» hitzaz abusatu askatasunarena den esparru batean, baina erabil dezagun termino eroso hori behar besteko erregulartasuna errepresentatzen duten gertakari handien aurrean aurkitzen garenean: *dikotomia-legea* deituko diogu joeren burutzapena, bere disoziazio hutsaren indarrez, eragiten duenari, zeinak hasiera batean joera sinple baten gain harturiko ikuspegi desberdinak baizik ez baitziren. Eta *frenesi bikoitzaren legea* deitzea proposatuko dugu, bi joeretako bakoitzak bere baitan duen eskakizunari, beren bereizkuntzaz burutu ondoren, azkeneraino luzatzekoari –azken bat balego bezala!–. Esan dezagun beste behin: zaila da ez galdetzea ez ote zatekeen hobeki izango joera sinplea destolestu gabe hazi izana, bere neurri justuan inpultsio-indarraren bat etortze propioak mantendurik gelditze-ahalmen batekin, zeina birtualki ez bailitzateke izango orduan inpultsio-indar desberdin bat besterik. Kasu horretan ez genuke korritua izango absurdoan erortzeko arriskua, eta hondamendiaren aurka aseguratua geundeko. Bai, baina orduan ez zatekeen lortuko sorkuntza gehiena kantitatez eta kalitatez. Beharrezkoa da sakon konprometitzea bi norabideetako batean bere baitatik zer emango duen jakiteko; gehiago aurreratu ezin dugunean, lortutako guztiarekin itzuliko gara ahazturiko edo abandonaturiko norabidean oldartzera. Zalantzarik gabe, joan-etorri horiek kanpotik begiratzean, bi joeren antagonismoa besterik ez da ikusten, bataren ahalegin alferrak bestearen aurreratzeari kontrajartzeko, horren azken porrota eta lehenaren errebantxa: gizadiak maite du drama; historia gutxi-asko luzean bi alderdi, edo bi gizarte, edo bi printzipioren arteko borroka baten forma ezartzen dioten zertzeladak atzematera jotzen du; horietako bakoitzak, txandaka, bestearen gainerako garaitzapena lortuko zuen. Baina borroka hemen progresuaren azaleko aspektua besterik ez da. Egia esateko joera batek, zeinari buruz bi ikuspegi desberdin har baitaitezke, ezin du bere baitatik gehiena eman, kantitatez eta kalitatez, bi ahaltsun horiek errealtate higikorretan materialtzen ez badira behintzat, zeinetariko bakoitza aurretantz oldartzen baita eta beretzat hartzen baitu lekua, bitartean bestea zelatan dagoelarik taigabe bere txanda iritsi ote zaion jakiteko. Horrela garatuko da jatorrizko bere joeraren edukia, edukiz hitz egiterik badago behintzat, inor, ezta kontziente bihurturiko joerak bera

ere gai izango ez litzatekeenean esateko zer aterako den hartatik. Berak ahalegina ematen du, eta emaitza ustekabe bat da. Horrelakoa da naturaren eragiketa: borrokak, zeinen ikuskizuna eskaintzen baitigu, etsaitasunetan baino areago ebazten dira bitxitasunetan. Eta, hain zuzen ere, natura imitatzen duenean, primitiboki hartutako inpultsioan murgiltzen denean, orduan hartzen du gizadiaren abioak halako erregulartasun bat eta enuntziatzen genituen bezalako legeen menpean jartzen du bere burua, oso inperfektuki bada ere. Baina iritsi da parentesi hau ixteko ordua, dagoeneko luzeegia baita. Erakuts dezagun bakarrik nola aplikatuko liratekeen gure bi legeak hura irekiarazi digun kasuan.

Kontua da erosotasun- eta luxu-nahia zela itxuraz gizadiaren kezka nagusi bihurtu den hori. Asmakuntza-espirtua nola garatu duen ikusiz, asmakuntza asko gure zientziaren aplikazioak nola diren, zientzia amaigabe garatzera destinaturik dagoela ikusiz, norabide berean progresu amaigabea gertatuko dela uste izateko tentaldia genuke. Izan ere, asmakuntza berriek antzinako beharrizanei ekartzen dizkieten aresetasunek inoiz ez dute gizadia hor irautera determinatzen. Beharrian berriak sortzen dira, era berean derrigorrezkoak eta gero eta ugariagoak. Ikusi dugu nola ari zen bizkortzen ongizaterantzko lasterketa hori, gero eta jendeolde trinkoagoak amiltzen diren pista batean. Gaur egun jadanik mordoa da. Baina agian frenesi horrek berak ez al lizkiguke begiak ireki behar? Ez ote da izango beste frenesi bat, zeinaren jarraipena izan baita hori, eta zeinak alderantzizko noranzkoan garatuko baitzuen jarduera bat, zeinaren osagarri baitzen hura? Izatez, hamabost edo hamaseigarren mendetik hasita badirudi gizakiak bizitza materiala aberastera jo nahi duela. Erdi Aro osoan ideal aszetikoa izan zen nagusi. Ez dago gogorarazi beharrik nolako gehiegikeriatarata gidatu zuen horrek: jadanik frenesia izana zen.

Aszetismo hori kopuru txiki batera mugaturik egon zela esango da, eta arrazoiarekin. Baina mistizismoa, gutxi batzuen pribilegioa, erlijioak arrunt bihurtu zuen bezala, horrela mistizismo kontzentratua, zalantzarik gabe aparta izan zena, gizakirik gehienentzat diluitu egin zen eguneroko existentziarako baldintzekiko axoleza orokor batean. Gaur harritzen gaituen erosotasun eza zegoen mundu guztiarentzat. Aberatsak eta pobreak gaur egun beharrirentzat dauzkagun gauza alferrikakorik gabe zeuden. Seinalatu da jauna baserritarra baino hobeki

bizi baldin bazen, horrenbestez batez ere hobeki elikaturik zegoela ulertu behar dela²³. Gainerakoan, aldea oso txikia zen. Beraz, hemen, elkarren ondotik etorri diren eta, bata zein bestea, frenetikoki portatu diren bi joera dibergenteren aurrean gaude. Zilegi da suposatzea hasierako joera baten gain harturiko bi ikuspegi kontrajarriri dagozkiola, zeinak aurkitu bide baitzuen horrela bere baitatik ateratzeko bitarteko bat, kantitatez eta kalitatez, ahal zuen guztia eta zeukan baino gehiago oraindik, bi bideetan barneratuz, txandaka, eta bi norabideetako batean aldatuz bestean zehar metaturiko guztiarekin. Oszilazioa eta progresua legoke, beraz, oszilaziozko progresua; eta, bizitzaren konplikazio etengabeki hazkorren ondoren, sinpletasunerako itzulera aurreikusi beharra zegoen. Itzulera hori, begi-bistan dago, ez da segurua, zeren gizadiaren etorkizuna zehaztugabea baita oraindik ere, zeren horren baitan dago-eta. Baina etorkizunaren aldetik, berehalaxe aztertuko ditugun ahaltsunak edo gertakortasunak bakarrik badaude, iraganarekin ez da gauza bera gertatzen: seinالاتu ditugun bi garapen kontrajarriak jatorrizko joera bakar batenak dira, noski.

Jadanik ideien historiak horren lekukotza ematen du. Pentsamendu sokratikotik, Sokratesengan osagarriak ziren bi zentzu kontrakotan jarraitutik, doktrina zirenaikoa eta zinikoa sortu ziren: bata nahi zuen bizitzari ahalik eta asetasun-kopuru handiena eskatzea, besteak horiek gabe bizitzen ikastea. Doktrina horiek epikureismoan eta estoizismoan luzatu ziren, beren bi kontrako nagusiekin, erlaxamendua eta tentsioarekin. Printzipio horiek dagozkien bi arima-egoeren arteko erkidego-esentziaz zalantzak izango balira, aski litza-teke ohartzea epikurear eskolan bertan, epikureismo herritarraren alboan, zeina plazeraren bilaketa sarri neurrigabeen baitzegoen, Epikuroren epikureismoa sortu zela, zeinarentzat plazer gorena plazer-beharrizanik ez izatea baitzen. Egia da bi printzipioak beti zorianaz egin izan den ideiaren barrenean daudela. Hitz horretaz zerbait konplexu eta nahasia izendatzen da, gizadiak lausotasunean utzi nahi izan duen kontzeptu horietako bat, bakoitzak bere erara determina zezan. Baina, edozein zentzutun ulertzen dela ere, ez dago zoriontasunik segurtasunik gabe, hau da, norbera moldatu zaion egoera batarako iraupen-ikuspegiarik gabe. Segurtasun hori, bai gauzen eremuan, bai gauzekiko independente egingo gaituen norberaren eremuan aurki daiteke. Bi kasuetan indar propioaz gozatzen da, bai kanpotik haute-

maten dela edo kanpotik barreiatzen dela: harrotasunaren bidean egoten da, edo banitatearenean. Baina bizitza sinpletu eta konplikatzea «dikotomia» baten emaitza dira, «frenesi bikoitzean» garatzeko erabat gai dira eta, azken finean, behar duten guztia dute bata bestearen ondotik aldizka etortzeko.

Baldintza horietan, lehenago esan denez, sinpletasunera itzultzeak badu egiantzik. Zientziak berak erakuts liezaguke bidea. Fisikak eta kimikak gure beharrianak asetzen laguntzen diguten bitartean, haiek biderkatzera gonbidatuz, aurreikus daiteke fisiologiak eta medikuntzak gero eta hobeki agertuko digutela zer dagoen arriskutsua biderkatze horretan eta zer duten engainuzkoa gure asetasun gehienek. Nik estimatzen dut okela-platerkada on bat: halako begetariano batek, lehen nik adina estimatzen zuenak, orain ezin dio begiratu nazka sentitu gabe. Biok arrazoa dugula esango da eta gustuez, koloreei buruz bezala, ez dagoela eztabaida posiblerik. Agian bai; baina ezin dut eragotzi bera, begetarianoa, aurkitzen den segurtasun hautsezina konstatatzeari bere lehengo posizioa inoiz ez itzultzeko, aldiz ni askozaz segurtasun gutxiagorekin sentitzen naiz neurea beti kontserbatzeko. Berak bi esperientziak izan ditu; nik bakarra izan dut. Haren nazka areagotu egiten da bere arreta hari erreparatzen dionean, aldiz nire asetasunak badu zer-bait barreiatzetik eta ahulagotu areago egiten da argiarekin; uste dut ilaundu egingo litzatekeela esperientzia erabakigarriak frogatzera etorriko balira, ezinezkoa ez denez, okela janez nork bere burua pozoitu egiten duela era espezifikoa eta poliki-poliki²⁴. Ikastetxean erakusten ziguten elikagaien osaera ezaguna zela, baita gure organismoaren beharrianak ere, eta horretatik atera zitekeela ezinbesteko eta behar besteko zaiguna mantenu gisa. Harritu egingo ginatekeen jakitean analisi kimikoak utzi egin ziela «bitaminei» ihes egiten, zeinen presentzia gure elikaduran ezinbestekoa baitzen gure osasunerako. Ulertuko da, zalan-tzarik gabe, gaixotasun batek baino gehiagok, medikuntzaren ahaleginekiko gaur egun menderagaitz denak, susmatzen ez genituen «gabezia» haietan duela bere urruneko jatorria. Behar dugun guztia hurrupatzeko bitarteko seguru bakarra elikagaiak batere ez lantzea izango litzateke, agian, (nork daki?) egosi ere ez egitea. Hemen ere kalte handia egin du ezaugarri lortuen herentzian sinesteak, eta esan izan ohi da giza urdailak ohitura galdu duela eta ezingo genukeela geure burua gizaki primitiboak bezala elikatu. Arrazoa dute geure haurtzarotik lotan utzi

ditugula gaitasun natural batzuk horrekin esan nahi dutenek eta zaila gertatuko litzaigukeela adin jakin batean horiek iratzartzea. Baina modifikaturik jaio garelakoa ez da oso gertakorra: demagun gure urdaila ez dela historiaurreko gure arbasoena bezalakoa, aldea ez da denboran zehar hartutako aztura soilengatik. Zientziak laster egingo du argi puntu horiei guztiei buruz. Demagun aurreikusten dugun zentzuan egiten duela: kasu horretan, gure elikaduraren eraberrikuntza soilak ezin zenbatu ahala ondorio izango lituzke gure industriaren, gure merkataritzaren, gure nekazaritzaren gain, zeinak nabarmen sinpletuak gertatuko bailirateke. Eta zer esan beste beharrizanez? Zentzu genesikoaren eskakizunak hertsatzaileak dira, baina laster bukatuko litzateke horiekikoa naturala denari atxikiko bagintzaizkio. Pasatzen den gauza bakarra da sentazio bortitz, baina pobre baten inguruan, oinarritzko notatzat harturik, gizadiak soinu harmonikoen kopuru etengabe hazkorra sorrarazi du; tinbre-barietate hain aberatsa atera du hartatik, non edozein objektuk, edozein aldetatik jotzen denean, obsesio bihurturiko soinua sortzen baitu orain. Irudimenaren bidez zentzumenei egindako dei atergabea da. Gure zibilizazio osoa afrodisiakoa da. Hemen ere zientziak badu zer esana, eta egun batean hain argiro esango du, non entzun egin beharko baitzaio; jadanik ez da izango plazerik plazera hainbeste maitatzean. Emakumeak bizkortu egingo du une horren helduera, errealki eta benetan gizonaren pareko izatera iritsi nahiko duen neurrian, oraindik den instrumentu hori izaten jarraitu gabe, musikariaren arkupean bibratzearen zain. Eraldakuntza gertatu bezain laster, gure bizitza serioagoa izango da eta, aldi berean, sinpleagoa. Gizonari atsegingarri gertatzeko emakumeak eskatzen duen luxua eta, errebotez, bere buruari atsegin izateko, neurri handi batean alferrikako bihurtuko da. Xahuketa gutxiago izango da, baita desira gutxiago ere. – Luxuak, plazerak eta ongizateak elkar sostengatzen dute, noski, hurbiletik, baina beren artean eskuarki uste den erlazioa izan gabe. Eskala batean zehar ezartzen dira: ongizateetik luxura goranzko gradazio baten bitartez pasatuko litzateke; ongizatea segurtatu dugunean, plazera gehitu nahiko genioke; geroago luxuzaletasuna agertuko litzateke. Baina bada horretan psikologia intelektualista huts bat, zeinak uste baitu gure arima-egoerak kalka ditzaiekeela gure objektuen gain. Baina luxua atsegin hutsa baino garestiago kostatzea, eta plazera ongizatea baino gehiago, nik al dakit horiei dagokien desiraren pixkanakako zer hazkuntza errepresentatzen den. Egia esan eskuarki ongizatea luxuzaletasunarengatik nahi izaten da, zeren

norberak ez daukan ongizatea luxu bat bezala agertzen baita, eta hori edukitzeko baldintzatan daudenak imitatu edo horiekin berdindu nahi delako. Hasieran banitatea zen. Zenbat jaki bilatzen diren garestiak direlako! Urte askotan herri zibilizatuak bere kanpo-ahaleginaren parte on bat espeziak lortzen eman zuten. Harrigarria da ikustea hori izan zela nabigazioaren, garai hartan hain arriskutsua zenaren objektu gorena; milaka gizakik bizia arriskatu zutela horretan; Amerikaren aurkikuntza, akzidentez, irten zeneko kuraia, energia eta abenturazaletasuna, esentzialki zingiberra, iltzea, pipermina eta kanela bilatzen erabili zirela. Nor arduratzen da landare aromatikoek hain gutziagarritzat hainbeste denboraz edukitako landare aromatikoek zentimo batzuetan kan-toiko dendan eros daitezkeenean? Horrelako egiaztapenek badute zertan tristetu moralista. Hala ere, gertakari horien gainean gogoeta egiten badugu, itxaropenerako zioak ere aurkituko ditugu. Ongizatearen beharrian gero eta handiagoa, dibertsio-egarria, luxuzaletasun neurrigabea, gizadiaren etorkizunarekiko hainbesteko kezka sorrarazten diguna, zeren horretan asetasuna trinkoak aurkitzen dituela baitirudi, hori denori amorruekin airez betetzen dugun eta era berean kolpe batez hustuko den baloia bezala agertuko zaigu. Badakigu frenesiak frenesi antagonikoari dei egiten diola. Berezikiago, gaurko gertakariak beste garai batzuetakoekin erkatzeak behin-betikoak diruditen gustuak igarokortzat hartzera gonbidatzen gaitu. Eta nola automobil baten jabetza den gaur egun hainbeste gizakirentzat gurari gorena, aitor ditzagun automobilak ematen dituen zerbitzu paregabeak, mirets dezagun mekanikaren mirari hori, desira dezagun hori ugaltzea eta hedatzea beharrezkoa den nonahitik, baina esan diezaiogun geure buruari olatze hutsez edo luxu horren jabe izateko plazerez, gerta litekeela hain desiratua ez izatea hemendik gutxira, –hala ere, espero dugunez, gaur egun iltzea eta kanela baztertuak izan ez diren bezala.

Gure eztabaidaren puntu esentziala ukitzen ari gara. Aipatu berria dugu asmakuntza mekaniko batetik sortutako luxu-asetasun bat. Askok pentsatzen dute asmakuntza mekanikoa dela luxuzaletasuna garatu duena, jakina, ongizate soilarena bezala. Gainera, eskuarki onartzen bada gure beharrian materialak beti haziz joango direla eta, gero eta premiazkoago bihurtuko direla, inolako arrazoirik ikusten ez delako da gizakiak asmakuntza mekanikoaren bidea utz dezan, bertan sartu eta gero. Gehi dezagun zenbat eta zientziak aurrerago egin, bere aurki-

kuntzek askakuntza gehiago iradokitzen dituztela; sarritan, pauso bat besterik ez dago teoriatik aplikaziora; eta, zientziak gelditzen ez daki-keenez, badirudi, egiazki, ez dagoela zertan mugarik egon antzinako gure beharrianak asetzeko ezta beste berriak sortzeko ere. Baina gutxienez galdetu beharko genuke ea asmatze-espirituak beharrian artifizialak derrigor sortzen dituen, ala ez ote litzatekeen areago beharrian artifiziala izango hemen asmatze-espiritua orientatu duena.

Bigarren hipotesia da askogatik gertakorrena. Makinismoari buruzko arestiko ikerketek berretsi egin dute²⁵. Gogoratu da gizakiak beti asmatu zituela makinak, antzinaroak ezagutu zituela ohargarri batzuk, eta dispositibo ingeniotsuak zientziaren leherketa modernoa baino askozaz lehenago imajinatu izan zirela, eta gainera, sarritan, harekiko independenteki izan zirela: gaur egun ere, kultura zientifikorik gabeko langile arruntek ingeniari jakintsuek pentsatu gabeko hobekuntzak aurkitzen dituzte. Asmakuntza mekanikoa dohai naturala da. Zalantzarik gabe, mugaturik egon da bere efektuetan, hainbestetaino, non energia aktualak, eta neurri batean, ikuskorak erabili dituen: ahalegin muskularra, haizearen indarra edo uraren jausia erabiltzera mugatu den bitartean. Makina ez da bere errendimendu guztia ematen hasi bere zerbitzuan jartzen jakin ez dugun eguna arte, mekanismo simple baten bidez, milioika urtetan metaturiko energia potentzialak, eguzkitik mailegatuak, harrikatzean, petrolioan eta abarretan ezarriak. Baina egun hori lurrin-makinaren askakuntza-eguna izan zen, eta jakina da ez zela kontsiderazio teorikoen ondorio izan. Lehenbailehen esan dezagun progresua, bere hasieretan geldoa, urrats erraldoika egin dela zientzia bere alde jarri zen unetik. Hori bezain egia da askakuntza mekanikoaren espiritua, zeina ibilgu mehar batekin baitoa bere baitan abandonaturik dagoen bitartean eta amaigabeki hedatzen baita zientziarekin topo egitean, hartaz bestelako izaten jarraitzen du eta beharrezko izango balitz, hartatik bereiz liteke, Rodano Genevako aintziran sartzen den moduan eta urak harekin nahasten dituela baitirudi, eta irteeran erakusten du bere independentzia guztiari eutsi diola.

Ez da izan, bada, sinetsaraz lezakeenez, zientziaren exigentzia bat gizakiei, bere garatze hutsez, gero eta beharrian artifizialagoak ezarri dituen. Horrela balitz, gizadia materialitate hazkor batera behaturik legoke, zeren zientziaren progresua ez baita geldituko.

Baina egia da zientziak eskatzen zitzaiona eman duela, eta hemen ez duela berak ekimena hartu, baizik askakuntza-espirituak; askakuntza-espiritua da gizadiaren interesik hoberenetan beti egikaritu ez dena. Beharizan berri ugari sortu ditu, baina ez da arduratu behar adina gehiengoari edo guztiei posible balitz, antzinakoak asetzeaz. Sinpleago: beharrezkoa zabartu gabe, gehiegi pentsatu du alferrikakoa. Bi termino horiek zailak direla definitzen esango da, batzuentzat luxua dena beste batzuentzat beharrezkoa dela. Zalantzarik ez. Eta hemen erraza izango litzaiuke bereizkuntza sotiletan galtzea. Baina badira kasuak, zeinetan beharrezkoa baita funtsezkoa ikustea. Milioika gizakik ez dute jaten gose izan arren. Badira gosez hiltzen direnak. Lurrak askozaz gehiago ekoitziko balu, gertakortasun gutxiago legoke beren gosean ez jateko²⁶, edo gosez hiltzeko. Lurrak ez duela besorik alegatzen da. Baliteke; baina zergatik eskatzen die besoei eman beharko luketena baino ahalegin handiagoa? Makinismoak erririk badu, lan hain gogor horretan gizakiari laguntzen behar adina ez ari izatean dago. Erantzungo da nekazaritzako makinak daudela, eta horien erabilpena gaur egun aski hedatua dagoela. Onartzen dut, baina makinak hemen gizakiari zama arintzeko egin duena, zientziak bere aldetik lurraren errendimendua gehitzeko egin duena, konparatiboki mugatua da. Ongi dakigu nekazaritzak, gizakia elikatzen duenak, gainerakoa menderatu beharko lukeela, eta, edozein kasutan, industria beraren lehen kezka izan. Era orokorrean, industria ez da behar adina arduratu ase behar zituen beharizanen garrantzi handiagoaz edo txikiagoaz, eta modari jarraitzera makurtu da, saltzea beste asmorik gabe fabrikatuz. Horretan beste aspektu batzuetan bezala, nahigarria litzateke pentsamendu zentral, antolatzaile bat, industria eta nekazaritza koordinatuko lituzkeena eta makinei beren leku arrazionala esleituko liekeena, non zerbitzurik handienak eman ahal izango bailizkiokete gizadiari. Makinismoa epaitzen denean kexa esentziala ahazten da. Lehenik, langilea makina hutsaren mailara murrizteaz akusatzen da, eta, gero, zentzu artistikoaren aurkako ekoizpen-uniformetasun batera gidatzeaz. Baina makinak langileari atsedeen-orduen kopuru handiago bat ematen badio, eta langileak aisia-gehigarri hori industrialismo gaizki gidatu batek guztien irismenean jarri dituen ustezko entretenimenduez bestelako zerbitzetan erabiltzen badu, hautatu duen garapena emango dio bere adimenari, makina ezabatu ondoren erremintara (gainera, ezinezkoa litzateke) itzultzea, muga beti murriztuta, ezarri-

ko liokeena kontuan hartu ordez. Produktuaren uniformetasunari dagokionez, eragozpena mespretxagarria izango litzateke, horrela nazioaren osotasunak lortutako denbora- eta lan-ekonomiak kultura intelektuala aitzinarazteko eta egiazko originaltasunak garatzeko aukera emango balu. Amerikarrei aurpegiratu zaie denek kapela bera darabiltela. Baina kapela baino lehen burua dago. Egizue nik burua neure gustuaren arabera hornitu ahal izatea eta onartuko dut berarentzat mundu guztiak darabilen kapela. Ez dago hor guk makinismoari egiten diogun kexa. Gizakiei egin dizkien zerbitzuak eztabaidatu gabe, beren beharrian errealak asetzeko bitartekoak zabalkiro gartzuz, artifizialak gehiegi estimulatu izana aurpegiratu diogu, luxua bultzatu izana, hiriak landaren kaltetan faboratu izana, hitz batean, distantzia gehitu eta ugazaba eta langilearen, kapitala eta lanaren arteko harremanak eraldatu izana. Efektu horiek guztiak, noski, zuzen litezke, eta makina ez litzateke orduan ongile handia baizik izango. Beharrezko izango litzateke gizadiak bere existentzia sinpletzeari ekitea hura konplikatzan jarri zuen adinako frenesiarekin. Ekimena bera-rengandik bakarrik etor liteke, zeren bera baita, eta ez ustezko gauzen indarra, eta gutxiago oraindik makinak bere baitan duen fatalitatea, pista baten gainera asmakuntza-espirtua jaurti duena.

Baina erabat nahi izan al du? Hasieran eman duen inpultsioa, industrialismoak hartu duen norabidean al zihoan zehatz-mehatz? Abiapuntuan desbideratze hautemangaitza baizik ez den zerbait bereizkuntza ohargarri bihurtzen da azkenean, martxa lerro zuzenean egin eta ibilbidea luzea izan bada. Alabaina, gerora makinismoa izango zenaren lehen zirri-marrak eta demokraziarako gurariak aldi berean diseinatu ziren. Bi joeren arteko ahaidetasuna erabat ikuskor bihurtzen da XVIII. mendean. Harrigarria da entziklopedistengan. Orduan, ez al dugu uste izan behar hats demokratiko bat izan zela asmakuntzaren espirtuari bultza egin ziona, gizadia bezain zaharra, baina behar beste izan ez dena nahiko leku egin ez zitzaion arte? Seguraski ez zen pentsatzen denentzako luxuan, ezta denentzako ongizatean ere; baina denentzat desira zitekeen existentzia material segurtatua, segurtasuneko duintasuna. Kontzientea al zen desira hori? Ez dugu historiako inkontzientean sinesten: lurpeko pentsamendu-korrante handiak, zeinetaz hainbeste hitz egin baita, haietatik zetozen gizaki batek edo gehiagok masak arrastatu izanari zor zaizkio. Horiek bazekiten

zertan ari ziren, baina ondorio guztiak aurreikustera iritsi gabe. Guk, askaera ezagutzen dugunok, derrigor atzerarazi behar dugu imajina jatorriraino: presentea, ilusio-efektu batez iraganean hautemana, aurreko aldietako inkontzientea deitzen duguna da orduan. Presentearen atzeraeragina ilusio filosofiko asko samarren jatorrian aurkitzen da. Uko egingo diegu, beraz, XV., XVI. eta XVIII. mendeai (gutxiago XVII.ari, hain desberdina denari, zeina parentesi sublimetzat hartu izan baita) gureekin erka daitezkeen kezka demokratikoak egoteari. Ez diegu asmakuntza-espíritu horrek bere baitan zeukan boterearen ikuspena egotziko ere. Hori bezain egia da Eraberrikuntza, Errenazimendua eta bultzada asmatzailearen lehen zantzu edo prodromoak garai berekoak direla. Ez da ezinezkoa horietan hiru erreazio, elkarrekiko ahaidetuak, gertatu izana, ideal kristauak ordura arte hartu izan zuen formaren aurka. Nahiz eta idealak iraun, gizadiari beti aurpegi bera erakutsi zion astroaren antzera agertzen zen; bestea erdi-ikusten hasita zegoen, beti astro bera zela nabaritu gabe. Ez dago zalantzarik mistizismoak aszetismoari dei egiten diola. Bata eta bestea pertsona-kopuru txiki baten ondarea izango dira beti. Baina hori bezain egia da egiazko mistizismoak, oso eta jarduleak, bere funtsa duen karitate-bertute gisa hedatzea duela helburu. Nola heda liteke, nahiz eta derrigor diluiturik eta bigundurik izan behar badu ere, bere gosean zer janik ez izatearen beldurak mendean harturiko gizadi batean? Gizakia ez da altxatuko lurraren gainetik makineria ahaltsu batek bermagunea ematen ez badio. Gogor bermatu beharko luke materiaren gainean hartatik bereizi ahal izateko. Beste termino batzuetan, mistikak kuantikara dei egiten du, eta hori ez da behar beste azpimarratu, zeren mekanikak, orientazioaren akzidente batez, bide batera jo baitu, zeinaren bukaeran baitzeuden ongizate bapikatua eta batzuentzako luxua, denentzako askapenaren orde. Akzidentezko emaitzaren zirrarapean, ez dugu makinismoa izan beharko lukeenean ikusten, bere esentzia eratzen duen horretan. Goazen urrunerago. Gure organoak tresna naturalak badira, gure tresnak, arrazoi beraz, organo artifizialak dira. Langilearen lanabesa bere besoaren luzapen bat da; gizadiaren abesen eta tresnen multzoa, beraz, gorputzaren luzapen bat da. Naturak, adimen esentzialki fabrikatzailez hornitzean, halako hazkuntza bat prestatu zuen gu guztiontzat. Baina petrolioz, ikatzez, «harrikatz zuriz» funtzionatzen duten makinak, eta zeinek higidura bihurtzen baitituzte milioika urtetan metaturiko energia

potentzialak, gure organismoari hedadura hain zabala eta ahalmen hain izugarria, hain desproporzionatua bere dimentsioa eta indarrarekin ematera etorri dira, non seguraski ez baitzen aurreikusia izan gure espeziearen egituraren planean; zorte bakarra da, gizakiak planetan izan duen arrakastarik handiena. Agian hasiera batean inpultsio espiritual bat gertatu zen: hedapena automatikoki gertatu zen, lurpean altxor mirarizkoa²⁷ aurkitu zuen pikatxoikada akzidentalaren indarrez. Alabaina neurritz kanpo garatutako gorputz horretan, arimak lehengo izatean darrai, txikiegi orain hura betetzeko, ahulegi hura gidatzeko. Hortik bataren eta bestearen arteko hutsarte. Hortik hainbesteko arazo sozial, politiko, nazioartekoak, zeinak hutsarte horren beste hainbeste definizio baitira, eta zeinek, hori betetzeko, hainbeste ahal-egin desordenatu eta eraginkortasun gabe sorrarazten baitituzte: energia potentzialeko erreserba berriak beharko lirateke, baina oraingoan, moralekoak. Horrela, bada, ez gaitezen muga mistikak mekanikari dei egiten diola esatera. Gehi dezagun gorputz hazia arima-gehigarri baten zain dagoela, eta mekanikak mistika bat eskatuko lukeela. Mekanika horren jatorriak agian uste litekeena baino mistikoagoak dira; ez du bere egiazko noranzkoa aurkituko, eta ez ditu bere ahalmenaren proportziozko zerbitzuak emango ere, baldin eta gizadia, zeina berak lurrerantz gehiago makurrarazi baitu, haren bidez, zuzendu eta zeruari begiratzera iristen ez bada.

Miresmen mugagabea eragiten duen indar eta sakontasuneko obra batean, Ernest Seillière J.-k erakusten du nola handinahi nazionalak eginkizun jainkozkoei egozten zaizkien: «inperialismoa» eskuarki «mistizismo» bihurtzen da. Hitz horri Ernest Seillière J.-ren²⁸ obran daukan zentzua ematen badiogu, zeina baita obra-sail batek aski definitu duena bere baitan, gertakaria ukaezina da; hori egiaztatzean, bere kausekin erlazionatzean eta beren efektuetan jarraitzean, egileak ekarpen estimagaitza egiten dio historiaren filosofiari. Baina seguraski berak ere onartuko luke horrela ulerturiko mistizismoa, eta «inperialismoa» ere horrela ulertua, berak aurkezten duenez, egiazko mistizismoaren, geure azken kapituluan aztertu dugun «erlijio dinamikoaren» faltsutzea besterik ez dela. Uste dugu aurkitu dugula faltsutze horren mekanismoa. Antzinakoen «erlijio estatiko»tik mailegaturiko ideia bat izan zen, bere marka kenduz eta bere era estatikoan utziz, nahiz eta erlijio dinamikoak ematen zion etiketa berria-

rekin izan. Faltsutzeak ez zeukan, noski, inolako asmo delituzkorik eta ozta-ozta zen nahitakoa. Izan ere, gogora dezagun «erlijio estatikoa» gizakiari naturala zaiola eta giza natura ez dela aldatzen. Gure arbasoen sineste jaiotzatikoez iraun egiten dute gure barrunbe sakonenean, eta berragertu egiten dira indar antagonikoez inhibitua izateari uzten dioten bezain laster. Alabaina, antzinako erlijioen zertzelada esentzialetako bat giza taldekatzeen eta haietako bakoitzarekin loturiko dibinitateen arteko batasuna zen. Hiriko jainkoek haren alde eta harekin gudukatzen zuten. Sineste hori bateraezina da egiazko mistizismoarekin, hau da, arima batzuek gizaki guztiak berdinez maitatzen dituen eta elkar maita dezatela eskatzen dien Jainko baten tresna direlakoaren sentimenduekin. Baina arimaren sakonera ilunetatik kontzientziaren gainaldera igotzean, eta han egiazko mistizismoaren imajina aurkitzean, mistiko modernoek munduari aurkeztu diotenez, instantuz sineste hori hartaz mozorrotzen da; mistiko modernoaren Jainkoari antzinako jainkoen nazionalismoa egozten dio, eta zentzu horretan nazionalismoa mistizismo bihurtzen da. Baina, egiazko mistizismoari bagagozkio, bateraezintzat joko da inperialismoarekin. Gehienez ere, esango da, arestian egin dugunez, mistizismoa ezingo litzatekeela hedatu «botere-nahimen» oso berezi bat animatu gabe. Ez hainbeste gizakien gain, baizik gauzen gain areago eragiteko aginpi-dea izango da, hain zuzen ere aurrerantzean gizakiak gizakiaren gain hainbestekorik izan ez dezan.

Genio mistiko bat sortzen bada, bere atzetik gizadi bat arrastatuko du, zeinaren gorputza neurgabeki hazi baita, eta zeinaren arima hark antzaldatu egin baitu. Hartaz espezie berri bat egin nahiko du edo, hobeki, espezie bat izatearen beharrianetik askatu: espezie dioenak egonkortze kolektibo dio, eta existentzia osoa higikortasuna da banakotasunean. Gure planetaren gainetik igaro zen bizi-hats handiak natura aldi berean esaneko eta errebelde batek baimendu zion bezain urruneraino bultzatu zuen antolakuntza. Jakina da azken hitz horrekin biziak materia gordinean aurkitzen dituen konplazentziak eta erresistentziak izendatzen ditugula; multzo hori, biologoen antzera, asmoak egozterik *balego bezala* tratatzen dugu. Adimen fabrikatzailea bere baitan inplikatzeko gorputz bat, intuizio-zerrenda bat bere inguruan duela, naturak egin ahal izan duen gauzarik perfektuena zen. Horrelakoa zen giza gorputza eta hor gelditzen zen biziaren bilakae-

ra. Baina horra adimenak, bere tresnen fabrikazioa, naturak (eraikuntza mekanikorako hain ezgaia denak) aurreikusia ez zeukan konplikazio- eta perfektzio-gradu batera jaso, makina horietan energia-erreserbak isuriz, zeinetan naturak (ekonomiaz hain ezjakina denak) pentsatu ere ez baitzuen egin, potentziaz hornitu gaitu, zeinen ondoan gure gorputzarenak ez baitu ia ezer balio; horiek mugagabeak izango dira zientzia gai izango denean materia haztagarriaren partikularik txikiak, kondentsaturik, errepresentatzen duen indarra askatzeko. Eragozpen materiala ia menderaturik dago. Bihar bidea libre egongo da bizira gidatu zuen hatsaren norabide berean gelditu behar izan zuen punturaino. Orduan heroiaren deia dator. Ez dugu denok jarraituko, baina denok sentituko dugu jarraitu egin beharko genukeela, eta bidea ezagutuko dugu, hartatik pasatzen bagara zabalduko duguna. Aldi berean, filosofia guztia erantzutzea betebeharraren misterioa argituko da: bidaia bat hasita zegoen, eten egin behar izan zen; bideari berriro ekinik, jadanik nahi zena oraindik ere nahi izatea besterik ez da egiten. Gelditzeak eskatzen du beti azalpena, eta ez higidurak.

Baina ez gaitezen hain ziur egon arima pribilegiatu baten agerpenaz. Horrelakorik ez izatean, beste eragin batzuek desbidera lezaketek gure arreta dibertitzen gaituzten huskeria eta lilurakerietatik, zeinen inguruan ahalegintzen baikara.

Izan ere, ikusi dugu asmakuntzarako talentuak, zientziaren laguntzarekin, gizakiaren eskura energia susmagabeak nola jarri dituen. Energia fisiko-kimikoak ziren eta materia objektutzat zeukan zientzia batenak. Baina, espiritua? Zientifikoki sakondu al da behar adina? Ba al dakigu, agian, sakontze horrek bere baitatik zer eman lezakeen? Zientzia, hasteko, materiari aplikatu zaio; hiru mendez ez du beste objekturik izan; gaur egun ere, hitzari beste kalifikatiborik gehitzen ez zaionean, materiaren zientziaz hitz egiten dela gainulertzen da. Beste abagune batean eman ditugu horren arrazoiak, zergatik materiaren azterketa zientifikoa espirituarenaren aurretik etorri zen azalduz. Premiazkoena zenaz arduratu beharra zegoen. Geometria jadanik aski garatu zuten antzinakoek, eta bizi garen munduaren azalpenerako egin zezakeen ekarpena matematikatik ateratzen hasi behar zen. Hori bai, ez zen desiratzekoa espirituaren zientziatik hasia, zeren hori, berez, ez baitzatekeen helduko geometriatik fisika, kimika eta biologiara hedatu diren zehaztasun, zorrotasun eta probarekiko ardu-

rara, eta denbora aurrera joan ahala, haren gainera errebotatuko zutenera. Bestalde, hala ere, hainbeste atzeratu izanaren ondorioak jasan ditu. Izan ere, bitartean, giza adimenak legitimatu egin ahal izan du zientziaren bidez eta horrela autoritate eztabaidea ezinez inbestitu, dena espazioan ikusteko eta dena materiaren bidez azaltzeko bere aztura. Aplikatzen al zaio zientzia arimaren azterketari? Orduan barne-bizitzaren errepresentazio espaziala eraikitzen du, bere objektu berrira antzinakoaz kontserbatzen duen imajina hedatuz, zeinatik baitatoz psikologia atomistiko baten akatsak, zeinak ez baitu kontuan hartzen kontzientziako egoeren elkarrekiko barrentzea; hortik datoz espiritura iritsi nahi duen filosofiaren ahalegin alferrak, iraupenean hori bilatu gabe. Arima eta gorputzaren arteko erlazioa al da oraingo kontua? Nahastea oraindik larriagoa da. Metafisika zantzu faltsu baten gainean jarri ez ezik, gertakari batzuen behaketatik zientzia desbideratu ere egin du, edo areago zientzia jakin batzuk jaiotzea eragotzi du, auskalo zer dogmaren izenean aldeztu aurretik eskomikaturik. Izan ere, suposatutzat eman da jarduera mentalaren konkomitantzia materiala zela bere baliokidea: errealtate orok oinarri espaziala daukala kontsideratzean, gizakiaz gaindiko fisiologoak dagokion garunean irakurriko lukeenaz aparteko ezer ez da aurkitu behar espirituan. Azpimarra dezagun tesi hori hipotesi metafisiko hutsa dela, gertakarien interpretazio hautazko bat. Baina kontrajartzen zaion metafisika espiritualista hori bezain hautazkoa da, eta horren arabera arima-egoera bakoitzak tresnatzat soilik erabiliko lukeen egoera zerebral batez baliatuko litzateke; berarentzat, jarduera mentala ere hedadurakidea izango litzateke garun-jarduerarekiko eta berari legokioke puntuz puntu presenteko bizitzan. Jakina, bigarren teoriak lehenaren eragina du, zeinarekiko lilura izan baitu beti. Bi aldeetatik onartzen diren ideia aurrekontzebituak baztertuz eta ahalik eta gehien gertakarietara doitzuz, gorputzaren eginkizuna zeharo bestelakoa dela finkatzen saiatu gara. Espirituaren jarduerak badu, zalantzarik gabe, konkomitante materiala, baina horren parte bat bakarrik marrazten du, gainerakoak inkontzientean dirauen bitartean. Gorputza, zalantzarik gabe, jarduteko bitarteko da guretzat, baina hautemateko eragozpen ere bai. Bere eginkizuna datza aurkezten zaion abagune bakoitzean egintza baliagarri bat burutzean; horrexegatik, hain zuzen ere, ezabatu egin behar du kontzientziatik, presenteko egoera argituko ez luketen oroitzapenez gainera, objektuak hautematea, zeinen gainean ezin baitezakegu inolako eraginik izan²⁹. Gorputza ira-

gazki edo pantaila bat da, nahi den bezala. Egoera birtualean mantentzen du, aktualizatzean, egintza traba lezakeen guztia. Gure aurrean ikusten laguntzen digu, egin behar dugunaren interesean; aldiz, atsegin hutsez eskuinera eta ezkerrera begiratzea eragozten digu. Bizitza psikologiko erreale baten uztia biltzen du guretzat ametsaren soro neurgabea. Labur esanik, gure garuna ez da gure errepresentazioaren sortzailea, ez kontserbatzailea; mugatu besterik ez du egiten aktibo bihurtzeko. *Biziarekiko arretaren* organoa da. Baina horretatik jarraitzen da beharrezkoa dela, bai gorputzean edo bai berak mugaturiko kontzientzian, dispositibo bereziak izatea, zeinaren funtzioa giza hautematek aldenaraztea baita naturak gizakiaren egintzatik kendutako objektuak. Mekanismo horiek hondatzen badira, itxita zeukaten atea erdi-ireki egiten da eta orduan «kanpotiko» baten zerbait sartzen da, agian «haratago» bat dena. Hautemate anormal horietaz arduratzen da «zientzia psikikoa», eta azalgarria da neurri batean erresistentziak aurkitzea. Giza testigantzan hartzen du bere bermagunea, beti auzitan jarritako horretan. Guretzat jakintsu-eredua fisikaria da: bistakoa denez, behin eta berriz iruzur egiten aritzen ez den materiarekiko konfiantza legitimozko bere jarrera, zientzia ororen karakteristiko bihurtu zaigu. Oraindik lana kostatzen zaigu nonahi mistifikazioa auresentitzeko gai diren ikertzaileak eskatzen dituen ikerketa zientifikotzat tratatzea. Bere mesfidantza gaitzi zaigu, eta bere konfiantza oraindik gehiago: badakigu erraztasun handiarekin galtzen dela defentsiban egoteko aztura; jakin-minetik sineskortasunerako aldapa oso labaina da. Berriz diogu horrela azaltzen direla higuin halako batzuk. Baina ez litzateke ulertuko egiazko zientzialariek «ikerketa psikikoaren» aurrean planteatzen duten ezezko biribila, batez ere, aipaturiko gertakariak «egiantzik gabeko»tzat kontsideratzen dituztelako ez bada; «ezinezkotzat» esango luketeez balekitez dagoela ezein bitarteko kontzebigarri gertakari baten ezinezkotasuna finkatzeko; barrenean, ordea, ezinezkotasun horretaz konbentziturik daude. Eta horretaz konbentziturik daude eztaba daiezintzat eta behin betiko probatutzat kontsideratzen dutelako erlazio halako bat organismoaren eta kontzientziaren artean, gorputzaren eta espirituaren artean. Ikusi berria dugu erlazio hori hipotetiko hutsa dela, ez dagoela zientziak demostraturik, metafisikak eskaturik baizik. Gertakariak hipotesi nabarmen desberdina iradokitzen dute, eta, behin onarturik, «zientzia psikikoak» seinalaturiko fenomenoak (edo, gutxienez, horietako batzuk) halako punturaino bihurtzen dira

egiantzik gabeak, non harritu egingo ginatekeen horien azterketari ekiten zaiola ikusteko itxaron behar izan den denboraz. Ez gara itzuliko orain beste leku batean eztabaidatu dugun puntu batera. Muga gaitzen esatera, hobekien finkaturik dagoela iruditzen zaigunaz bakarrik hitz egitearren, baldin eta zalantzan jartzen bada, adibidez, «agerpen telepatikoen» errealtatea, horiei buruzko milaka testigantza konkordatzaile jaso ondoren, agian giza testigantza bera orokorrean aitortu beharko ote da ez-existentztzat zientziaren begietan? Zer izango da historia? Egia da zientzia psikikoak aurkezten dizkigun emaitzen artean hautespena egin beharko dela; bera ere aski urrun dago denak maila berean jartzetik. Ziurra dirudiena eta gertakorra soilik denaren artean edo, gehienez, posiblea denaren artean bereizkuntza egiten du. Baina zientzia psikikoak ziurtzat aurreratzen duenaren parte bat bakarrik onartzen bada ere, behar beste geratuko zaigu *terra incognitaren* neurgabetasuna susma dezagun, zeinaren arakaketa hasi baizik ez baita egin. Demagun mundu ezezagun horretatik txinta bat iristen zaigula, gorputzeko begientzat ikuskorra dena. Zer eraldakuntza ikusi eta ukitu ahal duena besterik existentetzat ez onartzera, eskuarki ohitua dagoen gizadiarentzat, zer nahi esaten duela ere! Horrela helduko litzaigukeen informazioak arimetan beheren dagoenaren, espiritualitatearen azken graduaren aipamena bakarrik egingo luke. Baina ez litzateke beharko gehiago errealtate bizi eta aktibo bihurtzeko gizaki gehienengan itxuraz aurkitzen den haratagoan sineste hori, baina gehienetan berbal, abstraktu eta eraginkortasunik gabea dena. Zer neurritaraino kontatzen duen jakiteko, aski da gizakia plazerera nola amil-tzen den ikustea: ez luke puntu horretaraino prezatuko, ez balu plazer-ean ezerezen gainean hainbesteko eragina ikusiko, heriotzari iseka egiteko bitartekoa. Izatez, ziur egongo bagina, erabat ziur, bizirik iraungo dugula, jadanik ezingo genuke beste ezertan pentsatu. Plazerek iraungo lukete, baina distirarik gabe eta marguldurik, zeren horien intentsitatea berorietan jartzen genuen arretan baitzegoen. Gure lanparetako argia goizeko eguzkitan bezala zurbilduko lirateke. Pozak eklipsatuko luke plazera.

Poza izango litzateke, izan ere, bizitzaren sinpletasuna, zeinak hedatuko bailuke munduan bertan barreiatutako intuizio mistiko bat; poza, halaber, haratagoaren ikuspen bati automatikoki jarraituko litzaiokeena esperientzia zientifiko zabaldu batean. Eraberrikuntza

moral hain oso batean, espedienteetara jotzea beharrezkoa izango litzateke, gero eta «erregelamentazio» inbaditzaileagoaren mendea jartzea, naturak gure zibilizazioaren aurka eraikitzen dituen eragozpe-nei banan-banan atzetik iskintxo egitea. Baina, bitarteko handien zein txikien aukera egiten dugula ere, erabakia hartzearen beharrezana nagusitzen zaigu. Gizadia intzirika ari da, bere progresu propioen pisuaren azpian erdi-zanpaturik. Ez du bere etorkizuna hartatik esekita dagoenaren behar besteko kontzientziarik. Berari dagokio, lehenik, bizitzen jarraitu nahi duen ikustea. Berari galdetzea, gero, bizi bakarrrik egin nahi al duen, edo, aitzitik, beharrezko ahalegina egin, gure planeta errefraktarioan ere unibertsoaren, jainkoak egiteko makina bat den horren funtzio esentziala bete dadin.

Oharrak

I KAPITULUA

¹ Kipling, *In the Rukh, Many inventions* izenburua duen bilduman.

² Alferrik da esatea salbuespen ugari daudela. Sugar erlijiosoak, adibidez, sakonera susmaezinak lor ditzake emakumearengan. Baina naturak seguraski nahi izan du, orokorrean, emakumea haurraren kontzentratzea eta muga aski meharretan bere sentiberatasunaren hoberena ixtea. Alor horretan, bestalde, paregabea da; emozioa hemen supraintektuala da eta aztiapen bihurtzeko moduetako bat. Zer gauzak sortzen diren bere haurtxoari begira dagoen amaren begi miretsien aurrean! Ilusioa, agian? Ez da ziurra. Esan dezagun areago errealitatea aukeraz ernaldurik dagoela, eta amak ikusten duela haurraren ez bakarrik izango dena, baizik baita izango litekeen guztia ere hautatu beharrik ez balu, eta ondorioz eskuditutako beharrik, bere bizitzako aldiune bakoitzean.

II KAPITULUA

¹ *Année sociologique*, vol. II, 29 orrialdea eta hh.

² Esan beharrik ez dago higigaitasuna ez dela *absolutua*, *esentziala* baizik. Printzipioz existitzen da, baina

izatez onartzen ditu gaiari buruzko bariazioak, behin finkatu eta gero.

³ Ikusi *L'Évolution créatrice*, batez ere lehen bi kapituluak.

⁴ Esan beharrik ez dago imajina haluzinagarria bada, primitiboarentzat hartzen duen formapean bakarrik dela. Gainbizitzaren auzi orokorraz aurreko lanetan eman ditugu argibideak; horietara itzuliko gara honako honetan. Ikusi III kap., 279 or eta hh., eta IV kap., 337-338 orr.

⁵ *La mentalité primitive*, Paris, 1922, 17-18 orr.

⁶ *Ibid.*, 24 or.

⁷ Ikusi bereziki *La mentalité primitive*, 28, 36, 45 etab. orr. Cf *Les fonctions mentales dans les sociétés inférieures*, 73 or.

⁸ 1898an Collège de Francen emandako ikastaro batean garatu dugu zoriaren kontzepzio hori, Afrodisiadako Alexanderren $\mu - \mu'$ dela-eta.

⁹ *La mentalité primitive*, 38 or.

¹⁰ William James, *Memories and Studies*, 209-214 or. H. M. Kallenekek aipatua in *Why religion*, New York, 1927.

¹¹ «Animus and intent were never more present in any human action».

¹² Ikusi gai honetaz, Westermack, *History of human marriage*, London, 1901, 290 orr. eta hh.

¹³ Klana animalia totemetik datorre-lako ideia – ideia hori azpimarratzen du M. Van Gennep-ek *L'Etat actuel du problème totémique* (Paris, 1920)–oso ongi txertatu ahal izan bide da guk adierazten dugun errepresentazioaren gainean.

III KAPITULUA

(Enn. III, vii. 4).

2 Ondotxo dakigu aintzinaroan izan zirela beste mistizismo batzuk neoplatonismoaz eta budismoaz landa. Baina, eskuartean dugun gairako, aski dugu urrunenera iritsi zirenak kontsideratzea.

3 Henri Delacroix jaunak arreta erakarri du mistiko kristau handiengan dagoen elementu esentzialki jardunkorraz, klasikoa izatea mereziko lukeen liburu batean (*Études d'histoire et de psychologie du mysticisme*, Paris, 1908). Irakurleak antzeko ideiak aurkituko ditu Evelyn Underhill-en obra garrantzitsuetan (*Mysticism*, Londres, 1911, eta *The Mystic Way*, Londres, 1913). Azken egile horrek bere ikuspuntuetako batzuk guk Bilakaera sortzailea obran azaldutakoekin erlazionatzen ditu, eta zeinei berrekin baitiegu honako kapitulu honetan luzatzen. Ikusi bereziki aspektu honi buruz, *The Mystic Way*. (H.B.)

⁴ Janet Pierre, *De l'angoisse à l'extase*. (H.B.)

⁵ Cf. San Paulo, Korintiarrei (I), III, 9.(i.o.)

⁶ M. de Montmorand, *Psychologie des mystiques catholiques orthodoxes*. Paris, 1920. 17 or. (H.B.)

⁷ *Matière et Mémoire*, Paris, 1896.
Ikusi lehen kapitulu osoa.

IV KAPITULUA

1 «Gutxi gorabehera» diogu, zeren kontuan izan behar baitira izaki bizi-
dunak egiten dituen bariazioak, neurri
batean, gurasok ematen dioten gaia-
ren gainean. Baina bariazio horiek,
akzidentalak izatean eta edozein zen-
tztutan gertatzean, ezin dira denboran
batuz joan espeziea modifikatzeko.
Lortutako karaktereen transmitigarri-
tasunaren tesiaz, eta tesi horren gaine-
an oinarritu nahiko litzatekeen ebu-
luzionismoaz, ikusi *Bilakaera sortzai-
lea*, (1^o kap.).

Gehi dezagun, jadanik azpimarratu dugunez, giza espezieak egin duen bat-bateko jauzia espazio eta denborako puntu batean baino gehiagotan entseatua ahal izan dela arrakasta osatugabe batekin, izen honekin dei daitezkeen «gizakiengan» bukatuz nahi bada, baina derrigor gure arbasoak ez direnengan.

² Ikusi Gina Lombrosoren obra intergarria, *La Ranzon du machinisme*, Paris, 1930.

3 Lehenbailehen esan dezagun ez dugula horri buruzko teoria berezirik. Haragiaren adibidea hartzen dugu ohiko beste edozein jakirena hartu genezakeen modura.

⁴ Berriz ere irakurlea Gina Lombroso-ren liburu ederrera igortzen dugu. Cf. Mantoux, *La Révolution industrielle au dix-huitième siècle*.

⁵ Badira zalantzarik gabe «gaine-koizpen»-krisiak nekazaritza-ekoizki-

netara hedatzen direnak eta berorieta-
tik hasi ere egin litekezkeenak. Baina
bistan da hori ez dela gizadiarentzat
behar baino jaki gehiago egotetik sor-
tua; ekoizpena oro har behar adina
antolaturik ez egotean, ekoizkinak
trukatzea lortzen ez delako da hori
besterik gabe.

⁶ Esan beharrik ez dago zentzu figu-
ratuan ari garela. Ikatza lurrin-maki-
nak altxor bihurtu baino askozaz
lehenago ezagutzen zen.

⁷ Zentzu hori, bestalde, parte batean
bakarrik kontsideratzen dugu hemen,
«inperialismo» hitzarekin egiten
dugun bezalaxe.

⁸ Lehenago erakutsi dugu nola ikus-
menarena bezalako zentzumen bat
urrunago eramaten duen, zeren bere
tresnak hedatze hori ezinbesteko
bihurtzen baitu. (Ikusi 179 or. Cf.
Matière et mémoire, lehen kapitulu
osoa.)

Aurkibidea

HITZAURREA.....	7
OHARRAK.....	21
BIBLIOGRAFIA	25
I. KAPITULUA	27

BETEBEHAR MORALA

Natura eta gizartea. Norbanakoa sozietatean. Sozietatea norbanakoarengan. Berezko obedientzia. Erresistentziarekiko erresistentzia. Betebeharra eta bizia. Sozietate itxia. Heroiaren deia. Emozioaren indar bultzatzailea. Emozioa eta sorkuntza. Emozioa eta errepresentazioa. Arimaren askapena. Aurrera-martxa. Moral itxia eta moral irekia. Norberaganako errespetua. Justizia. Moraleko intelektualismoaz. Hezkuntza morala. Trebakuntza eta mistizitatea

II. KAPITULUA.....	101
--------------------	-----

ERLIJO ESTATIKOA

Absurdotasuna izaki arrazoidunarengan. Funtzio fabulatzailea. Fabulazioa eta bizia. «Bizi-bulkada»ren esanahia. Fabulazioaren zeregin soziala. Fabulazio baliagarriaren gai orokorrak. Desantolakuntzaren aurkako asegurantz. Zoriaz. «Mentalitate primitiboa» zibilizatuarengan. Jazoeraren pertsonifikazio zatikoa. Magiaz orokorrean. Magia eta zientzia. Magia eta erlijioa. Animaliekiko adeitasuna. Totemismoa. Jainkoekiko sinestea.

Fantasia mitologikoa. Funtzio fabulatzaila eta literatura. Jainkoen existentziaz. Erljio estatikoaren funtzio orokorra.

III. KAPITULUA 187

ERLIJIO DINAMIKOA

Erljio hitzaren bi zentzu. Zergatik erabiltzen den hitz bakarra. Mistizismo grekoa. Mistizismo orientala. Israelgo profetak. Mistizismo kristaua. Mistizismoa eta berrikuntza. Mistizismoaren balio filosofikoa. Jainkoaren existentziaz. Jainkoaren izaera. Sorkuntza eta maitasuna. Gaizkiaren arazo. Gainbizitza. Esperientziaz eta gertakortasunaz metafisikan

IV. KAPITULUA 233

AZKEN OHARRAK

MEKANIKA ETA MISTIKA

Sozietate itxia eta sozietate irekia. Naturala denaren iraumena. Sozietate naturalaren karaktereak. Sozietate naturala eta demokrazia. Sozietate naturala eta gerra. Aro industrial. Joeren bilakaera. Dikotomia-legea. Frenesi bikoitzaren legea. Bizimodu sinplerako itzulera ahalgarria. Mekanika eta mistika

OHARRAK 275

